

EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOAK

Donostiako Udako XIII. Ikastaroak.
1994ko Uztaila



Zuzendaria: Joseba Intxausti

Euskara Institutuak argitaraturiko bestelako lanak

Eskolaren arkeologia

Fernando Alvarez-Uría eta Julia Varela

Hezkuntzaren etorkizuna.

2000 urteranz

UNESCO

Hezkuntzaren ikerkuntza

M^a Pilar Colás eta Leonor Buendía

Hezkuntzaren teoria eta praktika

Joseph D. Novak

Hizkuntza eta talde-nortasuna

Joxe Azurmendi

Hitzkuntzen aldeko mugimendu

sozialak

Joseba Intxausti

Kurrikularen diseinu eta garapena

Miguel A. Zabalza

Información y pedidos/Informazioa eta eskariak:

Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Apartado 1397 P.K. 48080 - BILBAO

Tf. (94)4647700 / Ext./Luz. 2148

Fax/faxa (94) 4801314

Internet:http://www.lg.ehu.es/servicios/se_az

SOLICITE NUESTRO CATALOGO

ESKATU GURE KATALOGOA

**Euskararen aldeko
motibazioak**

EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOAK

Donostiako Udako XIII. Ikastaroak. 1994ko Uztaila

Zuzendaria:
Joseba Intxausti

eman ta zabal zazu




Universidad
del País Vasco
servicio editorial

Euskal Herriko
Unibertsitatea
argitalpen zerbitzua

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiazea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Ninguna parte de esta publicación, incluido el diseño de la cubierta, puede ser reproducida, almacenada o transmitida en manera alguna ni por ningún medio, ya sea eléctrico, químico, mecánico, óptico, de grabación o de fotocopiado, sin permiso previo y por escrito de la entidad editora, sus autores o representantes legales.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Lanaren egilea eta jatorrizko izenburua:

- © *Euskararen aldeko motibazioak*
Joseba Intxausti
- © 1998, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-076-6
Lege gordailua: BI-2.277-98

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Aurkibidea

Euskararen aldeko motibazioez, Joseba Intxausti	11
Euskararen ikaste-erabiltzearen motibazioaren errola, <i>José F. Valencia Gárate, Leire López eta Lorena Gil de Montes</i>	15
1. Motibazio teoria oinarritu behar da homeostasi-kontzeptutik kanpo . . .	17
2. Motibazio teoriak Hedonismoa baino zerbait gehiago hartu behar du bere barnean	18
3. Motibazio teoriak prozesu kongitibo sail handia hartu behar du bere barnean.	20
4. Motibazio Teoriak kontutan hartu behar du esperientzia kontzientea. . .	21
5. Motibazio teoriak Norberea hartu behar du bere barnean.	21
6. Motibazio teoriak bere barnean hartu behar du emozio sail zabala.	22
7. Motibazio Teoria ez da izan behar ez oso orokorra ez oso zehatza.	23
8. Motibazio teoria eraikia izan behar da erlazio enpiriko fidagarritan (errepikakorretan)	23
9. Motibazio teoria oinarritu behar da lege orokorretan gizabanako arteko desberdintasunetan baino	24
10. Motibazio Teoriak bere barnean hartu behar du kausa-erlazio sekuentzialak (historikoa)	25
11. Motibazio teoria batek azal dezake ekintza razionalak eta irrazionalak, kontzeptu bera ekintzamota biontzako erabilirik	26
12. Motibazio teoriak azaldu behar ditu lorpeneko saioak eta xede afiliatiiboak ere bai	27
Bibliografia	28
Erabaki-hartzea eta euskararen ikaste-erabiltzearen motibazioaren errola, <i>José F. Valencia Gárate, Leire López eta Lorena Gil de Montes</i>	29
I. Fishbein eta Ajzen: Ekintza Arrazoituaren Teoria	32
1. Aintzindariak: Igurikapen <i>bider</i> Balio eta Itxarondako Utilitate Subjektiboaren Teoriak	32

2. Ekintza Arrazoituaren teoria	32
2.1. Jarrera	34
2.2. Arau Subjektiboa	37
2.3. Portaera eta Portaera-Intentzioa	38
II. Ekintza Arrazoituaren Ereduaren Aldakia: Ekintza Planifikatuaren Teoria . .	39
2.1. Ekintza Arrazoituaren Ereduari Kritikak	40
Bibliografia	42
Hizkuntz jabekuntzarako eredu psikosozialak. Motibazioaren errola, <i>Nekane Arratibel</i>	45
I. Atala	45
1. Motibazioaren definizioa	45
2. Gardner eta Lambert-en teoria	46
2.1. Orientazio motibazional integratzailea	46
2.2. Orientazio motibazional instrumentala	46
2.3. Orientazio motibazional komunikatiboa	46
3. Clément eta Kruidener-ek proposaturiko aldatetako	47
3.1. Definizioaren inguruko nahasteak	47
3.2. Gizabanakoaren inguruneak duen eragina	47
3.3. Aurkitutako orientazio motibazional motak	49
3.3.1. Instrumentala	49
3.3.2. Bidaiatzea	49
3.3.3. Adiskidetasuna	49
3.3.4. Norberarekiko eta beste taldearekiko ezagutza	49
4. Euskal Herriari dagokionez	49
4.1. Ikerketa lagina	49
4.2. Erabilitako tresna (Clément eta Kruidener-en galdesortaren ego- kitzapena)	50
4.3. Agertzen diren motibazio motak	51
4.4. Motibazioa eta jabekuntza nola lotzen diren	52
4.5. Ondorioak eta gure inguruneko ezaugarri bereziak	52
II. Atala	54
1. Giles, Bourhis eta Taylor-en bizitasun etnolinguistikoaren teoria (VEL). Eragiten duten faktore sozioestukturalak	54
1.1. Demografia	56
1.2. Estatusa	56
1.3. Kontrol instituzionala	57
2. Giles, Bourhis eta Rosenthal-en bizitasun etnolinguistiko erlatibo- subjektiboaren teoria (VERS)	58
3. Allard eta Landryk bizitasun etnolinguistikoaren teoriari eginiko bir- definizioa. Espektatibak eta usteak	59

4. Euskal Herriari dagokionez. Gure kontestuan bi hizkuntzekiko (euskara/gaztelania) agertzen den bizitasun etnolinguistikoa. Motibazioa eta bizitasun etnolinguistikoaren arteko lotura.	60
Euskararekiko motibazio sinbolikoak, Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba eta Nekane Jausoro Santa Cruz	69
1. Hizkuntza eta gizartea.	69
1.1. Hizkuntzaren funtzioak.	72
1.2. Motibazio motak eta hizkuntza motak: ikaste/erabiltzearen motibazioak.	77
2. Hizkuntza motibazio sinbolikoen sustrai soziologikoak.	80
2.1. Unibertso sinbolikoak, balioak eta motibazioak.	81
2.1.1. Hizkuntza motibazioak eta unibertso sinbolikorik aipagarrienak.	83
2.1.2. Gemeinschaft edo «komunitate hurbila» eta hizkuntza motibazioak.	85
2.1.3. Nortasun estrategiak eta komunitate motak.	92
2.2. Motibazio sinbolikoen bestelako mota bat: Arrakasta eredu eta modernitatea.	97
3. Euskararen egoera soziolinguistikoaren diagnosia azaldutako hurbilpen teorikoen arabera.	100
3.1. Begirada bat iraganera: Euskararekiko motibazioak historiako zenbait momentutan.	100
3.1.1. XIX. mendea baino lehenagoko euskararen izate sozialaren gainbegirada batzuk.	100
3.1.2. Euskararen izate soziala XIX. mendetik gaur arte.	104
3.2. Oraingoari buruzko azterketa.	109
3.2.1. Gaur egungo bost gune soziolinguistikoak.	109
3.2.2. Gaur egungo «hizkuntza eredu» Euskal Herrian.	118
4. Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak. Motibazioak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean.	119
4.1. Txepetxek hizkuntza motibazioei buruzko laburpena eta iradokizunak.	119
4.2. Adibide bat: Gazte euskaldunen euskararen erabileraren haustura ardatza.	127
5. Ondorioak eta hausnarketak.	129
Motibazio instrumentala: Azalpen teorikoa, Andoni Sagarna	137
1. Aurkezpenaren mugak.	137
2. Aztergaiaren mugak.	138

3.	Motibazio instrumental indibidual eta kolektiboaren aldeko faktoreak ..	139
3.1.	Identitate kulturala herrialde baten abantaila konpetitiboa izatea, gizarte zabalaren motibazio instrumentalaren aldeko faktore da ..	140
3.2.	Euskal gizartean euskarak maila sinbolikoan duen estimua enpresamailan kontuan hartzeak motibazio instrumentala eragin dezake ...	141
3.3.	Enpresentzat euskara erabiltzea balio erantsia da. Horrek motibazio instrumentalaren alde jotzen du.....	142
4.	Motibazio instrumentala, pertzeptzioa eta arrakastaren metakortasuna ..	143
5.	Laburpena.....	143
1991ko soziolinguistikazko inkestaren emaitzak. Enpresetan egindago proiektuak, Mariaje Jauregi eta Tere Barrenetxea		
I.	Atala: 1991ko soziolinguistikazko inkestaren emaitzak.....	145
I.0.	Sarrera.....	145
I.1.	Euskara ikasi	148
I.2.	Euskara ikasteko arrazoiak	151
I.3.	Euskara ez ikasteko arrazoiak.....	153
I.4.	Enpresetako datu batzuk	155
I.5.	Euskararen erabilerari buruzko datuak	156
I.6.	Ondorioak.....	163
II.	Atala: Enpresetan egindako proiektuak.....	164
II.1.	Euskararen normalizaziorantz lan-munduan egindako ibilbidea ..	164
II.2.	Euskararen erabilera areagotzeko enpresetako mikroplangintzak ..	165
II.3.	Enpresetan egindako inkestetako datuak.....	173
II.4.	Komunikazio-zirkuluak	178

EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOEZ

1994ko udan, eta Donostian Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako XIII. Ikastaroen artean (Europako VI. Ikastaroak zeritzenetan), *Euskara ikasi eta erabiltzeko motibazioak* gaiaz hiru egunetako jardunaldiak eratu ziren. Uztailaren 11, 12 eta 13etan Miramar Jauregian zenbait irakasleri eta jakituni entzun eta elkarren artean solasik izateko parada eman ziguten hitzaldi-bilerek. Orain hemen bildu dugun testua orduko mintzaldietakoa da.

Ikastaroa ez zen izan Euskal Herriko Unibertsitateak bere kabuz eta bakarrik antolaturiko zerbait. Aitzitik, kasu honetan, 1993an legez, Unibertsitatearekin batera Eusko Jaurlaritzako Hinkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak ere eskurik izan zuen, antolakuntzan eta baliabideak jaritzen, noski, eta gero, argitarapen hau prestatzen.

Aurreko urteko jardunaldietan, hizkuntzen aldeko mugimendu sozialei buruz solasean aritzeko Euskal Herriko eta atzerriko hizlariak deitu baldin bagenituen, oraingoan gaia eta irakasleak erabat bertokoak izan dira: euskara, eta ikertzaile euskal herritarrak, esan nahi da. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak ditugu batzuk, Administrazioan lanean ziharduenik bada, eta euskararen egoera normalkuntzara sakatzen ibili izan direnetako zenbait jarri dira, azkenik, motibazioen mundu hori aztertzen. Lankidetzazabal horrek aberastu baizik ez du egin guztien ekarpena.

1979-1993.etan herritar asko ibili da hizkuntzari egoera hobea sortarazi nahirik, eta Erakundeek —eta denok haien bidez— lege, arau, plangintza, indar eta diru anitz jarri dute asmo berarekin. Hiritarren pentsamoldeak alhalbideratu du hizkuntz aldakuntzarako ahalegin erraldoi hori: haien borondaterik gabe eta nahi horretarako bakoitzak zituen arrazoirik izan ez balitz, ezina izango zen iritsi garen helpunturaino iristea.

Baina horrek guztiak nekeak ere ekarri ditu: harago iritsi nahi genuen, eta ez gara heldu; epe laburrago batean nahi genuen egin, eta ez da posible gertatu. Askok eta askoren ahalegin pertsonalek pott egin dute, sarritan zer-

gatik ez dakigula. Euskalgintzak bere krisi-une eta aldarte txarrak izan ditu. Beharbada, ez-askiak zirelako, edo desbideratuak, aurrean izan edo jarri ditugun motibazio sustatzaileak.

Edo alde positiboagotik begiratu nahi bada: motibazio onak ere hobetu egin litezke, etekin emankorrakoak izan ditzagun. Euskalgintzaren hobekuntza ez dago inbertsio ekonomiko edo sozial handiagoen baitan bakarrik. Lanaren kalitatea hobetzeko, euskalgintza komentzimendu jatorragoz bultzatzeko, giza jarrera eta gizarte pentsamoldeak hobeki lantzea, pauso erabakiorra gerta liteke. Kanpainarik handienak edo marketing eskaintza erraldoienak, gaizki eginez gero, asmoen aurkako emaitza gaiztoak ere ekar ditzake.

Kezka eta ohar horiek balio esanahitsuagoa har dezakete, gainera, baliabide ekonomikoak eskasagoak omen ditugun honetan. Horrela, ba, 1994ko Ikastaroan euskara ikasi eta erabiltzeko jarrerak eta burubideak akuila zitzaketen motibazioak aztertzeari heldu zitzaion.

Jose Valencia eta Nekane Arratibel EHUko Irakasleek bete zuten lehen eguneko goiz osoa. Psikologiatik egindako azterketa da berau, batez ere gaiari bere lekumendu teorikoa bilatuz. Zientzia psikologikoaren historian motibazioak izan dituen definizio eta balioztapenak aurkezten zaizkigu J. Valencia irakaslearenean, eta hori gurera hurbilaraziz, Euskal Herrian 1991-1993.etan egindako zundaketa baten emaitzak aurkezten dizkigu N. Arratibel irakasleak. Euskal Herriko gure gizarte-bizitza praktikoan euskara ikasteko aitortu izan diren motibazioak ikus ditzakegu ikerlan horretan.

Bigarren goiza Iñaki Martínez de Luna eta Nekane Jausoro-ren esku utzi zen, eta *Motibazio sinbolikoa euskararen kasuan* izan zen lau ekinalditan azaldu zigutena. Soziologiatik ez-ezik Historiatik ere begiratu nahi izan diote gaiari, eta liburu honen kapitulu luze batean aurkituko du irakurleak.

Aurrekoaren osagarri eta inguruko motibazioen bilakaera ere ispilatuz, gure artean euskara ikasi eta erabiltzeko gero eta indarreanago ditugu motibazio instrumentalak arakatu ziren ikastaroko hirugarren goizean. Beste lau ekitalditan azaldutako hau, lehenik Andoni Sagarna-k bere alde teorikotik aurkeztu zuen, eta ondoren, beronek eta beste irakasleek (Mariaje Jauregi, Tere Barrenetxeak), berriz, bizi izandako esperientzietatik.

Hau da, ba, Ikastaroak eman zuena. Psikologiatik baino gehiago Soziolinguistikatik etorri izan zaizkigun motibazioekiko gure ezagumenduak mahain ganean jartzeko balio izan zuten jardunaldiok. Orain, idatzirik datorrenez, eskainitako lanen albiste zehatzagoa izateko modurik izango dugu liburu honekin. Eta hori baino garrantzizkoagoa: esandakoez hausnarketa pertsonalak egiteko aukera, entzundakoak osatu nahiz zuzentzeko aukera agian. *Scripta manent*, horrek dituen arrisku eta abantailekin.

Orain pare bat urtetik hona badirudi euskalgintza epe berri batean sarturik dela, eta ahalegin-modu berrietan euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioak ere izanberritu beharrean izango gara hizkuntzaren normal-kuntzarako ahaleginak azken helburuetaraino eraman nahi baldin baditugu behintzat. Beraz, 1994ko idazlan hauek ez datoz alferrik, ezta beranduegi ere.

Joseba Intxausti

Ikastaroko Zuzendaria

Donostia, 1996-11-29

EUSKARAREN IKASTE-ERABILTZEAREN MOTIBAZIOAREN ERROLA

José F. VALENCIA GARATE

Leire LOPEZ

Lorena GIL DE MONTES

Euskal Herriko Unibertsitatea

Giza-portaera ulertzeko ezagutza-modu desberdinak dira, helburu-, ekoizpen-, erabiltze-estrategia desberdinak suposatzen dutelarik. Hauen artean, agerikoenak ezagutza zientifikoa, majikoa, egunerokotasunekoa eta filosofikoa izango lirateke. Hizkuntza ikasi/erabiltzeko Motibazio teoria batek bere estatus zientifikoa frogatu beharko luke beste ezagutza-modutatik bereizten dela argitzeko. Askotan motibazioa erabili izan da mito edo uste herriko gisa, kontzeptu eta teoria zientifikoa baino eta hemendik eratorri dira arazo larriak. Aspaldikoa da Corder-en esaldia: «motibazioa emana, edozeinek ikas dezake hizkuntza bat». Hitzaldi honetan, motibazio teoriak askotan ahastu dituen 12 printzipioen deskribaketa egingo dugu, haren estatus zientifikoa berrezartzeko asmoz. Beraz, hitzaldi hau ez da ari izango zuzen-zuzenean hitzkuntz motibazioaz, motibazioaren ikasketak dituen akatsez baizik.

Motibazioaren ikasketak, beraz, psikologiaren alorrean iragan luzea du. Nolabaiteko motibazioaren inguruan ari izan diren teorioren sailkapena egiteko eta teoria hoiek erabiltzen dituzten azalpen-mekanismuak agertzeko ondoko taula eratu dugu:

Motibazio-Teoriak

Teoria	Mekanismo-azalgorra
1. Jatorrizko teoriak	
—Freud (1920)	Barne egitura psikikoa
—Hull (1945)	Drive
—Atkinson (1964)	Lorpen Beharra
—Rotter (1966) •	Kontrol Zentrua

Motibazio-Teoriak (Kont.)

Teoria	Mekanismo-azalorra
2. Fokapen orokorrak	
—McLelland et al (1953)	Lorpen Beharra
—Weiner (1980)	Kausa Egozpena
3. Hizkuntza-ikaste/erabiltzerako motibazio teoria zehatzak	
—Gardner & Lambert (1972)	Motibazio-Orientabideak
—Giles et al (1984)	Autoestima
—Tajfel & Turner (1979)	Autoestima

Bestalde, motibazioak zenbait iturri ditu, eta ez gizabanakoaren barnekoak bakarrik. Esate baterako Skehan-ek (1989) berriki ondoko motibazio-hipotesiak adierazi ditu, ikastearen barne- eta ondorio-ingurua alde batetik eta bestalde gizabanakoaren barne eta kanpo-inguruen arteko taula gurutzaketa eratu duelarik:

	Ikaste-inguru barne	Ikastearen Ondorioak
Gizabanakotik kanpo	Materialeak Irakaskuntza Hipotesi Intrinsekoa	Sariak Zailtasunak Egurra-Azenario Hip.
Gizabanako barne	Arrakasta Ondoriozko Hip.	Helburuak Barne-kausua Hip.

Egun, hizkuntz ikasketaren psikologiatik ikusirik, motibazioaren ikasketak zenbait arazo baditu, esate baterako hizkuntza ikasterakoan adimena eta desiragarritasun sozialaren elkarren arteko kutsapena (Oller 1982; Au 1987) edo motibazioa eta lorpenaren arteko zirkularitatea (Burstall 1988). Hala ere, eta arestian esan dugunez, ez gara hemen hoietaz ari izango, motibazio teoriaren estatusari buruz ari izango gara ondoko 12 printzipioak adieraziz.

Motibazio-Teoriaren inguruko 12 Printzipio

1. Motibazio teoria oinarritu behar da homeostasi-kontzeptutik kanpo.
2. Motibazio teoriak Hedonismoa baino zerbait gehiago hartu behar du bere barnean.
3. Motibazio teoriak prozesu kongitibo sail handia hartu behar du bere barnean.

4. Motibazio Teoriak kontutan hartu behar du esperientzia kontzientea.
 5. Motibazio teoriak Norberea hartu behar du bere barnean.
 6. Motibazio teoriak bere barnean hartu behar du emozio sail zabala.
 7. Motibazio Teoria ez da izan behar ez oso orokorra ez oso zehatza
 8. Motibazio teoria eraikia izan behar da erlazio enpiriko fidagarritan (errepika-korretan).
 9. Motibazio teoria oinarritu behar da lege orokorretan gizabanako arteko desberdintasunetan baino.
 10. Motibazio Teoriak bere barnean hartu behar du kausa-erlazio sekuentzialak (historikoa).
 11. Motibazio teoria batek azal dezake ekintza razionalak eta irrazionalak, kontzeptu bera ekintzamota biontzako erabilirik.
 12. Motibazio teoriak azaldu behar ditu lorpeneko saioak eta xede afiliatiboak ere bai.
-

1. MOTIBAZIO TEORIA OINARRITU BEHAR DA HOMEOSTASI-KONTZEPTUTIK KANPO

Motibazioaren ikasketa zientifikoaren sorreratik (1920 inguru) ia 1955 arte, teoria psikoanalitikoak (Freud) eta drive teoriak (Hull) menperatu egin zuten ikergune hau. Kontzepzio biak, ondoko ideian oinarritzen dira, alegia, «jendea saiatzen da barne-tentsioa urritzen». Teoria hauen oinarritzeko printzipio motibazionala hau da: orekatik edozein desbideraketak motibazio-indarra sortarazten du barne-oreka egoerara itzultzeko. Iadanik jaio berriaren portaeran agertzen da kontzepzio honetatik erator daitekeen behaketa prototipikoa. Behar biologiko guztiak aseturik daudenean, hau da, barne oreka lortzen denean eta tentsio biologikoa ez dagoenean, haurrak atsedena hartzen du, alegia, lo-egoera agertzen da. Gose edo egarri egoerak, zeinek giharre-azala urra bait dezakete, xurgatze-erreflexua deskataia dezakete, zeinak gose eta egarri egoerak urritzen bait ditu. Ekintza instrumentalak bere helburua lortzen badu, orduan beharraren konpentsazioa gertatzen da, berriz, lasaitasun egoerara itzuliaz. Baina, lasaitasun hau denboran zehar mugatua izango da, zeren beharren izaera ziklikoa dela eta portaera berrasten bait da. Horregatik desoreka ezin da ekidin, eta portaera atsedendaldi eta iharduera artean ari izaten da, berriz iharduerarara itzuliaz.

Ebidentzia enpiriko eta klinikoa badago, intuitiboki erakargarria den printzipio homeostatiko hau babesteko. Ez dago dudarik, hutsune biologikoa gertatuz gero, portaerak sustatzen direla hutsune hori urritzeko. Azken finean, guk gose gaudenean jaten dugu (janaria eskuragarri badugu noski!) egarri gaudenean edaten dugu, eta minatik aldegiten dugu. Gainera, behar-egoera **psikogeniko** batzuek (behar-egoera **erraiageniko** edo biszerogenikoei aurre eginik) printzipio homeostatiko gisa har daitezke. Esate baterako, gatazkan dauden kognizioek «gogamenezko desoreka-egoerak» sortarazten dituzte (e.b. Nik erretzen dut eta Erretzeak kantzerra

sortarazten du; Nik Maite (nere neskalaguna) eta Euskara maite ditut, baina Maitek Euskara gorrotatzen du; Nere burua euskalduntzat hartzen dut, baina euskaraz ez dakit). Gizabanakoak, beraz, oreka dezake bere sistema kognitiboa, kantzerra-erretze arteko erlazioa urrituz, edo Maiteri buruzko eritzia aldatuz; edo Euskaldun-Euskara arteko erlazioa urrituz.

Printzipio homeostatiko honen balizko indarra dela eta, zergatik ezin da jarri giza motibazioaren teoriaren oinarrian? Portaera-arau honen zailtasun nagusia ondokoan datza, alegia, giza-portaera gehiena ezin da homeostasi-kontzeptu azpian hartu. Gizakiek, askotan, desoreka-egoerak hartzeko joera dute; beldurrezko ipuiak irakurtzen ditugu, aisialdi-modu berriak eta kitzikagarriak bilatzen ditugu, lanpostu eta ezkontza egokiak uzten ditugu erronka berriak bilatzen. Gainera, motibazio psikogenetikoak —arrakasta, lagunak edo boterea lortzeko desirak, eta besteak laguntzekoak— azalpen homeostatikotik kanpo daude. Motibazio-interesak, gose eta egarri bezalakoak askotan ahaztu egiten dira, arrakasta, kideza-helburuak edo hazkuntza espiritualaren bila ari izaten garanean. Preso politiko batek ia hiltzeraino eraman dezake bere gose-greba.

Gainera, nahiz horren garrantzitsua ez izan, gorputzbehar guztiek ez dute berez portaera sustatzen. Barne-desoreka eta portaera arteko lotura automatikoa planteiatzen duten teoriak badira. E.b. I. eta II. Mundu-gerrateko abiadoreekin gertatzen zen moduan, oxigeno deprebazioa ez da motibagarria oxigeno-gabeziaren kontzientzia ez bada gertzatzen (Tomkins 1970).

Laburbilduz, mekanismo homeostatikoek askotan gorpuz edo behar bizerotonikoak eta helburu batera zuzenduriko portaera gidatzen dituzte, eta baliteke behar psikogeniko batzuk ere printzipio beraz gidatuak izatea. Honela, homeostasi kontzeptuak Motibazioaren historiako aurrerapen garrantzitsua izan zen. Hala ere, homeostasi kontzeptuak ezin du azaldu giza portaera anizkoitza, eta biologikoki oinarrituriko beharrek ez dute ekintza sortaraziko, ez bada egoera emozional edo kognitibo egokiez lagundua. Gainera, nere eritzia zera da, homeostasi printzipioz ondoen ulertuak eta ikertuak izan diren portaerak (jan, edan, eta min-ekidipena) baliteke izatea giza ihardueraren ulerpen eta azalpenerako interes gutxienekoak.

2. MOTIBAZIO TEORIAK KONTUTAN HARTU BEHAR DU HEDONISMOA BAINO ZERBAIT GEHIAGO

Lehen eta gaurko Motibazio-teoria guztien axioma da organismoek plazerra areagotzea bilatzen dutela eta mina urritzea. Hedonismoaren onarpenak —plazer-min printzipio ezaguna— ezaugarritzen ditu Drive eta Teoria Psikoanalitikoak, Atkinson (Lorpen Teoria), Lewin (Eremu Teoria) eta Rotter (Ikaskuntza Soziala) -en teoria kognitiboak barne direlarik. Portaeraren funtsezko lege horri buruz Freud-ek zera esan zuen (1920) «Pla-

zer-printzipio hipotesiaren azpian dauden inpresioak oso argiak dira, ezin ikusiarena egin ezin daitekeelarik» (1 or). «Inpresio»-ez gain, esperimentu askok dokumentatu du saritzeak (plazerra) erantzun bat errepikatzeko probabilitatea areagotzen duela, gaztiguak (mina) emaitza negatiboaren alde aurretik dagoen erantzun baten probabilitatea urritzen duela. Teoria homoestatikoak estuki lotuak dira hedonismoarekin, zeren oreka-egoerarako itzulketak plazerra ematen duela onartzen bait dute.

Ez dago dudarik plazer-mina printzipioak giza (edo «infra»-giza) portaera gidatzen duela; alde aurretiko teoriak ez dira ezkurak izan, printzipio hau, euren kontzeptzioinarrrian jartzen. Hala ere, saritzeak (plazerra) ez du berez erantzun baten probabilitatea areagotzen, ez eta gaztiguak (mina) urritzen ere. Adibidez, berez interesgarria den iharduera baten burutzapenak daraman saritze igurikatuek (e.b. haurrei, euren gustoko jolaslean ibiltzearen litxarreraren bat emango diegula esaten), zenbait egoe-ratan, jolas horrekiko interesa urri dezakete. Haurrak jolasean gutxiago arduratzen dira saritzea kentzen zaienean, zeren pentzatzan dute «jolas-tea» kanpoko sari horri dagokiola. Gainera, arrakasta saritsutzat hartzen da, iharduera erraza bada ere, helburuaren lorpenak motibapena urritu eta azperdura sortarazten du (Atkinson 1964). Azkenik, saritze igurikatu baten gabeziak helburu bat lortzeko motibapena areagotua sortarazten du indar kreatiboa sustatuz. Hau da, ez dago garbi, Euskara Ikaste/Erabilteza sustatzea nahi izaten dugunean, saritzesistimak noraino areagotzen duen motibapena edo urritzen duen; motibapen Intrinseko versus Extrinsekoen arteko eztabaida hor dago.

Sariez urrituriko eta gaztiguz areagoturiko portaerak ere badira. Iadanik Freud-ek esan zuen, bizitzan badirela zenbait iharduera, plazerra areagotzen ez dutenak, e.b. lo traumatikoak, desagertze-jolasak, transferentzia-alorrak. Plazer-mina printzipioak ere ezin ditu ondoko pentsamenduak azaltzen, e.b. besteei buruzko orainaldiko edo iraganaldiko aldrebesketak, paranoian, inbidian edo jelskortasunean. Esan daiteke, aditasunaren honelako aldaketak balio instrumentala duela, helburuaren lorpena sustatua delarik. Hau da, ez egokiak diren pentsamendu edo portaerak plazer-printzipioaren pean daude. Hala ere, askotan, hau ez da gertatzen, zeren zein balio intrumentala dauka auzokideen etxe polit edo euren hurrekiko obsesionatua egoteak?. Eta jendearen portaera honelako egitatez mugiarazten da!

Beraz, gizakiek ez badute beti hedonismo-maximizatzaile gisa jokatzen, beste printzipio motibazionalak behar dituzte. Motibazio-psikologoak infra-gizakien portaeretatik gizakien ekintzetara aurrera egin dutenean, ekintza eta pentsamenduaren alderdi ez edonikoak ageriki areagotzen dira. «Motibo-indar» horien garrantzitsuenetariko bat norbera eta ingurunea ulertzeko desira izan da, zeina *menperatze kognitiboaz* hartua izan da. Menperatze kognitiboa, hizkuntzaren jabetzetik norberaren gaitasunei buruzko informazioa adierazten dituzten ekintza-haukeraketaraino ari diren portaerak sustatzeko pentsatua izan da.

Motibazio-helburuak askotan elkarren artean erlazionatuak eta konplexuki elkarlotuak dira. Esate baterako, Menperatze edo Ezagutza kognitiboak helburu baten lorpena laguntzen du, honela plazerra areagotzen delarik. Beraz, menperatze kognitiboa motibazio hedonikoaren barnean har liteke. Hala ere, arestian esan dugun bezala, ezagutza mota batzuek ez dute balioa xede-egoeraen lorpenerako. Menperatze kognitiboa Plazer-printzipioaren azpian dagoela uste izateko bestelako arrazoia ondokoa da, alegia, informazio-bilakuntza eragindua dela autoestima areagotzeko eta norbera herstatatik babesteko desira hedonikoaz. Esate baterako, kantzerreko gaisoek beste gaisotasun larriagoko gaisoekin gonbaratzeko joera dute. Honen ondorioz, pentsa dezakete bizitza txarragoa izan dezaketela oraindik (ideia hau gaiso eta osasuntsuentzako interesgarria; Taylor 1983); edo euskararen kasuan, Euskara (Hizkuntz meneratua) Erdararekin (Hizkuntz meneratzailea) gonbaratzeak, euskaldunen autoestimarako, euskara ikaste/erabiltzera eraman dezake, gonbarazio horretan, hizkuntzen arteko erlazioa ilejimitotzat eta aldakortzat hartzen bada (Tajfel 1982). Beraz, berriz, badirudi menperatze edo ezagutza kognitiboa helburu hedonikoen zerbitzutan ari dela. Bestalde, egia, askotan, bilatua izaten da nahiz informazioak displazer handia eman. Esate baterako, zenbaitentzat Euskal Herri osoko euskalhiztunen kopuru erreala. Gogoratu, askotan esanten dugula «Baina, esaidazu egia...», nahiz honekin mina hartu. Beraz, menperatze kognitiboa ezin da berez plazer-min printzipioaren barnean hartu.

3. MOTIBAZIO TEORIA BATEK PROZESU KOGNITIBO SAIL HANDIA HARTU BEHAR DU BERE BARNEAN

Behaviorismoaren etorrera baino lehenago, pentsamenduek eta beste gogamen-moduek funtsezko errola jokatzen zuten giza ekintzaren teorian. Behaviorismoak garbitu egin zuen uste hau, gizakiak input-output loturekin ziren makina edo errobot gisa hartuz. Behaviorismoak, jadanik, ez du jokatzen psikologian errol nagusia, nolabait giza motibazioarekiko fokapen mekanizista bermatzen ez delako. Azken finean, gu ez gara errobotak, makinak edo bonba hidraulikoak. Gogamenprozesu askok —informazioaren bilatze eta birhartzea, hartze luzeko edo laburreko oroimena, kategorizazioa, erabakihartzea— funtsezko errola jokatzen dute portaeraren mugaketan. Portaerak, askotan, funtzionala den heinean xede baten lorpena laguntzen du, eta kognizioek ere funtzio adaptakorrak betetzen dituzte, desiratzen diren xede-egoeren bilakuntzan. Beraz, funtzionalismo kognitiboak motibazio teorian errol funtsezkoa bete behar du, funtzionalismo konduktistan bete zuen moduan.

Konduktismoaren geroztiko motibazioaren kontzepzio kognitiboek (Atkinson, Lewin, Rotter, Tolman) helburuaren lorpeneko igurikapenean jarri zuten ekintzaren mugatzaile nagusia. Hala ere, ahaztu egin zuten bes-

te portaeratan eragina duten gogamen-egitur eta -prozesu asko. Ahaztura honek hein zabal batean mugatzen dute teoria honen gaitasuna giza portaera azaltzeko.

4. MOTIBAZIO TEORIA BATEK KONTUTAN HARTU BEHAR DU ESPERIENTZIA KONTZIENTEA

Motibazioa, portaera irekiaren ikasketarekin estuki lotua izan da (Hull 1943, Brown 1961, Atkinson 1964). Hala ere, guk egin, pentsatu, sentitu eta jokatu egiten dugu, eta prozesu guzti hauek toki zabala dute motibazio teorian. Teoria motibazional batek aztertu egin behar du organismoaren egoera esperientziala eta ekintza baten esanahia. Horregatik, teoriak bere barnean hartu behar du fenomenologia eta Lewin-ek azpimarratzen zuena, alegia, organismoak mundu hautematuan aritzen direla mundu objektiboan baino.

Honekin lotua da ondoko ideia, alegia, pentsamendu eta sentimendu asko kontzienteak dira eta aktoreaz ezagunak. G. Allport-ek (1960) zioen, gizabanakoari zuzenean galdetu beharko genioke, berari buruzko informazioa jasotzeko. Baliteke gu ez izatea, askotan, kontziente prozesu psikologikotaz edo psikologiaren «nola»-taz (nola ikasten dugun, nola hautematen dugun, nola gogoratzen dugun, ...) baina bai kontzienteak gairela psikologiaren «zer»-taz, edukiaz (zer nahi dugun, zer sentitzen dugun, zer-gatik ariketa batean arduratzen garen). Inplikazio emozional goreneko gatazkaekintzei begiratzen badiegu, Freud-ek egin zuen bezala, errepre-sioa eta beste prozesu dinamikoek besteritzia sortaraz dezakete kontziente eta ekintzaren «benetako» mugatzaile artean. Gainera, aditasuna judizio konplexutara zuzentzen badugu, erabaki-hartze teorietan bezala, edo egoera multiestimularreko inferentzietara, orduan giza informazioaren prozesamenduak sor ditzake altrebasketak auto-behaketetan. Hala ere, norberearen alderdi prebalente eta tipikoetarako, hau da, bizitza nola ematen den eta nola isladatzen den bertan, motibazio eta emozioaren mugatzeileekiko bide zuzena posible da. Gutariko gehiengoentzat, askotan, inkontzienterako bidea baliagabeagoa da motibazioaren sortarazlearentzat kontzientearen bidea baino.

5. MOTIBAZIO TEORIAK NORBEREA HARTU BEHAR DU BERE BARNEAN

Aurrean esanakoari estuki lotua dago printzipio hau, alegia, teoria batek kontutan hartu behar du kontzientzia eta mundu subjektiboa, self edo norberearen esperientzia errealitate fenomenikoaren zatia bait da. Zantzu asko dago, self-a giza motibazioan funtsezko errola betetzen duela adie-

razten: ekintza asko baliagarriak dira autoestima bermatzeko edo aregotzeko; gizabanakoaren autokontzeptuak mugatu egiten ditu, askotan, pentsamentu eta ekintzak; jendea bere ekintzetan autokontsistentzia adierazten saiatzen da; autopertzeptzioak ematen du nortasun eta portaeraren estabilitateari denboran zeharreko haria. Self-kontzeptua motibazioaren ikasketatik errefusatu izan da. Ez zetorren bat behavioristen ikuspegiekin, zeinek organismo «baxuak» erabiltzen zituzten esperimendu-froga nagusi iturri gisa. Gainera, ondorengo Motibazioaren teoria kognitiboek azpimarratu zuten igurikapen subjektiboaren kontzeptu erabilkorra, agian, selfarekiko garrantziaz jokaturiko errol sotila eta ilunaren kontutan hartzea atzeratze nahian. Halere, self-a giza esperientziaren benetako muinean datza, edozein giza-motibazio alorreko formulazio teorikoaren zatia izateak behar duelarik.

6. MOTIBAZIO TEORIAK BERE BARNEAN HARTU BEHAR DU EMOZIOSAIL ZABALA

Hasteko esan daiteke, emozioaren eta motibazioaren ikasketa oso lotuak direla. Hala ere, txundigarria da, emozio teoriak plazer-min printzipioa bakarrik bere barnean hartzea, nahiz eta hau oso desegokia izan sentimenduak eriditeko. Agresio eta sexuarekin lotuak diren plazerak ere oso bestelakoak dira, nahiz eta Freud-en plazer-nozioaren oinarrian izan. Beraz, duda-mudan jar daiteke, «aita hiltzearekin elkartua dagoen emozioa eta amarekin lo egitearekin elkartua dagoen emozioa berdinak izatea». Gainera, sentimentu hauek eta laneko lorpenetik eta arrakasta sozialetik eratorririko plazerretik, hau da, harrotasuna eta konpetentzia, elkarren artean bereizten dira. Era berean, «min» desberdinak lotuak dira hostilitate ez burutua eta sexudesira ez beteekin, eta hauek duda gabe, eta lorpenporrota eta errefusapen sozialari laguntzen dizkion sentimenduak derberdinak dira.

Atkinson-ek planteiaturiko Lorpeneko Motibazio Teoriak (1965) emozioak ikusten ditu plazer-min printzipiotik kanpo. Atkinson-ek iradoki zuen, pertsona batek lorpenarekin elkarturiko helburura hurbildu edo ekin egiten duela harrotasuna eta lotsaren ondorio afektiboen arauera. Hala ere, kontzeptzio honek ez du onartzen, lorpen kontestutan agerikoak diren beste emozioak —zoriontasun eta ez-zoriontasun, amorro edo eskerona, humilazioa edo pena—. Beraz Atkinson-en teoriak ere porrot egiten du motibazio teorian toki egokia ematen emozioei.

Jendeak, beraz, emozio anitz esperientziatzen ditu, pentsamendu eta ekintzekin elkarlotuak direlarik. Beharrezkoa da Kognizioaren, Afektuaren eta Portaeraren psikologiaren arteko harremanak elkarlotzea. Beraz, motibazioa ezin izango da ulertu emozioaren azterketa sakon gabe. Esate baterako, Euskara-ikastearen porrotaldiak, segun eta zein emozioak sortarazten

dituen, ikasketa uztera edo berrikastera eraman dezake. Hala nola, amorroa agertzen bada ikasi edo uztera eraman dezake, urrikaltasuna agertzen bada uztera.

7. MOTIBAZIO TEORIA BAT EZ DA IZAN BEHAR EZ OSO OROKORRA EZ OSO ZEHATZA

Teoria Psikoanalitikoak eta Drive teoriaren patuan oinarrituz, teoria batek hartze eta doitasun maila optimoa izan dezaleela erator daiteke. Kontzeptzio Psikoanalitikoaren motibazioaren bertute nagusia baliteke izatea bere konbenitzia-rangoa, alegia, gerra, fantasia eta neurosi bezalako fenomeno desberdinak hartzea. Psikologian baina, teoria baten rangoak aurrikuspen zehatzak egiteko gaitasunarekin alderantzizko koerlazioa du. Horregatik, kontzeptzio psikoanalitikoaren rango zabalak parte hartu zuen teoria motibazionalean bere beheraldian.

Teoria psikoanalitikoaren fokapenari aurre eginaz, Drive teoriak —Hull (1943) eta Spence-k (1956) formulaturik— hartze mugatua du, baina zenbait kontestutan doitasun handia. Teoria honen predizio teoriko zehatzak askotan laborategi-arratoiekin frogatuak izan ziren, portaera soiletan arduraturik. Zoritxarrez aurkikuntza hauek ez ziren balio handikoak, giza iharduera konplexutara generalizatzerakoan.

Laburbilduz, teoria bat oso zabala bada (psikoanalisi bezala) doitasun urrikoa da; oso doia bada (drive teoria bezala) zabalera eta generalizazio urrikoa da. Horregatik arreta handia hartu behar da prediktibilitate eta generalizazio bide bikoitzeko arazo honetan.

8. MOTIBAZIO TEORIA ERAIKIA IZAN BEHAR DA ERLAZIO ENPIRIKO FIDAGARRITAN (ERREPIKAKORRETAN)

Motibazio teoria egoki batek aukera ematen digu teoriaren eratorpenak, zihurtasunez frogatzeko, laborategi edo beste kontestutan. Natur zientzien alorrean hau egia da, eta psikologian ere aplika liteke. Teoria Skinnerianoaren popularitatearen onarpenerako zera garrantzitsua izan zen «erantzun baten maiztasuna areagotzen dela organismo bat saritua denean portaera jakina burutzeagatik». Batzuk pentsatu zuten usoak ping-pong jolasean aritzen ikustea nahikoa zela konduktismoan sinesteko!

Motibazio teoriak, hala ere, hutsunea dute alor honetan. Esate baterako, iharduera burutu eta burutugabeen arteko efektuari begira —Zeigarnik effect deitua— Lewin-ek (1935) zera esan zuen: «ondorengo ikerketa esperimental guztiak honetan oinarritu ziren» (240 orr.). Halere, efektu honen ondorio desberdinak izan zituen. Era berean, Atkinson-ek baieztatu

zuen, lorpen-beharrean altu eta baxu sailkaturiko gizabanakoez, preferentzia oposatuak azaltzen zituztela, sailtasun hautematan desberdinak ziren ihardueretan. Atkinson-en funtsezko aurrikuspen hau ez da aurkitu fidagarri, bere kontzeptzioaren eraginaren urritasunerako erantzule partzialki izanik. Areago, kontrol- hautematean barne edo kanpo deituriko gendearen arteko igurikapen-aldaketen desberdintasunak, ezin dira zihur frogatu, nahiz eta hau izan Rotter-en (1966) ikasketa sozial teoriaren funtsezko aurrikuspena.

Ezin da teoria bat eraiki «funtsezko erreferentziazko esperimentu» kaskarrarekin. Beraz, motibazio teoriak izan behar dute erreferentzia esperimentu argiak, 2 hidrogeno zati gehi 1 oxigeno-en ondorioa bezala, edo sagu goseti bat portaera jakin batean ari izaten denean bezala.

9. MOTIBAZIO TEORIA OINARRITU BEHAR DA LEGE OROKORRETAN GIZABANAKO ARTEKO DESBERDINTASUNETAN BAINO

Atkinson (1964) izan da nagusi, motibazio-psikologoaren artean, motibazio prozesuen ikasketan gizabanako arteko desberdintasunak funtsezko errola jokatzeko dutela baieztatzen. Esana bezala, Atkinsonen Lorpen-teorian, lorpen-beharrean altuak diren gizabanakoez arriskuko erabaki-hartzeko portaera desberdinak azaltzen dituzte, lorpen-beharrean baxuak diren gizabanakoez baino. Gainera, gizabanakoen arteko desberdintasunak funtzezkoak dira kontzeptzio honen frogarako. Atkinson-en teoriak, beraz, porrot egiten du nortasunbereizgarrien psikologoaren arazo konplexuei aurre egiten. Adibidez, jendea ez dago berdin motibaturik egoera guztietan lorpenarako; hau da, portaera-desberdintasunak badira. Jendea egon daiteke oso motibaturik tenis bezalako lehia-ihardueretan, baina ez euskaraz ikasten, eskolan nota onak ateratzen edo beste kirolean lehena izaten. Atkinson-en formulazio teorikoak ez du onartzen posibilitate hau; jendea bakarrik sailkatzen da altu edo baxu lorpen-beharrean. Beraz, ez da txundigarria, teoria honen frogak, zenbait ingurutan, emaitza ez egoki ateratzea.

Era berean, Rotter-en ikaskuntza sozialeko kontzeptzioa (1966) oso loturik agertzen da gizabanako-artekeko desberdintasunarekin, hemen «locus of control» edo kontrolgunea deitua. Jendea ez dago berdin motibaturik testuinguru guztietan erfortzu-kontrola izateko, eta erfortzu-kontrola hauteman ditzake egoera batzuetan eta ez bestetan. Adibidez, barne-faktoreei egokituriko arrakastaren hautemateak ez dira lotuak porrot-hautemateei egokituriko barne faktoreekin. Beraz, espezifikitatea ez dago ondo integratua teoria honetan, eta aldagai aurrikuskor gisako kontrolaren hautemateak erabiltzen dituzten hipotesiak, askotan, ez baiezkuak izaten dira.

Laburbilduz, nortasuna neurtzeko sailtasunak eta portaeraren egoerazko zehaztasuna direla eta, ondorengoa aurkitzea baliagarriagoa izango litzateke: lege orokorrak aurkitzea nortasuna bider egoera interakzioak esploratzea baino. Bilakuntza honetan, ondoren, har daitezke gizabanakoarteko desberdintasunak, egin diren generalizazioak birfintzeko, edo ikusi ez diren harreman konplexuak lotzeko.

Antzeko ideia behavioristek eman zuten, Berlyne-k (1968) zioenez, «espezie edo klase bateko gizabanakoek amankomunean zer duten jakin arte, ezin dugu espero heuren arteko desberdintasunak ulertu, zergatik agertzen diren, nola deskribatu eta sailkatu» (640).

10. MOTIBAZIO TEORIAK BERE BARNEAN HARTU BEHAR DU KAUSAERLAZIO SEKUENTZIALAK (HISTORIKOAK)


Esan daiteke, motibazio teoria nagusiak, psikoanaliaren salbuespenaz, ahistorikoak direla. Teoria hauek portaeraren mugatzaile hurbilenak identifikatzen saiatzen dira, —drive, aztura, edo igurikapen eta balioa—, eta zehazten dute, denboran zeharreko une batean, nola eragiten duten portaeran. Aldez aurretiko baldintza historikoak, edo zergatik gizabanako batek egiten duen moduak hautematen duen egoera hau ez da beharrezkoa portaera aurrikusteko. Teoria hauen mamia orainaldiko ekintzaren mugatzaileen zehaztapena da.

Fokapen ahistoriko baten errakuntza da, teoria eratzen duten osagarrien elkarren arteko eragina kontutan ez hartzea. Balio \times Igurikapen teoriatan esate baterako, balioa igurikapenaz soslaitua den (lor daitekeena nahi izaten da) ala balioak igurikapena soslaitzen duen (nahi dena lortzea espero da) ez dago zehazturik. Honela, teoriaren osagarrien pisua ezin da era berean mugatu; hau da, ezin da asmatu balioa igurikapenaren aurretik edo igurikapena balioaren aurretik.

Prozesu motibazionalen azterketa ahistorikoa areagotua izan zen estatistika parametrikoren hazkuntzarekin, batipat bariantza analisiarekin. Teknika honek ikerlariak gaitzen ditu zera aztertzeko, denboran zeharreko une batean, zein faktoreek eragiten duten menpeko aldagaia eta faktore hoiene arteko erlazio matematikoak zehazteko ere bai. Azterketa estatistikoaren fokapen berriagoa kausa-ereduaren analisisa da, bide-analisisa barne delarik. Metodologia honek laguntzen du faktoretan eragina duten elementuen kausa-katea elkarlotzen. Sekuentzia historikoaren onarpenak esatea nahi du ekintza mugatzaileen arteko kausa-erlazioak bila daitezkeela.

Sekuentzietariko bat Pentsamendu, Sentimendu eta Ekintza arteko erlazioari dagokio. Motibazio teoria batek onartu behar du pentsamendu eta sentimendu-saila bere barnean. Bainan nola eragiten dute elementu hauek portaeran?. Printzipioz posibilitate desberdinak dira. 1) izan daiteke pen-

tsamenduek sentimendu eta portaera ekoizten dituztela. 2) Pentsamenduek sentimendu aurrean daudela zeinek portaera gidatzen bait dute. 3) Pentsamenduek sentimenduek sortarazten dituztela pentsamendu eta sentimenduek portaera ekoizten dutelarik



11. MOTIBAZIO TEORIA BATEK AZAL DEZAKE EKINTZA RAZIONALAK ETA IRRAZIONALAK, KONTZEPTU BERA BIONTZAKO ERABILIRIK

Giza portaera era askotakoa eta konplexua da. Zenbait portaera razionalak dira: kontzienteki aukeraturiko estrategiak laguntzen dute estresa eta herstura kontrolatzen (e.b. korrika egitea), xede-igurikapenak kalkulatzeko dira, informazioa bilatua eta prozesatua da, eta ondorioz autoulperpena lortzen da. Bestalde, gure portaeraren alderdi asko irrazionalak dira: estresa, herstura, erretzea eta lodiera kontrolatzeko plangintzak askotan utzi egiten dira; igurikapenak soslaitzen dira; informazioa era ez egokian erabiltzen da; eta desilusio pertsonal handia gertatzen da. Teoria psikoanalitikoak izan da gure bizitzaren gainez-gaineko alderdi irrazionalak azaltzen saiatu denetariko bat, kontzeptzio kognitibo eta erabaki-hartze teoriek jarrera nabariagoa dute portaerari begira izaten, nahiz razionalitatearen mugak azpimarratzen ari izan.

Kant-ek (1989/56) baieztatu zuenez, arrazoiak portaera morala gidatzen du, pasioek bizitzaren beste alorrak mugatzen dituzten bitartean. Ikerketa psikologikoak, halere, frogatu egin du, amorro, pena eta sinpatia bezalako pasioek nolabait zuzentzen dutela portaera morala, beste judizio adimentsuek beste portaera motibatuetan eragina duten bitartean. Kantek iradokiriko zatiketa ez da justifikatua. Areago, portaerak baditu ego (pentsamendu) eta id (emozio) osagaiak. Giza portaeraren teoriak gai izan behar du portaera morala eta ez morala direnak azaltzen, horretarako printzipio berak erabilirik. Honek bermatzen du ondoko ideia, alegia, teoria egoki batek bere barnean kognizio eta emozio desberdinak hartu behar ditu bere barnean, eta razioa, pasioa eta ekintza oinarrizko osagarri motibazionalen arteko erlazioak argitu.

12. MOTIBAZIO TEORIA BATEK AZALDU BEHAR DU LORPENEN SAIOAK ETA XEDE AFILIATIBOAK

Teoria batek, beraz, badu konbenientzia alorra eta konbenientzia-arrangoa —hau da, hobeto azal daitezkeen behaketak eta jeneralizatu daitezkeen behaketak—. Giza motibazioaren konbenientzia alorra izan beharko lirateke egunerokotasunean garrantzitsuak diren iharduerak. Ez litzateke argia izango giza motibazioaren teoria orokorra oinarritzea oso portaera ez ohizkotan. Horregatik, teoria psikoanalitikoa —senitartekoen arteko erlazio agresibo eta sexuzkoetan oinarrituz— eta Hull-en teoria —saguen gose— eta egarri-portaerak aztertuz- giza-iharduera moralak aztertzeko fokapen kontzeptual ez egokiak garatu zituzten. Teoria eta esperimendu psikologikoak gehiegi fokatu dira alor esoterikoan, alegia, bizitzaren bariantza urria azaltzen dituzten pentsamendu eta portaeratan.

Gure kulturaren, funtsean, bi motibazio iturriak dira funtsezkoenak: lorpeneko saioak eta harreman sozialak. Freudek iadanik onartu zuen hau Arbeit und Liebe (lana eta amodioa) hizt orokorrak erabilirik. Nerabe gehienak eskolan ari dira, eskola-lana egiten, eta lorpenarekin loturiko beste ihardueratan arduraturik, kirol, hobby edo denbora, sexu bereko edo desberdineko bere kideekin denbora ematen. Nagusiak tipikoki lanean ari dira haukeraturiko ihardueratan edo iharduera sozialetan ezagun edo familiarakoekin. Badira, bada, beste helburu motibazional asko —agresioa, altruismoa, kuriositatea, lukurreria, edo boterea, batzuek esatearren—. Hala ere, inplikazio garrantzitsuenak arrakastaren lorpena eta onarpen sozialak dira. Autoestima frogatua izan da lorpen eremuko gaitasun eta ez gaitasun esperientziez mugatua, eta pertsonarteko harremanetan onarpen edo errefusapenaz (Epstein 1979). Beraz, elementu hauek giza motibazioaren teoriaran oinarrian lirateke.

Beraz motibazio teoria batek ezin izango du aurrera egin arestian aipaturiko 12 printzipio hauek gabe.

BIBLIOGRAFIA

- ALLPORT, G. (1960). *Personality and social encounter: Selected essays*. Boston: Beacon Press.
- ATKINSON, J.W. (1964). *An introduction to motivation*. NJ: Van Nostrand.
- BERLYNE, D. (1968). «Behavior theory as personality theory». In E. F. BORGATTA & W. LAMBERT (eds): *Handbook of personality theory and research*. Chicago: Rand McNally.
- BROWN, J.S. (1961). *Motivation of behavior*. NY: McGraw-Hill.
- FREUD, S. (1920). *Más allá del principio del placer*. Madrid: Alianza.
- GARDNER, R.C. & LAMBERT, W.E. (1972). *Attitudes, motivation in second language learning*. MA: Newbury House.
- GILES, H. et al (1982). «An intergroup approach to second language acquisition». *Journal of Multilingual and Multicultural Development*. 1, 17-40.
- HULL, C.L. (1943). *Principles of behavior*. New York: Appleton. Kant, I (1869). *La crítica de la razón práctica*. Madrid: Alianza.
- LEWIN, K. (1935). *A dynamic theory of personality*. NY: McGraw-Hill.
- ROTTER, J.B. (1954). *Social learning and clinical psychology*. NJ: Prentice.
- ROTTER, J.B. (1966). «Generalized expectancies for internal versus external control of reinforcement». *Psychological Monographs*. 80; 609.
- SPENCE, K.W. (1956). *Behavior theory and conditioning*. New Haven: Yale Univ. Press.
- TAJFEL, H. & TURNER, J.C. (1979). «An integrative theory of intergroup conflict». In W.G. AUSTIN & S. WORCHEL (Eds): *The social psychology of intergroup relations*. Monterey: Brooks/Cole.
- TAYLOR, S.E. (1983). «Adjustment to threatening events: A theory of cognitive adaptation». *American Psychologist*. 38: 1.161-1.173.
- TOMKINS, S.S. (1970). «Affect as the primary motivational system». In M.B. ARNOLD (Ed): *Feelings and emotion*. 101-110. NY: Academic Press.
- WEINER, B. (1980). *Human motivation*. NY: Holt, Rinehart & Winston.

ESKERTZA

Autoreek eskertzea nahiko lukete EHUko Euskara Errektoreordeak, 1992-1993 ikasturtean «Euskal eredu, Batxilergo Unibertsitateko igarotze prozesuko hizkuntz eredu aukeraketa» ikerketarako emaniko babes ekonomikoa, honen gabe ez bait litzateke posible izango idazlan hau burutzea.

ERABAKI-HARTZEA ETA EUSKARAREN IKASTE-ERABILTZEAREN MOTIBAZIOAREN ERROLA

José F. VALENCIA GARATE
Leire LOPEZ
Lorena GIL DE MONTES
Euskal Herriko Unibertsitatea

Hitzaldi honen helburua bikoitza da, nahiz eta era heterodoxoan agertu, batetik, motibazio-teoriaren alderdi berriak zedarritzea, hain zuzen ere, erabaki-hartze teoria eta teoria motibazionalaren uztarketatik sorturiko Ekintza Arrazoitua eta Ekintza Planifikatuaren teoriak agertaraztea. Bestetik, Euskara Ikaste/Erabiltzeari buruzko aplikapenerako adibideak adieraztea. Funtsean, hizkuntza ikaste/erabiltzearen inguruan ohiz agertzen ez den erabaki-hartzearen teoria agertaraziko dugu hemen, hizkuntz alorreko teoria motibazional «tradizionalagoak» beste hitzalditan agertuko direlarik. Gainera Ekintza Arrazoitua eta Ekintza Planifikatuaren teoriak inplikazio garrantzitsuak izango dituzte Euskararen ikaste/erabiltzearen eremuetan. Lehenengoa, gizabanakoen borondatearen pean dauden portaerak azaltzeko baliagarria izango da, euskara erabiltzea azaltzeko, alegia. Bigarrena gizabanakoen borondateatik kanpo, zenbait kontrol-ara-zaok direla eta, dauden portaerak azaltzeko baliagarriagoa izango da, hau da, gizabanakoaren portaera-kontrola behar duten portaerak azaltzeko, euskara ikastea azaltzeko, alegia.

Erabaki-Hartzea eta Itxarondako Balioa

Erabaki-Hartze «Razionalaren» Teoria, oinarritzko ikergune gisa, giza-banako «razionalek» eginiko hautespak aztertzen saiatzen da. Hemen, «razionalitate»-hitzak ez du derrigorrez inolako konnotazio etiko edo kontzienterik, aldiz, itxarondako emaitza eta erabakien arteko erlazioari dagokio. Hein zabal batean, razionalitatea kontzeptu utilitariora da, igurikatuturiko etekin eta galeren erkaketetan oinarritzen delarik. Horregatik, eremu honetan erabiliriko supostu teoriko asko ekonomiatik hartuak izan dira zuzen-zuzenean. Aintzinasmo hauek desiragarritasun ekonomiko-eredu matematikoak hartu dituzte lan-hipotesi gisa, eguneroko erabakien hartze-eiteari dagokiolarik (Eiser 1988, 234).

Teoria honetan gehien garatu diren ereduak Utilitate eta Balio Itxaronduari buruz ari izan dira, eta nahiz historikoki planteiamendu desberdinak izan, euren azken garapenetan ondokoan jardun izan dira, alegia, Balio- eta Igurikapen-parametroak asmatzen edo birformulatzen, paradigma alternatiboak eraikitzen baino. Era honetan, kontsistentzia-alorrean murgilduriko zenbait psikologo sozialek Itxarondako Balio Teoriak hartzen dituzte, euren ikerketen helburu gisa baino, teoria eboluzionista Biologian hartua izan den bezala (Kuhl 1982). Autore hauek, funtsean, ondoko 3 Printzipiotan oinarritzen dira (Abelson eta Levi 1985, 243-46):

- I) ITXARONDAKO BALIO-PRINTZIPIOA. Razionalitatearen Teoria Utilitarioen mamia da hau, eta Utilitate nahiz Igurikapenaren Balioaren Maximizazioari dagokio. Hau da, $_i$ -emaitza bati loturiko X - irabazia (edo galera) X_i -z adierazten badugu, eta honen gertagarritasuna P_i -z, joku bateko Itxarondako Balioa ondokoa izango da:

$$V = \sum P_i \times X_i$$

Printzipio honen arabera, esate baterako, loteria jokatzeari ez litzateke «razionala» izango. Hala ere jendeak jokatzen du!

- II) UTILITATE ITXARONDUAREN PRINTZIPIOA. Jadanik Bernoulli, XVIII. mendeko matematiko frantziarra, giza hautespenei buruzko aurreko eredu honek suposatzen zuen aurrikuspen urriaz konturatu zen. Eredu honen ordeztu, Utilitate Itxaronduen Printzipioa planteiatu zuen. Teorilari honek zera ondorioztu zuen, alegia, diruaren balio psikologikoa, kantitate objektiboaren gehikuntzaren arabera ez zela gehitzen. Honen ordeztu, funtzio logaritmikoa iradoki zuen, zeinaren arabera Udiruaren Utilitatea, bere x -kantitatez erlazionatzen baitzen. Funtzio honek linealitatea baino, konkadura edo utilitate marginaleko urripena adierazten zuen, hau da, diru-kopuruaren gehiketa iraunkorrak, zenbat eta gehituriko utilitate urliagoa izango du hartzailearekiko. Utilitate- eta Balio-kontzeptuak elkarren artean honela bereizten dira, hots, azkenaren arabera emaitza objektibo bera era desberdinez izan daiteke ebaluatua pertsona desberdinez.

$$V = \sum P_i \times V_{(xi)}$$

Von Neumann eta Morgenstern-ek (1944) axioma-multzo bat garatu zuten Utilitatearen Maximizazioaren Teoriari oinarri sendoa eman asmoz. Hala ere, emaitza esperimentalek (Mosteller 1951, Allans 1953) Itxarondako Balioaren ereduak baino azalpen handiago ematen bazuten, ez ziren osoki egokiak.

III) ITXARONDAKO UTILITATE SUBJEKTIBO PRINTZIPIOA. Savage-k (1954), aurrerapen teoriko nabaria lortuz, Von Neumann eta Morgenstern-ek eraiki zuten bezalako ereduak aurkezten du, baina Itxarondako Utilitate Teoriari datzekion zenbait zailtasun enpiriko gaituz.

Arazo hauek erabakitzeke Itxaronduriko Utilitate Subjektiboko bere ereduak «Probabilitate Subjektibo» kontzeptua sartzen du, ordurarte erabiliriko Probabilitate Objektibo kontzeptuaren orde. Probabilitate Subjektiboa, emaitza hori gertatzeko erabakitzailak uste duen neurriari dagokio, horregatik portaera sozialerako kontzeptu honek duen garrantzia.

$$USE = \sum P_{si} \times U_i$$

Probabilitate Objektiboa eta Balioa, Estimazio Subjektiboaz eta desiraz ordezkaketa, funtsezkoa izango da Psikologiaren aplikaziorako. Balio bider Igurikapen Teoriak alor teoriko desberdinetan sortzen dira, hala ere, gehien ezagutzen den ereduak Fishbein eta Ajzenena (1975; 1980) da. Eredu honen arabera, Jarrerak hartzen dira, ondorioen ebaluaketa *bider* ondorio horiei buruzko usteen gehiketa ponderatu gisa.

Printzipio hauei dagozkien ikerketak Motibazio-Teoriatik kanpo sortu badira ere, printzipio horien arabera, Uste (Probabilitate eta Balioa) eta Motibazioa (Itxarondako Utilitate Subjektiboa) artean erlazioa ematen da, ondorioz Motibazioa (IUS) eta Portaera arteko erlazioa ere ematen delarik. Honen arabera Motibazioa-Portaera erlazioa ematen da, gizabanako batek Itxaronduriko Utilitate Subjektiboko aukera altuena hautatuko duen heinean.

Itxaronduriko Balio Teoriak eite desberdinak hartu ditu: Motibazio-analisan Itxaronduriko Balioa, alegia, Egozpen *bider* Ebaluaketa etabar (Ikus Feather 1982). Teoria hau, jadanik 1950 garaiko jarrera ikerketa funtzionalistan modan jarri zen (McGuire-k 1986), Edwards-ek (1954) eta Savage-k (1954) formulazio matematikoa eman ziotelarik. Ondoren, Jarrera-Portaera erlazioaren alorra, ondoko bi eskoletan garaturik izan zen, alegia, Michigan Eskolan (Rosenberg 1956, 1965; Atkinson 1958; Zajonc 1986), eta Illinois Eskolan (Fishbein 1963; Triandis 1977; Ajzen eta Fishbein 1980, Ajzen 1988).

Hitzaldi honetan eta Euskararen Ikaste/Erabiltzeari buruzko Motibazio-gaia barnean, «Igurikapen \times Balio»-en teoriak azalduko ditugu; hauen barnean honokoak bil genitzakeelarik:

- Fishbein eta Ajzen-en Ekintza Arrazoituen Teoria: Hizkuntza erabiltzeari buruzko
- Ajzen-en Ekintza Planifikatuaren Teoria: Hizkuntza ikasteari buruzko teoria

I. FISHBEIN ETA AJZEN: EKINTZA ARRAZOITUAREN TEORIA

1. Aintzindariak: Igurikapen *bider* Balio eta Itxarondako Utilitate Subjektiboaren Teoriak

Fishbein eta Ajzen-en Ereduaren (1975, 1977, 1980) aintzindariak, Erabaki-Hartze fokapenean formulaturiko eredu matematikoetan oinarritzen dira. Fokapen hauen mamia giza-portaeraren ikuspegi razionalista da (Abelson eta Levi 1985), eta mugatzen saiatzen da, gizabanakoen erabakihartzearen prozesuetan zeintzu diren erabiliriko estratejiak.

Ikerketa-metodologia ondokoan oinarritzen zen, gizabanakoari zenbait joku egitera gonbidatzen zitzaion, non erabakiak hartu behar zituen hasierako arrisku eta arrakasta-probabilitate jakinez (Abelson eta Levi 1985; Atkinson eta Birch 1986).

Hasierako Eredu Matematiko hauetan, Irabazien-Probabilitate Objektibo mugatua zegoen, jokalari guztientzat bat bera zelarik. Hala ere, laster, ikerlariak konturatu ziren, subjektu desberdinen Itxarondako Utilitate Subjektiboa kontuan hartzekoa zela, Utilitate Objektiboen estimazioa baino, honela, erabakia hartzeko prozesuan aldageta interindibidualak kontuan izaten ziren (Ramsey 1931; Edwards 1954).


Fishbein eta Ajzen-en ekintza arrazoituaren ereduak (Ajzen 1988), aurreko eredu horien ideiak birrartzen ditu, subjektuak, ekintza-alternatiben artean aukeratzekoan, ekintza horien ondorio subjektibo itxaronduak asmatzen ditu, bere etekinak maximizatzen dituenak hautatuz.

2. Ekintza Arrazoituaren teoria

Dena egoki neur baliteke, denboraldi mugatuan, eta espezifikizitate-maila berdinean, Motibazioa eta Portaera, elkarren artean osoki erlazionaturik izango lirarteke (Fishbein eta Ajzen 1985). Autore hauek proposaturiko teoriaren arabera, Jokabidea (subjektuaren borondatepean baldin bada, hau da, subjektuaren nahiaren kontrolpean baldin badago) Intentzioaz mugaturik egongo da. Era berean, Intentzioa ondoko bi egituren funtzio aditiboaz mugaturik izango da, alegia, Jarreraz (Jokabidearekiko jarreraz) eta Arau Subjektiboaz (Arauzko osagaiaz). Jarrera, Jokabide jakina burutzeko ondorioei buruzko (jokabidezko) Uste ebaluatiboen gehiketa ponderatu gisa definitzen da. Era berean, edozein uste ebaluatibok bere barnean ondoko bi elementuak hartzen ditu, alegia, IGURIKAPENA («nere jokabidearen burutzapenak ondorio jakin hori emango duen igurikapena»), eta BALIOA (ondorio hori zein on-txarra den). Intentzioa eta Portaera elementuak ere biderturik konbinaturik daude. Beraz, Igurikapen bider Balio Teoriaren aplikazioaren aurrean aurkitzen gara.


Era berean, Arauzko elementuek ere, bere baitan hartzen dute IGURIKAPENA («Beste adierazgarriek zein neurritan onetsiko nauten jokabidea burutzen badut»), eta BALIOA —edo Besteen eritzia burutzeko Motibazioa— (Beste adierazgarrien onespena zein neurritan ebaluatzen dudan).

Beraz, Azken Eredua, grafikoki, ondokoa litzateke:



Lehenbizi, Fishbein eta Ajzen-entzat jarrera honela defini daiteke: ebaluzio-kontinuum batean subjektuaren kokapena. Hau da, autore hauentzat jarrera, arestian aipaturiko afektu eta ebaluazio-izaerazko (nola subjektuak ebaluatzen duen portaeraren ondorioak) osagarria mugatzen da. Autore hauen hitzetan, jarrerak «ebaluaketa orokorrak lirateke, zeinak, subjektuen erantzunak dimentsio ebaluakor bipolarrean, kokatze-metodoaren bidez, neur baitaitezke» (Ajzen eta Fishbein 1980; 55). Jarrera, beraz, egoki-ezegoki kontinuumean subjektuaren kokapena litzateke, eta diferentziale semantikoaren bidez neur badaiteke ere, eskuharki Likert-formatoaren bidez operazionalizatzen da.

Fishbein eta Ajzen bere ereduari saiatzen dira subjektuaren portaera aurreratu eta definitzen. Portaeratik hurbilen dagoen aldagaia da, portaera honekiko subjektuak adierazten duen «Intentzioa». Beraz, autore hauentzat egitekoa da, jokabidearen intentzioa aurrikustea, eta Portaera-Intentzioa 2 aldagaiez mugaturik agertuko da, 1) Jarrera, eta 2) Arau subjektibo aldagaiez.



Beraz, subjektuak duen jarrera eta arau subjektiboa direla medio, haren poltaera-intentzioa mugatu ahal izango dugu, honen bidez, haren portaera aurrean ahalko dugularik. Ikus ditzagun, bada, elementu hauek banan banan.

2.1. *Jarrera*

Fishbein eta Ajzen-en Jarrera-kontzeptua aurreko Probabilitate Objektibo teoretatik eratoritzen da, zeinaren arabera subjektu batek ekintza-aukera jakina erabakitzen baitu, portaerak izango dituen ondorioak kalkulatu ondoren. Areago joanez, autore hauek jarreraren formulazio matematikoa ematen dute. Beraz, jarrera (J_o) litzateke ondoko bi elementuen biderketa: 1) ekintza baten ondorio jakinak emango direla subjektuak ikusten duen probabilitatea (P_1), eta 2) subjektu horrentzat ondorio horiek izango dituzten garrantzia (V_1) (Ajzen eta Fishbein 1980; Ajzen 1987; 1988). Grafikoki honela litzateke:

$$J_o = \sum P_1 \times V_1$$

Adibidez, demagun subjektu baten euskara-erabiltzeko jarrera auresatea nahi dugula. Demagun ere, «A» eta «B» Hizkuntzak direla; bi hizkuntza alternatiba, alegia. Beraz, subjektu honen A edota B hizkuntzarako portaera-intentzioa interesatzen zaigu, bere hizkuntza zein izango den aurrean ahal izateko.

Ikusi dugunez, Fishbein eta Ajzen-entzat jarrera da, eman daitezkeen ondorioen gertagarritasuna eta jendearentzat ondorio horiek dituzten garrantzien arteko biderketa: hau da, Prozesu Motibazionala. Honela, jakin behar dugun lehen gauza da, hizkuntza bat aukeratzeak zein ondorio dituen. Honetarako, jendeari galdetuko diogu hizkuntza aukeratzeak

zein ondorio ekar diezazkiokeen. Iritzi hauen artean ondokoak egon litezke:

- «X» Hizkuntza aukeratuz Euskal Herriak aurrera egitea lortuko da.
- «X» Hizkuntza aukeratuta Prestakuntza eskasa lortuko da.
- «X» Hizkuntza aukeratuz lana erraz izatea lortuko dut.

Hauek lirateke, laburtuz, hizkuntza bat aukeratzeak lekarzkeen ondorioak. Baina guri hemen interesatzen zaiguna litzateke, gure adibideko subjektuaren hizkuntz-jarrera ezagutzea. Beraz, subjektuaren jarrera ezagutzeko honela ari izan beharko genuke: lehenengo, subjektua trebatuko dugu eskala baten maneiaketan, zeina Oso Gertagarri-tik (%100) Batere Gertagarri-raino (%0) heltzen baita, «A» edo «B» hizkuntzaren hautespenaren ondorioen gertagarritasuna ebalua dezan. Hau da, subjektuari zera galdetuko diogu: «A hizkuntza aukeratuko bazenu, Euskal Herriak aurrera egitea lortuko dela pentsatzen duzu?»; galdera honen aurrean, subjektuak, ondorio honen gertagarritasuna ebaluatuko du; demagun kasu honetan %60-a ematen duela». Berdin egingo genuke beste bi galderekin: «A hizkuntza aukeratuko bazenu, prestakuntza eskasa lortuko zenukeela iruditzen zaizu?»; eta, «A hizkuntza aukeratuko bazenu lana erraz izatea lortuko zenukeela pentsatzen duzu?». Berdin egingo genuke B alderdiari emango balio botua, hiru ondorioak ebaluatuz. Ondorioen ebaluaketa I taulan agertzen da. Guzti honekin formularen P1 lortzen dugu, hau da, ondorio batzuk ekintza baten pean egon daitezen subjektuak ikusten duen probalilitatea, botu-ekintzapean alegia. Ikus dezakegunez Fishbein eta Ajzen-en eredia Edwards-enetik eratzen da, hemen erizpide subjektiboa erabiltzen delako.

I Taula

	P ₁	
	A Hizkuntza	B Hizkuntza
Euskalherriak aurrera	%60	%40
Prestakuntza eskasa	%10	%30
Lana erraz izatea	%50	%40

Orain arte formularen zati bat landu dugu, eta oraindik bigarren zatia geratzen zaigu, V₁-arena, ondorio horietariko bakoitzari subjektuak egozten dion garrantziaren zatia, alegia. V₁ hau jakiteko, subjektuari galdetuko diogu zein garrantzi eman diezaiekeen ondorio horiei, garrantzi hori -3-tik +3-raino hartzen duen ebaluaketa-eskala baten bitartez adieraz de-

zan. Ondorio bakoitzarekiko garrantzien baloraketak II Taulan agertzen dira.

II Taula

	V_1
Euskalerrriak aurrera	3
Prestakuntza eskasa	-3
Lana erraz izatea	2

Orain bakarrik geratzen zaigu aipaturiko formula aplikatzea, ondoko emaitzak agertuko direlarik:

III Taula

	P_1						V_1
	A Hizkuntza			B Hizkuntza			
		A Hizkuntzarekiko Jarrera			B Hizkuntzarekiko Jarrera		
Euskaler. aur.	%60	(60×3)	180	%40	(40×3)	120	3
Prestakuntza	%10	(10×-3)	-30	%30	(30×3)	-90	-3
Lana erraz	%50	(50×2)	100	%40	(20×2)	40	2
			250			70	

Ikus dezakegunez, 250 balioko subjektuaren A Hizkuntzarekiko jarrearen indikatzaile bat, eta 70 balioko B Hizkuntzarekiko beste indikatzaile agertzen dira, honela subjektuaren jarrerak A hizkuntza hobesten duela esan baitezakegu.

Ajzen eta Fishbein-entzat (1967, 1977, 1980, Ajzen, 1987, 1988), Jarren mugatzaile hurbilenak subjektuak dituen usteak dira. Uste hauek lortzeko, subjektuei eskatuko diegu, ikertu nahi dugun objektu soziala deskriba dezaten galdera zabalak erabilirik. Prozedura honek duen arazoa da, objektuarekiko uste desberdinak dituzten subjektuak parekatzea. Arazo hau erabakitzeke, autoreek Uste Modalen erauzpena proposatzen dute, azken hauek, emaniko populazioan objektu horrekiko dauden uste partekatuak direlarik. Jakina denez, subjektu batek jarrera-objektuarekiko uste-multzo handia izan

dezake, bainan ebaluaketa egiteko denak ez dira kontuan hartuko, multzo horretatik nabarmenak direnak baino. Fishbein eta Ajzen-entzat (1980) 5 eta 10 artean izango dira; azken hauek Uste Gorenak direlarik.

2.2. Arau Subjektiboa

Arau Subjektibo kontzeptu honek inguruneak subjektuarengan egiten duen presioa hartzen du bere baitan. Matematikoki, Fishbein eta Ajzen-ek planteiatzen dute ondoko biderketaren emaitza izango dela: a) Subjektuak zer uste duen, besteek beregandik espero dutela (Igurikapena), eta b) subjektuak beste-adierazgarriek duten eritziari ematen dion garrantzia (Garrantzia). Grafikoki honela litzateke:

$$AS = \sum I_{(j)} \times G_{(j)}$$

Demagun aurreko adibidea. Egin behar dugun lehen gauza subjektuaren presio-taldeak jakitea da. Subjektuaren balizko presio-talde artean egon litezke, senitarteak, adiskideak, lankideak, etab.

Ondoren, lehen bezala, subjektua trebatuko dugu eskalaren maneiaketan, zeina -3-tik +3raino heltzen baita. Eskala honekin ebaluatuko dugu, subjektuak hizkuntza bat edo bestea aukeratuz gero jasan lezakeen onarpen-errefusapen maila. Honela, zera galdetuko diogu: Zer uste duzu zure familiartekoez pentsatuko dutela A hizkuntza aukeratzeko baduzu? (demagun 3 ematen duela); Zer uste duzu zure adiskideez pentsatuko dutela A hizkuntza aukeratzeko baduzu? (1 ematen duela); Zer uste duzu zure lankideez pentsatuko dutela A Hizkuntza aukeratzeko baduzu? (demagun -2 ematen duela). Berdin galdetuko genioke B alderdiari dagokion kasuan. Honekin «IGUR» formula lortuko genuke.

IV Taula

	Igur	
	A Hizkuntza	B Hizkuntza
Senitarteak	3	-1
Adiskideak	-1	2
Lankideak	-2	3

Behin elementu hau lortuz gero, aztertzen saiatuko gara subjektuak besteen eritziei ematen dien garrantzia, presio-talde bakoitzari, alegia. Subjektuari eskatuko diogu garrantzi hori ebalua dezan 0-tik 4-balioetara,

0 Batere Garrantzitsua eta 4 Oso Garrantzitsua izanik. Besteen eritziei emaniko garrantziaren egozpena V taulan agertzen delarik.

V Taula

	Gar
Senitartea	4
Adiskideak	4
Lankideak	0

Beraz, Arau Soziala lortzeko aipaturiko formulari jarraikiz, ondokoa dugu:

VI Taula

	Igur				Gar
	A Alderdia		B Alderdia		
	(Exp)	A Hizkuntzarekiko Arau Subjektiboa	(Exp)	B Hizkuntzarekiko Arau Subjektiboa	
Senitartea	3	(3×4) 12	-1	(-1×4) -4	4
Adiskideak	-1	(-1×4) -3	2	(2×4) 8	4
Lankideak	-2	(-3×0) 0	3	(3×0) 0	0
		8		4	

Aurreko eragiketarik lortuko dugu, inguruneak egiten duen presio-indikatzailea, subjektuak A aukera (8) nahiz B aukera (4) erabaki dezan. Guzti honetaz iradoki genezake, Arau Sozialak subjektuari A aukera hartzera bultzatuko duela, hau da, talde sozialek eragingo diote A hizkuntza aukera dezan.

2.3. Portaera eta Portaera-Intentzioa

Orain arte ikusirikoaren arabera, Portaera-Intentzioaren bi mugatzaileak deskribatu ditugu, beraz, orain ekingo diogu Portaera-Intentzioaren balioari. Ajzen eta Fishbein-entzat (1980 Ajzen 1988), Portaera-Intentzioa eta

ondoren emango den Portaera arteko korrespondentzia ondoko elementuez eraginik izango da:

- a) Neurketa biren artean emango den denbora-tarteaz. Zenbat eta luzeago denbora-tartea, azken erabakian aldagai arrotzak eragina izateko probabilitate handiagoa, Intentzioa eta Portaera arteko elkar-tze-indarra urrituz.
- b) Neurbideen Espezifikitate-Mailez. Aldagai biak generalitate-maila berberaz neurtu behar dira. Adibidez X Hizkuntzarekiko aukeraketa aurrikusi nahi badugu (Jokabidea), X Hizkuntza aukeratzeko intentzioaz galdetu beharko dugu, eta ez Hizkuntzak orokorrean ikas-teko intentzioaz.

Fishbein eta Ajzen-ek, eredia korapilatuz, zera proposatzen dute, alegia, «P» Portaera «P₁» Portaera-Intentzioaren baliokidea dela, azken hau, jarrera eta arau sozialaren gehiketa delarik. Grafikoki honela litzateke:

$$P \approx PI = J_0 + AS = (\sum P_1 \times V_1) + (\sum I_{(j)} \times G_{(j)})$$

Formula honi, eskuarki, «b₁» eta «b₂» erregresio indarrak eransten zaizkio, azken formula honela adierazten delarik:

$$P \approx PI = b_1 (\sum P_1 \times V_1) + b_2 (\sum I_{(j)} \times G_{(j)})$$


Erregresio-koefizienteek jarrera eta arau sozialaren azalpen-indarra ematen digute. Erregresio analisisian «b» indarrek menpeko aldagaiaren azalpen-garrantzia ematen baitigute.

Fishbein eta Ajzen-ek diotenez usteen jatorria soziala da. Hau da, ekintza desberdinek dituzten ondorioei buruzko usteak, talde sozialak partekaturikoak dira. Fishbein eta Ajzenek sinesmen kolektibo horiek adierazteko «Arau Modal Gorena» hitza erabiltzen dute. Eta hau garrantzitsua da, zeren talde batek partekaturiko ondorio-zerrenda honetatik aterako ditugu ekintza batek izan ditzakeen ondorioak.

II. EKINTZA ARRAZOITUAREN EREDUAREN ALDAKIA: EKINTZA PLANIFIKATUAREN TEORIA

Berriki, Ekintza Arrazoituaren lehen ereduari, aldagai bat erantsi izan zaio, ondoren, Ekintza Planifikatuaren Teoria gauzatu delarik (Ajzen eta Madeen 1986; Schifter eta Ajzen 1985; Ajzen 1985, 1987, 1988). Ajzen-ek bere erudian egiten duena zera da, alegia, delako «Kontrol Hautemanaren Sentimendu»-aldagaia gehitu aurreko ereduari. Honen arabera, aldagai ho-

nek aurreko biekin Intentzioan eragina izateaz gain, Portaeran ere zuzenean izango du. Beraz, grafikoki honela litzateke:



Hautemandako Kontrolaren aldagaia, ondoko bi elementuetan banatzen da:

- Kanpoko Faktorea, zeina portaeraren burutzapeneko kanpoko erraztasun, aukera etabarrei baitagokie.
- Barneko Faktorea, zeina portaeraren burutzapeneko trebetasunari, motibazioari, desirari etabarri baitagokie.

Beraz, delako Hautemaniko Kontrol Sentimendu Kontzeptu hau dago-kie, subjektuak saiatzen ari den jokabidea burutzeko dituen zailtasun eta oztopoen hautemateei (Ajzen 1985, 1988).

Hasierako formulaketan, aldagai honek zuzen-zuzenean eragina zuen portaera-intentzioan, ez aldiz, portaera errealean. Bigarren formulaketan, eragin hau portaeran ere zuzen-zuzena izan daitekeela onartzen da. Eragin hau emango da:

- Hautemaniko Kontrola erreala denean.
- Subjektuak jokabide hori behar duenean, nahiz eta bere kontrolpean ez egon (Ajzen eta Madden 1986; Ajzen 1987).

Azken finean, haserako Ekintza Arrazoituaren eredua, azken Ekintza Planifikatuaren eredu orokorragoaren zatia litzateke, portaeraren burutzapena subjektuaren gogo-kontrolpean dagoen egoerari datxekiola.

2.1. Ekintza Arrazoituaren Ereduari Kritikak

Fishbein eta Ajzen-en eredua alor askotan kontrastaturik izan da, aurrirusteko duen balioa frogatuz (Hoogstraten et al. 1985; Ajzen eta Fishbein 1980; Echebarria, Páez, eta Valencia 1988; Echebarria eta Valencia

1991). Hala ere, nahiz eta aurrikuspen-balioa adieraziz, kritika ugari izan du, besteren artean ondokoak azpimarratuz:

- 1) Lehen agertu dugunez, AURRETIKO ESPERIENTZIA ereduaren baitan hartzeko beharra ikusi izan da (Bentler eta Speckart 1979, 1981; Fredericks eta Dosset 1983; Budd et al. 1984, 1985; Davidson et al. 1985; Echebarria et al. 1988). Ajzen eta Fishbein-entzat (1977), Aurretiko Esperientziak ez luke eragin zuzena ez jokabidean ez eta jokabide intentzioan, aldiz, haren efektua Jarrera kontzeptu barnean litzateke, honela, ereduaren integratuz ezingo luke bere indar aurrikuslea areagotu. Hala ere, aipaturiko autoreek baieztapen hau egiazkoa ez dela frogatu dute, zeren Aurretiko Esperientzia-Faktorea ereduaren sartuz gero indar aurrikuslea areagotzen baitu, gainera hala portaeran, nola portaera-intentzioan, efektu zuzena izan dezakeelarik.
- 2) ARAUZKO USTE PERTSONALA edo PORTAERA-INTENTZIO IDEALA Portaera-Intentzioaren faktore alternatiboa da, eta ereduaren azalpen-maila areagotzen ez duela, ez dira egia, baieztapen hau zenbait autorek zalantzan jarri dutelarik (Budd et al. 1985, Valencia 1987).
- 3) Ereduaren azpian dagoen PRINTZIPIO HEDONISTA, zeinaren arabera subjektuak plazerra maximizatzea eta displazerra minimizatzea nahi baitu, zalantzan jarri izan da (Locke 1975).
- 4) Bagozzi-k (1986, 1986) ereduaren birformulaketa aipatzen du, zeina JOKABIDE PROPOSITIBORAKO bakarrik baliagarria baita. Autore honen kritika ondokoari dagokio, alegia, aurreko autoreek elementu motibazionala operazionalizatzen dute ebaluaketa moraletan (ona-txarra) oinarrituz, afektuzko ebaluaketak (atsegina-desatsegina) aurrekoen sinonimotzat harturik. Hala ere, zenbait egoeratan, emozionalki errefusagarriak diren ondorioak, moralki desiratuak izaten dira (e.b. Odol-emaitza). Beraz, autore honen arabera, jokabide batekiko jarrera ondoko elementu biren biderketaren funtzioa litzakete, alegia, ondorioei buruzko USTEAK *hider* BALDINTZAPEKO PROBABILITATE SUBJEKTIBOA. Azken elementuak bere baitan ondoko faktoreak hartuko lituzke, batetik, jokabidearen ondorioei buruzko ebaluaketa moral (Ona-Txarra) eta afektuzko ebaluaketa (Atsegina-Desatsegina), bestetik, Hurbiltze-Ekiditzearen subjektuaren erantzun subjektiboak. Azken hauetan, estandar ebaluatiboen arabera ekintza burutzeko (adibidez, odola eman) baldintzapeko probabilitate subjektiboari erantzuten dio.
- 5) Azkenik, eredu hau kritikatu izan da, erabaki-hartzearen kontestuan, gizakiari buruz duen IKUSPEGI HIPERRAZIONALA izateagatik; prozesu logiko-kognitiboa soslaitzen duten elementu motibazional edota emoziozkoa ahaztu egiten dituelarik (Bains 1983; Páez

et al. 1987; Jaspars 1983; Jaspars eta Hewstone 1986). Gainera, zaila iruditzen zaigu onartzea, subjektua egoera baten aurrean aurkitzen denean horrelako probabilitate-kalkulu konplexua egitea (McGuire 1986). Hain zuzen ere, Bandura-ren (1986) arabera, jendeak ez ditu eskura dituen ekintza-alternatibak sistematikoki kontuan hartzen, ondorio gertagarrien pean kalkulatu. Autore honek zailtasunak aurkitu ditu, alternatiba bakoitzarekiko pisu zehatzen asignazioan. Areago, jendeak hautespen-estrategia soilak eta heuristikokoak erabiltzen baititu (Van der Pligt eta Eiser 1984).

BIBLIOGRAFIA

- ABELSON, R. P. eta LEVI A. (1985) «Making and Decision Theory». In: LINDZEY, G. eta ARONSON, E. (Eds.): *Handbook of Social psychology*, vol. I, New York: Addison Wesley.
- AJZEN, I. (1985) «From intentions to actions: A theory of planned behavior». In KUHL, J. eta BECKMANN, J. (Eds.): *Action control: From cognition to behavior*. Heilderberg: Springer-Verlag.
- AJZEN, I. (1987) «Attitudes, traits, and actions: Dispositional prediction of behavior in personality and social psychology». In BERKOWITZ, L. (Ed.): *Advances in experimental social psychology*, 20, New York: Academic Press.
- AJZEN, I. (1988) *Attitudes, personality and behavior*. Bristol: Open Univ. Press.
- AJZEN, I. eta FISHBEIN, M. (1977) «Attitude and Behavior relations: A theoretical analysis and review of empirical research». In *Psychological Bulletin*. 84, 888-918.
- AJZEN, I. eta FISHBEIN, M. (1980) *Understanding attitudes and predicting behavior*. New York: Prentice Hall.
- AJZEN, I. eta MADDEN, T.J. (1986) «Prediction of goal-directed behavior: the role of intention, perceived control, and prior behavior». *Journal of Experimental Social Psychology*. 26, 305-328.
- ATKINSON, J.W. eta BIRCH, D. (1986). «Fundamental of dynamics of action». In KUHL, J. eta ATKINSON, J.W. (Eds.): *Motivation. thought and action*. New York: Praeger.
- BAGOZZI, R.P. (1986) «Attitude formation under the theory of reasoned action and a purposeful behavior reformulation». *British Journal of Social Psychology*. 25, 95-107.
- BANDURA, A. (1986). *Social foundations of thought and action*. NY: Pentice Hall.
- BENTLER, P.M. eta SPECKART, G. (1979) «Models of attitude-behavior relations». *Psychological Bulletin*. 47, 265-76.
- BENTLER, P.M. eta SPECKART, G. (1981) Attitude «cause» behavior. *J.P.S.P.* 40, 226-238.
- BUDD, R.J. eta SPENCER, C.P. (1985) «Exploring the role of personal normative beliefs in the theory of reasoned action. The problem of discriminating between alternative path model». *European Journal of Social Psychology*. 15, 299-313.
- BUDD, R.J. eta SPENCER, C.P. (1986) «Lay theories of behavioral intention: A source of response bias in the theory of reasoned action?» *British Journal of Social Psychology*. 25, 109-117.
- DAVIDSON, A.R. et al. (1985) «Amount of information about the attitude object and attitude-behavior consistency». *J.P.S.P.* 49, 1.184-1.194.

- ECHEBARRÍA, A, MARTÍNEZ, C., PÁEZ, D. eta VALENCIA, J.F. (1987) «Autoconciencia, conducta y emoción». *Boletín de Psicología*. 15, 84-114.
- ECHEBARRÍA, A., PÁEZ, D. eta VALENCIA, J.F. (1988) «Testing Ajzen and Fishbein's Attitudes Model: the prediction of Voting». *European Journal of Social Psychology*. 18, 181-190.
- EDWARDS, J. (1961) «Behavioral decision theory». *Annual Review of Psychology*. 12, 473-498.
- EISER, J.R. (1988) «Attribution theory and social cognition». In JASPARS, J. et al (Eds.): *Attribution theory and research: conceptual and social dimensions*. London: Academic Press.
- FISHBEIN, M. (1963) «An investigation of the relationships between beliefs about an object and the attitudes toward that object». *Human Relations*. 16, 233-240.
- FISHBEIN, M. (1967) «A behavior theory approach to the relations between beliefs about an object and the attitude toward the object». In M. FISHBEIN (Ed.): *Readings in Attitude Theory and Measurement*. New York: Wiley.
- FISHBEIN, M (1982) «Social Psychological analyses of smoking behavior». In J.R. EISER (Ed.): *Social Psychology and Behavioral Medicine*. Chichester: Wiley.
- FISHBEIN, M. (1974) «Attitudes toward objects as predictors of single and multiple behavioral criteria». *Psychological Review*. 81, 59-74.
- JASPARS, J.M.F. (1983). «The task of social psychology: some historical reflections». *B.J.S.P.* 22: 277-288.
- KUHL, J. (1982) «The expectancy value approach within the theory of social motivation: elaborations, extensions, critique». In FEATHER, N.T. (Ed.): *Expectations and actions*. Hillsdale: Erlbaum.
- LOCKE, J. (1690). *Ensayo sobre el entendimiento humano*. Madrid: Sarpe. 1984.
- MCGUIRE, W.J. (1985). «Attitude and attitude change». In LINDZEY, G. eta ARONSON, E. (Eds.): *Handbook of social psychology*. Hillsdale, Erlbaum, vol. II, 233-346.
- MCGUIRE, W.J. (1986). «The vicissitudes of attitudes and similar representational constructs in twentieth century psychology». *E.J.S.P.* 16: 89-130.
- PÁEZ, D. et al (1987) *Pensamiento, Individuo y Sociedad*. Madrid: Fundamentos.
- PAGEL, N.D. eta DAVIDSON, A.R. (1984) «A comparison of three social psychological models of attitude and behavior plan: prediction of contraceptive behavior». *J.P.S.P.* 47, 517-533.
- TRIANDIS, H.C. (1978). «Some universals of social behavior». *Pers. Soc. Psy. Bull.* 4: 1-16.
- VALENCIA, J.F. (1987) *Racionalidad Colectiva e Individual en la Participación Política No Institucional*. Tesi Doktorala ez argitaratua.
- ZAJONC, R.B. (1968). «Cognitive theories in social psychology». In LINDZEY, G. eta ARONSON, E. (Eds.): *Handbook of social psychology*, vol. 1. Reading, Mass, Addison Wesley. 320-411.

HIZKUNTZ JABEKUNTZARAKO EREDU PSIKOSOSIALAK. MOTIBAZIOAREN ERROLA*

Nekane ARRATIBEL

I. ATALA

1. Motibazioaren definizioa

Bigarren hizkuntzaren jabekuntza, izakera sozial, psikologiko, psikosozial eta psikolinguistikoa duten aldagaiek parte hartzen duteneko fenomeno konplexua da. Autore asko izan dira jabekuntza ikuspuntu honetatik azaldu nahi izan dutenak; besteak beste: Carroll (1962), Lambert (1974), Clément (1980), Hamers eta Blanc (1982), Giles eta Byrne (1982) eta Gardner (1985).

Eredu hauek, denek ere zenbait ezaugarri azaltzen dute amankomunean, eta ondorengoa da bat: motibazioa, ikaskuntza baldintzatzen duen oinarriko elementutzat hartzea, neurri handi batean.

Subjektuen jarrera eta sinismentan oinarritzen den aldagai psikosoziala da motibazioa eta, oinarri-oinarrian, gizarteak konpartitutako sinismentan gauzatzen da.

Gardnerren esanetan (1985) bigarren hizkuntza bat —2H— ikasteko motibazioa hiru elementuren konbinazioa da:

- 2Ha ikasteko nahia edo desioa,
- horretarako egiten den esfortzua,
- eta ikaskuntzarekiko jarrera aldekoak.

Dagoeneko, esan dugu motibazioa jarrerari hertsiki lotua agertzen dela, hauek baitira, neurri batean, hura baldintzatzen dutenak. Guri dagokigunez, hauek lirateke bigarren hizkuntzen jabekuntzan kontuan izan beharreko moduko jarrerarik garrantzitsuenak:

* Lau hau Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1992an emandako dirulaguntzari esker egina da.

- 2Ha duen hizkuntz taldearekiko jarrera eta 2H berarekikoa,
- atzerriarekikoa orokorrean,
- eta ikaskuntzarekikoa (Gardner, 1985).

Guzti honek 2Haren jabekuntzan eragiten du, gizabanakoa hizkuntza ikasteko aukeren bila bideratzen baitu.

2. Gardner eta Lamberten teoria

Bi elementu bereizi behar dira motibazioan:

- batetik, intentsitate motibazionala edo desioaren indarra,
- eta bestetik, orientazio motibazionala edo bigarren hizkuntza ikasteko dagoen arrazoi mota.

Gai honi buruzko lan aitzindari batean, Gardner eta Lambertek (1972) zera integratzaile eta instrumentalaren arteko *continuum* bezala definitu zuten motibazioa. Aldi berean, orientazio motibazional hauen lehen definizio bat eman zuten.

2.1. Arrazoi integratzailea, autore hauen aburuz, beste taldearekin interakzionatzeko nahiaren eta beste talde horretara psikologikoki hurbiltzeko gogoaren arabera neurtzen da. Gizarte egitura bat irekia eta malgua bada, beste taldearekiko orientazio positiboak —horixe harturik erreferentzia taldetzat, alegia—, talde horretan sartzea erraz lezake, integrazioa erraztuko duen sozializazio aurreratua eskaintzen du eta. Honela, beste taldean integratzeko bidea da hizkuntza.

Gainera, ikusi izan da, beste taldearekiko jarrera lagunkoi eta integratzaileak taldearen mintzamen errendimendu ona aldeztu aurretik agintzen duela, bai ulermen mailan eta baita produkzio mailan ere; hau da, eskuarki, komunikazio gaitasun ona lortzen da (Gardner eta Lambert, 1972).

2.2. Bigarren orientazio mota, orientazio instrumental edo pragmatikoa, hizkuntz jabekuntza errekonozimendu soziala irabazteko edo abantaila ekonomikoak lortzeko bide bezala ikusten denean gertatzen da.

Hizkuntza gutxituekiko orientazio instrumentalak, euskara kasu, esanahi berezia du: hizkuntza hori egiatan erabiltzea esan nahi du.

2.3. Bi orientazio mota hauez gain, hirugarren bat ere aipatzen dute autore hauek: komunikatiboa. Orientazio mota hau, beste taldeko hiztunekin komunikatzeko nahiaren arabera antzematen da.

Gardner eta Lambertekin jarraituz (1972), autore hauek beste taldearekiko identifikazioa —arrazoi integratzailea, alegia—, epe luzeko motibazioarekin lotzen dela uste dute; arrakastaren beharra eta porrot egiteko beldurra, berriz, —hau da, arrazoi instrumentala—, epe motzeko motibazioarekin lotzen dela. Epe motzeko motibazio honek neurri txikiagoan eragiten dio 2Haren jabekuntza prozesuaren arrakastari.

3. Clement eta Kruidenerrek proposaturiko aldaketak

Motibazioaren inguruan egiten ari ziren ikerketen emaitza kontrajarriak zirela eta, ondorengoak direla arrazoiak diote Clément eta Kruidenerrek:

- orientazio integratzailearen eta instrumentalaren arteko definizio nahasketa,
- eta orientazioetan gizabanakoaren inguruneak duen eragina.

3.1. Orientazio instrumentalaren definizioarekin gehiengoa ados agertzen bada ere, ez da gauza bera gertatzen integratzaileaz emandako definizioaren inguruan. Badirudi arrazoi mota ekonomikoa edo oso zehatza eta pragmatikoa ez bada, besterik gabe integratzaile bezala sailkatzeko joera dagoela. Esate baterako, «etxetik kanpo egoteko aukera» Spolsky-k (1969) arrazoi integratzailetzat jotzen zuen. Gardnerek dio (1977) «atzerrira bidaia egitea» Lukmani-k (1972) instrumentaltzat duela eta Burstall, Jamieson, Cohen eta Hargraves-ek (1974) integratzailetzat.

Oller, Hudson eta Liu-k (1977) zera proposatu zuten: gizabanako bat «integratzaile» modura sailka daitekeela, baldin eta bigarren hizkuntza duten kideak altu edo lehen hizkuntzako kideak baino altuago baloratzen baditu, bederen.

Bestetik, zera ere proposatu zuten: «orientazio instrumental» terminua «adimena» edo «gaitasuna» bezalako ezaugarriei atxekirik definitzea eta, aldiz, «orientazio integratzailea», «adiskidetasuna» eta «zintzotasuna» modukoei atxekitzea, adibidez.

Ollerrek eta bere kolaboratzaileek orientazio integratzailearen aspektu garrantzitsu bat aherentzi zuten: bigarren hizkuntzaren komunitatearekiko afektu positiboa. Ikusi izan da, afektu positibo hau orientazio instrumentalararen osagai ere izan daitekeela (Gardner eta Smythe, 1975).

Zera da ezberdina orientazio integratzaileari denaz bezanbanean: beste komunitateko kideekin identifikatzeko nahia ere agertzen duela orientazio horrek.

Gardner eta Lambert (1972) konsziente ziren terminu hauen nahaste-borrasteaz. Esaten zuten, gainera, gizabanako bat beste taldeko kide bezala integra zitekeela hauek esplotatu, kontrolatu eta manipulatzeko edota bere kultur komunitatearekin gustora ez egoteagatik.

Orientazio integratzailea, beraz, honako terminu hauetan defini daitekeena izango da: bigarren hizkuntza duen eta afektiboki baloratzen den komunitateko kideekin identifikatzeko borondate ona.

Ikusitako definizio nahasiek zera ematen digute aditzera, «beste herrialde batera bidaia egitea», edo antzeko arrazoiak, bai integratzaile bai instrumentalak izan daitezkeela hitzen esanahi jatorrizkoari begiratuz gero, behintzat.

3.2. Definizio nahasi horiez gain, baliteke inguruneko faktoreek ere, edo «kultur faktoreek», zerikusia izatea orientazioaren ikerketetan lortutako emaitza kontrajarrietan.

Burutu diren ikerketek erakusten dute orientazioaren eta bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren artean gertatzen diren erlazioak irakaskuntza gertatzen den ingurunearen baitan alda daitezkeela. Kultur ingurunearen eragin hori, duela gutxi egindako ikerketetan bistaratu da, bigarren hizkuntzaren jabekuntzan motibazioaren errola aztertu denean (Clément eta Hamers, 1979; Gardner, 1979).

Zehazki, arlo honetan, irakaskuntzaren ingurune hiru aspektu izan daitezke garrantzitsu: 1) ikasten duen subjektuaren etnizitatea, 2) komunitateko beste hizkuntz taldeen gertutasuna eta 3) bigarren hizkuntzaren estatua.

1) Subjektuaren etnizitateak arrazoieta eragin dezake, eta bigarren hizkuntzaren aldeko interesa lagundu. Talde etniko bateko partaide izateak, talde horretako beste kideekin hizkuntza amankomuna eta ohitura, balore eta bizimodu beretsua izatea esan nahi du. Komunitate handi baten barruan talde etnikoko kideek beste taldeetako lagunekin duten jarrera, zein jokabideak ere, baldintza ditzake (Giles, Bourhis eta Taylor 1977; Tajfel 1974).

Talde gutxituko kideentzat talde maioritarioaren hizkuntza ikasteak beste taldean asimilatzea esan nahi izan lezake. Talde maioritarioko kideek talde gutxituaren hizkuntza ikasten dutela, hauek kontrolatzeko eta errazago menperatzeko aukera handiago esan nahi lezake.

Menperakuntza/ez menperakuntzako aspektu interetnikoek talde etnikoetako kideen orientazioetan eragin lezakete; Kanadan, esate baterako, espero daitekeena da anglofono eta frankofoenok orientazio ezberdinak agertzea beste taldearen hizkuntza ikasteko.

2) Etnizitateari dagozkion orientazio ezberdintasunak, talde etnikoko kideen salientziari dagokionez ere aldatzerik badago. Giles, Bourhis eta Taylor-i (1977) jarraiki, talde etniko bateko hizkuntzak soilik har dezake salientzia identitate etnikoko markatzat, beste talde etnikoekiko kontrastea azpimarratuz. Honi dagokionez, beraz, komunitatearen osatze kulturala interesgarri gerta daitekeen ingurune faktore garrantzitsua izan liteke. Uste izatekoa da kultura bakarrek inguruneetan agertzen diren taldearteko ezberdintasun orientazionalak argiagoak bihurtzea kultura anitzeko inguruetan, kontaktuak talde etnikoen estatus erlatiboa nabarmenaraz lezake eta.

3) Azkenik, kontaktua kontuan izanik, bigarren hizkuntza duen taldearekiko gertutasuna aldatu egin daiteke estatus politiko-linguistikoaren arabera. Horrela, arraz ezberdinak dira hizkuntza ofizialak ikasteko arrazoiak eta atzerriko hizkuntzaren jabekuntzan agertzen diren orientazioak. Kanadan, adibidez, anglofonoek batetik, eta frankofoenok bestetik, frantsesa edo ingelesa —hizkuntza ofizialak, alegia—, ikasteko erakusten dituzten orientazio ezberdintasunak harrigarri lirateke gure kontestuan, han, ikaskuntza hori talde gutxiagotuaren hizkuntza ikastea jotzen dutelako.

3.3. Laburtuz, Clément eta Kruidenerrek (1985) integratibitatean sartzen diren bi aspektu garrantzitsu azpimarratzen dituzte: afektu positiboa, eta dagoeneko Gardner eta Lambertek aipatutako identifikazio nahia; eta autore hauek diotenez, badaude zenbait kasu zeinetan biak ez diren elkarrekin agertzen. Beren ustetan, orientazio integratzailea beste talde etnikoarekin kontaktuan egon eta beren kultura mehatxupean ikusten ez duten taldeetan baizik ez da agertzen; neke da baldintza hauetatik kanpo gertatzea.

Hau da, eskuarki, hizkuntza maioritarioa duten taldeen kasua. Guri dagokigunean, Euskal Herrian, gaztelaniaz hitzegiten dutenen taldea legoke egoera honetan.

Finean, Clément eta Kruidenerren ustez (1983) 2Haren jabekuntzan beti ageri izango da nolabaiteko orientazio pragmatiko edo instrumentalen bat.

Beraz, Gardner eta Lambertek aldarrikatu bereizketa original hura —integratzaile-instrumental *continuuma*, alegia—, ezin da ingurune guztietan mantendu eta, horregatik, autore hauek sailkapen zabalago bat proposatzen dute.

Beraien ikerketen ildoan, ingurune elebakar nahiz eleanizetan ageri ohi diren lau orientazio aurkitzen dituzte:

1. Orientazio instrumentala
2. Bidaiatzea
3. Adiskidetasuna
4. Nork bere buruaz eta beste taldeari buruz duen ezagutza

Ez da orientazio integratzaile orokorrik agertzen. Osagai afektiboa «adiskidetasuna» eta «bidaiatzea» faktoreetan agertzen da; eta identifikazioarena, beste taldeari buruz duen ezagutzan. Ingurunea nola osatuta dagoen, orientazio batzuk edo beste batzuk agertuko dira indar handiagoarekin, edo txikiagoarekin.

Orientazio bat edo bestea agertu, azken finean, «NORK ZEIN hizkuntza zein EGOERATAN ikasten duen»-aren baldintzapean dago.

4. Euskal Herriari dagokionez

4.1. 1991-92 eta 1992-93 ikasturteetan egin da gure ikerketa. 594 subjektuk osatzen dute lagina. Subjektu hauek EAEko eta Nafarroako 20 euskaltegitako ikasleak ditugu. %61.4a emakumezkoa da eta %37.3a gizonezkoa. Horien adinaren batzbestekoa 27.21 urtekoa da: Euskalduntzeko maila ezberdinetakoak ditugu, lehenengo urratsetik hasi eta EGA bitartekoak; hauetatik %45 zortzigarren urratsetik gorakoak dira. Euskaltegi mota guztietatik hartutako lagunekin osatutako lagina dugu: HABE eta Nafarroako Gobernukoak, Udal euskaltegiak, homologatuak, hitzarmenduak eta AEK. Lurraldeei dagokienean, %23a arabarra da, %29.5a bizkaitarra, %32.5a gipuzkoarra eta %14.3a nafarra.

Bizi-herriko elebidunen kopuruaren arabera sailkatu ziren: %60.2a elebidunen kopurua biztanleriaren %20a baino txikiagoa den herrietan bizi da, %19.5a %20-40 bitarteko herrietan, %12.9a elebidunak %40-60 diren herrietan, %2.8a %60-80 diren herrietan eta %1.2a elebidunak %80 baino gehiago diren herrietan.

4.2. Motibazioa neurtu nahi eta Clément eta Kruidenerren (1983) galdesortaren egokitzapena egin zen gure ingurura moldatuz. Galdesortak 18 item zituen, orientazio motibazionalari zegozkionak, eta «euskara ikasten dut...» galderari erantzuten ziotenak. Gainera, motibazioaren intentsitatea neurtzeko lau item ere erantsi ziren. Hona galdesorta:

ORIENTAZIOA

5 4 3 2 1

Euskara ikasten dut:

- Euskaldunen artean erosoago sentitzeko
 - Etorkizuneko ikasketetan lagunduko didalako
 - Euskaldunekin komunikatu ahal izateko
 - Beranduago beste hizkuntza batzuk ikasten lagunduko didalako
 - Lagun euskaldunak egiteko
 - Landuagoa egoteko modu bat delako
 - Euskal kultura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratu ahal izateko
 - Euskaldun sentitzeko
 - Ideia berriak eta ikuspuntu zabalagoak esan nahi duelako
 - Lanpostu bat lortzeko
 - Euskaldunak hobeto ezagutzeko
 - Jendea gehiago errespetatzen delako euskara badaki
 - Euskal komunitateko kide bihurtzeko
 - Interesatzen zaizkidan ekintzak burutzeko (kirola, musika, mendia...)
 - Euskaldunak eta beren bizitzeko modua hobeto ulertzeko
 - Lanpostu hobe lortzeko
 - Euskaldunek gizarte honetan dituzten arazoak hobeto ulertzeko
 - Euskal kulturaren ekintzetan parte hartu ahal izateko
-

INTENTSITATEA

5 4 3 2 1

- Euskara ondo jakitea gustatuko litzaidake
 - Euskara ondo ikasten saiatzeko prest nago
 - Euskaraz bizitzea gustatuko litzaidake
 - Euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatzen naiz
-

(5 = Erabat ados, 4 = Nahiko ados, 3 = Erantzunik ez, 2 = Nahiko desados 1 = Erabat desados)

Kontuan izatekoa da %72.7ak euskaraz erantzun zuela galdesorta. Euskarazko nahiz gaztelaniazko bertsioa ematen zaizkio hasieran eta, ondoren, bazterrean utzi duena jasotzen da.

4.3. Analisi faktoriala egin genuen orientazio motibazionalako osagaiak nola banatzen ziren ikusteko. Hiru faktore agertzen zaizkigu hemen. Ikus 1. taula hau:

1. taula

ANALISI FAKTORIALA. ORIENTAZIO MOTIBAZIONALAK.

1. Faktorea: Integratzailea %30.5

- 0.81724-Euskaldunak eta beren bizitzeko modua hobeto ulertzeko
- 0.78132-Euskaldunak hobeto ezagutzeko
- 0.73578-Euskal kulturaren ekintzetan parte hartu ahal izateko
- 0.71780-Euskaldunek gizarte honetan dituzten arazoak hobeto ulertzeko
- 0.65642-Euskal kultura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratu ahal izateko
- 0.57693-Euskaldun sentitzeko
- 0.52951-Ideia berriak eta ikuspuntu zabalagoak adierazten dizkidalako
- 0.51999-Euskaldunekin komunikatu ahal izateko
- 0.44849-Lagun euskaldunak egiteko
- 0.41909-Euskal komunitateko kide bihurtzeko
- 0.41004-Interesatzen zaizkidan gauzak egiteko(kirola, mendia, musika,...)
- 0.35524-Euskaldunen artean erosoago sentitzeko

2. Faktorea: Instrumentala %15.6

- 0.89945-Lanpostu hobea lortzeko
- 0.89130-Lanpostu bat lortzeko
- 0.70037-Etorkizuneko ikasketetan lagunduko didalako
- 0.35959-Beranduago beste hizkuntza batzuk ikasten lagunduko didalako

3. Faktorea: Garapen edo irabazi pertsonala, integratzailea %6.6

- 0.62981-Landuago egoteko modu bat delako
 - 0.61052-Jendea gehiago errespetatzen delako euskara badaki
 - 0.59511-Beranduago beste hizkuntza batzuk ikasten lagunduko didalako
 - 0.57160-Lagun euskaldunak egiteko
 - 0.54856-Euskaldunen artean erosoago sentitzeko
 - 0.48463-Euskal komunitateko kide bihurtzeko
 - 0.39139-Interesatzen zaizkidan gauzak egiteko(kirola, mendia, musika,...)
 - 0.35276-Etorkizuneko ikasketetan lagunduko didalako
-

Lehenengo faktoreak orientazio integratzaileko nahiz komunikatiboko item gehienak biltzen ditu. INTEGRATZAILEA da, beraz.

Bigarren faktoreak, berriz, orientazio INSTRUMENTALEKO itemak biltzen ditu.

Hirugarrenak, garapen eta etekin pertsonala eta zenbait item integratzaile erakusten ditu; beraz, GARAPEN PERTSONALA.INTEGRATZAI-LEA deitu diogu.

4.4. Segidan, orientazio mota hauek euskararen ezagutzarekin nola erlazionatzen diren ikusiko dugu. Horretarako, ondorengo aldagai konplexuak egituratu ziren: INTE, PRAG, GAPE eta MOTI. Eta aldagai hauek eta URRA aldagaien arteko koerlazioa aztertu zen. Hona 2 taula:

2. taula
EUSKARA MAILA(URRA) ETA MOTIBAZIOAREN
ARTEKO KOERLAZIOAK
URRA Pearson correlation

	R	Sig.
Intentsitate motibazionala	.1797	.000
Orientazio integratzailea	.1407	.001
Orientazio instrumentala	.0273	.261
Garapen pertsonala	-.0241	.290

Azterketa honen arabera, eta euskara 2H dugula, intentsitate motibazionalarekin koerlazioan du, lehenik, ikasleak euskaraz duen gaitasuna; hau da, hizkuntza hori ikasi eta erabiltzeko gogoaren indarrarekin.

Orientazio motibazionalari dagokienean, esanguratsua da orientazio integratzailearekin agertzen den koerlazioa. Ez orientazio instrumentalari, ez garapen edo irabazi pertsonalari dagokion koerlazioa ez da estatistikoki esanguratsua. Hau da, orientazio integratzailea da euskaraz gaitasun ona lortzeko auresalerik onena.

4.5. Ondorioak:

Gardner eta Lambertek aurkezten duten sailkapena baliagarria da oraindik, salbu zenbait zehaztasun:

—Orientazio integratzailea da (1. faktorea) talde hau hobekien diskriminatzen duena. Orientazio instrumentala (2. faktorea) dugu bigarren.

Clément eta Kruidenerek (1983) lau orientazio mota aurkitzen dituzte ingurune elebarrak nahiz eleantzetan. Hauek aurkitzen dituguk:

- Orientazio integratzailea bereiz agertzen da. Honek, exotaldearen ezagutza eta ulermeneko elementuak eta baloraziozkoak agertzen ditu. Horrela, elementu komunikatiboak orientazio integratzailearekin batera agertzen dira.
- «Bidaiatzea» arrazoia ez da agertzen. Hau ulertzekoa da 2Haren —euskararen—, ezaugarriak kontuan izanik. Bere lurraldea oso mugatua da.
- «Adiskidetasuna» ez da arrazoi bereizi bezala agertzen, 1. eta 3. faktoreetako elementu komunikatiboetan banatuta baizik.
- «Nork bere buruaz eta beste taldeari buruz duen ezagutza» izenekoa ere ez da garbi agertzen. Kontuan izan behar da beren galdesortaren bertsio murriztua erabilia, hari zegozkion zenbait item baztertu egin zirela. Gorde zirenak 3. faktorean agertzen dira, «garapen pertsonala» deitu dugunean.

Gure inguruneko ezaugarri berezi bezala, zera azpimarratuko genuke, 3. taularen arabera:

3. taula

GURE INGURUNeko EZAUGARRI BEREZIAK

Gardner eta Lambert:

- Integratzailea
- Instrumentala
- Komunikatiboa

Clément eta Kruidener:

- Instrumentala
- Bidaiatzea
- Adiskidetasuna
- Norberarekiko eta taldearekiko ezagutza

Gure inguruan:

- Integratzailea + Komunikatiboa
 - Instrumentala:
 - Lan munduarekin lotzen dena
 - Hautazko-instrumentala
-

Zera esan genezake, honenbestean:

- Elementu komunikatibo eta integratzaileak faktore berean agertzen dira. Arrazoi integratzailea eratzen duten elementuak, afektua eta identifikazioa, elkarrekin agertzen dira.

—Arrazoi instrumentala bitan banatzen da:

- lan munduari lotutako instrumentala
- hautazko-instrumentala, hautazkoagoak diren garapen pertsonaleko elementuei dagokiena: gogoko ditudan ekintzak burutzea, jendearen errespetua irabaztea, beste hizkuntza batzuk ikastea,...

Motibazioaren eta euskararen jabeakuntzaren erlazioari dagokionez, emaitzak bat datoz Gardner eta Lambertek (1972) esandakoarekin. Hauen esanetan, ingurune eleanitzetan —gurea, kasu—, agertzen da orientazio integratzailea 2Han lortutako emaitza onei loturik. Horixe betetzen da gurean.

Clément eta Kruidenerrek (1983) ideia hori azpimarratzen dute, hau gizarte eleanitzetan gertatzen dela esanez, baina hizkuntz talde dominanteko kideetan. Subjektu hauetan, 2Haz jabetzea —gutxitua den hizkuntza—, ez da beren ama-hizkuntza eta kulturarentzat mehatxu eta, horregatik, beste taldearen hizkuntza eta kultura inongo arriskurik gabe eskura ditzake. Gurean, gatzelaniaz hitzegiten dutenen taldea.

Gure emaitzen arabera, euskara lan bat lortzeko ikasteak ez du bermatzen euskara maila ona lortzea.

II. ATALA

1. Giles, Bourhis eta Taylorren bizitasun etnolinguistikoaren teoria

Gizabanakoa, talde bateko kide dela izan behar dugu, lehen-lehenik, kontuan. Gizabanakoa bere taldeko beste kideekin harremanetan bizi da baina, aldi berean, taldeak ere beste talde batzuekin harremanetan daude etengabe, eta taldearteko harreman hauek ez dira hutsean gertatzen. Egoeraren ondoko aldagaiek, batetik, eta aldagai sozioestrukturalek, bestetik, eragiten dituzte harreman horiek. Gainera, aldagai hauek hizkuntz talde ezberdinetako hitzunen artean gertatzen den kontaktuaren izaera eta kalitatea ere baldintzatzen dituzte.

Bizitasun etnolinguistikoaren VEL nozioa lehenik Giles, Bourhis eta Taylorrek erabili zuten (1977) eta hori, taldeartean, hizkuntz komunitateen indarrari eragiten dioten aldagai sozioestrukturalak aztertzeko tresna da.

Taldearen bizitasun etnolinguistikoa honela definitu zen: «talde bat, beste talde etniko batzuekiko harremanetan entitate ezberdindu eta aktibo modura jokarazten duten aldagai sozioestrukturalen multzoa».

Talde batek hizkuntz komunitate bezala duen indarra eta hizkuntz-ukipen egoeretan entitate ezberdindu modura bizirauteko dituen aukerak bal-

dintzaten ditu bizitasun etnolinguistikoak. Alderantziz, bizitasun gutxi, edo batere ez, duten taldeek, luzera talde ezberdinu modura desagertzeko arriskua dute hizkuntz-ukipen egoeretan.

Aldagai estrukturaletan ari garela, hiru dimentsio zabal eta garrantzitsu proposatu ziren taldeen bizitasun etnolinguistikoari dagokionez: demografia, instituzioen laguntza eta hizkuntzari nahiz hitzunei dagokien estatua. Edo 4. taularen arabera:

4. taula

BIZITASUN ETNOLINGUISTIKOA

1.. Demografia

1.1. Indar numerikoa

- 1.1.1. Hitzunen zenbaki absolutua
- 1.1.2. Jaiotze tasa
- 1.1.3. Endogamia eta exogamia joerak
- 1.1.4. Emigrazioa eta inmigrazioa

1.2. Populazioaren banaketa

- 1.2.1. Lurralde nazional baten okupazioa ala ez
- 1.2.2. Lurraldean okupatzen duten proportzioa
- 1.2.3. Konzentrazio geografikoa (talde konsistentzia)
- 1.2.4. Taldean dagoen biztanle kopuru elebiduna eta elebakarra

2. Instituzioen laguntza

2.1. Formala eta ez-formala

- 2.1.1. Mass mediak (hizkuntz erabilpena)
- 2.1.2. Hezkuntza (hizkuntza hezkuntzan)
- 2.1.3. Administrazioa (laguntza eta egiazko erabilpena)
- 2.1.4. Industria
- 2.2.1. Kultura
- 2.2.2. Erlijioa

3. Estatua

3.1. Taldearen estatua

- 3.1.1. Taldearen estatus soziala
- 3.1.2. Estatus ekonomikoa
- 3.1.3. Estatus sozio-historikoa

3.2. Hizkuntzaren estatua

- 3.2.1. Barnekoa (hiztun komunitatea)
 - 3.2.2. Kanpoko (nazioarteko komunikazio hizkuntza den heinean)
-

1.1. Aldagai demografikoak

Aldagai demografikoak, hizkuntz komunitatea osatzen duten kideen kopuru osoari dagozkio, batetik, eta herri nahiz eskualde edo lurralde nazional jakin batean kide horiek duten banaketari, bestetik. Banaketari buruzko faktore horiek, taldeko kideek lurraldeko zenbait lekutan duten kontzentrazioaren araberrakoak dira; beste taldeko kideekiko proportzio erlatiboa ere kontuan izango dute. Gainera, taldeak lurralde «tradizional» edo «nazionala» okupatzen duen, edo ez duen, ere aintzakotzat hartuko da. Kopuruaren faktoreak, aldiz, komunitateko taldearen zenbaki absolutuari, jaiotze tasari, exogamia/endogamia joerari eta emigrazio/inmigrazio joerari dagozkio.

1.2. Instituzioen laguntza

Instituzioen laguntza, hizkuntz taldeak komunitateko, eskualdeko, estatuko nahiz nazioko zenbait instituziotan duen ordezkatzeko formal edo ez-formalari dagokio.

Zera esan nahi du «laguntza ez-formalak», alegia, hizkuntz taldea zenbateraino dagoen eratu, zenbateraino den «presio talde», bere interes etnolinguistikoak hainbat ekintza pribatutan ordezkatzeko eta bizirik iraunarazteko: hezkuntzan, mass medietan, gobernuko zerbitzutan, negozioen munduan, finantzetan...

«Laguntza formalak», berriz, ondokoa esan nahi du, hots, zenbateraino dituzten hizkuntz taldeko kideek kontrol posizioak gobernuan, eta zenbaterainoko erabaki ahalmena: negozioen gainean, industrian, mass medietan, erlijioan eta kultur munduan.

Estatu barnean eta instituzio pribatuetan kontrol instituzional handia duten hizkuntz taldeek, kontrol instituzionalik ez duten hizkuntz taldeak baino egoera hobean daude; alegia, bizitasuna —beren taldeko ezaugarri denez—, gorde eta azkartzeko.

Honela defini daiteke instituzioen kontrola: «talde batek bere zortea eta beste taldeena erabakitze duen kontrol maila». Bizitasun etnolinguistikoaren dimentsio hau, talde batek beste taldeekiko duen botere sozialaren gradu bezala har daiteke. Talde menperatzaile horretako kideek beste taldeetako kideengan beren abantaila ezartzeko erabil dezakete boterea. Dударik gabe, «instituzioen kontrola» da hizkuntz taldeek, batzuek nahiz besteek elkarren kontra borrokan, beren izaera gorde eta baieztatze duen bizitasunaren dimentsio garrantzitsuenetakoa. Alderantziz, garbi dago ere, azpian dagoen hizkuntz taldeak «instituzioen kontrolean» aldeko posizioa lortu eta mantendu behar duela beste taldearengandik ezberdindutako talde kolektibo bezala biziraun nahi badu taldearteko estruktura barnean (Herberg 1989; Skutnabb-Kangas eta Cummins 1988).

Bizitasun etnolinguistikoan agertzen ez den kontrol instituzionalaren beste bereizgarri garrantzitsu bat buruzagiaren presentzia eta kalitatea da, hauek hizkuntz taldearen errepresentazio instituzional formal nahiz ez-formala bultzatzen dezakete eta (Wardhaugh, 1987).

Askotan, kontrol instituzionalean lortzen dena buruzagi hauen lanetik dator, hauek bere hizkuntzaren, kulturaren eta biziraupen etnikoaren alde mobilizatzen baitute hizkuntz komunitatea taldearteko harremanetan (Fishman, 1972). Buruzagi hauen ausentziak aurreko belaunaldietako kideek lortutako irabaziak galtzera eraman lezake taldea eta, ondorioz, etorkizuneko lorpenak ere hipoteka ditzake, hizkuntz komunitatearen ondoko belaunaldietako kideen biziraupenerako nahitaezkoak diren lorpenak, alegia.

1.3. Estatusari dagozkion aldagaiak hiztun komunitatearen prestigio sozialari, estatus sozio-historikoari eta hizkuntzaren eta kulturaren prestigioari lotzen zaizkio. Hizkuntzaren eta kulturaren prestigioari dagokionez, ez bakarrik bere lurraldean duen prestigioa, baita nazioarteko mailan duena ere bai. Zenbat eta estatus altuagoa izan hizkuntz komunitateak, orduan eta errazago ulertuko litzateke bizitasuna kolektibitate bezala jarrera hartzea. Nahiz eta faktore demografikoak eta laguntza instituzionalekoak bezain neurterreza ez izan, gertakari sozio-psikologikoek adierazten dutenez, talde estatus altuak talde-kideentzat identitate sozial positiboagoa esan nahiko luke; hau zailago litzateke estatus apaleko kideentzat (Sachdev eta Bourhis, 1987; Tajfel eta Turner, 1979).

Hiru dimentsio hauen gainetik, beren konbinazioa eta horren ondoriozko osotasuna lirateke hizkuntz taldeen indar edo bizitasuna eragiten dutenak (Bourhis, 1979; Giles et al. 1977). Datu demolinguistiko eta soziografikoak hizkuntz taldeen bizitasun erlatiboa, taldearteko barrutian, ahalik eta objetiboen ezagutzeko erabil daitezke. Esate baterako, hizkuntz talde bat ahula izan daiteke aldagai demografikoetan, baina indartsua laguntza instituzional eta estatusari dagokionean. Orduan, esan ahal izango da, oro har, estatus altua duen talde gutxitu dominatzaile honek erdi mailako bizitasuna duela bizitasunaren faktore guztietan (demografia, estatusa, laguntza instituzionala) ahula izatera jotzen duen beste hizkuntz talde gutxituarekin konparatuz, bederen.

Aipatzekoa da, eskuarki, bizitasun orokor indartsua duten hizkuntz taldeak entitate kolektibo ezberdindu modura bizirautea iristea ziurragoa dela. Bizitasun orokor ahula duten taldeek, taldearteko marku batean, zailago dute lortzea.

Eta zergatik sortu zen «bizitasun etnolinguistikoa» kontzeptua —azterketa sozialerako tresna denez—, soziolinguistikan eta hizkuntzaren psikologia sozialean?

1970. hamarkadan etnizitatearekin eta taldearteko harremanekin zerikusia zuten ikerketen berpiztearen ondotik (Fishman, 1977; Tajfel 1978), beharrezko bihurtzen da talde etnikoei buruzko posizio sozioestruturalak sistematikoki aztertzea, mundu zabalean egiten ari ziren azterketa ugarien ondorioz. Garbi ikusi zen, hizkuntz aldaketa, hizkuntzarekiko jarrerak, komunikazio inter-etnikoa, gatazka etnikoa eta gisako gaiak

ez zegoela, hutsaldi sozioestrutural haretan, luzaro aztertzerik (Tajfel, 1972).

Johnson, Giles eta Bourhisek (1983) diotenaren arabera, «bizitasuna» kontzeptua prozesu soziolinguistikoak eta psikologia sozialekoak jokaera interetnikoan ezartzeko dagoen beharretik dator; alegia, jokaera interetniko beraren kontestu sozio-estruturalean ezartzeko dagoen pre-miatik.

2. Giles, Bourhis eta Rosenthal-en bizitasun etnolinguistiko erlatibo-subjetiboaren teoria

Bizitasun etnolinguistiko objetiboa —VEL— ez dator bat, nahitaez, subjektuek berarekiko duten pertzepzioarekin; horregatik, bizitasun etnolinguistiko erlatibo-subjetiboaz hitzegin zen ondoko urteetan. Bizitasun etnolinguistiko erlatibo-subjetibo hau, zenbait iragazki afektibo eta gero, subjektu bakoitzak VELari buruz osatzen duen konstruktuko konjuntiboa litzateke. Autore askok sartzen dute VERSa 2Haren jabekuntzarako eredueta. Horien artean dira, esate baterako, Gardner (1983), Hammers eta Blanc (1983), Clément eta Kruidener (1983) eta Giles eta Byrne (1983).

Bourhis, Giles eta Rosenthalek garatu zuten VERSa. Zera aztertu nahi zuten, alegia, taldeko kideek beren posizio sozio-estruturala «objektiboki» antzematen duten moduan antzematen ote duten «subjektiboki» ere. Bizitasun subjektiboaren galdesorta (Subjective Vitality Questionnaire) sujetuek beren taldean nahiz bestean bizitasunaz egiten zuten balorapena neurtzeko proposatu zen, eta itemak bizitasun objektibokoak ziren, hau da, demografia, estatusa eta laguntza instituzionalari buruzkoak.

SVQaz eginiko zenbait ikerketek erakutsi zuten, zenbait inguruntan hizkuntz taldeetako kideek beren bizitasuna beste taldearekiko posizio erlatiboan antzematen zuten.

Zertzelada hauek, gehienbat, ez dira endotalde eta exotaldearen bizitasunaren itemetan ematen diren ezberdintasunengatik gertatzen. Endotaldearen eta exotaldearen ezberdintasun gradua, marginalak diren itemetan agertzen da.

Ikusiko dugunez, faktore kognitibo eta motibazionalak puntu honen garrantzia areago lezakete, endotalde eta exotaldearen arteko ezberdintasunak egoera eleanitzetan agertzen direnean.

Bizitasun subjektiboa hizkuntz jokaeraren aurreale den aldetik saiatuko gara ondoren. Bizitasun subjektiboaren premisa oinarritzakoak da endo eta exotaldearen bizitasunarekiko balorapen subjektiboa, balorapen hori garrantzitsua izan baitaiteke jokaera soziolinguistiko eta interetnikoak baldintzatzeko. Bi bizitasunen konbinazioa, eta bertatik jasotako informa-

zioa, jo zituzten taldeko kideen jokabide linguistikoa auresateko metodorik sensiblerantz (Giles eta Johnson, 1981). Zenbait kasutan aipatu zenez, agian, bizitasun subjetoa hizkuntz jokaeraren auresale hobearen taldearen bizitasunaren balorapen objektiboaren bera baino (Giles, Leets eta Couplans, 1990).

1980. hamarkadan, bizitasun subjetoaren pertzepzioek hizkuntz taldeen hizkuntz jokaera aurrez igar zezaketela eman zuten erakustera zenbait saio enpirikorik. Eskuarki, hipotesi honi lotzen zaizkio emaitzak: beren bizitasuna altua antzematen duten taldeko kideak, bizitasuna baxu antzematen duten hizkuntz taldeko kideak baino gustorago daude beren hizkuntza ahalik eta egoera gehienetan erabiltzeko.

Hizkuntz jabekuntzari dagokionez, Labrie eta Clément-ek (1986) bizitasun etnolinguistikokoaren pertzepzioaren ondorioa aztertu zuten 2Harekiko jarrera eta motibazioetan. Emaitzek erakutsi zuten ez zegoen inongo erlazio estatistikorik bizitasun subjetoaren pertzepzioen artean —SVQ-n neurtzen ziren modura—, eta frankofonoek 2Ha zuten taldearekiko jarreretan, 2Ha ikasteko motibazioetan nahiz 2Haren erabileran.

Emaitza hauek direla eta, Labrie eta Clément-ek bizitasun subjetoaren pertzepzioak are zabalagoa den beste mundu sozio-afektibo bateko atal kontsideratu behar direla diote. Hau, geroago Allard eta Landry-k (1986) adieraziko digutenarekin bat dator. Hauek uste eta sinesmen sistema delakoan proposatuko dute beren erredua.

3. Allard eta Landryk bizitasun etnolinguistikokoaren teoriaren eginiko birdefinizioa. Usteak eta espektatibak

Allard eta Landryk proposatzen dutenez, bizitasun subjetoaren pertzepzioak hizkuntz jokabidearen auresale hobeak izan daitezke, beste zenbait aspektu ere kontutan hartuz gero. Hori dela eta, bizitasun etnolinguistikoko subjetoa «sinismen sistema» bezala ulertu zuten, zera desberdinduz:

- 1) kontaktuan dauden bi talde etnolinguistikoen arteko bizitasun egungo egoerari buruzko «sinismen orokorrak», SVQaren arabera,
- 2) gertatu beharko lukeenari buruzko «sinismen normatiboak»,
- 3) gizabanako bakoitzak gertatzen denari buruzko uste dueneko «sinismen personalak»,
- 4) «helburuen araberrako sinismenak», bakoitzak gertatzea nahiko lukeena.

Bere aplikapen enpirikorako, bizitasun etnolinguistikokoaren sinismenei buruzko galdesorta bat eratu zuten, BEVQ (Beliefs about Ethnolinguistic Vitality Questionnaire).

Autore hauek zera aurkitu zuten enpirikoki: sinismen pertsonalak eta helburuen araberrako sinismenak beraiek «sinismen egozentrikoak» deiturikoan taldeka zitezkeela eta sinismen orokorrak eta normatiboak aldi berean «sinismen exozentriko» deitu zutenean taldeka zitezkeela. Gainera «sinismen egozentrikoak» taldearteko portaeraren auresale hobeak zirela ikusi zuten sinismen exozentrikoekin konparatuz, ziuraski inplikazio pertsonal gradu handiagoa dutelako.

Orientazio kognitiboaren teoria erabiliz (Kreitler eta Kreitler 1976), Allard eta Landryk (1986) adierazi zuten hizkuntz jokaera auresateko beharrezko diren lau sinismenetako bakarra agertzen duela SVQak. Osagai orokorra besterik ez du azaltzen SVQak, eta hau ez dago hizkuntz komunikazioaren auresale errealtzat hartzerik (Ajzen, 1988). Orientazio kognitiboko teoriari jarraiki, jarrera pertsonalak —edo etorkizun hurbil batean egoerak nolakoak nahiko nukeen izatea—, jokaera intentzioak aktibatu behar du.

Beren ereduaren lehenengo test modura diseinatua izan zen lan batean, Allard eta Landryk beren galdesortaren barnean sartu zituzten SVQko itemak. Lehen aipatu ditugun lau osagaiak aurkitzen ziren horietan.

SVQa neurri deskriptibotzat erabil liteke eta, honek, hizkuntz taldeen aukeraketa balioztazen lagun diezaguke, ondoren, azterketa soziolinguistiko eta psikologikoetarako erabiliz ikerketa hauek. Allard eta Landryk proposaturiko ikerketa programak erakutsi du, Kanadan zehar, BEVQak hizkuntz joeraren auresale erreal modura duen balioa. Horrez gainera, hizkuntzarekiko jarrerak, hizkuntzaren erabilpena eta elebitasun gehigarri eta kengarria ere aurrez igartzen ditu. Bestalde, SVQak hizkuntz jokae-raren auresale izan litekeela ere frogatu dute. Beraz, Allard eta Landryk diotenez, bai BEVQ eta SVQ, biak, hutsaldi sozial batetik atera dira, nahiz eta bakoitza hizkuntz kontaktu ezberdinen bidez eratu den. Eguneroko kontaktu hauen zabalero eta aniztasunak taldeen bizitasun objetibo eta jokaera nahiz garapenen lotura dinamikoa dakarkigute. Garrantzi handiko da etorkizuneko ikerketetan galdesorta bata ala bestea erabiltze-
ra inor ez bultzatzea. Bataren nahiz bestearen dimentsio ezberdinek erabilpen ezberdinak izango dituzte: deskriptiboak, azalpenekoak, auresa-
leak...

4. Euskal Herriari dagokionez

Erabilitako lagina lehen aipatutako berbera izan da. Gure galdesortan, Giles, Bourhis eta Rosenthalek garatutako bizitasun etnolinguistiko erlatibo-subjetiboa erabili dugu, batetik; bestetik, Allard eta Landryk teoriaren birdefinizioan aipatzen dituzten euskararen egungo garrantzia eta joera, garrantzi horrek zenbaterainokoa izan beharko lukeen, etorkizun hurbilean euskararen ezagutza eta erabilera nolakoak izango diren eta, azkenik, sub-

jektuak garrantzi hori nolakoa nahiko lukeen izatea.

Lehen lehenik VERS-ari dagokionean euskaraz nahiz gaztelaniak lorturiko batazbestekoak ikusiko ditugu. Honela ditugu, 5. taularen arabera:

5. taula
EUSKARA ETA GAZTELANIAREKIKO BATAZBESTEKOAK

	Euskara (x)	Gaztelania (x)
Orokorra		
Gaur	4.151*	3.368
Etorkizuna	4.060*	3.448
Estatua		
Estatua EAEn	3.996*	3.989
Estatua herrian	3.806	4.093*
Nazioarte mailan	2.566	4.289*
Prestigioa	3.879*	3.845
Harrotasuna	4.161*	3.901
Aberastasuna	3.625*	3.491
Demografia		
Proporzioa	2.582	3.834*
Jaiotze tasa	2.878	3.356*
Gehiengoa	2.362	4.093*
Uniber. emigratuak	2.529	3.643*
Langile emigratuak	2.571	3.472*
Endogamia	3.103	3.287*
Laguntza instituzionala		
EAEko zerbitzuak	2.686	4.532*
Gobernu zentralerako zerb.	2.199	4.717*
Ekonomia	2.901	4.074*
TB, irratia	3.031	4.529*
Eskolak	3.306	4.222*
Politika	3.408	3.840*
Negozioak	2.471	4.317*
Eliza	2.245	4.343*
Kultura	3.510	3.971*

Hemen zera ikusten dugu:

- 1) Euskaldunen taldea bere hizkuntzaren defentsan indartsu eta aktiboagoa den ustea agertzen da, beti ere gaztelera-hiztunen taldearekin konparatuz.

- 2) Gaztelania faboretuago dago era guztietako laguntzaetan, eta demografiari dagozkion gorabeheretan ere bai.
- 3) Estatusari dagozkion faktoreetan antzekoa da egoera bi taldeetan. Euskararen aldekoagoa antzematen da EAeko estatusa, prestigioa, harrotasuna eta hiztunen aberastasun maila. Aldiz, gaztelaniaren aldekoago da herrian edo hirian nahiz nazioarte mailan hizkuntzak duen estatusa.

Bestetik, Allard eta Landryk esandakoaren arabera, euskararekiko jokaera aldekoenak, hauek dira handienetik txikienera, 6. taularen harrarian:

6. taula
EUSKARAREN EGUNGO
EGOERAREKIKO PERTZEPZIOAK

	x
Beharko lukeena	4.238
Tendentzia	3.822
Garrantzia gaur	3.481

ETORKIZUNEKO ESPEKTATIBAK

	x
EZAGUTZA	4.591
ERABILPENA	
Familiari	4.053
Eskolan	4.586
Kalean	4.119
Fabriketan	3.638
Bulegoetan	3.957
Tabernetan	4.165
Lagunartean	4.180
Instituzioetan	4.056
Dendetan	3.795
Unibertsitatean	4.163
Kirol munduan	3.754
Denbora libreko ekintzak	3.971
Elkartean	4.048

- 1) Usteak: lehenik, etorkizunean ezagutza-espektatibak; ondoren, erabilera-espektatibak; azkenik, euskararen egoerak nolakoa izan beharko lukeen.
- 2) Jarrerak, edo egoera hori nolakoa izatea nahiko nukeen.
- 3) Pertzepzioak: egungo joera edo tendetziaren arabera lehenik, eta egungo egoeraren arabera, hurren.

Hauxe da lortutako euskararen ezagutza mailak bizitasun etnolinguistikoa izan dezakeen eragina, 7. taulak erakusten digunez:

7. taula
EUSKARA MAILA, EGUNGO PERTZEPZIOAK
ETA ETORKIZUNEKO ESPEKTATIBEN
ARTEKO KOERLAZIOA

	r.	sig.
Antzemandako garrantzia	-.0644	.064
Tendentzia	-.1974	.000
Beharko lukeena	.1250	.002
Etorkizuna:ezagutza	-.1030	.007
Etorkizuna:erabilpena	-.0824	.020
Etorkizuna:nahia	.1534	.004

- 1) Zenbat eta hobeto jakin euskaraz, orduan eta handiagoak euskararen aldeko jarrerak, hau da, nolakoa izan beharko lukeen bere egoerak, eta nolakoa nahiko nukeen izatea.
- 2) Bestalde, ordea, zenbat eta hobeto jakin euskaraz —ezagutza hobia, alegia—, egungo tendentziaren pertzepzioa eta egungo egoeraren pertzepzioa ez dira aldekoak; eta etorkizun hurbil batean euskararen ezagutza eta erabilpenari buruzko usteak ere ez. Hau da, nahiz eta populazioaren dispozizioa euskararen aldeko izan, ezkorra da egungo eta etorkizuneko ustea.

Segidan, bizitasun etnolinguistikoko itemak hartu ditugu eta banatu: batetik, euskara eta euskaldunei dagozkienak eta, bestetik, gaztelania eta erdaldunei dagozkienak. Horrela, analisi faktoriala egin dugu talde bateko nahiz besteko itemekin. Hiru faktore atera ditugu analisi hauetan, hala talde batekiko nola bestearikiko. Hona 8. eta 8. bis taulak:

9. taula
MOTIBAZIOA ETA VERS-aren
ARTEKO KOERLAZIOA

	Inte.	Instr.	Gara. + Inte.
EUS. ESTATUSA + LAGUN.	-.0684 P = .100	.2946 P = .000	.1063 P = .023
EUSKALDUN ESTATUSA	.1346 P = .006	-.0820 P = .062	.0744 P = .082
DEMOGRAFIA	.1360 P = .005	-.1109 P = .019	.1143 P = .016
GAZ. ESTATUSA + LAGUN.	.1913 P = .000	-.1387 P = .005	-.1312 P = .007
ERDALDUNEN ESTATUSA	-.0100 P = .426	.1799 P = .000	-.0723 P = .089
DEMOGRAFIA	.1247 P = .010	-.0719 P = .090	.0757 P = .079

Zera ikus dezakegu hemen:

- 1) Argi eta garbi ikusten da, euskara eta euskaldunak, batetik, eta gaztelania eta gazteleradunak, bestetik, bi mundu aparte direla gure subjektuentzat (+ eta -), nahiz eta demografikoki hori ez agertu.
- 2) Orientazio integratzailea dutenek, gaztelaniak duen estatusa —eta laguntza instituzionala—, handia dela diote. Gainera, euskaldunen estatusa erdaldunena baino handiagoa da, eta demografia aldetik, berriz, ez dago ezberdintasun handiegirik.
- 3) Orientazio instrumentala dutenek, altu ikusten dute euskararen estatusa eta laguntza instituzionala, eta erdaldunen estatusa ere bai. Gainera, gaztelaniak laguntza instituzional gutxi duela eta euskaldunak demografikoki gehiago direlakoan daude.
- 4) Orientazio Gara+Inte. dutenek, gaztelaniak estatus eta laguntza instituzional txikiago duela uste dute; euskaldunak gehiago direla demografiaz, eta laguntza instituzional eta estatus handiago duela euskarak.

Azkenik, euskararen egungo garrantzia —izan beharko lukeena—, garrantziaren tendentzia, garrantziak zenbaterainokoa nahiko nukeen izatea eta etorkizun hurbileko ezagutza eta erabilra usteak motibazio orientazionalekin koerlazonatu genituen, eta zera ikusi genuen, 10. taularen arabera:

10. taula
MOTIBAZIOA ETA ESPEKTATIBEN ARTEKO KOERLAZIOA

	Inte.	Instr.	Gara. + Inte.
EGUNGO GARRANTZIA	-.1269 P = .002	.3363 P = .000	.0442 P = .164
IZAN BEHARKO LUKEENA	.3505 P = .000	-.4221 P = .000	.1003 P = .013
GARRANTZIA ARI DA	.0443 P = .165	.1012 P = .013	.0498 P = .137
NAHIKO NUKEENA(10 URTE)	.4152 P = .000	-.3240 P = .000	.1295 P = .002
EZAGUTZA(10 URTE BARRU)	.0512 P = .128	.1088 P = .008	.0022 P = .480
ERABILPENA(10 URTE BARRU) FAMILIAN	.1703 P = .000	-.0091 P = .420	.0317 P = .241
ESKOLAN	.1052 P = .010	.1071 P = .009	.0824 P = .033
KALEAN	.1946 P = .000	-.0687 P = .064	.1097 P = .007
LANTEGIETAN	.1565 P = .000	.0326 P = .236	.1078 P = .009
BULEGOETAN	.0797 P = .039	.0818 P = .035	.0842 P = .031
TABERNETAN	.2515 P = .000	-.1145 P = .005	.1110 P = .007
LAGUNARTEAN	.2880 P = .000	-.1188 P = .004	.0822 P = .034
INSTITUZIOETAN	.0925 P = .020	.1512 P = .000	.0626 P = .083
DENDETAN	.1617 P = .000	-.0226 P = .308	.0501 P = .133
UNIBERTSITATEAN	.1211 P = .004	.0502 P = .133	.1207 P = .011
KIROL MUNDUAN	.1411 P = .001	-.0502 P = .133	.1011 P = .012
DENBORA LIBREAN	.2466 P = .000	-.1315 P = .002	.1018 P = .012
ELKARTEETAN	.2857 P = .000	-.0301 P = .252	.0873 P = .026

- 1) Orientazio instrumentala dutenek, egun euskarari ematen zaion garrantzia handiegia dela uste dute; gauza bera, neurri txikiagoan bada ere, Gara+Inte. motibazioa dutenek. Integratzailea dutenek, berriz, garrantzia txikia dela diote.
- 2) «Izan beharko lukeenari» dagokionez, aldiz, motibazio integratzailea dutenek handiagoa izan beharko lukeela uste dute; gauza bera Gara + Inte. dutenek nahiz eta oso indar txikiarekin. Motibazio instrumentala dutenek, berriz, txikiagoa izan beharko lukeela diote.
- 3) Garrantziaren tendentziari dagokionez, hazten ari dela uste dute denek ere, baina instrumentala dutenek, batez ere.
- 4) Jarrerari dagokionez, orientazio integratzailea eta Gara+Inte. dutenek garrantzi handiagoa izatea nahiko lukete; instrumentala dutenek, berriz, txikiagoa izatea.
- 5) Etorkizun hurbileko ezagutzari dagokionez, motibazio instrumentala dutenak ditugu baikorrenak; orain baino jende gehiagok jankingo duela uste dute.
- 6) Etorkizun hurbileko erabilpenari dagokionez, berriz, instituzioetan, bulegoetan eta eskoletan gehiago erabiliko dela uste dute instrumentala dutenek eta, aldiz, gutxiago denbora libreko ekintzetan, tabernetan eta lagunekin. Beraz hautazkoak diren gertakarietan erabilpen eskasa aurrikusten dute, eta handiagoa derrigorrezkoa edo diren egitekoetan.

Erabilpena handiagoa aurrikusten dute, arlo guztietan, motibazio integratzailea dutenek.

Azken-azkenik, zera diote Gara + Inte. dutenek: familian, dendetan eta instituzioetan ez beste guztietan, gehiago erabiliko dela.

EUSKARAREKIKO MOTIBAZIO SINBOLIKOAK

Iñaki MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA
Nekane JAUSORO SANTA CRUZ

1. HIZKUNTZA ETA GIZARTEA

Gure hizkuntzaren ikuspegia dinamikoa da eta ez estatikoa, honek esan gura du ez dugula hizkuntza «gizarte instituzio» bezala ikusten, baizik eta «gizarte ekintza» bezala, hots, gizarte harremanetan parte hartzen duen elementu oinarritzkoa bezala. Ildo honi jarraituz, esan beharra dago gizarte harremanak ez direla orekatuak, ezta simetrikoak ere, alderantziz, Pierre Bourdieuk ondo adierazten duen bezala, gizarte harremanak botere harremanetan oinarriturik daude; gizarte harremanak gatazkatsuak dira eta, hori dela eta, berak beste kontzeptu baten erabilera proposatzen du, «indar harreman sinbolikoak»: gizartea indar harreman sinbolikoez eratzen da eta gizarte posizio ezberdinak «elkarren lehian» ari dira gizarte legitimitatea¹ lortzeko; azken honek gizarte posizio bakoitzaren tokia bantzen eta mugatzen duelako².

Autore hau aipatu dugu, gizarte esparruan maila sinbolikoari garrantzi berezia eman dion autoreea delako. Hizkuntzen arteko harremanak ere ikutu ditu Bourdieuk, bere ikuspegi horretatik³. Honela, gizarte espazioa «hizkuntza merkatua» (marché linguistique) den heinean hizkuntza ezberdinek (hots, hiztun ezberdinek) gizarte toki boteretsuak lortu nahi dituzte, gizarte legitimitatea lortzeko eta, horrela, beraien espazio sinbolikoa gauzatzeko;

¹ Bourdieuk «legitimitatea» eta «onargarritasuna» kontzeptuak ezberdintzen ditu: bata, adierazi beharrik gabe egiten dena da eta adierazi gabe egin daitekeena gainera («jakina» den zerbait); bestea, adierazita egin daitekeen zerbait da. Legitimitateak funtzionatzeko espazio sinboliko berea behar du izan: «horrela delako»; onargarritasuna baieztatzen den zerbait da, legitimitatea baino gizarte maila azalagoko mekanismoa da.

² Bere hitzetan: «La langue n'est pas seulement un instrument de communication ou même de connaissance mais un instrument de pouvoir. On ne cherche pas seulement à être compris mais aussi à être cru, obéi, respecté, distingué» (BOURDIEU, 1977: 20. or).

³ Gai honi buruz ikus BOURDIEU, 1982.

gauzatze prozesu honek gehiengo/gutxiengo logikara garamatza. Gizarte mailan, gehiengoak marka ezartzen du; honek esan gura du berea posizio ez-markatua dela beti, eta bera dela beste posizioak markatzen dituena, azken hauek, markatuak direnak, gutxiengoak direlarik (adibidez: gizon kategoria markatugabea da eta emakume kategoria markatua —gizona ez dena delako—; zuria eta beltza kategoriarekin gauza berbera gertatzen da eta hainbat eta hainbat gizarte kategoriarekin), horrela, gizarte legitimitateak bere ikuspegia gauzatzen du. Logika honek ez du zerikusirik kantitatearekin: gehiengoa ez da gehiago direlako eta gutxiengoa gutxi batzuk direlako; alderantziz, gehiengoak gizarte posizio bat adierazten du (asko ala gutxi izan), bere legitimitatea indarrean jarri duen posizioa, berak eraikitzen du «normala» zer den (eta normala ez dena ere bai), «prestigioskoa», jarraitu beharreko eredu zain den eta abar. Gutxiengoak gizarte eredu denari jarraitu behar dio. Horrek esan nahi du, bere eredu propioak eratzeko eta beraiei jarraitzeko, derrigorrez definizio prozesu batean sartu beharko dela, hau da, definizioen eta justifikazioen munduan. Logika honek Txepetxek adierazten duen hizkuntz komunitatearen trinkotze prozesuarekin («konpaktazioarekin») zerikusi handia du: euskaldun gehiago (kantitatea) behar ditugu noski, baina, euskal hiztunen, euskal sareen trinkotasuna (kualitatiboa) une batean garrantzitsuagoa suerta daiteke; horrela, gutxiengo baten trinkotasunak gehiengoa izatera lagun diezaiokie.

Honela, uler dezakegu euskaldunen jarrera orokorra ezezagunen aurrean. «Bestea», ezezaguna, ez badute euskaldun bezala identifikatzen, euskaldunek gaztelania erabiliko dute interakzio hizkuntza gisa. Identifikazio honetan elementu ez-linguistikoak kontuan hartzen dira; azken hauen artean «itxurak» garrantzia du bere eraginagatik: euskaldun itxura duenari euskaraz egingo diote; alderantziz, erdaldun itxura duenari gaztelaniaz. Honen ondorioz, baserritar edo nekazari irudia duenari euskaraz eta gazteei (edo hiri kutsua dutenei) gaztelaniaz. Auto-zentsura mekanismoa agertzen da, azken finean, gizarte legitimitatea gaztelaniarena delako («gaztelania denek dakite eta euskara batzuek bakarrik»).

François Flahaulten ikuspegia ahozko interakzioa aztertzerakoan oso interesgarria iruditzen zaigu⁴. Bere ikuspegitik, subjektu hiztuna hizkuntzaren bitartez subjektu egiten da, hots, hizkuntzak berezko lekua behar du subjektuen arteko harremanak aztertzeko. Horrela, interakzioa ez da komunikatzeko edo informatzeko medioa, «errekonozimendu eskaera» (demande de reconnaissance) baizik, baten eta bestearen nortasunak hor daudelarik: «nor zara zu niretzat, nor naiz ni zuretzat». «Errekonozimendu eskaera» hau gizarte toki batzuetan (eta batzuetatik) gauzatzen da⁵; hiztunak gizarte toki ezberdinetan kokatuta daude eta toki horietatik hitz egiten

⁴ Ikus FLAHAULT, 1978.

⁵ Autore hau lehenago aipatu dugun Bourdieu-ren gizarte espazioaren ikuspegitik hurbil dago.

dute, hots, gizarte kokapenen harreman batzuetatik hitz egiten da. Gizarte kokapen bakoitzak bere markak (ezaugarriak) ditu toki horretan dagoena legitimatzeko; Flahaultek «ikurra» (insigne) deitzen dio kokapen baten ezaugarriari⁶; zentzu honetan, batek hitz egin nahi dezake kokapen berezi batetik baina ez baditu lortzen edo bereganatzen kokapen horretatik hitz egiteko behar diren ikurrak, besteek ez dituzte legitimotzat emango ez bere hitza ez kokapen horretatik hitz egitea; horrela, ikurrek, bai errealitate material bati, bai maila sinboliko bati dagozkie. Ikusten dugunez, gizarte kokapenen ikurrak legitimitateari loturik doaz: kokapen bakoitzak bere legitimitateak ditu eta horrek esan gura du bere hizkuntza legitimo bezala ezarriko duela, bai formaz, bai edukinez, bere harreman legitimoekin batera.

Adibidez, ikerketa batean ikusten genuenez⁷, Arrasaten D eremuan ikasten duen 12 urteko neskatila/mutiko batek oso ondo bereizten ditu (gehienetan ohartu gabe) bizi den gizarte kokapenen harremanak, hau da, kokapen bakoitzaren ikurrak eta kokapen batean ala bestean kokatzeak berearrentzat suposatzen duena: UME kokapena (famiariaren mundua, esaten dizutena egin beharra dagoela —gurasoek, irakasleek—...) ala GAZTE (nerabezaro) kokapena (nolabait helduen munduan sartzea, lagunartea eta kale munduan...). Bi kokapen hauek ikur ezberdinez osaturik daude, toki batean ala bestean kokatzeak markatzen dituen: UME kokapenak euskara du hizkuntza ikurra, alderantziz, GAZTE kokapenak gaztelania du ikurra. Gizarte tokiek ez dute ikur bakarra, ikur anitzak baizik: jazkera, hizkuntza erak edo mailak (mintzaira bereziak, gaztetxoaren artean bereziki) eta beste batzuk tokian tokikoak, kokapen horretatik hitz egiteko legitimitatea ezartzen dutenak. Gure ustez, bi hizkuntza behintzat dauden lekuetan, egoera diglosikoetan, hizkuntzak berak ere ikur bihurtzen dira; hau euskara eta gaztelaniaren kasuan nabarmena da eta horrek zerikusia handia du hizkuntza bakoitzaren irudiarekin eta, nolabait, funtzioekin, azken finean alde bi hauek loturik doaz eta, aurrerago ikusiko dugunez.

Interakzioa kokapenen arteko harremanetan gauzatzen da eta hauek beren garrantzia dute ekintzak bultzatzeko, zerbait egiteko motibazioak nolabait indartzeko: adibidez, batak besteari esaten badio: «euskaraz ikasi behar harko zenuke», ez da berdina esaten duena aita/ama izatea eta bestea seme/alaba, kokapen bakoitzak dituen ikurrengatik eta beraien arteko harreman motagatik edo, berriz, biak koardrilakideak izatea; hemen interesgarriena kokapen bakoitzeko ikurrak aztertzea da eta, horrekin batera, beren arteko harremanak nola gauzatzen diren ikustea. Aldez aurretik pentsa

⁶ Honela definitzen du autoreak «ikurra»: «L'insigne, par definition, est porteur de la demande d'être reconnu fondé à occuper la place d'où l'on parle, ou d'où l'on croit parler» (FLAHAULT, 1978: 226 or.).

⁷ JAUSORO, Nekane (1991): *Gazte euskaldunen eguneroko bizimodua eta beren euskararekiko harremanak*. Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarako egina.

dezakegu kasu honetan indargarriagoa izango dela koadrila lagunaren eragina; hau nabaria da erabileraren kasuan: kale eta lagunarteko erabilera bultzatzeko (motibatze) erabilera horrek ikur bereziak (legitimoak, hain zuzen) eskuratu behar ditu eta hor hizkuntzen funtzio eta irudiak daude.

1.1. Hizkuntzaren funtzioak

Ikur konzeptua oso hurbil dago, gure ustetan, Txepetxen «kategoria guneak» («espacios categoriales») kontzeptutik; hitz egiteko era eta hizkuntza bera aldatzea eragiten duena ez dira herri edo hiri bateko leku fisiko ezberdinak, honako hau baizik: «No, no son propiamente los lugares: *son las categorías en las que están encuadrados, en un momento dado, dichos lugares*: son esas categorías las que nos interesan; son esas categorías las que son insegmentables; y son esas categorías las que son genéricas, las que están presentes en cualquier punto de un territorio donde haya un sujeto hablante, por más que esas categorías puedan contener, en cada caso «lugares» distintos, y por más que un mismo lugar, para un mismo individuo, en un mismo pueblo, puede estar situado en un momento u otro en una u otra categoría» (Sanchez-Carrión —Txepetx—, 1981: 71. or.). Horregatik, autore honek «kategoria guneen» sailkapenaren beharra azpimarratzen du aipatutako liburuan, erabileraren prozesua hobeto aztertze-ko. Kategori espazioak zirkuito edo ibilbide bat osatzen dute, bakoitzean hainbat funtzio sartzen direlarik (Sanchez-Carrión, 1981: II.4 atala bereziki).

Txepetxek dioenez: «desde la teoría de los espacios el problema de la sustitución y de la normalización lingüística consiste en analizar cómo puede un idioma pasar de ser inasequible a ser asequible, de ser extraño a ser reconocido, de ser reconocido a ser aprendido, de ser aprendido a ser interiorizado y de ser distinto a mí a ser parte de mí» (Sánchez-Carrión, 1981: 131 or.); prozesu horretan hizkuntza bakoitzak funtzio batzuk betetzen ditu eta funtzio ezberdinen lorpenak edo galerak oinarrizkoak izango dira hizkuntzak ahalik eta espazio gehien bete ditzan (bai kuantitatiboki bai kualitatiboki). Autore berak ere adierazten duen bezala, prozesu horretako urrats bakoitzean motibazio mota ezberdinak behar dira (autore honen motibazioei buruzko azalpenak aurrerago aztertuko dira).

Hizkuntzen funtzioak aztertzea interesatzen zaigu, oso loturik daudelako hizkuntza horien kokapen, irudi eta legitimitate sozialekin eta, horrekin batera, hizkuntzarekiko norabide eta intereseekin (motibazioekin, zentzu zabalean). Azken finean, hizkuntza baten ospea edo prestigioa (gizarte balorapena) loturik doakie betetzen dituen gizarte funtzioei. Txepetxek adierazten duen bezala: «entre el prestigio global de una lengua a nivel internacional y el modo como vive la lengua el hablante con-

creto, media la acción de los diferentes grupos sociales» (Sanchez-Carrión, 1987: 78. or.).

Txepetxek oinarrizko zazpi funtzio bereizten ditu, hizkuntzari ematen dioten gizarte ospearen arabera, goi mailatik behe mailaraino jerarkizatzen dituelarik (*op. cit.*: 75. or. aurrera): Nazioarteko Funtzioa, Giza Funtzioa, Funtzio Nazionala, Herri Funtzioa, Famili Funtzioa eta azkenik Nortasun Funtzioa. Azkenengo biak berez «jasotzen» dira ama hizkuntzaren kasuan.

Autore honen arabera, hizkuntza bat kultura hizkuntza bihur dadin funtzio nazionala BEHINTZAT bete behar du, ospe osoa lortzeko. Horrela, hiztunak bere beharrean sentitzen direnean kultura hizkuntza gisa ikusten dute.

Nazioarteko hizkuntza izateak suposatzen du hizkuntza hori ikasi dugula bigarren edo hirugarren hizkuntza bezala beste hizkuntza bat duten hiztunekin hitz egiteko; azken hauek ere hizkuntza hori bigarren edo hirugarren hizkuntza gisa ikasi dute (ingelesa, adibidez).

Giza hizkuntza izateak suposatzen du hizkuntza hori interesatzen zai-gula horren hiztunekin komunikatzeari interesgarri deritzogulako; hizkuntza horrek gauzatzen duen kulturak interes berezia duelako guretzat (alemana, japonesa, arabiera, ingelesa bera ere...).

Txepetxek dioenez: «El valor de lengua de cultura de una lengua dada es la suma de las dos perspectivas: de la **percepción** que tienen sus nativos como lengua que canaliza el pensamiento y la información humana en el momento histórico presente, y del **uso** que hacen de ella los no-nativos que la aprenden como lengua extranjera. La suma de esta percepción y este uso, combinados, otorga un peso específico a dicha lengua dentro de la comunidad internacional. Es decir, una **motivación**» (*op. cit.*: 83. or.).

Honako beste autore baten ikuspegia interesgarria da gure kasurako: Gérard Vigner-ek⁸, Kamerungo hizkuntza egoera aztertzeke beste hizkuntzaren funtzioak aipatzen ditu, gure ustetan interesgarriak. Berak adierazten duenez, Afrikako kasu gehienetan, kolonialismoa dela eta, gaur egun oraindik konponduta ez dagoen arazo handia da hizkuntzarena (edo hobe esanda, hizkuntza anitzena); Estatuak sortu zenean, independentzia ostean, Estatuak bere barnean komunitate ezberdinak, hizkuntza ezberdinekin, hartu zituelako⁹. Kamerungo egoera bereziki konplexua da, anitz hizkuntza dituelako bere barruan.

⁸ Ikus: *Vers le plurilinguisme?*, Daniel COSTE eta Jean HÉBRARD koord. Hachette, Paris, 1993.

⁹ Horregatik, autorearen hitzetan: «L'école a été ainsi perçue d'emblée comme un outil essentiel d'intervention dans la construction du sentiment national et de constitution de l'identité individuelle du citoyen, par opposition au sentiment d'appartenance au groupe, expression traditionnelle de l'ethnicité. Se posait alors cet autre problème, celui du choix de la langue de scolarisation sur fond de multilinguisme complexe» (*op. cit.*: 100. or).

Orduan, Vignerek hiru hizkuntzen funtzio nagusiak bereizten ditu Kamerungo egoera aztertzeko:

- TALDE FUNTZIOA (FUNCION GREGARIA): funtzio honek bizimodu pribatuaren espazioa eta harremanak definitzen ditu. Talde etnikoaren nortasunaren eta elkartasunaren adierazpena da. Funtzio hau betetzen duen hizkuntzak, ezberdintasuna markatzen du; horrekin batera, komunitate batekiko atxekimendua, eta alderantziz, beste komunitateekiko urruntasuna. Funtzio hau jatorrizko hizkuntzarena da eta ama hizkuntzarena.
- TRANSMISIOKO FUNTZIOA: hizkuntza baten erabilera edo funtzio hau hizkuntza komunitate ezberdinen arteko komunikazioa lortzeko da. Funtzio hau betetzeko erabaki daiteke hizkuntza batzuen arteko nahasketa erabiltzea (pidgin-ak adibidez) edo hizkuntza bat soilik aukeratzea —anitzen artean—, berak betetzeko funtzio hori.
- FUNTZIO INSTITUZIONALA: honek definitzen du Estatu batek, administrazioaren bitartez eta bestelakoetan, erabiltzen duen/dituen hizkuntza(k) bere hiritarrek. **Funtzio honek eskola funtzioa betetzen du ere.** Funtzio hau, nolabait, Hizkuntza Ofizialaren funtzioa da (Afrikako hainbat kasutan gertatzen dena: hizkuntza ofiziala(k) eta hizkuntza nazionala(k) ez da berdina. Hizkuntza nazionalak(ek) aurreko bi funtzioak betetzen ditu(zte). Kamerungo kasuan, ofizialak ingelesa eta frantsesa dira (eta bi hauek ez dira hizkuntza nazionalak).

Autore honek adierazten duenez, Kamerunen jatorrizko hizkuntza aintz daude, horregatik beharrezkoa dute transmisioko hizkuntza; kasu honetan badirudi lau hizkuntzez betetzen dutela funtzio hau. Aipatzekoa da transmisioko hizkuntzaren aukera arazotsua dela, hiztun komunitate ezberdinen botere harremanak gauzatzen direlako¹⁰. Vignerek esaten duenez, transmisioko funtzioa betetzeak neurri handi batean ez dio hizkuntza bati ziurtatzen nortasun nazionalaren faktore berezitat hartua izango denik. Transmisioko hizkuntzak nolabaiteko oreka mantendu behar du jatorrizko hizkuntzen aurrean, bestela nekez lortuko du behar duen legitimitatea hizkuntza komunitate ezberdinen artean.

Beste autore baten ikuspegia azalduko dugu, aurreneko biekin zerikusi handia duena, geroago euskararen kasura hurbiltzeko. Henry Gobardek (Gobard, 1976) hizkuntzen arteko harremanak aztertzeko «azterketa

¹⁰ Horrela, «pour qu'une langue véhiculaire soit admise par les familles non natives de la langue comme susceptible de donner lieu à une entreprise d'alphabétisation, il faut que cette langue ne soit pas perçue comme facteur d'assimilation aux valeurs et normes de vie du groupe dont cette langue est originaire. Une population peut donc très bien accepter de recourir à un vernaculaire issu d'un groupe important comme véhiculaire à des fins de commodité dans la communication, sans pour autant envisager, ou du moins avec de fortes réticences, l'alphabétisation de ses enfants dans cette langue» (*op. cit.*: 105. or).

tetraglosikoa» bideratu du, hots, hizkuntzaren «tetragesia» planteatzen du hizkuntzan bereizten dituen lau osagarrietan oinarrituta: osagarri komunikatzailea, hunkipenezko osagarria, osagarri tekno-ludikoa eta osagarri magikoa. Horrela, hizkuntzek bete ditzaketen lau funtzio edo hizkuntza mota ezberdintzen ditu:

- JATORRIZKO FUNTZIOA: lekuan lekuko hizkuntza eta berez sortzen dena da. Ama hizkuntza edo jatorrizko hizkuntza izaten da eta hizkuntza hori daukatenen artean kidesuna izaten da: elkarren arteko berdintasuna dutenen hizkuntza da. Komunitate baten hunkipenezko osagarriak hobeto jasotzen ditu eta bere diskurtsoa komunitate horretatik kanpokoentzat zentzurik gabekoa da.
- TRANSMISIOKO HIZKUNTZA: harremanetara zuzendua eta halabarrez ikasia; hiri kutsukoa, komunitate ezberdinen elkarren arteko harremanetan erabilia, artekarien hizkuntza da. Ezagutza-dimentsio edo dimentsio kognitiboa da pisurik handiena duena eta ez hunkipenezkoa¹¹.
- ERREFERENTZIA HIZKUNTZA: arbasoei eta kultur tradizioei helduta antzinako balioei eusten die, kultur baten altxor iraunkorra izanik (atsotitzak, tradiziozko ipuinak, literatura, etab.) bizirik eta osorik dirauten komunitateetan partaide guztiek eduki eta ezagutzen dutena; desegiten doazen komunitateetan berriz, erreferentziok galduz eta bestelako erreferentzia batzuekin ordezkatzuz doaz. Erreferentzia du kontuan eta ez erreferentea.
- HIZKUNTZA MITIKOA: eremu sakratuari dagokiona; bere hizkeraren magikoaren bidez ulertezina ulergarri bihurtzen da.

Gobardek funtzio bakoitzak suposatzen duen denbora eta espazio dimentsioak honela ikusten ditu:

	Espazioa	Denbora	Hizkuntza
<i>Jatorrizkoa</i>	hemen	orain	ama hizkuntza
<i>Transmisiozkoa</i>	edonon	geroago	hiritarra
<i>Erreferentzia</i>	leku hartan	aspaldi	nazionala
<i>Mitikoa</i>	haruntzago	beti	sakratua

Euskararen kasua ikuspegi honetatik aztertzen badugu, esan daiteke euskarak jatorrizko hizkuntza gisa funtzionatzen duela («etxeko edo herriko

¹¹ Komunitate eta gizarte kontzeptuen arteko bereizketa Tönnies-en arabera horrelakoa da: KOMUNITATEA elkartasun loturen bitartez osatzen da, hunkipenezko loturak. GIZARTEA, aldiz, elkartrukean oinarritzen da, harreman interesatu eta arrazionalak dira, instrumentalak.

hizkera») eta berarekin batera gaztelaniak ere funtzio hori gauzatzen du etxe eta komunitate erdaldunetan. Hala eta guztiz, euskararen egoera, funtzio honetan, gaztelaniarena baino murriztagoa da: gazteen artean, euskaldunen artean, gizarte sare hurbilak (koadrila, kirola...) gaztelaniaz dira orokorrean (salbuespenak albuespen) eta horren ondorioz euskaldun gazte horien komunikazio gaitasuna mugatuagoa da euskaraz eta zabalagoa gaztelaniaz. Horrela, euskarak jatorrizko hizkuntzaren funtzioa etxe edo familia (euskaldunen) inguruan betetzen du.

Transmisioko hizkuntza, komunitate ezberdinen artean komunikatzeko erabiltzen dena, gaur egun gaztelaniak betetzen duela esan dezakegu: gaztelania da transmisioko hizkuntza berezia edo hegemonikoa; hau da, denok dakigu gaztelania denek dakitela eta euskara, ordea, batzuek soilik (lehenago esan dugun bezala, Bestearen-ezezagunaren aurrean lehenengo hitza gaztelaniaz izango da ez badugu euskalduna den pistarik (itxura...)). Euskarak ere funtzio hau betetzen du, nahiz eta gaztelaniak baino askoz ere maila txikiagoan: batua da funtzio hau betetzen (edo bete behar) duena, hots, euskalki ezberdinetako euskaldunak batua erabiltzen dute (edo hobe esanda: batua erabili ahal dute) elkar ulertzeko, baina honek bere mugak ditu: euskaldun guztiak ez daude alfabetatuak eta nahiz eta alfabetatuak izan askotan erabilera mota honetan gaztelaniak gehiago funtzionatzen du (honetaz, esan beharra dago, batuaren irudia eskolari eta liburuei lotuta dagoela bereziki, hau da, idatzizko eta eskolako hizkuntzari eta ez ahozkoari; horrek ahozko interakzioan oztupoak ezartzen ditu).

Erreferentzi hizkuntza, gaztelaniak betetzen du gehienbat (neurri batean ingelesarekin lehian); kultura mundua (telebista, aldizkariak, zinema, musika...) gaztelaniaz egiten da. Euskarak betetzen duen erreferentzi funtzioa murriztagoa da: ahozko euskal kultura bera ere ez da askotan ezagutzen¹², eta ezagutzen denean folklore gisa aurkezten da (herri kirola, sukalde mundua...); gaur egungo gizarte urbanoan non, modernitatearen ardatzean, erreferentzia grafikoa nagusi den (idatzian edo irudietan), ahozkoa eta nekazari mundukoa interesgabekoa ikusten da (hau da, modernitate ezakoa, gaurkotasan gabekoa). Gehiago ezagutzen dira gaztelaniazko tradizio idatziak, ospea dutenak, euskarazko tradizio idatziak nahiz ahozkoak baino (zeintzuk apaizei lotzen zaizkien, hau da, ospe gutxikoei). Hizkuntza batek erreferentzi hizkuntza betetzea oinarrizkoa da hizkuntza horrek gauzatzen duen kultura mundua suposatzen duelako. Euskarak duen muga honek bere irudi murrizta elikatzen du, ingurune urbanoetan behintzat: euskaldun gazte hiritarrek, gaztelania «erabilera antzekoa» eta «hiritarra» (hots, moderno) ikusten dute eta, alderantziz,

¹² Aipatu nahi genuke Joxe AZURMENDIK adierazten duena *Espainolak eta euskaldunak* liburuan (1992): aurreko mendeetan idazten zekiten eta idazten zuten klase laikoek horretarako gaztelania erabiltzen zutela eta ez euskara, eta hutsune hori hortxe dugu aspalditik (horrela, azkenean ia apaizek bakarrik idatziko zuten euskaraz).

euskara mugatua, indargabekoa, emozioak adierazteko nekazari eta zahar ezaugarriez osatua.

Hala eta guztiz, euskarak pausu bat eman du funtzio hau maila zabalagoan betetzeko: musika euskaldun (rock eta trikitrixa) eta bertsolariak, literatura garaikidearekin batera hizkuntzari lagundu diote bere erabilera bermatzeko beharrezkoa den funtzio hau zabalago betetzen eta **hiritar kutsua** ezartzen. Ezin dugu ahantzi eskolak berak ere (eskola euskaldunak) laguntzen diola funtzio hau betetzen. Funtzio hau garrantzitsua da hizkuntzarentzat bere irudia eta ospea indartzeko eta horrekin batera bere ikasketa edo erabilera bultzatzeko (euskararen kasuan, nekazari ikurra gaingiduz eta hiritar ikurra bultzatuz).

Euskarak funtzio mitikoa betetzen du «hizkuntza garbia», «aspaldidani-ko hizkuntza» (Aitorren hizkuntza zaharra...) den heinean. Gaur egun, euskarak oraindik transmisioko funtzioa osoki bete gabe, beste garai bateko, iraganeko pisua darama, eta horrek, identitate hizkuntza ezaugarriarekin batera hizkuntza sakratuaren izaera ezartzen dio¹³. Zentzu honetan, hizkuntza mitikoa izatea bultzagarria izan daiteke hizkuntza horren ikasketa/erabilera sendotzeko, bere oroimena eta errespetua onuragarri bihurtuz hitzunen autoestimazioa indartze prozesuan. Gaur egun, euskarak funtzio mitikoaren pisu berezia du, baina, beste funtzioak azken honen osagarri ez diren heinean, ez du indar bultzagarririk izango (adibidez, hebreoaren kasuan, funtzio mitikoa oso garrantzitsua izan zen baina beste funtzioekin batera).

1.2. Motibazio motak eta hizkuntza motak: ikaste/erabiltzearen motibazioak

Motibazioen iturburuan elkarlotutako bi abiapuntu bereizgarri aipa daitezke: ideien mundua, batetik, eta errealitate hurbila, bestetik. Halako bereizketa filosofian aspalditik eztabaidagai izan bada ere, saio honetan ez dugu horretan ahalegindu nahi; hemengo aipamen honekin azpimarratu nahi dugu motibazioek dauzkaten bi osagai bereziak eta elkar eragina dutenak, ez besterik. Ideia eta errealitatearen arteko bereizketa hau artifizial samarra bada ere, gure helburuei begira ezberdinketa hori analitikoki egitea interesgarri izan daiteke, zalantzarik gabe.

¹³ Halere, esan beharra dago euskararen irudia identitate hizkuntza gisa ez dela gizarte osoan gauzatzen; ikerketa batek adierazten diguna zera da: euskara euskal kulturaren «elemento muy importante» bezala ikusten da baina honen zentzua ez da bakarra, bikoitza baizik: batzuentzat, euskara euskal kulturaren oinarritzko elementua da baina oinarritzko beste elementuen artean (ohiturak, poteoa, lurra, paisaia...); besteentzat, euskara euskaldun izatearen funtsezko elementua da, beste elementuek baino garrantzi handiagoa duena. Funtzio mitikoa bi zentzutan gauzatzen da: alde batetik, aipatu ditugun lehenengoentzat, museoko hizkuntza da, bitxikeria bat; beste aldetik, bigarrenentzat, nortasunaren funtsa.

Esan bezala, batzuetan motibazioek abiapuntu ideala dute, hau da, ikursistema eta sinesmenetatik sortzen dira nagusiki, baina ez horietatik bakarrik; motibazio sinbolikoak ditugu hauexek. Besteetan berriz, eta uste sistemak ere tartean egon arren, norberaren behar hurbilei erantzuna emateko asmoarekin osatzen diren motibazio pragmatikoak agertzen dira. Motibazio pragmatiko hauek behar materialen nahiz ez-materialen arabera era daitezke eta hizkuntzaz ari bagara, behar hurbil horiek komunikazio mailakoak izan daitezke, besteak beste.

Ikuspuntu pragmatiko hutsetik hartuta, motibazioen beste sailkapen bat ere erabiltzen da, psikologia sozialean jatorria duena: motibazio «integratzaileak» deitzen direnak, Strubell-en esanetan banakoaren erkidetasunean eta integrazioan kokatzen direnak: desiatzen edo miresten den talde etnolinguistiko baten kide izateko eta beronen sentimenduak, ekimenak, helburuak erkidetzeko; eta motibazio «instrumentalak»: besteekin komunikatzea da helburua; horrekin batera etor daiteke lana bilatzea, administrazioarekin arazorik ez izatea, etab. (Strubell, 1988)

Halere, motibazio integratzaileak eta instrumentalak ezberdintzen dituen banaketa mota honen funtsean arrazonamendu guztiz pragmatikoa antzematen denez eta gure zereginak motibazio sinbolikoetan kokatu behar direnez, gure arduratik at gelditzen da nabarmenki.

Motibazio sinboliko eta pragmatikoetara itzuliz, kontzeptu mailan biak ezberdintzea zilegi bada ere, errealitatean, egoera askotan, gure ustez, elkar loturik eta elkar eraginez ulertu behar dira bi motibazio mota horiek.

Hizkuntza bakoitzaren kasuan ikusi beharko da mota bat eta bestea nola egituratzen diren. Zenbait banaketaren ahulezia adibide batez azaltzeko, Kathryn A. Woolard-ek katalanari buruz egindako ikerketa batean, motibazio integratzaile eta instrumentalak aipatzen dituenean, hauxe adierazten du: katalanaren kasuan arazotsua dela motibazioen arteko bereizketa hori egitea, bata eta bestearen mugak finkatzea zaila delako (Woolard, 1984: 133. or.). Gure ustez, euskararen kasua alderantzizkoa dela esan dezakegu: motibazio sinbolikoek (integratzaileak barne) pisu berezia dute eta instrumentalek edo pragmatikoek ez hainbeste.

«Ez dago hizkuntzarik ez bada norbaiten lengoaiaren bitartez, norbaitezat, kultura berezi batean» (H. Gobard).

Hizkuntza funtzioak aipatu ditugu, gure iritziz hizkuntza batekiko interesak (eta hor daude motibazioak sartuta) ondo bereizteko eta horren arabera bermatzeko garrantzi handia dutelako. Gobard-en ikuspegitik, hizkuntza bat ikastea (eta erabiltzea ere esan daiteke nahiz eta dimentsio ezberdinak izan, bakoitza bere aldetik aztertu beharrekoa) ez da prozesu «intransitiboa». Hizkuntza bat ikasten da (eta erabili) norbaitekin, zerbaitegatik eta zerbaitegarako; horregatik, autore honek proposatzen du hizkuntzaren ikasketarako harreman hirukoitza kontuan izatea: irakasle,

ikasle eta azken honen helburua(k) hizkuntza horrekiko (ez da berdin ikasle batek hizkuntza horrekin funtzio bat ala bestea bete nahi izatea). Ikuspegi hau Txepetxek ere adierazten du esplizitoki eta bere garrantzia azpimarratzen du. Horregatik, ikasle batek transmisioko funtzioa bete nahi badu bereziki hizkuntza horrekin, edo bere jatorrizko hizkuntza sendotu nahi badu edo erreferentzi hizkuntza nahi badu, ikasketa ez da berdina izango. Funtzio bakoitza bete nahi izateak motibazio mota berezia gauzatzea dakar (hala eta guztiz, gehienetan motibazioak nahastuta daude eta ez eredu garbietan):

- Jatorrizko funtzioa nahi izateak esan gura du motibazioa nortasunaren ildotik doala; nolabait, hizkuntza hori norberari eta norberak nahi duen komunitateari dagokio: hau ikasteko edota erabiltzeko mailan gertatzen da. Jatorrizko motibazioaren kasuan, motibazio sinbolikoak eta «integratzaileak» funtzionatuko dute, bereziki. Jatorrizko funtzioaren motibazioa oso indargarria da eta poz berezia ematen duena, hurbileko dimentsioa duelako (umeekin hitz egitea, norberaren arbasoekin moztuta dagoen katea eraikitzea,...). Horrek erabilera berezi baten nahia darama: norberaren harreman hurbiletarako (familia, auzoa, lagunak...) erabilera¹⁴.
- Transmisioko hizkuntza nahi izateak esan nahi du, nolabait, ikasteko motibazio «instrumentala» gauza daitekeela bereziki: azken finean, besteekin komunikatzea da helburua (horri loturik, lana bilatzea, administrazioarekin arazorik ez izatea, etab). Hala eta guztiz, funtzio honetan bereziki, motibazio ezberdinek funtziona dezaketela pentsatzen dugu; motibazio integratzaileak eta sinbolikoak (politikoak eta etnikoak bereziki) ere egon daitezke: adibidez, euskara nortasun hizkuntzatzat duenak esparru guztietako erabilera aldarrikatzen du eta horretarako komunikazio hizkuntza behar du izan.
- Erreferentzia funtzioak bai motibazio instrumentalekin bai motibazio integratzaileekin joka dezake: hizkuntza bat lanerako behar izateak (ingelesa, adibidez) mugiaraz gaitzake hizkuntza hori ahalik eta ondoen ezagutzera, bere kulturaren ezaugarri orokorrak barne; baina, gure ustez, motibazio sinbolikoek pisu handiagoa dute, oro har; nolabait, kultura batekiko interesa sortzen zaigunean, erakargarri delako guretzat.
- Funtzio mitikoa izan daiteke hizkuntza baten ikas-erabileraren bultzagarri; baina prozesu hau gerta daiteke hizkuntzak betetzen duen funtzio mitiko hori beste funtzio batzuek osatzen bada. Bestela, funtzio mitiko soilak funtzionatzen badu, posible izan daiteke motibazio

¹⁴ Nahiz eta, euskararen kasuan eta euskaldunen artean, dimentsio hurbil hau nahikoa ez izan beraien hizkuntzarekiko espektatibak betetzeko (gizarte dimentsioa beharrezkoa dute).

hori ahultzea ikasketak eta erabilerak dituzten hainbat arazorengatik (adibidez, ikasteko zailtasuna, denbora falta eta abar); funtzio mitikoa ez bada beste funtzioekin osatzen ahulegia izan daiteke (ez beti, noski) hizkuntza ikasi edota erabiltzeko. Funtzio mitikoa motibazio sinboliko nahiz pragmatikoekin loturik doa, hots, funtzio hau bultzagarri izan daiteke hizkuntzaren irudiari buruzkoa delako (funtzio honen bidez, onuragarria izan daiteke hizkuntza ezagutzea edota erabiltzea); hala eta guztiz, beste funtzioekin osaturik badoa hobe izango da hizkuntzarentzat.

2. HIZKUNTZA MOTIBAZIO SINBOLIKOEN SUSTRAI SOZIOLOGIKOAK

Abiapuntua Hizkuntza Soziologian kokatuta, motibazio sinbolikoak nagusiki bi motatakoak izan daitezkeela pentsa daiteke: batetik, unibertso sinbolikoei dagozkienak, eta, bestetik, arrakasta eredu sozialari dariona. Era berean, lehenengoak, unibertso sinbolikoetan oinarritutakoak, beste bi motatan banatzen dira berriro motibazio etno-kulturalak eta motibazio politikoak bereizaraziz:


- nortasun amankomunaren eskutik indarra har dezakete **motibazio etno-kulturalek**, hau da, herri berezi bat osatzearen kontzientzia. Talde etno-kultural baten definiziorako hainbat osagai egongo dira: hizkuntza propioa, nortasun berezia, ohiturak, folklorea, eta abar luze bat; baina ahaztu ezinezko beste osagaia —agian garrantzitsuenak, hain zuzen ere— amankomuneko kontzientziarena dugu. Hizkuntza berezirik ez da derrigorrez izan behar herri kontzientzia egon dadin, baina hizkuntza berezirik egotekotan talde etno-kulturalaren definizioa eta mugaketa eraikitzean erraz erabiliko den osagaia da.
- batzuetan —ez beti, ezta derrigorrez ere—, aurreko nortasun amankomunaren ondorioz sor daitekeen adierazpen politikoaren menpeko motibazioak, **politikoak** ditugu. Edo, bestela esanda, herri horren burujabetasunaren alde eraikitzen diren proiektu edo asmo politikoei atxekitako motibazioak.

Unibertso sinbolikoetatik at, gizartean badaude hizkuntzekiko bestelako motibazio sinbolikoak, sinboloa zerbaiten irudia bezala ulertuta, bederen:

- nortasun amankomun eta politikotik kanpo, motibazio sinbolikoek bestelako funtsa ere izan dezakete: **gizarte arrakastarena**, hain zuzen. Arrakasta motibazioaren sorburua balioen esparrutik eta ingurune baldintzetatik nahasian (edo bi arlo horien elkar eraginetik)

sortua dena, gizartean «erdiespentsuak» diren elite sozioekonomiko eta politikoen «hizkuntza ereduari» jarraitzean datza. Arrakasta eredutik sortzen diren motibazioak sinbolikotzat edota pragmatikotzat har daitezke.

Baina, has gaitezen urratsez urrats haietako bakoitzean murgiltzen, unibertso sinbolikoetatik ondorioztatzen diren hizkuntza motibazioetatik abiatuz.



1. Irudia

Hizkuntza motibazio motak


2.1. Unibertso sinbolikoak, balioak eta motibazioak

Berger eta Luckmann-en «unibertso sinboliko» kontzeptuak gizartearen mota guztietako esanahien kokapena eta moldaketa hartzen ditu bere baitan, gizarteak objetibatutako esanahiak eta subjektiboki errealak direnak ere, barne direlarik. Ikuspegi historiko nahiz biografiko batetik unibertso horren barruan aurkitzen den gizabanakoaren gertaerak kokapen horren arabera ulertzen dira. (Berger eta Luckmann 1979, 125. or.)

Unibertso sinboliko horiek uste-sistema batzuekin uztartzen dira, eta gizarte edo azpi gizarte baten balioak (eta haiek suspertzen dituzten kultura, motibazioak, jarrerak eta iritziak ere) unibertso sinboliko horretan dautza.

Balioak, lortu nahi den edo eredutzat hartzen den kalitate dira, eta arlo ideal bateko maila goreneko izakera edota portaera bezala kokatzen ditu Rocher-ek. Balioak horrela ulertuta, unibertso sinbolikoetan —hauek suposatzen duten errealitatearen ulertze mota dela medio—, ezinbestez topatuko ditugun osagaiak dira, gure ustez. Bestela esanda, gizartearen ulertze mota bat suspertzen duen unibertso sinbolikoak berari dagozkion balio zehatz eta jakin batzuk ere ezarriko ditu unibertso hori aintzakotzat hartzen duen gizartearen edo gizarte multzoan.

Balioak, dimentsio sinboliko nabaria izan arren, errealitatean modu bikoitzean txertatzen dira, Rocherren ustez: a) atxekimendu eta begirunea eskatzen duen ideala delako; b) sinbolikoki islatzen dituzten portaeretan edo elementuetan gauzaten direlako (Rocher, 1976, 70. or.).



2. Irudia

Unibertso sinbolikoak, balioak eta motibazioak

Balioek, beraz, islatzen eta suspertzen dituzten gizarte usteen aldeko funtzio normatiboa betetzen dute, eginkizun horretan arras erroturik motibazioak agertzen direlarik. Ildo honetatik jarraiki, ideiek gizarte aldaketan eragina izateko, zer behar duten galde dezakegu. Horretarako, Rocherren ustez, motibazio sakona sorrarazten duten balioak ematen direnean edo, baita, gizarte multzo baten proiektu eta adierazpen bezala eraikitzen den

«sistima ideologiko» (unibertso sinbolikoa, Berger eta Luckmannen hitzetan) batean txertatzean, orduan izango dute ideiek eragin soziala. Abiapuntu honetatik, ikus dezagun Rocherek dioena:

«Ideiek, gizarte aktoreen *motibazioa* mugiarazten eta zuzentzen duten neurri berberan, eragiten dute gizartean.» (Rocher 1976, 459. or.)

Gainontzeko osagaiek —egiturari dagozkionak, besteak beste—, duten eragina ahanzi gabe, Max Weber-ek bere «kapitalismoaren izpiritua» delako lanean argi utzi zuen bezala, ideiek eragin zuzena izan dezakete gizartearen baitan, eta hau da, hain zuzen ere, euskara eta motibazioei buruzko gure gogoeta honek daukan kokapena.

Berger eta Luckmann berrai patuz, autore hauentzat unibertso sinbolikoak maila goreneko «legitimazioko mekanismoak» dira eta, horrexegatik, esanahi eta ezaguera bat ematearekin batera, funtzio normatiboa ere betetzen dute: finkatzen dute zer eta zergatik egin behar diren gauzak. (Berger eta Luckmann 1979, 120-122. orr.)

Gauzak horrela, unibertso sinboliko baten barruan baliteke hizkuntzak garrantzizko lekua betetzea, ala ez; baiezkotan, unibertso horren balioen arabera hizkuntza baten aldeko (edota bestearen kontrako) jarrerak (eta bere azpiko motibazioak) argi eta garbi egongo dira zehaztuta. Legitimazio mekanismoak direla medio, dagokion unibertsoan hizkuntza batek leku nabarmena daukanean, motibazioak (bere alde nahiz bere kontra) ondo egongo dira finkatuak.

2.1.1. *Hizkuntza motibazioak eta unibertso sinbolikorik aipagarrienak*

Teokrazia jaun eta jabe den garaietan edota lekuetan, sinestun diren gizarte multzoentzat erlijioa unibertso sinboliko bihurtzen da, bizitza eta gizartearen esparru guztiak bere ikuspegitik ulertuz eta horren arabera moldatuz. Gogora dezagun Pérez-Agotek ematen dituen emaitzen arabera, Euskadiko Autonomi Elkarteko 15 urtetik gorako biztanleriaren %43k bere burua «katoliko praktikatzaile» jotzen duela eta ia guztientzat (%41entzat) «erabaki garrantzitsuak hartzerakoan» sinesmen erlijiosoek pisu handia dutela adierazten dute (Pérez-Agote, 1990, 37. eta 13. orr.). Bi datuok kontuan izanda, bistan dago erlijioaren presentzia funtsezkoa dela gizaki sinestunaren bizitzan, eta gertaera hau nahikoa hedatua dagoela Euskal Autonomi Elkartearen.

Gizartearen interpretazio marxistan ere, klase-kontzientzia dela medio (eta nortasun amankomunaren mota bat suposatzen delarik), klase borrokaren arabera planteamentuak bestelako uste-sistemen gainera ezartzen dira, lekuko eta garaiko egoeraren adierazpen mugagabe eta «oro-barne-tzailea» emanez.

Herri kontzientziaz edo nazio kontzientziaz jabetu diren gizarteak, nortasun amankomundun bestelako giza multzo bat dugu eta, era berean,

unibertso sinbolikoaren beste adibide da ere. Beren iragan, orainaldi eta etorkizuneko izakera amankomuna aldarrikatzen duten gizarteek unibertso sinboliko horren baitan kokatzen dute beren mundu ulerkerak, giza multzo horren partaideak sentitzearen arabera. Mota honetako unibertso sinbolikoak osagai asko izango du bere baitan: etnikoak, hizkuntza, nortasun juridikoa/politikoak edo horren aldeko asmoak eta grinak...¹⁵

Hiru unibertso sinboliko mota aipatu izan ditugu —erlijioa, klase kontzientzia eta herri edo nazio kontzientzia—, gaur egungo euskal gizartean, gure ustez, garrantzitsuenak direnak, hain zuzen ere. Euskal Autonomi Elkartean hiru unibertso horiek duten hedapena ezagutzeko, hona hemen beraien adierazleak izan daitezkeen zenbait datu¹⁶:

Unibertso sinboliko mota	E.A.E.an duen hedapena
<i>Erljioa:</i>	
Erlijiotasun handikoa	%38
Erlijiotasun ertainekoa	%45
Erlijiotasun gutxikoa	%17
<i>Klase kontzientzia:</i>	
Klase kotzientzia handikoa	%18
Klase kotzientzia ertainekoa	%63
Klase kotzientzia gutxikoa	%19
<i>Herri edo etnia kontzientzia:</i>	
Nagusiki «Euskal Herrikoa» sentitzea (*)	%43
Bestelako erantzunak eta Ez Dakitenak	%57
<i>Nazio kontzientzia:</i>	
Nazionalista sentitzea	%34
Bestelako erantzunak eta Ez Dakitenak	%66

(*) Hemen «Euskal Herriko» kontzeptua erabiltzen da eta ez «euskaldun» azken kontzepto hau etimologikoki euskara dakitenei bakar-bakarrik aplikatu dakiekeelako.

¹⁵ Bernardo Atxagak halako unibertso sinboliko baten konplexotasuna ondo adierazten du: «Nation. Il ne s'agit pas seulement des habitants d'un pays ni de l'ensemble des personnes qui parlent une même langue mais encore et surtout d'un pluriel réconfortant, de l'une des multiples façons de dire **nous**. Synonyme, donc, de **famille**, de **société**, de **groupe**; synonyme aussi, du moins au débout, de **confrérie**, d'**alliance**, de **communauté**, de **cercle d'amis**; synonyme enfin (...) de **chimère**, d'**illusion**, de **mensonge pieux**.» (ATXAGA 1994, 89. or.).

¹⁶ Ondorengo taulan ematen diren emaitzak Iñaki Martínez de Lunarengandik hartuak dira (MARTÍNEZ DE LUNA, 1993, 110, 163 eta 165. orr.). Gai horiei dagozkien Bigarren Zatik 2.4 eta 2.5 azpiataletan ematen dira adierazle horiek eratzeko erabilitako irizpideak.

Bistan dagoenez, adierazle hauen arabera klase kontzientziari dago-kion amankomuneko nortasuna da biztanle kopuru txikien bereganatu duena Euskadiko Autonomi Elkartearen, erlijioarena eta, are gehiago, herri edo etnia kontzientziarena askoz hedatuagoak daudelarik. Nazio kontzientzia, etnia kontzientzian oinarrituta dago, baina azken honek formula-zio politikorik adierazten ez duen bitartean, nazio kontzientziak, berriz, proiektu politiko bati arras atxekirik agertzen da. Beraz, adierazpen nazionalistak exigentzia maila handiagoa du eta, beraz, atxekimendu gutxiago lortzen du herri kontzientziak baino.

«Euskal Herrikoa» (euskotar hitza berpiztu beharko ote dugu?) izatearen kontzientzia ia biztanleriaren erdira iristen da, beraz, arrakasta nahikoa handia hartzen du gizartean. Baina gogoeta honen helbururako, bere garrantzia ez da «zenbateko» ikuspuntura mugatzen, aldiz, bere hizkuntzarekiko garrantzia, amankomuneko nortasun mota horren baitan ere badago, bere izakeran.

Erlijiotasunak eta klase kontzientziak ez dute hizkuntza (ez euskara ez eta beste bat ere) beraien osagai edo ardatz nagusien artean kokatzen eta, beraz, euskararekiko izan duten jarrera norabide ezberdin (batzuetan, kontrajarria) eta zehaztugabekoa izan da. Herri eta nazio kontzientziek, berriz, bere tradizioan erroturik dagoen hizkuntzarekiko atxekimendua adierazten dute; are gehiago, nazio kontzientzia sarritan agertu da sutuki bere alde, eta, askotan ere, amankomuneko nortasun horren eustarri nagusizat hartu izan du hizkuntza, lehen esan dugun bezala.

Hau guztia horrela izanik, unibertso mota honek bere osagarri den hizkuntzaren aldeko balioak derrigorrez izan beharko ditu eta, balio horien arabera finkatzen diren gizarte arauak direla medio, hizkuntza motibazioek ere unibertso sinboliko horretan izango dute sorleku guztiz aproposa, baina ez bakarra.

2.1.2. *Gemeinschaft* edo «komunitate hurbila» eta hizkuntza motibazioak

Menpeko hizkuntza baten azterketarako nortasun etnokulturalaren hurbilpenak duen garrantzia

Joshua A. Fishmanek ere azpimarratzen du (Fishman 1.991, 6, 390, 393-6, 408 eta 409. orr.). Autore honek *Gemeinschaft* (hurbileko komunitatea) eta *Gesellschaft* (gizarte inpersonala) kontzeptuak erabiltzen ditu, hemen ere, ondorengo lerroetan, beste hainbeste egingo den bezala.

Herri eta nazioaren amankomuneko nortasunarekin loturik doan unibertso sinbolikoez gehiago ezagutzeko, Tönnies-en *Gemeinschaft* eta *Gesellschaft* kontzeptu ezagunetan oinarrituta Rocher-ek aipatzen dituen «gizakien arteko harreman mota bietatik» (Rocher 1976, 223. or.) abia gaitezke Walker Connor-en eskutik (Connor, 1989).

Autore honek dioenez, *Gemeinschaft* motako gizartean, usadioaren arabera eratzen dira berez sortutako harremanak, eta harreman hauek estu-

ki lotzen dituzte gizarte talde horren partaideak elkarrekiko, sentimenduzko eta kidesunezko kode amankomun baten barruan. Bere kideak, antzinatek datorren amankomuneko partaidetza batez jabetu dira. Halako gizarte mota baten balio nagusia talde etnikoa bera da eta gehien estimatzen den gauza, talde horren ongizatea.

Aldiz, Gesellschaft motatako gizartean, harremanak, gizabanakoen interesen arabera eratuta izanik, arrazoizkoak eta hotzak dira nagusiki. Gizabanakoen interesen defentsan datza elkarrekiko joera eta haien arabera bakarrik hartzen du zentzua taldeak. Gesellschaft gizarte motak gizabanakoen balioa eta asmoak ditu oinarri.

Dena dela, halako gizarte mota garbiak zaila da gizarteetan aurkitzea eta, gehienbat, nahasian agertzen dira. Baina, batzuetan, eta Europan bertan, Gemeinschaft motako harremanak gizarte politiko batzuetan (Austria, Danimarka, Finlandia...) nagusitzen diren bitartean, besteetan Gesellschaft itxurakoak topatuko ditugu (Belgika, Espainia...). (Connor 1989, 111-113. orr.)

Gemeinschaft motako gizartea, beraz, «nortasun amankomunduna» da eta komunitate hau osatzen duen gizarte multzoak komunitate bereizgarritzat jotzen du, bere inguruko beste komunitateengandik bereizten dena; Fishmanen hitzak gogoraraziz, «hurbileko komunitatea» da, komunitate intimoa, hain zuzen.

«Komunitate hurbil» honen inguruan autore ezberdinek berraitpatzen dituzte antzeko kontzeptu eta osagaiak, nagusiki ondorengoak: amankomuneko nortasuna, herriaren edota nazioaren autokontzientzia eta zenbait ezaugarri kultural (erlijio eta hizkuntza propioa, besteak beste)¹⁷. Ben-Rafael-ek adierazten duenez, batzuek eta besteek hizkuntza propioari ematen dioten garrantzia oso ezberdina izanda ere, «hurbileko euskal komunitate» eta euskararen kasuan Ben-Rafaelek Edwards-engandik jasotzen dituen planteamenduak egokiak direlakoan gaude:

«...Edwards emphasizes that self-awareness and self-consciousness constitute the essence of nationalism in any theory, and that systems of symbols like religion or language crystallize a group's self-identity and feeling of uniqueness. This alone makes possible the development of what Baron (1947) calls an "organized ethnocultural solidarity", able to maintain its boundaries even when its contents dissolve into new forms.» (Ben-Rafael 1994, 12. or.)

Idea hauetan hizkuntzak (eta baita erlijioak, baina ez guri dagokigun Euskal Herriko kasuan) duen garrantzi aparta azpimarratzen da, amanko-

¹⁷ Edwards-en ideiak jasoz Eliezer Ben-Rafael-ek, adibidez, hauxe dio: «Edwards (1988) argues that nationalism is an extension of ethnicity which implies a desire for political autonomy and which is firstly marked by language. Religion or other cultural symbols, but principally language, perpetuate a sense of "groupness" and warrant a generational continuation of culture and patterns of socialization.» (BEN-RAFAEL 1994, 12. or.)

muneko nortasunaren «katalizatzailetzat» hartzen baita; hau da, bestela esanda, hizkuntza propioa «hurbileko komunitatearen» erdiguneko tokian edo kokapen nagusian aurkitzen da, komunitate horren ardatza —auto-kontzientzia—, eraikitzen laguntzen duelarik. Gauzak horrela, komunitate horrek, bere balio sistemak eta honen menpeko «gizarte arauk» hizkuntza horren alde jokatzeko dutela zilegi da pentsatzea. Komunitate hurbilekoa sentitzen den gizarte multzoak hizkuntza propioaren aldeko motibazioak (motibazio sinbolikoak, hain zuzen) sortu eta suspertuko ditu bere partaideengan.

Teorikoki formulazio hau zuzena izan daitekeelakoan bagaude ere, praxian —Euskal Herriko kasuan, hain zuzen—, hutsune nabarmenak aurki daitezke zenbait egoeratan. Ondorengo adibide enpirikoan adierazten dira zein kasutan frogatzen den azaldutako ideia, eta baita betetzen ez den beste batzuk ere.

Unibertso sinbolikoak eta beren hizkuntza nortasunei buruzko ikerketa enpirikoa

Hemen jasotzen den adibide honen oinarrian Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguari erantzuna emanez, erakunde horrek burututako inkestaren¹⁸ zenbait emaitzaz egindako azterketan¹⁹ lortutako ondorioak (Martínez de Luna 1992) laburki aurkeztuko dira²⁰.

¹⁸ Inkesta 1991n burutu zen eta bere emaitzak laster batean argitaratuko dira.

¹⁹ Azterketarako aldagai anitzeko hustiapien estatistikoa eta horren ulertze zuzenerako gomendiak Jorge Oscar Fernández Santanak burutu eta azaldu zituen.

²⁰ Azterketa honen helburua E.A.E.ko gizartearen Gemeinschaft motako nortasun amankomun ezberdinak (Euskadi eta Espainiaren inguruan era kontrajarrian erazten direnak) eta hizkuntza (euskara) gaitasuna eta horrekiko jarrerak elkarloturik daudenentz estatistikoki aztertzea zen. Hori gauzatzeko hona hemen kontuan hartutako aldagairik aipagarrienak:

- A) Ingurunearen «euskaldunen proportzioa» adierazten duen Sekzioen Euskalduntasun Mailaren Tipologia, Zentsuen Sekzioetako datuetan oinarrituta.
- B) Gemeinschaft unibertso sinbolikoaren adierazleak: 1990eko Eusko Legebiltzarrerako emandako Botuaren Oroipena eta, bestetik, Autokokapena Español/Euskaldun Ardatzean.
- D) Euskararen inguruko arlo ezberdinetako zenbait adierazle: Norbait euskalduntzat hartzeko behar den osagarri nagusia; Ama hizkuntza; Elebakartasun/Elebitasun mota; Guraso, lagun eta lankideen euskararen ezaguera maila; Euskararekiko interesa eta jarrerak; Euskara suspertzearen aldeko ekintzetan parte hartzea.

«Korrespondentzia bakun edo bitariko» Faktore Azterketari ekiteko Sekzioen Euskalduntasun Mailaren Tipologia (TIPO, aurrerantzean) «aldagai eraginkortzat» hartu zen eta gainontzeko aldagaiak «lerro eraginkortzat», hain zuzen. Azterketaren ondorioz hiru faktore osatu ziren, bariantza osoaren adierazpen ahalmen oso ezberdinekoa: lehenengo faktoreak bariantza osoaren %88 adierazten zuen bitartean, bigarren faktoreak %9 eta hirugarrenak %3 soilik betetzen zuten. Gauzak horrela, atera daitekeen ondorioa hau da: aztergai zegoen gertaeraren adierazpena, lehenengo faktoreak ia osorik agortzen zuela edo, bestela esanda, gertakaria ia osorik lehenengo faktoreak suposatzen duen esanahien ardatzean datzala. Emaitzen interpretazioa, beraz, ardatz horri lotuko zaio, batez ere, lehenengo bi ardatzek mugatzen duten planoan (3. Irudia).

3. Irudian ikus daitekeenez, TIPO (Sekzioen Euskalduntasun Mailaren Tipologia) aldagaiaren bi muturretako kategoriek Lehenengo Faktorea definitzen dute: ezkerreko muturrean euskaldunen proportzio gutxieneko kategoria dugu (3. Irudian, ≤ 20 bezala agertzen da) euskaldunak %20 edo gutxiagoko sekzioak, hain zuzen; eskuineko muturrean, berriz, Sekzio euskaldunenak aurkitzen dira beraien biztanleriaren %80 edo gehiago euskaldunak direlarik (≥ 80). Sekzioen euskalduntasunaren etengabeko sailkapena osatuz, euskaldunak %20/%44 suposatzen duten sekzioak (2044) eta %45/%79ko proportzioa lortzen dutenak erdiguneko kokapenetan topatzen ditugu haietako bakoitza dagokion ordenean. Beraz, Lehenengo Ardatzak «ingurunearen euskalduntasuna» adierazten digu, ezker aldean zonalde erdaldunak eta eskuinean euskaldunak dauzkagularik.

Ondoren aurkezten dira Lehenengo Faktorea adierazten duten aldagaien kategoriak, indar gehienezkoetatik hasita garrantzi apalagokoetara joanez:

—**Zonalde erdaldunetan indarrez ematen diren aldagaien kategoriak:**

- Lagunen artean (ia) inork ez daki euskaraz (ino7).
- Lankideen artean (ia) inork ez daki euskaraz (ino8).
- Erdaldun elebakarra (erda).
- Ama hizkuntza, erdara (ahca).
- Guraso erdaldunak (aaer).

—**Zonalde erdaldunetan apalki ematen diren aldagaien kategoriak:**

- Euskararekiko inolako interesik ez (inez).
- Euskararen aurkako jarrera (aurk).
- «Español/Euskal Herriko»tzat (biak batera) jotzen du bere burua (vaes).
- Euskara ez zaio axola (alau).

Era berean eskuin aldeko muturreko aldagaiak aurkezten dira ondoren, aldagaien kategoria garrantzitsuenetatik hasita eta eragin arinagoa dutenekin bukatuz:

—**Zonalde euskaldunetan indarrez ematen diren aldagaien kategoriak:**

- Lagunen artean (ia) denek dakite euskaraz (den7).
- Euskal elebidun funtzionala (euel).
- Ama hizkuntza, euskara (aheu).

- Guraso euskaldunak (aaeu).
- Lankideen artean (ia) denek dakite euskaraz (den8).

—**Zonalde euskaldunetan apalki ematen diren aldagaien kategoriak:**

- Euskalduntzat bakarrik (ez espāñoltzat) jotzen du bere burua (vasc).
- Euskararekiko oso aldeko jarrera (oald).
- Euskararekiko interes handia (hand).
- Euskaldun elebakarra (eusk).

Lehenengo Ardatz edo Faktorea zeren arabera eratzen den eta bere esanahia argi ikusi ondoren, ardatz honek berak zer aldagai adierazten duen hartu behar dugu kontuan:

—Lehenengo Irudiaren ezker aldean euskarazko gaitasunik eza, mota guztietako ingurune erdaldunenak eta euskararekiko axolagabekeria edo aurkako jarrerak kokatzen dira. Bestaldetik, arlo sinbolikoei dagozkien amankomuneko nortasunak eta dimentsio sinboliko-ideologikoak ondoko kategoriak ezartzen dituzte «erdal mutur» honetan: «español», «españolago, Euskal Herrikoa baino» eta «español/Euskal Herrikoa batera» nortasun amankomunak eta, horiekin batera, dimentsio sinboliko ideologikoaren aldetik hauteslegoaren hurrengo motakoak: PSOEkoak, Bestelakoak²¹, Euskadiko Ezkerrakoak eta Abstentzionistak.

—Eskuin muturrean, berriz, euskarazko gaitasun handia eta familia, lagun eta lankide arteko ingurune zeharo euskaldunak kokatzen dira eta euskararekiko atxekimendu nabaria aurkitzen ditugu. Amankomuneko nortasun eta dimentsio sinbolikoaren aldetik ondoko kategoria hauexek topatzen diren bitartean: «euskaldunak (Euskal Herrikoak), eta ez espāñolak», eta Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna eta EAJ-PNVko hautesleak²².

Ikusitako emaitzen arabera, beraz, bi muturretako mundu ezberdin eta kontrajarrien izatea baieztatzen da. Haietako lehena, erdal tankerakoa eta euskaratik guztiz aldentua da, bere amankomuneko nortasun etniko-politiko eta unibertso sinbolikoa Espainoltasunaren inguruan osatzen delarik. Beste muturrean, aldiz, euskara eta bere aldeko balioak dira nagusi, amankomuneko nortasuna eta unibertso sinbolikoa Euskal Herri/Euskadi

²¹ Partido Popular, Unidad Alavesa eta tankerako talde txikiagoak ere barne.

²² EAJ-PNV ardatzaren erdialde honetan agertzen bada ere, bere hauteslegoaren erdialdeko gunerako joera dela eta, ardatzak ez du bere kokapena estatistikoki era sinifikatiboan adierazten.

dunenak. Euskal nortasun amankomunaren erdiko balioak, berriz, ardatz linguistikoaren ezker aldean sartzen dira edo, bestela esanda, euskal nortasun amankomuneko balio batzuk erdal kutsuko guneetan sartzen dira: «español baino, Euskal Herrikoagoak sentitzen direnak» eta Euskadiko Ezkerako botu-emaileak, oro har, euskalduntasun apaleko tartee-tan kokatzen dira (euskaldunak ugariak ez diren sekzioetan). Irudiaren eskuinaldeko muturrean, euskal nortasuna eta euskararen komunitatea bat datoz, baina ez da berdin gertatzen ardatzaren ezker-erdi aldean: badago euskal nortasuna —epel bada ere—, baina euskarak ez du presentzia handirik.

Honek ere badu bere balizko ondorioa, Euskal Herrikoa edo euskotarra (baina ez euskalduna) izatearen definizioari dagokiona, hain zuzen. Amankomuneko euskal nortasuneko (euskal Gemeinschaft-eko) partaide sentitzen diren gizarte geruza edo multzo zenbaitek, euskararen beharrik sentitzen ez duelako, hizkuntza hori gabeko «euskotar komunitatea» onar lezake, euskal komunitatea eta bere izena ematen duen jatorrizko hizkuntzaren arteko (ezinbesteko) lotura hautsiz. Fishmani jarraiki, gizartean pentsakera hau hedatuz gero menpeko hizkuntzaren (euskararen) berreskurapenerako oztopo handi bihur liteke (Fishman 1991, 394-395. orr.). Gertaera hori ez da derrigorrez eta ezinbestez eman behar, noski, baina horren arriskuaren susmoa aztertutako emaitzetatik jasotzen da.

Azterketa Faktorialean antzemandako gertakizun horren oso bestelako interpretazioa ere egin daiteke: amankomuneko euskal nortasunaren partaide askok gaur egun ez dakite euskara —Euskal Herriaren historia hurbilaren gora behera soziopolitikoak direla medio—, baina hizkuntza horren berreskurapena beraiantzat edota beren seme-alabentzat aldarrika dezakete. Hau horrela balitz, datozen urteetan amankomuneko euskal nortasuna eta euskararen komunitatea bat etorriko lirake neurri handian. Behar bada, azaldu diren elkarren kontrako bi joerak batera ematen ari direla pentsatzea zuzenena da: batetik, gizarte multzo «euskotar» batzuei euskara ez zaiela sakon-sakonean batere axola eta, bestetik, unibertso sinboliko bere bereko (euskal Gemeinschaft-eko) beste gune erdaldun batzuetan, berriz, galdutako euskal hizkuntza nazionala berreskuratzeko ahaleginak egiten eta bultzatzen direla.

Azkenik, euskara eta Euskal Herri edota Nazioaren arteko harreman eksklusiboa eta itxia urratzen ari den gertaera berria aipatu beharrekoa da: espainolotasunaren ingurune sinbolikoetan kokaturik dauden zenbait partidu politikotatik datozen euskararekiko goraipe eta oniritziak, esparru komunitario ez-nazionalistetara euskararekiko interesa hedatzen ote deneko keinu sendorik direnentz ikuskizun dago. Estatu mailako partidu batzuk E.A.E.an berriki agertu dira euskararen alde, kasu haietako batean nahiko era sistematikoan, gainera, ahalegin horretan norainoko sakontasunik lortuko den aurrizkusteko oraindik goizegi delarik.

Saioak errotuz gero, gizartean ikusten den hizkuntza eta unibertso sinboliko jakin batzuen arteko fideltasun eskusiboa gainditzen hasiko litzateke.

2.1.3. *Nortasun estrategiak eta komunitate motak*

Unibertso sinbolikoak eta hizkuntzak nortasunarekin loturik doaz. Ta-boada-Leonetti soziologoak (Carmel Camilleri, 1990) adierazten duen bezala, ez dago «nortasun berezkorik», «egoeran oinarrituta dagoen nortasuna» baizik. Horregatik, kontzeptu hau era dinamikoan eta interakzioarekin lotuta ulertu behar da. Autore honek «nortasun estrategiak» hiru elementuz osatzen ditu: 1. AKTOREAK (banakoak edo kolektiboak); 2. aktoreak dauden EGOERA eta egoera horrek eragiten dituen eronkak; 3. aktoreek bilatzen dituzten HELBURUAK (azken hauen artean, esate baterako: asimilazioa, ezberdintzea edo berezitasuna, balorapena, ikusgarritasuna edo agiritasuna —visibilidad—, eta abar).

Unibertso sinbolikoek euren «nortasun estrategiak» hedatzen dituzte, euren legitimitateari lotuta. Euren komunitate/Gizarte definizioak hedatzen dituzte. Gure kasuan zer gertatzen den ikusi baino lehen, komunitate kontzeptu horretan geldituko gara hizkuntzaren inguruan interes berezia duelako gure ustez.

HIZKUNTZA KOMUNITATEA, kontzeptu klasikoa da; bere definizioa hau izango litzateke: hizkuntza bera hitz egiten duten hiztunek hizkuntza komunitate berbera osatzen dute (Fishmanen definizioaren arabera). Kontzeptu hau, lagungarria eta erabilgarria izanik, unibertso sinbolikoak eta nortasun estrategiak aztertzerakoan mugatua gelditzen zaigu: unibertso sinboliko bat hizkuntza komunitate biren bitartez egituratuta egon daiteke: gure kasuan, euskara euskal nortasunaren elementu ezinbestekoa dela uste dutenen artean euskaldun eta erdaldunak daude. Horregatik, beste kontzeptu bat aipatu nahi genuke lagungarria delakoan: ATXEKIMENDU KOMUNITATEA.

ATXEKIMENDU KOMUNITATEA kontzeptua sakondu gabe, esan dezakegu kontzeptu hau sentimenduen eta sentsazioen ildotik doala; Herman Parret-ek adierazten duen bezala: «ez dira ezagutza objetiboa ez arrazoi teorikoa, balore sistema anitzak baizik, egunerokotasunaren inter-subjetibitatearen arrazoi eta grinak gobernatzen dituztenak». (Parret, 1991: 186. or.). Kontzeptu honek laguntzen digu unibertso sinbolikoen eta gizartearen artean dagoen eraketa ulertzen; gizarte bateko partaideak unibertso sinboliko ezberdinetan inplikaturik daude, nortasun estrategia ezberdinak hedatzen dituztelarik, horrela, kontestu honetan, esan dezakegu unibertso sinboliko bakoitzak bere atxekimendu komunitate berezia duela. Adibidez, euskararen kasuan, esan dezakegu euskararen atxekimendu komunitatea bi hizkuntza komunitatez osatzen dela: erdaldunena eta euskaldunena; horregatik, kontzeptu hau hizkuntza komunitatearena baino erabilgarriagoa zai-

gu, gure ikuspegirako: euskara maitatu eta bere berreskurapena aldarrikatzen dutenak euskaldunak nahiz erdaldunak dira eta denok osotzen dute euskararen atxekimendu komunitatea. Aldiz, gaztelaniaren atxekimendu komunitatea, gure kasuan, erdaldunek eta euskara axola ez zaien euskaldunek osatzen dute.

KOMUNITATE DISKURTSIBOA, aldiz, beste ikuspegi batetik dator. Kontzeptu honek diskurtso baten genesiaren prozesua adierazten du: Dominique Mainguenearen (Maingueneau, 1991) esanetan, kontzeptu honek diskurtsoen bai gestioan bai enunziazioan eta enunziatioagatik dauden taldeak adierazten du. Komunitate diskurtsiboak era askotakoak izan daitezke: politikoak, ekonomikoak, zientifikoak, intelektualak, gizarte mugimenduak, komunikazio entpresak, eta abar; hau da, euskararen inguruan, hizkuntza honi buruzko diskurtso eratuak sortzen dituzten taldeek, komunitate diskurtsiboak osa litzakete. Kontzeptu honek zeresan handia du euskal komunitatearen trinkotze prozesuaren osaketan; hau da, hizkuntza komunitate batean (edo, nahi bada, atxekimendu komunitate batean) komunitate diskurtsiboek funtzionatzen duten heinean, hizkuntza komunitatea trinkotze prozesu sendoaren bidean dago²³.

Orain arte aipatutako kontzeptuak argitzeko, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarentzat burutu genuen ikerketa kualitatibo bat aipatuko dugu²⁴, non ondo ikusten den hizkuntzari buruz hedatzen diren bi diskurtso orokor ezberdinak:

- «Errealitatearen diskurtsoa» pragmatikoa da, hau da, euskara Euskal Herrikoen hizkuntza bat da, ez garrantzitsuena, ezta nortasun hizkuntza ere; horregatik, erabiltzen ez denez (ezta euskaldunek ere) ez du zentzurik gizarte mailako esfortzurik bere erabilera bermatzeko; euskaldunen kulturaren hizkuntza bat (eta ez bakarra) denez zaindu beharra dago baina ez komunikazio hizkuntza gisa baizik eta ondare gisa, adituentzat edo nahi duenarentzat.
- «Desioaren diskurtsoan», berriz, euskara Euskal Herriko nortasunaren oinarritzko elementua da, horregatik, hutsune batek osatzen du diskurtso hau: euskararen gizarte erabilera ezak; euskara nortasun hizkuntza denez bere gizarte mailako ahulezia indartu beharra dago. Iraganak pisu berezia hartzen du hizkuntzaren ahuleziaren

²³ Hiru kontzeptu hauen eraketa Nekane Jausorok bere doktoradutza tesian lantzen ditu.

²⁴ JAUSORO, Nekane (1992): *Euskalduntzearen motibazioen azter-mapa*. Ikerketa hau EAEko hiru hiriburuetan egin zen, erdaldun eta euskaldun berrien gizarte multzoa kontutan hartuta: hiru talde erdaldunekin burutu ziren (inoiz ikastera joan ez direnak; euskara jakingo luketenak eta jakin nahi ez dutenak); beste sei talde euskalduntzearen prozesuan dauden artean egin ziren: hiru talde behe maila eta erdi mailan ikasteari utzi diotenak (ez dakite hitz egiten edo oso gutxi); bi talde euskalduntzea lortu dutenak (ondo hitz egiten dute).

arrazoiak hor kokatzen direlako; beste aldetik, etorkizunak ere bere pisua du, hizkuntzaren erabilera ume eta gazteengan kokatzen delako. Baina, bitartean, euskarak gaurkotasuna galtzen du: iraganaren eta etorkizunaren artean gaur egungoa (gaurko erabilera) falta da.

«Errealitatearen diskurtsoan», orokorrean behintzat, hizkuntza komunitate bat bakarra dago, erdalduna; «desioaren diskurtsoan», aldiz, bi hizkuntza komunitate daude, euskalduna eta erdalduna, honek ere ahuldu egiten du posizio hau, bertan ez delako beti euskaraz egiten.

Bi atxekimendu komunitate bereiz ditzakegu: alde batetik, gaztelaniaren atxekimendu komunitatea, errealitatearen diskurtsoan kokatzen dena; gaztelania da beraien nortasun hizkuntza eta, horrekin batera, gizarte hizkuntza legitimoa ere; jatorrizko funtzioa (gehienetan behintzat), erreferentzi funtzioa, transmisioko funtzioa gaztelaniarekin betetzen dute; euskara kultura aberastasunaren esparruan kokatzen dute, Euskal Herrikoen ondare amankomunean, nahi duenak ezagutzeko (hor betetzen du euskarak funtzio mitiko berezia —folklorikoa—: hizkuntza zaharra, bitxia...).

Beste aldetik, euskararen atxekimendu komunitatea («desioaren diskurtsoan» kokatua), non euskara nortasun hizkuntza den, Euskal Herriko izatearen ezinbestekoa. Halere, euskararen atxekimendu komunitatearen barnean kontraesanak daude: alde batetik hizkuntzarekiko atxekimendua ez da bere erabilerarekin osatzen (batzuek ez dakitelako eta besteek hitz egiten ez dutelako); beste aldetik, euskarak behar lukeen gizarte tokia argitu gabe dagoelako²⁵ eta horrek zalantzarako egoerak dakartza.

Gaztelaniaren atxekimendu komunitatea trinkotua dago, eta horretan *bere* komunitate diskurtsiboak izateak lagundu dio; hauek, unibertso simboliko horren diskurtsoaren esparruan aritzen diren heinean, azken honen koherentziaren eta zabaltasunaren onerako lan egiten dute. Gainera, hizkuntza batean aritzeak (gaztelaniaz) hizkuntza horren gaurkotasuna eta beharra areagotzen ditu. Horrela, gaztelaniak atxekimendu komunitate eta komunitate diskurtsibo sendoak ditu bere nagusitasuna nabarmentzen dutelarik.

Euskararen atxekimendu komunitatea trinkotua dago, hau da, afektibotasunaren dimentsioan euskararen inguruan dauden euskaldunak eta erdaldunak bat datoz hizkuntzarekiko zaletasunean; baina, hizkuntza batek atxekimendu komunitateaz gain bestelako komunitate bat behar du, hots, komunitate diskurtsiboak, azken hauek dimentsio arrazionala eransten diotelako eta, horrekin batera, gizarte mailako hizkuntza hedatzen laguntzen dutelako. Euskarak *bere* komunitate diskurtsiboak

²⁵ Bertan kokatzen diren proiektu politiko ezberdinek ere ez diote arazo honi aurre egiten.

murrizak²⁶ ditu eta eratugabeak, hau da, euskararen gizarte tokia argiturik ez dagoenez komunitate diskurtsiboek definizio ezberdinekin lan egiten dute, nahiz eta euskararen nortasun garrantzia amankomuna izan. Gainera, bi hizkuntzatan aritzeak hizkuntza gutxiagotua (euskara) ahultzen du, honek bere gaurkotasuna eta bere beharra mugatuak ikusten dituelarik. Irudian (4. Ir.) ikus ditzakegu atxekimendu komunitate bakoitzaren ezaugarri bereziak:

Gaztelaniaren atxekimendu komunitatea	Euskararen atxekimendu komunitatea
Hizkuntza komunitate bat	Bi hizkuntza komunitate
Komunitate diskurtsibo trinkoak	Komunitate diskurtsibo murriztuak
Gaurkotasuna	Iragana/Etorkizuna
Motibazio eza, ahula edo pragmatiko murriztaileak	Motibazio sinbolikoak nagusiki (arbasoekiko lotura, euskal nortasuna, integrazio bidea, ziurtasun soziala)
Euskara: «riqueza cultural»	Euskara: euskaldun nortasuna
Euskara «ezagutu»	Euskaraz bizi

4. Irudia

Bi diskurtso orokor hauetan euskararen irudia hain ezberdina izanik berarekiko motibazioak ere ezberdinak dira. Hau azaltzeko, diskurtso hauen egituraketaren aipamena egingo dugu gero motibazioen lekua hobeto bereizteko (ikus hurrengo irudia). Diskurtso bien arteko egituraketa bi ardatzen arabera egingo dago: bata, banakako mailako ardatzari NAHIA deitu diogu (hau da, euskararen nahia ala ez-nahia); eta bestea, gizarte mailako ardatzari IKUSPEGI OSATZAILEA deitu diogu (OSATZAILEA, gizarte maila kontutan hartzen denean eta EZ-OSATZAILEA ez denean kontutan hartzen). Horrela, gaztelaniaren atxekimendu komunitatean (errealitatearen diskurtsoa) bi posizio bereizi ditugu: bata, muturrekoa (A) EZ-NAHIA/EZ OSATZAILE, non euskarak ez duen inongo baliorik; bestea, (B) NAHIA/EZ OSATZAILE, non euskarak ez duen gizarte tokirik nahiz eta banakako maila (borondatezkoa) onartzen zaion. Beste aldetik, euskararen atxekimendu komunitatean (desioaren diskurtsoa) beste bi

²⁶ Hala eta guztiz, gaur egun badago gizarte mugimenduen mailan euskararen aldeko herri mugimenduak oso interesgarriak deritzogunak euskararen komunitate diskurtsiboak hedatzeko eta sendotzeko.

gabe utzi nahi ez dugun gaia denez, zertzelada batzuk ematen saiatuko gara.

Gizarte arrakastaren motibazio sinbolikoak

Jendeak bere ohiko egoeretan, beren dirua, boterea, kokapen soziala edota prestigioa direla medio, gizarte mailan arrakastatsuak diren beste multzoen irudikapenak eredutzat hartzen ditu: artista, finantza munduko gizon/emakume, kirolari, plaza gizon/emakume, eta abarrenak. Eta eredu hauen bizimoldeari jarraiki jende xumea saiatzen da, handian edo txikian, eredu horien portaerak, jarrerak, iritziak, jazkerak eta itxura bereganatzen.

Horren arabera, «gizarte eredu hauen» hizkuntzarekiko portaera eta jarrerak ere, ezinbestez, beren isla izango dute jendearen eredu-bilatze horretan. Goi mailako gizarte elitearen «hizkuntza ereduak» —beren erdikotasun sozialak ematen dien pisuaz baliatuta—, eragin handia izango du gizarte osoaren «hizkuntza irudian».

Maslowren piramide ezagunaren oinarritik abiatuta goranzko mailak gainditzen diren neurrian, bertize edo erpinerantz jotzen dutenen aukerak —nork bere burua garrantzia ematen dion egoerara iristeko asmoz—, mota oso ezberdinak izan daitezke, haien artean, adibidez, «arrakasta sozialarena» izan daitekeena, besteak beste.

Ikuspuntu honen oinarrian, mendebaldeko kulturapean oso erroturik dagoen Calvino ondorengo «gizarte arrakastaren» ikurra koka daiteke. Ezin da esan «arrakasta balioak» pentsakera horren ondorio hutsa direnik; baliteke kultura greko/erromatarren edo bestelako bide bateko aztarnatik hartuta izatea, baina, ziurta daitekeena da gure ingurunean kulturaren gizarte arrakastaren grina erraz aurkitzen dela.

Kapitalismoaren sorreraren kausa bakar bezala azaldu nahi ez bada ere, gauza onartua da Calvinoren doktrinak sistema horrek mendebaldean izan duen hedapena adierazten asko laguntzen duela. Erljio protestante «calvinista» XVII-XVIII. mendeetan sortzean, lehendik existitzen zuen kapitalismoari esanahi espiritual bat ematean, izugarritzko gorakada eman zion. Hona hemen Max Weberi jarraiki Rocherek dioena:

«...la doctrina calvinista, tanto por su lógica propia como por las reacciones psíquicas por ellas suscitadas, dio lugar a una moral individual y económica favorable a las conductas de tipo capitalista.» (...) «El espíritu del capitalismo puede definirse más bien como un tipo particular de conducta económica, tipo que se caracteriza por la búsqueda de ganancias cada vez mayores,...» (Rocher 1976, 462 eta 460. orr.)

Gizarte arrakastarantz bultzatzen duten aldagaiak edozeintzu izanda ere, «erdiespen motibazioa», hau da, «gero eta goragoko helburuak ezartzera, konpetentzia mailak finkatzera, hasten den guztietan arrakasta lortzera eta, oro har, bizitzan arrakastatsua izatera daraman motibazioa», ja-

kinaren gainean jarri gaituzte soziologo eta psikologo amerikar batzuek. Ezaguna da, halaber, familian jasotako balioak direla eta, arrakastarako joera ez da gizaki guztietan berdin ematen; adibidez, Estatu Batuetan frogatuenez, gizarte estatusa kontuan hartuta, maila ertaineko familietako umeez arrakasta lortzeari garrantzia handiagoa ematen diote famili xehe-takoek baino. (Rocher 1976, 161. or.)

Arnold Mitchellen lanari jarraiki (Mitchell 1983), bere «balio eta bizimoldeen» tipologia (VALS: values and lifestyle) kontuan hartuta, hor eskaintzen diren bederatzita motetatik «erdiespentsuen bizimoldea» (achievers lifestyle) eta «antzeratzaileen bizimoldea» (emulators lifestyle) dagozkio, nagusiki, sakondu nahirik gabiltzan ikuspuntuari.

Autore honen iritziz, «erdiespentsuak» gizartearen gailurrean daude, gizarte sistemaren eraikitzaileak dira eta horren gidaritzan dihardute. Mota askotarikoak, buru argikoak, langile saiatuak, konfidantzadunak, arrakastatsuak eta talde zoriontsua dira. Batzuentzat, «erdiespentsuek» amerikar aberats eta arrakastatsuen estereotipoa betetzen dute. Kritiko sozialentzat, berriz, «erdiespentsuak» «ezarritakoaren» (*establishment*) isla dira. Mitchellek dioenez, Estatu Batuetan mota honetakoek biztanleriaren %22 suposatzen dute.

Aipaturiko autoreak «Antzeratzaileen bizimoldean» oso pertsona saiatuak, haien ustetan beraiek baino arrakastatsu eta aberatsagoak direnak bezalakoak —hau da, erdiespentsuak—, izatea bilatzen dutenak, kokatzen ditu. Beste inork baino eragin handiagoa jasaten dute «eredutzat» daukatenen aldetik. Gizonezkoak nahiz emakumezkoak, lehiatsuak edo konpetitiboak, handitasun irrika bizian dabilzanak eta, sarritan, arrakastatsuak dira. Hainbeste miresten eta antzeratzen dituztenen balioak eta bizimoldeak ez dituzte benetan ulertzen. Ipar amerikarren artean %10 bat mota honetako jendeari dagokio Mitchellen ustez.

Mitchellen tipologiaren bi mota hauekin ilustratu nahi izan dugu, zer dela eta gizartearen gailurrean daudenen «ereduari» jarraitu nahi dioten gizarteko bestelako lagun batzuek. Hau horrela izanda eta harira itzuliz, argi dago «erdiespentsuen» hizkuntza portaera, jarrera eta abarrek eragin zuzena izango dutela gizarte esparru askotan, batez ere —baina ez bakarrik—, eredu horri beren indar guztiekin heltzen diotenen kasuan. Gizarte arrakastata bilatzen dutenek ingurune horretako arrakastatsuenek hizkuntza mailan jarraitzen dioten eredu bereganatuko dute.

Gainera, ezin ditugu ahaztu Bourdieuren ideiak. Hizkuntzak, «botere lanabes» bezala ulertuta, gizarteko arlo boteretsuetara iritsiz gero legitimitatea lortuko du, era horretan bere gune sinbolikoa gauzatzea posiblea izango da. Botere kokagunean egonda, hizkuntza batek bere marka ezarriko du, beste hizkuntzen egoerak horren arabera mugatuz. Ondorioa nabaria da: boterearen hizkuntza aukeraketa, erabilera, eransten dion balioa eta abar, neurri handian errepikatu beharreko «hizkuntza eredu» bihurtuko da gizarte horretan.

3. EUSKARAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN DIAGNOSIA AZALDUTAKO HURBILPEN TEORIKOEN ARABERA

3.1. **Begirada bat iraganera. Euskararekiko motibazioak historiako zenbait momentutan**

Gemeinschaft edo «hurbileko komunitate» eta «arrakasta eredu» hizkuntzarekiko daukaten zerikusiaz maila teoriko batean mantendu izan bagara orain arte, hurbilpen horien arabera zenbait erreferentzia historiko hartuko dugu kontuan ondorengo lerroetan. Asmo horrekin bi garai ezberdinduko ditugu: lehendabizi, Foru Sistemaren garaiko egoera soziolinguistikoa, sasoi horretaz zertzelada batzuk besterik emango ez direlarik. Aurreko sistemak porrot egiten hasten den sasoi horietako gizartetik, XIX. mendetik, duela bi hamarkadara arteko tartea, hain zuzen.

3.1.1. *XIX. mendea baino lehenagoko euskararen izate sozialaren gainbegirada batzuk*

XVI eta XVII. mendeetan arrakasta zuten gizarte multzorik garrantzitsuenak kleroa, noblezia eta burgesia ditugu. Bestelako talde eta banakako gizakien garrantzia ukatu gabe, gure ustez aipaturiko taldeen euskararekiko jarrera aztertu behar da, behinik behin.

Elizgizonak izan ezik, mende haietako eta denbora luzez Euskal Herriko noblezia eta burgesiak —salbuespenak salbu—, ez zuten, oro har, euskararekiko kezka handirik adierazi. Beñat Oyharçabalek aburu hori bereganatzen du Azurmendirengandik jasota:

«Berrikitari Azurmendik argitara eman duen *Euskaldunak eta espainolak* saio-liburuan kapitulu bat bada euskal literaturaren pobreziaz, eta luzaz izan duen izaera elizkoiaz. Egoera horren kausen artean, nobleziak eta burgesiak euskal kulturaren aldera izan duten ezazolkeria aipatzen du,...» (Oyharçabal 1993, 29. or.)

Joxe Azurmendiren hitzak zuzenki hartuta, euskal kultura eliteei zergatik ez zitzaion erakargarria egiten ikus dezakegu:

«Gure inguruko herriak, kultur herri handi eta beren handitasuna oso ondo dakiten herriak, dira. Hidalgoen harrokeria ia klasikoa da. Euskaldun jende guzti hura, ordea, erdal kulturaren eta Gaztelako instituzioen artean mugitzen zen. Ez zuen, ager zezakeen kultura aberats propiorik» (Azurmendi 1992, 298. or.)

«Gorte aldera egin zuten jauntxoek beren aukera. Beraz, erdararen alde.» (Azurmendi 1992, 455. or.)

Halere, Oyharçabalek berak joera nagusi honetan sartzen ez ziren egoera batzuk aipatzen baditu ere²⁷, badirudi gehienetan noblezia eta burgesiaren euskararekiko ezaxolakeria jarrera nahiz portaera zabaldua zirela nonnahi. Horrela, Joseba Intxaustik emandako adibidea ere bete-betean sartzen da deskribatzen ari garen panoramika honetan:

«Venturinok, berriz, xehetasun sozialago hau dakar: “Bertan (Gasteizen, alegia) herritar arruntek ‘bizkaiera’ edo ‘euskara’ hitz egiten dute (...), aldi berean nobleak gaztelaniaz argitasun osoz mintzatzen diren bitartean” (1572).» (Intxausti 1994, 11.or.)

Arabako adibide horretan, gizartearen aitzindari zitezkeen aberats haien «hizkuntza ereduak» ez zuen batere euskara suspertzen laguntzen. Aldiz, ikusitakoaren arabera eta «gizarte arrakastaren motibazio sinbolikoak» direla medio, herri xeheak gaztelaniara jotzeko arrazoi handia bazuen.

Euskararen inguruko jarrerez esandakoaren laburpen gisa, Azurmendik euskararekiko axolagabekeriak adierazpen bat bilatu nahirik aipatzen dituen arrazoiaren artean bilatuz, arazoaren gakoa bete-betean planteatzen du autore honek, gure ustez:

«Euskara hainbeste goratzea eta ez lantzea, ez da beste gabe normala, nire ustez. (...) Beste arrazoi bat hemengo jendearen zabarkeria da kultura gauzetan. Baina ezta hori ere, ez dugu aski arrazoi. Apologisten lanak berak argitara ezinda gelditu ziren (...) (Datu garrantzizkoa da hori, apologisten ideologia «euskal ideologia»rik errazegi ez bihurtzeko). (...) Bestalde, halere, arte eta arkitekturaz poliki osatu zen Euskal Herria mendeotantxe. (...) Musikak ere —organulari, kapelmaisu— susperraldi bat ezagutu omen zuen. Bazen letretako bizitza kulturalik ere: teatrokoa, adibidez. Baina herri euskaldun garbi-garbietan erdarazko teatroa ematen omen zen (...). Horixe daukagu, ba: euskararen harrokeria eta —praxian— erdakeria, klase nagusien aldetik. Literatur aldetik, ondorioz, pobrezia beldurgarria.» (Azurmendi 1992, 471. or.)

Gertakari honen adierazpen bila, hona hemen Azurmendik aipatzen dituen Sarasolaren hitzak:

«Latina zen kulturaren bidea, eta ondoren, handik sortu ziren hizkuntzak. Latinetik hizkuntza romanikoetara zeraman bidea etengabe baitzen, ez zuten orduko euskaldunek bi hizkuntzen artean aukeratu beharrik ikusten. Hautatzeak ez zuen sentidurik, aukera betidanik egina baitzegoen. Aukera erdara zen. Egoera hau euskal kontzientzia batek bakarrik gaindi zezakeen. Kontzientzia falta honek markatzen du euskal literaturaren historia XIX. bukaeraraino. (Azurmendi 1992, 472. or.)

²⁷ «Iparraldean, edo Zuberoan bederen, bestelako mugimendu baten mentura, eta abiadura ere, izan bide zen XVII. mendearen hastapen horretan.» (OYHARÇABAL 1993ko Urtarrila/Otsaila).

Sarasolak euskal kontzientzia euskarazko literaturarentzat mesedegarri izan zitekeela dio, batetik, baina amankomuneko nortasuna hizkuntzarekiko duen zerikusiarren adibideak aurrerago azalduko dira. Bestalde, Sarasolak berak hizkuntza distantzia aipatzen du; hau da, gaztelania latinetik zertorela etenik gabe, eta, era berean, latinak zeukan tradizio kultural handia. Latinetik euskarara igarotzeko, berriz, kodez aldatu behar zen. Zinezko arrazoa zitekeen hau, dena dela, ahul samar iruditzen zaigu Azurmendik ematen duen hurrengoaren ondoan.

Azurmendiren ustez, literaturan ari zen idazle taldea «korrontearen kontra zebilen, gizarte osoari begiratzen badiogu».

«Euskal kontzientzia falta bada, idazleok nahikoa kontzientzia bazuten. Salatzen den *euskal kontzientzia falta* hori, zinezkoa, batez ere beste nonbait aurkitu behar da. Frantziako literaturan gutxienez ehuneko larogeitamar idazle noblezia eta hirugarren estatukoak badira, eta Euskal Herrian klerokoak, proportzio hauek hemengo gizartearen anormalitatea salatzen dute, eta «noblezia» eta hirugarren estatua Euskal Herrian zertan zebiltzan, galdera sortzen da ezinbestean.

Horixe bait da kontua: euskal «noblezia» eta hirugarren estatu eskolatu edo merkataria Erregearekin zebiltzala, ez euskal herriarekin, etxetik kanpo. (...) Euskal idazle eliztarrak ia bakarrik aurkitu dira. Nobleziak eta hirugarren estatuak ez diote segimenik eman haien bultzadari.» (Azurmendi 1992, 472-473. orr.)

Ez dago, ez, Azurmendi oso desbideratuta jatorriz euskaldun zen hainbat jende gaztelaniaz aritu beharra zuenean, bere identitatea aurkitu ezinik zebilena eskizofrenian zegoela dioenean. Baina funtsezko arrazoiaren bila jarraiki, honela dio Azurmendik:

«Funtseneago, beraz, edo funtsenean, problemak ez dirudi literaturarena, tenorean Euskal Herrian somatzen den gizarte eta kulturarena baizik (adierarik zabalenean) eta klase nagusietan bereziki. Hau da, testurik baino lehen eta gehiago, izpiriturik ez da egon hemen ernazentistarik.» (Azurmendi 1992, 475. or.)

Azurmendik ematen dituen arrazonamenduak nolabait laburbiltzeko, hau esan daiteke: zenbait idazleren aldetik bazegoen euskarazko literatura bat jasotzeko saiorik, baina ahalegin horiek esparru mugatu batean ematen ziren, batetik, elizgizonen baitan, gehienbat, noblezia eta merkataria burges ilustratuen aldetik antzeko joerarik susmatzen ez zen bitartean; azken hauek, bestetik, idazleen lanari arreta eta babes eskasa eskaintzen omen zioten. Noblezia eta «hirugarren estatuaren» euskararekiko axolagabekeria honek bazeukan zergati objektiboa: beraien jarduera ekonomikoak, zein militarrik, zein kulturalak, Erregearen menpeko inguruneetara zuzentzen zirenez, gaztelania zeukaten harreman hizkuntza, euskara esparru horietan aritzeko balio gabekoa gertatzen zelarik. Beraz, hemengo elite soziokulturalek, arrazoi pragmatikoak zirela medio, erdarara jotzen zuten, haiengan

biltzen zen «ospe» eta «arrakasta irudia» erdararen eskutik eraikitzen zelarrik. «Erdiespentsuak» erdarari eusten zioten, sasoi hartako «antzeratzai-leen» baitara erdararen hizkuntza eredua hedatuz.

Nortasun amankomuna eta asmo juridiko/politikoak «Euskal Herrietan»

XVI. mendean zehar edo hamazazpigarrenaren hasierarte Euskal Herria gaur ulertzen dugun bezala ez zen ulertua izan eta une hartan ere idazle bakan batzuegana mugatzen zen ideia horren bilakaera; euskal nortasun amankomunaren izpirik jendearen esku —edo horietako batzuegan, bederen—, baldin bazegoen ere, praxis edo ideia juridiko/politikoetan horren asmorik ez zen gauzatzen.

Arnaud Oihenart (1592-1667) euskal idazle eta historialari zuberotarraren garaikoa edota Leizarraga euskal idazlearenak dira (autoreak ez datoz bat) ildo horretatik eman ziren lehenengo pausoak. Manex Goihenetxeren ustez Oihenart izan zen aitzindari Euskal Herriaren ideia erabiltzerakoan:

«Ordurarte, ez Iparraldean, ezta Hegoaldean ere, inork ez zuen Euskal Herri osoaren historia idatzi. (...) Alde horretatik Oihenart izan zen Euskal Herriari historiaren haritik nortasuna eta lurraldetasuna eman zizkion lehen historialaria.» (Goihenetxe 1993, 56. orr.)

Joseba Agirreazkuenagarentzat, berriz, Leizarraga da Euskal Herriaren ideia erabili izan zuen lehena, baina, hala ere, argi uzten du sasoi horietan Euskal Herri osoaren kontzeptua ez zegoela politiko eta juridikoki eratuta edota, baldin eta ideia bezala bazegoen ere, ez zen jendearen artean hedatua eta idazleek erabilia:

«Oihenarten garaian, ikuspegi politiko eta juridikoan, Euskal Herririk ez zegoen; bai ordea, Zubero, Nafarroa, Lapurdi, Gipuzkoa, Bizkaia, Enkarterriak, Oñati, Araba. A. Irigoienek *Euskaldunon Egunkaria*-n oraintsu gogoratu digunez, I. Leizarraga idazlea izan zen lehendabizikoz Euskal Herria kontzeptua euskaraz erabili zuena. Zentzu geografikoan eta etnikoan erabili zuen...»

«Euskal esparruan antolatu den erresuma subiranu bakarra aro berrian, Nafarroa dugu. Aro berriaren hastapenetan, beste erresuma nagusi bitan banaturik iraungo zuen, bere egoera berezian, iraultza liberalaren garairarte.» (Agirreazkuenaga 1993, 36. orr.)

Euskal nortasun amakomun baten berri eta horren mugak Joxe Azurmendik ematen digu Miguel de Alzorengandik hartutako testu baten bidez:

«Los estudiantes vascos se presentan muy unidos frente a los demás en las luchas estudiantiles. Es curiosa la lucha de las naciones de Vizcaya y Guipúzcoa en 1644 con los pobladores de Salamanca; los estudiantes vascos hicieron frente a toda la población...» (Azurmendi 1992, 293. orr.)

Euskal lurraldeetako biztanleek sustrai amankomunaren susmoa baldin bazuten ere, asmo edota idea politikorik ezean sentimendu horren gauzatzea zaila egiten zitzairen, Azumendik berak Larramendiren **Coreografía**-ren ondorengo pasartearen erakusten digun bezala:

«Los autores que escribieron sobre estas provincias, no tuvieron más principio que ver en las Universidades donde estudiaron, que todos los vascos, vizcaínos, alaveses y navarros y gupuzcoanos hacían un cuerpo para distinguirse de castellanos, andaluces, extremeños, (...), y que a todo este cuerpo lo llaman Vizcaya, por no repetir tantos otros nombres.» (Azurmendi 1992, 294. orr.)

Argi dago, beraz, euskaldun haien nortasun amankomunak —hizkuntza nortasuna zela medio—, euskal komunitatearen kontzeptu etnikoa jasotzen zuela jadanik, baina «euskal herri» mailako nortasuna edota amankomuneko nortasun politikoa lurraldetasun txikiagotan zetzan, garai hartako aipaturiko zatiketa politikoaren arabera, hain zuzen.

Herri mailako edo nortasun politiko mailako euskal nortasun amankomunik ezean eta inibertso sinboliko hori bere azpiko zatiketei zegozkien instituzio juridiko/politikoetara (Zuberoa, Nafarroa, Lapurdi, Gipuzkoa, Bizkaia, Enkarterriak, Oñati, Araba) mugatzen bazen, euskarak ezin zion nortasun mota horri heldu.

Euskal Herri mailan motibazio sinbolikoak eratzeke oinarri diren nortasun amankomuna eta lurralde bati atxekitako asmo politikoa, sortzeke zeuden artean, eta euskararekiko jarrerak ezin zuten halako gizarte osagarriek orain ematen dioten sostenguarekin kontatu. Euskararen «hizkuntza nortasuna» ez zetorren bat nortasun politikoarekin eta hizkuntza ez zuen halako motibazio sinbolikoaz bermatzerik.

3.1.2. *Euskararen izate soziala XIX. mendetik gaur arte*

Hurrengo lerroetan, azken mendean aurrenazonalismoaren sasoian eta nazionalismoa sortu zenetik euskarari buruzko irudikapen sozialaren isla bat izateko, Benjamín Tejerinaren lanei lotuko gataizkie (Tejerina 1992, 97. eta ondorengo orr., eta Tejerina 1993). Hortik abiatuta, aurreko oinarri teorikoen argira aztertuko ditugu jasotako gora-beherak²⁸.

Laburbilduz, aipaturiko autorearen iritziz epe honetan euskarak izandako egoera sozialak eta nortasun kolektiboetan izandako lekuak hauexek dira:

—Foru Sistema edo Erregimen Zaharra porrot egiteko zorian dagoen unean (XIX. mendearen bukaeran, hain zuzen), euskara ez da sozialki

²⁸ Izartxo edo asteriskoz hasitako pasarteetan laburtuko dira Tejerinak emandako ideiak haien bukaeran parentesi artean eta gainontzeko parrafoetan geure interpretazio eta balorapenak emango ditugarik.

estimatus eta euskaldunek amorrua sentitzen dute erdara ez jakitean (sasoi hartako kulturaren arabera euskarak ez du baliorik).

- Eratzen hasia zen gizarte modernoaren garaian, burgesia bizkaitarra (Euskal Herrian, aitzindari) eta honek bultzatutako sistema erdaldun hutsa izanik²⁹, euskarak sozialki osasuntsu Erregimen Zaharreko esparruetan (abeltzaintzan, nekazaritzan eta arrantzan) soilik zirauen.
- Modernizazioaren ondorioz, jendea baserritik kalera, nekazari bizi-modutik industriara aldatzen da eta biztanle mugimendu honekin harreman sare tradizionalak desagertzen dira. Haien ordeaz, harreman sare berriak hiri giroan osatzen direnean erdara dute transmizio hizkuntza (ez dago euskararen beharrik) aurreko sareetan eginkizun bera euskarak betetzen zuelarik.

Beraz, Foru Sistemak porrot egitean bere harreman hizkuntza den euskara ere baztertuta gelditzen da, eraikitzen den sistema industrial berriak harreman hizkuntza gaztelania duelako; gizarte botere berriaren hizkuntza gaztelania da eta hizkuntza honek daukan botere sozialaren arabera kode eta arau sozial berriak ezartzen dira, bitartean euskara atzean gelditzen diren sasoi-tako hizkuntzatzat jotzen delarik. Honen ondorioz, aitzindariak diren eremu sozio ekonomikoetan —hiri tankerako giroetan—, euskarak ez du funtzio nabarmenik betetzen eta gizarte arrakastaren erdua islatzen duten multzoak erdal munduan daude murgilduta; egoera horretan euskarak ez du balorapen handirik jasotzen eta bere aldeko motibazio pragmatiko edota sinbolikorik (nazionalismoaren unibertso sinbolikotik nahiz arrakasta ereditik datorrenik) ez da inolaz ere susmatzen gizarte berriaren baitan.

- XIX. mendean hasita gaur arte, Arturo Campionen pentsakera etno-politikotik, Sabino Aranaren ideia nazionalistetara, eta gaur egungo diskurtso nazionalista berrituetara, euskarak beti du parte hartze nabaria Euskal Herriaren aldeko diskurtso politikoetan (euskara euskal nortasun amankomunaren euskarri dela defendatzen da).
- Nazionalismoa gizarte berriaren ideiaz jabetu ez zen bitartean euskarak ez zuen hiri giroetara igarotzerik izan. Kontzientzia nazionalarekin batera, sendo irauten zuen giroetan euskara sozialki estimatu hasi zen bihurtzen eta erdal kutsuko hirietan hizkuntz horren suspertze eta berreskuratzearen aldeko ahaleginak hasi ziren (euskal nortasun amankomunaren hedapenaren poderioz euskararen balio kulturala eta nazionala berreskuratzen dira).

²⁹ Oso adierazgarriak dira Txepetxek Eleizalderengandik jasotzen dituen 1918. urteko hitzak: «Y sería tan fácil si quisiéramos» (recuperar el Euskara) «...Ninguna de las objeciones que al uso continuo del Euzkera suelen presentar los euzkeldunes de las clases distinguidas, tiene, en efecto, ni siquiera apariencia de validez: todas ellas son frágiles argucias de la apatía, de la pereza intelectual, de la miserable vanidad de clase. “Estoy torpe en el uso del Euzkera” —es la alegación que más comúnmente se oye—.» (SÁNCHEZ CARRIÓN 1991, 118-119. orr.).

Gizarte berri horren inguruneetan ikuspuntu pragmatikotik euskarak ez bazuen balio handirik (harreman hizkuntza gaztelania zelako), Euskal Herri edota Euskal Nazioaren ideiak suspertuta balio (eta motibazio) sinbolikoaren babesa aurkitu zuen gizarte horren eremu hedatueta.

- Nazionalismoak galdutako Gerra Zibil ostean Francoren erregimenak euskara jendaurrean erabiltzea debekatu zuen, hizkuntza horrek familian bakarrik babesgune zuelarik (euskal nortasun amankomunaren ikurrak ezabatu nahi dira).
- Industrializazioaren eskutik etorri ziren etorkinek ere lagundu zuten erdarak sozialki pisu eta garrantzi handiagoa har zezan, euskara gero eta baztertuago geldituz (eta euskal nortasun amankomunaren ordezt Espainiako nortasun amankomunaren presentzia areagotzen da).

Hau da, gertaera soziopolitiko eta sozioekonomikoek sortzen eta indartzen duten dinamika sozialekin, eremu ofizialetan eta eremu publikoetan ezabatzen dira euskararen arrasto guztiak. Pribatuki (familietan) mantentzen bada ere, demografikoki familia euskaldunek —inmigrazioak ere garrantzi handia izanik—, pisua galtzen dute. Gerra aurreko nazionalismoaren eskutik euskarak gizartearen irabazitako ageriko esparrua desagertzen da, porrot militarren ondorioz euskararen aldeko balio eta motibazio sinbolikoen garra zeharo itzalita ematen zuelarik.

- 60. hamarkadaren bukaerako nazionalismo berriarekin, euskara eta euskal nortasunaren defentsarako euskal autogobernua bideratuko duen eraikitze juridiko-politiko (independentziaraino daramana) beharrezkotzat jotzen da (hizkuntza, amankomuneko nortasuna eta asmo politikoak elkarloturik agertzen dira planteamentuotan).
- Euskararen komunikaziorako balioa murrizteak galera horren kontzientzi hartzea ekarri zuen berekin eta traumatikoki bizi den galeraren autokontzientzia hizkuntzaren balio afektiboa (atxekimendua), sinbolikoa (komunitatea) eta parte izatearena (gurea) berrindartzera dator (Tejerina 1993, 13. or.). Hori horrela gerta zedin jadanik hedatua zen nortasun amankomunaren kontzientziak ere lagundu zuen, batetik, eta Francoren eskutik euskararen zapalkuntza jasaten zutenen kontzientzia ere areagotu zen, bestetik³⁰ (nortasun amankomuna izanez gero, galera eta zapalkuntzaren aurrean jarrera eginkorragoak sortzen dira).
- Euskararen zapalkuntza politikoak dimentsio ideologiko eta politikoak ematen dizkio hezkuntza sistemari, egoera normalizatueta ohiko eta

³⁰ Errepresioaren eragin honen berri Pérez-Agotek ematen digu, Tejerinak gogorazten duen bezala (TEJERINA 1992, 120-121. or.): PÉREZ-AGOTE: «The rol of religion in the definition of a symbolic conflict. Religion and the basque problem» (*Social Compass*, XXXIII zb.).

berezkoak diren funtzioez kanpo (hizkuntza eta politikaren arteko lotura estutu egiten da une honetan).

Errepresio eta zapalkuntza politiko eta kulturalaren ondorioz euskal kontzientzia amankomunaren berpizkundea ematen da, eta honek euskara hartzen du euskarri eta bere asmo politikoen aldeko burrukan hizkuntza hori —eta beste adierazpen kultural propioak ere, neurri apalagoan bederen—, ikur bihurtzen da. Euskarak, balio pragmatiko handirik ezean, balio sinbolikoan —mitikoan barne—, bilatzen du babesa, eta motibazio sinbolikoak direla medio bere ahultasun sozialetik ateratzeko bideak berrindartzen dira.

- Halere, badago euskararen galerak kezkatzen ez duen jendea edo erabiltzeari uzten diona, arrazoi pertsonalak edota gaztelaniaren aldeko baldintza sozialak direla medio gertaera horietan arazorik ikusten ez dutelarik (ingurune diglosikoaren eraginaren seinalea dugu).
- 50 eta 60. hamarkadetan ematen diren Euskal Herriko gizarte egituraren itxuraldaketak direla medio, gizarte horren baitako krisialdiaren islada amankomuneko nortasun horren definizio euskaldunaren krisia dugu (ingurune sozioekonomikoaren aldaketak eragina du nortasun eta euskalduntasunean).
- Errepresioaren aurrean, euskal nazionalismoa (eta horri dagokion euskarari buruzko diskurtsoa) esparru publikotik izkutatu behar izan zuen, arlo pribatuetara mugatuz. Familiarekin batera, unibertso nazionalistak hedatu eta sendotu zuen mekanismo bat elkar harremanetarako elkarte sozial eta kultural sarearena izan zen (gizarte ingurunearen pisua bistan dago).
- Ikastolek, euskararen aldeko lanaz kanpo, esanahai sozial hirukoitza betetzen dute: nortasun krisian dagoen kultura baten ikurrarena, amankomuneko nortasunaren kodearena eta zapaldua dagoen euskal nortasunaren gordeleku mitikoa izatea. Euskarak euskal kultura eta euskal nortasunaren halanolako kodea zeraman bere baitan (euskararen aldeko ekintzak eta instituzioak itsatsita daramate euskal nortasun eta euskal kulturaren ikur sinbolikoa).
- Ikastolen sorrerarekin batera —eta arazo berberei aurre egiteko asmoz—, helduak (euskaraz) alfabetatzeko eta euskalduntzeko mugimendua sortu eta arin sendotu zen, ahalegin horiekin euskarak ematen zuen «komunitatearen partaidetza balioaren» funtzioa eta baita komunikatzeko funtzioa ere era osoagoan betetzen hasi zirelarik (euskal amankomuneko nortasuna berreskuratzeko eta baita hizkuntza erabileraren balioa sendotzeko hizkuntza gaitasunaren trebetasuna bilatzen da).

Diktadura pixkanaka samurtzen doan neurrian euskal nortasun amankomunaren partaideak —euskararen balio sinbolikoak direla eta—, hasten

dira gutxieneko hizkuntza sare sistema berria eraikitzen, euskara, pragmatikotasunari begira zeharo gaindituztat eta, bizimolde berriei begira, gizarte esparru zabalek erakargarritasunik gabekotzat jotzen zuten bitartean. Puntu honetara iristean, Tejerinak aipatzen ez duen beste gertaera baten berri eman behar dugu: euskaldun intelektual talde militante eta eraginkor batzuek euskararen modernitatearen aldeko apustua egiten dutela, antzina-ko euskal hizkuntzari garai berrietako kutsua eman nahirik³¹. Helburua, Foru Sistemarekin batera euskarari galdu zitzaion ospe soziala berreskuratzea da, modernotasunezko itxurari jarraitzen dioten gizarte arloei aukera hori euskaraz ere izan dezaten. Saio horiek bere helburua lortu zutela uste dugu, dena dela euskararen itxura aldaketa hori eremu euskaldunera mugatu dela susmatzen dugu; hau da, euskaldunen artean (euskara dakiteneen artean) —edo atxekimenduko nortasunaren partaideen artean—, euskara modernitatean onartua izan den bitartean, Euskal Herrian bizi den erdal komunitaterako, euskarak nekazarien eta arrantzaleen munduari soilik jarraitzen du lotua.

Ikuspuntu pragmatikotik hartuta ere, eta euskararen berpizkunde horri atxekita, «corpus» aldetik ere aurrerapauso handiak eman ziren Andrés Urrutiaren eskutik ikus dezakeguz:

«Euskalkietan banatuta, gerra aurreko ahaleginak deseginda, euskarak urte beltzak bizi zituen. 1968. urtean, hala eta guztiz ere, aurrekoarekin erpina jo eta hizkera batu baten formulazioa azaldu zuen euskarak. Hizkuntzak etorkizunaren mundua behar zuen eta horretarako batu beharra, berez zituen arazoei aurre egin ahal izateko.» (Urrutia 1994, 41. or.)

Beraz, ahaleginak era askotakoak ziren, eta euskarak euskalki ezberdinen hiztunen artean transmisio funtzioa bete zezakeen, baturiko kodea behar zuen, baina, ahaleginak mota batekoak zein bestekoak izanik komunitate nazionalistaren barnean gelditzen ziren, Tejerinaren ideietan agertzen den bezala.

—Salbuespenak albuespen, euskal nazionalismoa euskarri ez duten indar politikoek, ez dute —praxian bederen—, euskararen aldeko portaera nabarmenik izan (euskal nortasun amankomunik ezean hizkuntza propioari ere ez zaio baliorik ematen).

Beraz, euskal nortasun amankomunaren muga barruan gelditzen da gehienbat euskararen defentsa, Euskal Herria edo Euskadi komunitate hurbiltzat jotzen ez dutenei euskara —eguneroko praxitik ikusten denaren arabera—, ez zaie ezer axola.

³¹ Gertakizun honen herri mailako adibiderik arrakastatsuena aipatzekotan euskal kanta berrian ziharduen «Ez dok hamairu» taldea aipatu behar da, behinik behin, musikaz aparte euskalgintzan esparruak anitzekoak baziren ere.

Esandakoa laburbilduz, hauxe esan dezakegu: antzinako euskal komunitatearen oinarri ekonomiko eta soziala eta eratze politikoa desagertzearekin daudenean, gizarte sistema industrial berrian, hau da, Estatu espainolaren eskutik eta honen egiturarekin (hezkuntza sistema, adibidez) datorren gizarte eredu modernoan, euskarak ez du lekurik.

Aldiz, Euskal Herriaren nortasun kolektiboaren defentsan sortzen diren planteamentuetan —Foruei lotuta edota gizarte berrian eraikitzen ziren nazionalismo tradizional edo berrituan—, euskarak (lehentasun eta premia ezberdinekin) leku berezia gordetzen du beti; egoera hauetan, motibazio sinbolikoak direla medio, euskarak berpizkunde uneak bizi ditu, baina motibazio pragmatikoen aldetik inolako laguntzarik gabe. Eta, euskal nazionalismorako hizkuntzak duen garrantziaz jabetuta, euskal nortasuna defendatzen zutenen planteamenduen etsaiek euskararen kontra jo zuten.

Guzti honen ondorioz, gaur egun euskal hizkuntzaren lekua oso murriztua dugu. Hizkuntza euskara duten gizarte sare publikoek nekazaritza eta arrantzako giroen baitan —edo haietatik gertu dauden udalerrri ez handietan—, diraute ia soilik, hiri inguruneetan erdal gizarte sareak publikoki guztiz nagusi —ez eskusiboki, egia da ere—, direlarik. Gizarte arauen aldetik ere, aurreko hamarkaden inertziak pisu handia du: gaztelaniak ezartzen ditu arauak, euskarak bereganatzen dituen baztertxoak motibazio sinbolikoen bidez eratzen den militantismoan oinarrituta daudelarik. Hirurogeigarren hamarkadatik aurrera euskararen irudia modernizatzeko zenbait taldek egindako ahaleginak nahiko arrakastatsuak izan dira euskal munduaren baitan, baina euskaraz ez dakien gizartearen multzoentzat hizkuntza horren perzeptzioa lehenengo sektoreko arloei agertzen da loturik, gehienbat. Euskal nortasun amankomunetik datozen motibazio sinbolikoek egoera latza aurkitzen dute inguruan, honen baldintzek lagundu baino oztopatu egiten dituzte euskara suspertzeko egiten diren ahaleginak.

3.2. Oraingoari buruzko azterketa.

3.2.1. *Gaur egungo bost gune soziolinguistikoak*

«...el prestigio del euskara en ciertos puntos de su territorio histórico puede que sea ya de un grado 5 (como lengua nacional, mientras que en otros puntos, situados en ocasiones a pocos kilómetros de los primeros (amplias zonas de Navarra, por ejemplo) su prestigio no va más allá del nivel 1 (lengua familiar) o yace incluso sepultada en la categoría de infralengua (localidades de la Navarra pirenaica).» (Sánchez Carrión «Txepetx» 1991, 78. or.)

Arestian aipaturiko Gemeinschaft ideia berreskuratuz, Hego Euskal Herrian bi unibertso sinboliko nagusi daudela pentsa daiteke: Euskal

Herria/Euskadi eta Espainia. Euskal nazioaren kontzientziarik ezean, Euskal Herria (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba edo Nafarroa) eta Espainia bat datoz, hau da, lehenengoa da bigarrenaren zati bitxia (folklore eta usadio berezikoak) eta estimatua, baina Espainiako erregio bat, azken hau «gure nazioa» (Gemeinschaft) den bitartean. Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroako Komunitate Forala, lurralde eta gizarte hauen kudeaketarako komenigarriak izan daitezkeen Gesellschaft mailako eraikuntzak dira. Gemeinschaft sentimendua Espainian jartzen da, Euskal Herriaren «herri bezalako» (ez nazio bezalako) kontzientzia izan ala izan gabe.

Euskal nazioaren kontzientzia dutenentzat, berriz, amankomuneko tradizioa eta etorkizuneko proiektu politikoa Euskadin datza. Euskadi (Ipar Euskadi, Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroa barne ulertzen direlarik) eta Espainia kontrajarriak agertzen dira: euskalduna ala espainola sentitu behar da, biak batera ezinezkoa da. Ikuspuntu honetatik ikusita, Espainia kanpotarrek hemen inposatu nahi duten aberria da eta, beraz, errefusatzeko da. Onartzekotan, Gesellschaft moduko egitura juridiko/politiko bezala izango litzateke soilik, historiaren gorabeherak direla eta, Euskadi «gure nazioa» bertan —orain Europar Batasunean bezala—, kokatzen delarik. Etorkizuneko asmo politikoa ez datza Espainian, Euskadin baizik.

Unibertso sinboliko hauek —beste aldagai batzuekin nahasian, baina hauek oinarrian egonda—, zinezko naziotzat Euskadi ala Espainia jotzen dutenen arabera, beren lurraldeetako hizkuntzez diskurtso ezberdinak sorrazten dituzte, ondoko irudietan ikus daitekeen bezala.

I.A Gunea

Euskal Nazioa eta Euskal Herriaren kontzientziarik ezean, euskaldunen kasua

	Gemeinschaft	Gesellschaft
<i>Euskal Herria</i>	Ez da barneratu, komunitate hurbileko lekua Probintziak betetzen duelarik. Euskara, gure herri/etxeko jatorrizko hizkuntza. Gaztelania, gure herriko hizkuntza kultoa.	Euskadiko Autonomi Elkartea. Nafarroako Elkarte Forala. Gaztelania, etxe/herriz kanpoko harreman hizkuntza.
<i>Espainia</i>	Gure nazioa. Gaztelania, gure hizkuntza nazionala.	Autonomien Estatuoa. Gaztelania, bertako eta Espainia osoko harreman hizkuntza.

I.B Gunea

**Euskal Nazioa eta Euskal Herriaren
kontzientziarik ezean, erdaldunen
(eta etorkin integratuen) kasua**

	Gemeinschaft	Gesellschaft
<i>Euskal Herria</i>	Ez da barneratu, komunitate hurbileko lekua Probintziak betetzen duelarik. Euskara, gure herriko bazterretako hizkuntza: talde txiki batzuen, bakarrik. Gaztelania, gure hizkuntza.	Euskadiko Autonomi Elkar- tea. Nafarroako Elkarte Forala. Gaztelania, harreman hizkun- tza nagusia.
<i>Espainia</i>	Gure nazioa. Gaztelania, gure hizkuntza nazionala.	Autonomien Estatua. Gaztelania, Espainia osoko harreman hizkuntza.

II.A Gunea

**Euskal Nazioaren kontzientziarik
ezean, herri kontzientziadun
euskaldunen kasua**

	Gemeinschaft	Gesellschaft
<i>Euskal Herria</i>	Gure herria. Euskara, gure herri/etxeko jatorrizko hizkuntza. Gaztelania, gure herriko hiz- kuntza kultoa.	Euskadiko Autonomi Elkar- tea. Nafarroako Elkarte Forala. Gaztelania, etxe/herriz kan- poko harreman hizkuntza.
<i>Espainia</i>	Gure nazioa. Gaztelania, gure hizkuntza nazionala.	Autonomien Estatua. Gaztelania, bertako eta Es- painia osoko harreman hiz- kuntza.

II.B Gunea

**Euskal Nazioaren kontzientziarik ezean,
herri kontzientziadun erdaldunen
(eta etorkin integratuen) kasua**

	Gemeinschaft	Gesellschaft
<i>Euskal Herria</i>	Gure (bigarren) herria. Euskara, gure herriko bazterretako hizkuntza: talde txiki batzuen, bakarrik. Gaztelania, gure hizkuntza.	Euskadiko Autonomi Elkar- tea. Nafarroako Elkarte Forala. Gaztelania, harreman hizkun- tza nagusia.
<i>Espainia</i>	Gure nazioa. Gaztelania, gure hizkuntza nazionala.	Autonomien Estatua. Gaztelania, Espainia osoko harreman hizkuntza.

III. Gunea

**Euskal Nazioaren kontzientziadunen
bertako eta etorkinen (esukaldun eta erdaldunen) kasua**

	Gemeinschaft	Gesellschaft
<i>Euskal Herria</i>	Gure nazioa, Euskadi da. Euskara gure jatorrizko hiz- kuntza nazionala da eta bere lekua berreskuratu behar du Euskal Herrian (Euskara de- nok jakin arte gaztelaniaz baliatzen gara).	Euskadiko Autonomi Elkar- tea eta Nafarroako Elkarte Forala, gainditu beharreko banaketa ofiziala. Euskarak etxe/herriz kanpo ere harreman hizkuntza be- har du izan.
<i>Espainia</i>	Gure nazioa arriskuan jartzen duen beste nazioa (etsaia). Gaztelania, gure hizkuntza ordezkatzten ari den hizkuntza arrotza (eta etsaia).	Nazio desberdinen Estatua. Gaztelania kanpoko harre- manetarako hizkuntza da.

I.A. GUNEA: Euskal Herriaren ideia ez herri ez eta nazioa bezala barneratu ez denean, hurbileko komunitatearen papera Lurralde edo Probin-tziak betetzen du nagusiki. Honen adibide nabarmenena nafar askoren ka-sua du, Araban, Iparraldean, Gipuzkoan eta Bizkaian ere, egoera hau

neurri desberdinetan ematen delarik. Esparru horietara mugatzen da beraien amankomuneko nortasun hurbila, nortasun politikoa Espainia mailan ezartzen dutelarik. Gemeinschaft perzepzioa bitan banatzen da, etnikoa, hurbilekoa, jaioterrikoa, batetik, eta nazioarena, proiektu politiko amankomunekoak, bestetik.

Halakoetan eta jatorrizko hizkuntza euskara denean, euskaldunengan perzepzio hori ondo sustraiturik dagoen barne sentimendu batetik euskararekiko afektibotasunezko sentimendua eraikiko da (famiako hizkuntza, ingurune hurbileko hizkuntza, ohitura zaharrak eta tradizioa...) eta hizkuntza horrekiko barne atxekimendu handia egongo da. Baina gizarte modernoko arlo dinamikoetan zeresan handirik gabeko hizkuntza bezala ikusiko da gehienbat; aldeko jarrerarik egon badago ere, pragmatismo hutsa dela eta, euskararen iraupen eta berreskurapenerako ahalegin gutxi aurkitzen da halakoengan, salbuespenak salbuespen. Euskararen kontrako jarrerarik ez badago ere, hiri kutsuko giroetan (ingurune modernoetan) erdara nagusi denez euskararantz jotzeari ez diote zentzu handirik antzematen; penagarria bazaie ere, euskarari ez diote etorkizunik ikusten, eta kontrako defendatzea arriskutsuak zaizkien eta onartzen ez dituzten jarrera politiko nazionalistei dagokie. Jatorrizko hizkuntza den ohiko guneetan eta lagunen artean gogo onez erabiltzen da, baina halakoetan bakar bakarrik. Euskararekiko motibazioak oso ahulak eta sentimentalismo hutsean oinarrituak dira, motibazio pragmatikoez eta politikoez (nazionalismo zatitzaileraren eskutik) haren kontra jokatu dutelarik, «I.A gune» honetako baitan.

I.B. GUNEA: Gemeinschafti lotutako nortasun amankomuna aurreko kasuaren antzekoa izanda, multzo honetako gizakiak euskarari dagokionez inolako sentimenduzko atxekimendurik ez du.

Gauzak horrela, ingurune erdaldunean hazita izanda eta hizkuntza horri buruzko bestelako erreferentzi sendorik ezean, errealtatearen beraien perzepzioan euskara ez da (ia) existitzen. Eta, ezaguerarik ezean motibaziorik ez. Gesellschaft mailako planteamentuetan kokatzen duelako (Autonomi Estatuetan horrela jasotzen delako), gogo onez ez bada ere, onartzen du euskararen errealtatea.

Berriz, ingurune euskalduneko pertsona erdalduna izanda, euskara ez jakiteak beti markatu izan du bere bizitza; bere ustez, gaur egun baliorik gabeko hizkuntza zahar bat ez jakiteagatik, hain zuzen. Halakoetan euskara sentimendu berezirik gabeko tradiziozko gauza bitxi bat izan daiteke (Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa bat), norberak bere baitan bizi izan ez duena. Idealista batzuen alferrikako ahalegin itsuak modan egon arren, denboraren poderioz, behingoz gaindituko (desagertuko) den hizkuntza atzeratua da. Aldeko motibaziorik nekez aurkituko dira hauengan, aldiz, aurkakorik izateko arrazoi ugariagoa dagoelarik: proiektu nazionalistarekin lotzen delako eta ez jakiteagatik diskriminatua sentitu izana, besteak beste.

I.A eta I.B. guneak batera aztertuz, lehenengoan —euskaldunen kasuan—, euskarak jatorrizko funtzioa betetzen du, baina funtzio honek ez du motibazio bultzagarririk euskararekiko; euskara etxeko hizkuntza da eta bertan hitz egin daiteke, baina ez bestelako ezer. Erdaldunentzat (I.B gune-koentzat), euskarak ez du inongo osperik, gaztelania da beraien jatorrizko hizkuntza eta euskara bitxikeria izan daiteke (inoiz ez jatorrizko funtzioa beteko duen hizkuntza), beti ere borondatezko hizkuntza. Euskaldunentzat, jatorrizko funtzioak ez du indar berezirik; etxeko/herriko hizkuntza izan arren ez diote garrantzirik ematen bere ikasketa/erabilera (gizarte maila-koa) bultzatzeko.

Transmisioko hizkuntza bi gune hauetan gaztelaniak betetzen du; eus-kara etxeko edo herriko hizkuntza izan daiteke baina transmisioko hiz-kuntza izateak beste ospea (gizarte ospea, hain zuzen) eransten dio, eta hori ez da euskararen tokia, gaztelaniarena baizik. Orduan, transmisioko funtzioa ez da bultzagarri gertatuko euskararen ikaste/erabilera indartze-ko, hori euskararen tokia ez delako.

Erreferentzia funtzioa ere gaztelaniak betetzen du; beraien erreferen-tziak eta harremanak gaztelaniaz gauzatzen dira; euskaldunen kasuan ere, eguneroko erreferentzien mundua gaztelaniaz da (euskarazkoak funtzio mitikoan sartzen direlarik).

Erdaldunen artean, funtzio mitikoa gaztelaniak betetzen du: hizkuntza zabala, «unibertsala», hitzun kopuru haundikoa... Horrek, gaztelaniaren iru-dia erakargarriago bihurtzen du (gaztelaniak betetzen dituen beste funtzioak sendotuz). Euskarak, gehienbat euskaldunen artean, funtzio hau ere betetzen du: hizkuntza zaharra, garbia, arraroa... Baina ez da indartzailea, ez funtzio beragatik baizik eta folklore mailan kokatzen dutelako, eta horrek ez du moti-baziorik suspertzen; horrez gain, beste funtzioek ez dute berau sendotzen.

Gune bi hauetan ez da gauzatuko motibazio sinbolikorik, euskarak ez duelako horrelako ñabardurarik; inguruneko baldintzek horrela ezarriz gero, motibazio pragmatikoa gauza liteke, beti ere ezinbestek eraginda; bestela ez dute onartzen horrelakorik. Bi gune hauek dira, gaztelaniaren atxekimendu komunitatean, euskararekiko posizio ezkorrenak eduki ditza-ketenak (euskararen kontrako muturrekoak).

II.A. GUNEA: Euskal Herriaren kontzientzia izanda, jaioterri edota bizi den herriaren nortasunarekiko atxekimendua edo identifikazioa Eus-kal Herrian jartzen da. Oharmen hori Gemeinschaft tankerakoa dugu, bai-na arlo horretakoa da, era berean, nortasun politikoari ezartzen zaion Es-painiaren aldeko nazio sentimendua. Gemeinschaft edo amankomuneko nortasun horren banaketaren hurbileko, jaioterriko erreferentzia Lurralde edo Probintziatik Euskal Herrira igaro da neurri handian (Euskal Herritik kanpo egonda Euskal Herrikoa dela esango du, eta ez zein Probintzian jaioa den). Bestalde, nazio sentimenduak eragiten duen amankomuneko nortasuna —aurreko bi kasuetan bezala—, Espainian kokatzen da. Hala-koetan, oro har, euskara begikotasunez ikusten den hizkuntza da.

Etxeko hizkuntza euskara izan dutenak kontuan hartuta, herri kontzientziarik ez duten euskaldunen antzeko kasuan geundeke; baina, Euskal Herriaren ideia barneratuta dutenez «euskara duen herriarena», hain zuzen, hizkuntza horrek ahalbidetzen duen amankomuneko nortasunaz jabetu dira; hizkuntza horren aldeko motibazioak, etxetik euskaldunak izateagatik sentimenduan finkatuta izateaz gain, duten herri konzeptua dela medio, herri horrekiko (Euskal Herriarekiko) arrazoizko eta sentiberatasunezko planteamenduetan ere errotuta egongo dira, aurreko kasuetan ez bezala.

Gune honetan euskarak jatorrizko funtzioa betetzen du; Euskal Herriko hizkuntza dela onartzen zaio eta, era berean, garrantzia du etxeko hizkuntza delako. Bi arrazoiengatik lagungarri izan daiteke erabilerarako motibazioa indartzeko.

II.B. GUNEA: Etxeko hizkuntza erdara izan arren, II.A guneko Gemeinschaft oharmenarekin loturik doazen hizkuntza motibazioak neurri batean antzekoak dira multzo honetan ere. Dena dela, ezin da ahaztu, erdaldunak izanda, euskara norberak bere baitan bizi izan ez duen gauza dela. Onargarria da, bertako (batzuen) hizkuntza delako eta ofizialki horrela ezartzen delako, baldin eta norberarentzat arazorik sorrarazten ez badu. Gune honetan erdarak betetzen du jatorrizko funtzioa, baina, gure (erdaldunen eta euskaldunen) herriaren hizkuntza denez eta jatorrizko lotura zuzenik ezean, euskararekiko begikotasuna (euskal) atxekimendu komunitatearen bidez lortzen da: Euskal Herriko hizkuntza izanik, nik neuk ez jakin arren, partaidea naiz herriarena, eta ondorioz, nirea baita ere.

Transmisioko hizkuntza gaztelania da, baina funtzio hori betetzeko besteez euskara erabiltzea ondo ikusten da; hala eta guztiz, gizartean gaztelaniak du euskarak baino errotuago transmisio tokia, komunikazio hizkuntza. Gure ustez, posizio honetan transmisioko funtzioa ez da motibatzailea euskararekiko.

II.A eta II.B guneetan berdin samar agertzen diren ezaugarriak jarraioak ditugu. Nahi duenak euskara ikas edo erabil dezan, baina arreta eta ahalegin handirik ematerik ez du merezi. Penagarria balitz ere, euskara galduz gero modernitatearen poderioz izango litzateke eta bere gabezia ez zen asko nabarrituko. Bere burua Euskal Herrikotzat jo arren, ez dago euskararen alde ahaleginak egiteko behar besteko motibaziorik, pragmatismo hutsaren ildotik ez bada (lanpostua lortzeko, aprobatzeko...) eta batez ere jakiteari —ez erabilerari—, lotuta. Euskara ikastea norberantzat arazoa den neurrian, aurkako jarrerarik sor daiteke. Eta hizkuntza horrekiko mesfidantza, nazionalista batzuen erabilera politikotik etor daiteke.

Euskarak funtzio mitikoa era folklorikoan betetzen du, bere bitxitasun eta antzintasunagatik; baina, dirudienez, bi gune hauetan egungo egoera soziolinguistikoan funtzio sinboliko, funtzio pragmatiko eta arrakasta ereduaren indarra behar bestekoa ez da; ez euskara ikasi edo erabiltzera bultzatzeko bestekoa, bederen.

III. GUNEA: Euskal nazioaren kontzientzia dagoenean, amankomuneko izakeraren osagaien artean, nortasun horren ardatz hartuta euskarari eman ohi zaio garrantzirik handienetarikoa. Politika mailako esanahi handiko ikurra, gizarte horren baitako lekuri osatuena ematen zaio hizkuntza horri; hizkuntza nazionala izanik, idealki bada ere, berari atxekitzen zaizkio lengoaia mota guztiak: jatorrizkoak, trasmisiokoak, erreferentzialak eta mitikoak.

Euskarak jatorrizko funtzioa betetzen du euskaldunengan; erdaldunetan ere garrantzia du funtzio hau betetzeak (beraiek ezin badute beraien umeei bai). Erdaldunak direnentzat lengoaiaren izakera hori beraien buruei zuzenean ez badagokie, afektiboki partaide sentitzen diren komunitate «euskara-dunare» hizkuntza izanik, balio sinboliko berbera ezartzen zaio.

Jatorrizko funtzio hau indargarria izan daiteke bere ikasketa/erabilera bultzatzeko (arbasoekiko lotura, umeei harremanak...); halere, euskararen kasuan, askotan, militantziarik ezean erabilera bukatzen da: auzoa eta bereziki kuadrila erabileraren bultzatzaile izan daitezkeen bezala bere baztertzearen eragile funtsezkoak bihurtu daitezke ere. Itxurazko motibazio zeharo sendoak daude euskararen alde, eguneroko errealitate latzak kasu askotan —ez guztietan, baina bai sarritan—, ardura handirik gabeko bestelako portaera agerian uzten badu ere.

Transmisioko funtzioa euskarak, neurri batean betetzen du (euskaldunen artean) baina oraindik gaztelaniak betetzen du bereziki funtzio hau (azken finean denek ez dakitelako euskaraz edota ez dutelako erabiltzen). Etorkizunari begira funtzio hori berreskuratzea espero da, bitartean gaztelaniaz baliatzeak ez du arazo handirik sorrarazten. Transmisioko funtzioak motibazio instrumentala edo pragmatikoa eragin ditzake, baina, euskararen kasuan, bere erabilera soziala murriztuenez, motibazio sinbolikoak agertzen dira bereziki, nazio hizkuntzaren ideien bidez. Gizarte sare euskalduna, ingurune euskalduna, hurbil baldin badago, orduan bai motibazio instrumental bereziak indarra har dezakeela, baina horrek suposatuko luke euskaldun hurbil horiek beti euskaraz erantzun eta hitz egingo dutela; gaur egun oraindik gizarte legitimitatea horren aurka doa: tentsioa sortzen du euskaraz egin edo erantzuteak erdaldun bati, baita euskaldun bati egoera askotan ere.

Gaur egun euskara ikastea eta, bereziki, erabiltzea, motibazio sinbolikoari loturik doa: komunikazio hizkuntza izatea, eguneroko hizkuntza izatea, azken finean, Euskal Herriko hizkuntza izateari loturik doa. Adibidez, Hernanin burutu genuen eztabaida talde batean, euskaldunberriekin, frustrazioa sortu zitzaizen hainbeste esfortzu egin ondoren euskara ikasteko, inon ezin zutelako hitz egin euskaldun gehienek ohitura gaztelaniaz hitz egitea zelako (kuadrilan bereziki). Honekin batera aipatu nahi genuke euskaldunberrien artean, hau da, euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenak eta ikastea lortu dutenak, beraien espektatibei buruz eta hizkuntzaren egoerari buruz hitz egiterakoan, frustrazioa nabari zuten, hutsune bat:

nahiz eta pozik izan harreman hurbiletarako hitz egiteko gai direlako, poz horrek ez die estaltzen gizarte mailan dagoen erabilera hutsuneagatik; nolabait, jatorrizko funtzioa lortu dute eta pozgarria zaie baina beraiantzat funtzio horrez gain eta bera bezain garrantzizkoa (edo ia garrantzizkoagoa) gizarte mailako erabilera da, hots, transmisioko funtzioa eta hori ez dute lortu (horretarako hainbat ohitura eta egunerokotasun apurtu behar litzukete, euskaldunen artean ere).

Gune honetan, erreferentzia funtzioa euskarak geroz eta gehiago betetzen du, baina, oraindik funtzio ahula da, gaztelaniak (eta ingelesak) kantitatez eta kalitatez gehiago betetzen dutelarik. Erreferentzia funtzioak euskararen kasuan motibazio sinbolikoekin jotzen du: ez soilik motibazio politikoeekin, hizkuntza nazionalaren bidez, baizik eta hemen ikus daitezke ere gizarte arrakastaren motibazioak; hots, kultura berezi batek «ematen» duena; nolana, euskararen kasuan, gure ustez, motibazio berezi hau gaur egun oraindik ahula da (edo ia ez dago), euskararen kultura ez delako ezagutzen, alde batetik, eta bestetik modernitatearen beste muturrekoaren irudia duelako.

Funtzio mitikoa izan daiteke hizkuntza baten ikas-erabileraren bultzagarria; adibidez, euskararen kasuan, hirurogeigarren hamarkadan ikasi zutenak helburu politiko bereziak zituzten hizkuntzari loturik: frankismoaren aurkakoak, abertzaletasunarenak, gizarte aldaketarenak... Gaur egun euskaldun osoak dira, baina esan behar dugu prozesu hau gerta daitekeela hizkuntzak betetzen duen funtzio mitiko hori beste funtzioez osatzen bada.

Bestela, funtzio mitiko soilak funtzionatzen badu, posible izan daiteke motibazio hori ahultzea ikasketak eta erabilerak duten hainbat arazorengandik (adibidez, ikasteko zailtasuna, denbora falta eta abar): nolabait, trantsizio garaian «modan» edo indartsu sartu zen euskararen ikasketa eta hizkuntzarekiko interesa baina urte batzuk pasa ondoren «gizarte arrakasta» hura ahuldu zen eta, adibidez, Gasteizko talde batean (hura bizi izan zuten abertzale ez euskaldunek) «desencanto» hitza azaleratzen zuten (beraiek politikariei errua edo erru nagusia botatzen zieten: abertzaleen zatiketa, hizkuntzaren politizazioa...); euskarak funtzio mitikoa kasu honetan ez du osatu, adibidez, jatorrizko funtzioarekin edo erreferentzia funtzioarekin; interferentziak egon direlako eta hizkuntzarekiko harremana arazotsu bihur daiteke.

Beste adibide bat: Bilboko gazte (30 urte inguruan) talde batean, euskara ikasteari utzi diotenak, beraien hasierako motibazioa «mitikoa» zen, nolabait: euskara hemengo hizkuntza delako, hizkuntza zaharra eta berezia delako, euskal kultura ezagutzeko... Talde honetan ez dute bilatzen jatorrizko funtziorik, eta beste bi funtzioen bidez motibaziorik osatu ez dutenez, ikasketa utzi dute esfortzu handia zenean.

Bukatzeko, bi zehaztapen eman nahi ditugu. Batetik, azaldutako Unibertso sinboliko eta jatorrizko hizkuntzaren araberrako gune soziolinguistikoetan ematen diren zehaztasunak oso eztabaidagarriak izan daitezke, zeren eta neurri batean bederen, errealitatean nahasian ematen baitira hemen egoera garbien

isla bezala eman diren bost motak. Gainera, hemen gardenki definitzen saiatu garen herri, nazio eta hizkuntza kontzientziaren arteko mugak, askoz lausotuago agertzen zaizkigu benetako gizartearen argazkian. Laburbilduz, saio hau kontzeptualki antolatutako banaketa batean oinarritzen da, errealitatean elkar txertatutako egoerak guztiz ohikoak diren bitartean.

Bestetik, gune kontzeptuak esparru fisiko zehatzen ideia eman dezake, eta hori ez da guztiz egia. Udalerrri txikietan aipatutako guneak ia era garbian ematen badira ere, udalerrri handietan ez da horrela gertatzen. Hirietan, erdal kutsuko hirietan, beraien aniztasuneko joera unibertsala dela eta, egoera ezberdin asko bizi dira elkarren ondoan, baina ez nahasian; nolabait esateko, bizimolde oso ezberdinak ager daitezke elkarren ondoan udalerrri edo hiri baten barruan, bakoitzak bere harreman sare propioa duela, hauetako bat euskaldunen mundua izan daitekeelarik. Kasu hauetan euskara da harreman hizkuntza, erdara gune hauetatik kanpo gelditzen delarik. Beraz, guneak batzuetan espazialki definigarriak diren eremuetan gauzatuko dira, baina besteetan esparru fisiko berebereko gizarte harreman multzo batek osatuko du gune mota bat, bere inguruan (oso) bestelako guneak ematen diren bitartean.

3.2.2. *Gaur egungo «hizkuntza eredia» Euskal Herrian*

Francoren ondoko Euskadiko Autonomi Elkartean aldaketa handia eman da botere eta aginte politiko/ekonomikoaren zenbait arlotan. Politika autonomikoa eta horrekin batera datozen hainbat eta hainbat botere esparru, Autonomi Estatutua indarrean jarri zenetik nazionalismo pragmatikoaren eskuetan egon da etengabe. Tarte honetan, euskararen aldeko neurri, planifikazio eta egitamu asko martxan jarri arren, oraingo elite berri honen hizkuntza eredia zein den galdetu beharko da. Erantzunaren bila, Pruden Garzia Isastiren hitzak ekarriko ditugu hona:

«...partidu nazionalistek, sehaskan dauden bitartean, askotan hizkuntza elementu sinboliko huts gisa erabiltzen badute ere, denborak aurrera egin ahal joera hau norabidez aldatzen dela eta militante nazionalistak, masiboki, liderrak barne, hizkuntzaren erabilera osoa praktikatzera eta exigitzera pasatzen direla. Eta hemen dator galdera: gertatu ote da halakorik gurean? Bistan da ezetz.» (Garzia Isasti 1993, 34. or.)³²

Bestaldetik, gizartean jabetzen den «arrakasta ereduaren hizkuntza» zein den argitzeko asmoz, hiri kutsuko udalerrien euskaldunen proportzioari egin diezaiokegu so. Hiru Lurralde Historikoetako hiriburuen euskaldunen proportzioak ondorengoak dira: Bilbo %9, Donostia %27 eta Gasteiz %6³³.

³² Autorea bera saiatzen da erantzun bat eratzeko eta, gure uste apalean, nahiko modu arrakastatsuan, baina hori ez dagokio gure hemengo zereginari.

³³ Emaitza hauen iturria: Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (1989, 55-61. orr.).

Aipaturiko hiru hiriak Lurralde Historiko bakoitzaren biztanle kopuru handienak dituztenak dira, batetik, eta gaur egungo gizartean hiri giroak sozio-ekonomikoki eta politikoki dinamikoenak direnez Lurralde bakoitzeko botere guneak horietan kokatzen dira, bestetik. Beraz, «modernitatearen islada» eta sozialki aitzindari diren gune nagusietako euskaldunen presentzia hain urria izanik, Euskal Autonomi Elkarteko «arrakasta ereduaren hizkuntza» erdara dela suposa daiteke ziurtasun handiz.

Honengatik guztiagatik ondorioztatzen dena hauxe da: «gizarte arrakastari» jarraitzen dion ereduak badirudi ez duela euskarari leku nagusirik ematen. Gure hizkuntzaren aldeko neurriak ezartzen diren bitartean, agintarien praxiak ez du hizkuntza horren erabileraren premiarik adierazten. Hartutako neurriak sinesgarritasun faltan gelditzen dira, neurri horiek indarrean jartzeko agindua ematen dutenen etsenplua erdarari atxekita jarraitzen duelako. Edo Bourdieuren ildotik ikusita, kokapen boteretsuetan eta agindukoetan dagoen hizkuntzak —erdara, hain zuzen—, bere garrantziaren marka ezarriko du, euskararen legitimitatearen kalterako.

Azken urteotan eman dira pausoak jendeak —umeek batez ere—, euskara ikas dezan eta hori burutuz gero, esparru pribatuetan erabil dezan, baina ez da erabilera sozialerako biderik zabaldu. Ez dira gizarte mailako agintarien hizkuntza portaerak euskararantz bideratu, hori ikusita gizartearen hizkuntza horrekiko irudia (eta horrekin batera, motibazioak) alda zedin. Motibazioak aldatuko dira, beraiek oinarritzen diren baldintza sozialak aldaketa eskatu ahala. Azken hau ez bada gertatzen, motibazio maila hutsean egiten diren ahaleginak alferrikakoak izango dira, ez baitute sinesgarritasunik eta legitimitaterik izango.

Gauzak horrela, «gizarte arrakastaren» ereduari darion hizkuntzarekiko motibazio sinbolikoa ez dela euskararen aldekoa izango, garbi dago.

4. HIZKUNTZEKIKO MOTIBAZIOEN EKARPENAK. MOTIBAZIOAK INGURUNEAK EZARRITAKO BALDINTZEN AURREAN

4.1. Txepetxen hizkuntza motibazioei buruzko laburpena eta iradokizunak

Gizartearen «hizkuntzagintzan» badaude eragin zuzena eta erabakiorra duten zenbait osagarri eta hauexek, kasu gehienetan eta neurri ezberdinez, prozesua bera baldintzatzen dute. Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreak aztertuz, ondoko hauek aipatzen ditu Iziar Basterretxeak: gizarte ingurunea, hizkuntz ezagutza eta hizkuntza horrekiko jarrerak (Basterretxea 1992). Azken hauek bereziki —hots, jarrerak— oso estuki lotuta daude motibazioekin.

Beste aldetik, Sánchez Carrión «Txepetxek» hizkuntza bat ikasteko hiru oinarrizko faktoreak mugatzen ditu: motibapena, ezagutza eta erabilpena. Motibapen hori horrela definitzen du autore honek: «hizkuntza bat ikastera edo hizkuntza horri atxekitzeko bultzatzen duten arrazoiak, nahiak eta interesak.» (Sánchez Carrión 1991, 35. or.)³⁴ Hau da, motibazioak sortzeko arrazoiak, beren osagaiak eta izango duten geroko eraginaren gorabeherak alde batera utzita, Txepetxen ikuspuntua hizkuntzarekiko ondorio zuzenari jartzen zaio begira: ikasteko ala ez, eta —behin jakinez gero—, erabiltzeko ala ez, bultzatzen duten «arrazoiak, nahiak eta interesei» begira, hain zuzen.

Kontuan hartzen ari garen autoreak motibazioen izaeraren berri zehatzik ez badu ematen, argi uzten du, berriz, beraien aukera zabala eta anitzeko jatorria, eta halaber ikaste/erabiltzean jokatzeko duten papera. Zehazki esanda, helduen bigarren hizkuntzaren ikaste prozesua hizkuntza horren aldeko motibazioetatik abiatzen dela aipatzean, azken hauek mota askotakoak izan daitezkeela azaltzen du Txepetxek: «kulturalak, heziketakoak, profesionalak, politikoak, familikoak, erlijiosoak, ingurukoak, etab.» (Sánchez Carrión 1991, 39. or.). Halako motibazioak «nahikotasun mailara» iristean, orduan ematen du helduak ikasten hasteko pausoa.

Hizkuntzarekiko motibazioak, beren jatorriaren arabera, bi motatakoak izan daitezke nagusiki: berezko, barruko edo funtsezkoak, batetik, eta kultural, arrazoizko edo kanpokoak, bestetik.

Hizkuntza ikasteari begira, Txepetxek bi egoera mota bereizten ditu: a) lehen hizkuntza bezala: umeen kasuan bere inguru hurbileko hizkuntzan murgiltzearen bidez; b) bigarren hizkuntza bezala: helduen egoeran, ikaste prozesuan motibazioak abiapuntu direnean.

Hizkuntza ikastean inguruneak ezarritako egoerari erantzuten saiatuko da umea, hau da, murgilduta dagoen hizkuntza ikasiko du, ez beste bat. Bere ikasteko motibazioa inposatua eta ez-konszientea da. Helduen kasua, berriz, oso da bestelakoa; bigarren hizkuntza ikasteko Txepetxek aipatzen dituen «arrazoiak, nahiak eta interesak» konszienteak edota aurre-konszienteak izango dira eta —atxekimendu handiz ala txikiz—, neurri batean onartuak ere. Onespenez ezean, esan dezakegu denbora oso luzean edota egoera oso berezian ez bada nekez ikasiko du zertxobait heldu horrek.

Arestian aipatu dugun «nahikotasun maila» definitzerakoan, Txepetxek oso jarrera pragmatikoari —baina ez desegokiari—, helduz, portae-rak jartzen ditu «neurgailu»: ikasten hasiz gero horretarako hainbat motibaziorik badagoela dio, eta —bere ustez—, beste horrenbeste esan daiteke ibilbide erdian (erabilpen espontaneorako bidean erabiltze maila horretara iritsi gabe) gelditzen direnen motibazioez: ez direla behar bezalako «nahikotasun mailara» iritsi, hain zuzen.

³⁴ Azterketa honetan bere liburu honen Lehenengo Atala hartuko da kontuan bereziki (35. eta ondor. orr.).

Bigarren hizkuntzaz jabetzeko saioan huts egindako motibazioek gizar-tean dauden hizkuntza horrekiko aurriritzien lan berbera egin lezakete, hizkuntza horren aurka, hain zuzen.

Motibazioen garrantzia hizkuntza ikastera bultzatzeko duten ahalme-nean datza, zeregin horretan kemen nahikoa adierazten dutelako.

Hizkuntzekiko motibazioen funtzioak era dinamikoan ulertu behar dira: aldaketak emango dira beraien baitan hizkuntzaren ezaguera/erabil-leraren egoera ezberdinen arabera. Gure ustez, hizkuntza ikasteko (eta erabiltzeko) motibazioen ulertze dinamiko hau oso egokia gertatzen da, zeren eta ibilbide horien une ezberdinetan motibazio mota batzuen ala besteen eraginean gora-beherak agertuko baitzaizkigu: motibazioak ez dira une guztietan berdinak izango ez eta beraien eraginaren intentsita-tea ere.

Ahulduta eta galduz doan hizkuntza baten berreskurapenak, bere alde dauden helduengandik maila goreneko eta mugagabeko motibazioa eska-tzen du, baldin eta helburua hizkuntza hori hizkuntza nazionala bezala ikastea bada; hau da, hizkuntza horrek funtzio guztiak bete ditzan. Eta ha-lako maila goreneko motibazioa, erabilera zeharo trinkoaren bidez bakar-ba-karrik utzi dezake asebeteta, autorearen ustetan.

Motibazio horien nolakotasunaz arituko gara aurrerago, baina horretan murgildu baino lehen helduen³⁵ kasuan beren *lehenengo hizkuntzari euste-ko* eta *bigarren hizkuntza ikasteko* dituzten motibazioen inguruko gorabe-hera batzuk aipatuko ditugu, zeregin honetan Txepetxi (Sánchez Carrión 1991) jarraituko diogularik.

A. *Lehenengo hizkuntza eta motibazioak*

Txepetxen arabera, jatorrizko lehenengo hizkuntzaren erabilerarako motibazio eskasa ager daiteke, hori horrela izan dadin arrazoien artean on-dorengo hauek daudelarik:

- Hiztunak bete beharreko hizkuntza esparru batzuk (hizkuntzaren arrazoizko argudioetan oinarritutakoak edo ezaguera kulturalki bultza dezaketen formal motakoak: profesionalak, kulturalak, hezi-ketakoak, etab.), arrazoi soziopolitikoak direla medio, bere ama hiz-kuntzaz bete ezean aurki daiteke; halakoetan, esparru horietan jada-nik sarturik dagoen hizkuntza arrotzerako joera eta beharra izango ditu, bere jatorrizko hizkuntza alde batera utziz.
- Jatorrizko hizkuntzaren erabilpena gutxieneko maila batetik jaisten bada, ezagueran eta bere aldeko motibazioetan ere beste hainbeste-ko beherakada bat emango da.

³⁵ Helduak era zabalean ulertuta, hau da: gaztetxoengandik hasita mugatu gabeko adin helduetaraino.

Autore beraren eskutik, motibazioak areagotzen lagunduko duten egoera zenbaiten berri emango dugu ondoren:

- Jatorrizko hizkuntza (bere era landuak eta berezienak) kulturarako bide baliagarria denean, hiztunak kultura bide sakonago eta zabala-goetatik abiatzeko grinarik izanez gero, bere ama hizkuntzari arrazoizko motibazioak eta arrazoi kulturalak erantsiko dizkio, eta orduan «hizkuntza kontzientzia» batek bultzatuta hizkuntza horren ezagueran sakontzen jarraituko du.
- Hizkuntza egoera normalizatuan egonda hiztun guztiek kultura eta heziketa mota guztiez jabetuko dira beren jatorrizko hizkuntzaren bidez eta, horrekin batera, hizkuntza horren aukera guztiez ere. Bakarrik hau horrela izanda, irits daiteke hizkuntzari bere «hizkuntza ospea» emango dioten hizkuntzaren esparru formaletara (oso landutako ideien edota oso hizkuntza behar zehatzen esparrura).
- Hizkuntza funtzio aukera osoa lortzean, lorpen honen bidez hizkuntzaren ahalmen ideatiboa eta elkarren arteko harreman sozialak asetzen dira; lehenengo hizkuntzak une horretan bakarrik bizi ahal izango du osotasunean, horra iristeko gaitasun osoa edo handia (be-rezkoa eta nahita ikasitakoa) eta, baita, barneko eta arrazoizko motibazioak ere behar direlarik.

B. *Bigarren hizkuntzaren ikasketa eta motibazioak*

Jatorriz hizkuntza bat ikasi duten helduek bigarren hizkuntza bat ikasterakoan motibazioek duten funtsezko eta ezinbesteko ekarpenaz deskribapen aberatsa egiten du Txepetxek, eta horren ideia nagusien laburpen bat egiten saiatuko gara ondoren:

- Motibazioak «nahikotasun mailara» iristean bakar-bakarrik jardungo du ikasten pertsona helduak, baina hizkuntza horretan neurri bateko gaitasunaz jabetuz gero, motibazioak iraun beharko du, hizkuntza erabiltzeari ekin ahal izateko.
- Ikasten ari den bigarren hizkuntza horretan pertsona nagusiak bat-bateko erabilerarako gaitasunik lortu ezean, motibazioak malkaltzeko eta behera etortzeko zorian aurki daitezke.
- Ikaste prozesua arrakastatsu izan dadin, esan dugunez, motibazioak nahikotasun maila batera iritsi behar dira eta, hori ahalbidetzeko, hizkuntzarekiko arrazoiak, nahiak eta interesak beraien artean kontrajarriak egon gabe, norabide berekoak (hizkuntzaren aldekoak) izan beharko direla aipatzen du Txepetxek.
- Hizkuntzak ingurunean duen presentziaren garrantzia bi ikuspuntutatik azpimarratzen da: helduen motibazio altuak umeen hizkuntza erabilera sendotuz, eta hauen erabilera trinkoak helduen motibazioak areagotuz. Bi egoerek hizkuntzaren alde jokatuko dute.

- Motibazioak gizarte berberan beren sakontasunaren arabera bi mailakoak izan daitezke eta bi maila horiek ez dute zertan bat etorri beharrik. Horrela, egoera diglosiko batean azaleko motibazioek menpeko hizkuntzaren alde izateko itxurarik badute ere, barneko motibazioek nagusia den hizkuntzaren defentsan jotzen dute azken finean. Gizarte zehatz batean hori horrela denentz agerian uzteko lehian dauden hizkuntzekiko gizarte aktoreen jokaera aztertzea besterik ez dago.
- Bi hizkuntza (edo gehiago) dauden gizartean, hizkuntzarik ahularen beharrik sorrarazten ez duten gizarte proiektuak, hizkuntza horren aldeko motibaziorik bultzatzen ez dutenez, hizkuntza horren berreskurapenerako kaltegarriak dira.
- Hitz egiteko gutxienezko maila behin lortuz gero, ikasitako hizkuntzaren erabilera zuzenak —sortzen duen autosaria dela medio—, hasiera bateko motibazioa elikatuko du. Eta erabileraren bidez gaitasuna bera ere hedatuko da.
- Hizkuntza funtzio desberdinak kontuan hartuta, bigarren hizkuntzarekiko motibazioek helburu finko bat behar dute: hizkuntzaren ezaguera «nahikotasun maila» batera helduz gero eta orduko erabilera hasierako asmotik nabarmen desbideratzen bada (espero zena baino urriago nahiz ugariago delako), erabilpen horrek aldaraz ditzake hizkuntza hori ikasten hasteko zeuden motibazioak. Horren arrazoia hauxe da: hiztuna bigarren hizkuntzan gustora sentitu ahal izateko, honen erabilera oraingo motibazio eta gaitasunaren parekoa izan behar da (ez handiagoa ez eta apalagoa ere); era horretan bakarrik sentituko da hiztuna gustora dakienarekin, hau da, bere erabilera mugatua dela onartuta. Gaitasun handiagoa nahi izanez gero, motibazioa eta erabilpena ere eskaera berri horri egokitu beharko zaizkio.
- Bigarren hizkuntza ikasi duen helduaren ezaguera eta motibazioek tinko jarrai dezaten, bere hurbileko ingurunean (familia eta lagunak) erabilerarako duen aukera zenbat eta urriagoa izan, hainbat eta erabilera ugariago beharko du bestelako inguruetan. Eta alderantziz, gizarteak hizkuntza nazionalaz jabetu den pertsonari erabilera nahikoa ahalbidetzen ez dionean, familiaren eta lagunaren arteko inguruneetan topa dezake behar duen euskarria (harremanok hizkuntza horretan izanda, noski)³⁶.

³⁶ Ideia honen inguruan Txepetxek esandakoa Euskal Herriko egoeraren aplikaziorako guttiz da egokia: «..., hablantes que desean nativizarse en el idioma del que fueron históricamente despojados y que han de conformarse con aprender secundariamente, se ven constreñidos por las circunstancias sociales a un uso tan limitado de ese idioma que no alcanzan nunca la percepción (gaitasuna) que necesitan interiorizar para llegar a sentirlo y a vivirlo como parte de sí mismos.» (SÁNCHEZ CARRIÓN 1991, 47. or.)

Une honetara iritsita, Txepetxen ideietatik gure hausnarketarako probetxagarriak izan daitezkeen ondorio batzuk ateratzen saiatuko gara. Horretarako hiru atal nagusitan sailkatuko ditugu laburbildutako ondorioak:

- a) Argi uzten du motibazioen sorrerarako iturbide bat ingurunearen eraginean datzala: berezko, barruko edo funtsezko arrazoiak gain, kultural, arrazoizko edo kanpoko osagai eta aldagaien bultzakada ere hartzen baitu kontuan.
- b) Ingurunearen garrantzia motibazioen suspertze eta bilakaeran behin eta berriz azpimarratzen bada, lehen (menpeko) hizkuntzaren aldeko motibazioei lagungarri zaizkien osagarriak, kutsu idealeko motibazioetan oinarriturik egon partez, errealitate hurbilak berak ezarritako mugetan dautza nagusiki:

—Hizkuntza esparru guztiak eta funtzio osoak lehen hizkuntzaz betetzea.

—Gutxieneko maila batean mantentzea jatorrizko hizkuntzaren erabilera.

—Jatorrizko hizkuntza kulturarako bide baliagarria izatea.

—Heziketa osoa (bere arlo guztiak) jatorrizko hizkuntzan osatzea.

- d) Bigarren (menpeko) hizkuntzaren aldeko motibazioak sortu eta sendatzeko ere, erabakiorragoak dirudite errealitate hurbilaren baldintza objetiboek motibazio idealek baino:

—Hizkuntzarekiko motibazio mailarik gorenekoa lortu ahal izateko, honetan eragina duten baldintza guztiak horren aldekoak behar dira izan.

—Itxuraz azaleko motibazioak hizkuntza baztertuaren aldekoak badira ere, egoera diglosiko batek sakoneko motibazioak ahuldu egingo ditu eta, ondorioz, motibazioen eragina arindu da.

—Gizarte proiektuek bultzatu behar dituzte hizkuntzaren aldeko motibazioak.

—Ikasitako hizkuntzaren gaitasuna eta bere aldeko jarrerak tinko jarrai dezaten, gutxienez ingurune mota batek (hurbila —familia edo lagunartekoa—, edo gizarte orokorrarena) erabilera ugari ahalbidetu beharko du.

Gogora ditzagun Miquel Srubellen hitzak, inguruneak erabilerarako motibazioetan duen garrantzia azpimarratuz. Bi (edo gehiago) hizkuntzaren erabilerarako nahikotasuna lortua izanda, harremanetarako hizkuntzaren aukeraketa zeren arabera ematen den galdetzen dio bere buruari autore honek. Bere ustez, aukeraketaren gakoak «arau sozialetan» datza,

hauek erabili beharreko kodea finkatzen baitute. Horretaz ohartu gabe, indarrean dauden arau sozialek ezarritakoari jarraituko dio gizabanakoak, egoera bakoitzeko harremanetarako hizkuntza (gehienetan inkontzienteki) hautatzean. (Strubell 1988)

Beraz, zuzenki nahiz zeharka, ingurunearen pisua nabaria omen da motibazioen sorreran, susperketan eta aldaketan; beste aldetik, lehenengo nahiz bigarren (menpeko) hizkuntzaren bizitzan motibazioen pisua horrenbestekoa izanda, hauetan inguruneak eragindako gorabeherak hobeto ezagutu nahi izateak zilegi dirudi. Asmo honetarako zenbait ideia botako dugu:

- a) Motibazio idealak eta objetiboak, biak, inguruneak ezarri ditzake. Idealak, txikitatik hasita, balioak eta hauei dagozkien gizarte arauak gizarterakuntzan barneratzen direnean. Motibazio objetiboak berriz, eguneroko ingurune hurbilak definitzen dituenak dira; errealitateari —ez ideien munduari— darionak, hain zuzen. Eta batzuk eta besteak ez dira guztiz bat etorriko kasu askotan: euskal nazionalismoaren unibertso sinbolikoaren arabera euskara bertako hizkuntza nazionaltzat jotzen duen bitartean (hizkuntzari dagozkion komunitate barrenko funtzio guztiak bete behar dituenak), egungo Euskal Herriko egoera soziolinguistikoak oso bestelako baldintzak ezartzen dizkio hiztunari edo euskara ikasi nahi duenari. Badago errealitate bat, maila idealeko motibazioei muga sendoak jartzen dizkiena.
- b) Ideia hauetatik abiatuta, badirudi egokia izan daitekeela motibazioen sorreran, susperketan eta mugaketan, horren pisu handia duen ingurune horren baitan arreta pixka bat jartzea. Galdera hau da: hizkuntzaren aldeko motibazioak egonda, zein dira ingurune egoera egokiak motibazio horiek «nahikotasun maila» lor dezaten euskara ikas/erabilerarako?. Hala, motibazioen «nahikotasun maila» ez datza giltzarria?; hau da, ba ote da ingurune kontrako baldintzarik motibaziorik handienak ere gainditu ezin dituenak? Motibazioen «nahikotasun maila» onartuta ere, horrekin batera ez al da finkatu behar «ingurune baldintzen gutxieneko maila» kontzeptua? Txepetxek bere «Paradigma de Positivación» formulazioan azaltzen duen bere lehenengo axiomarekin guztiz bat etorritik, euskara bigarren hizkuntza lortu nahi duten helduen egoeretan euskararekiko arrazoizko motibazio batetik abiatu behar da (Sánchez Carrión 1991, 286-287. orr.); baina, gure ustez, ideia hau osatu beharko genuke egoera soziolinguistiko bakoitzean motibazio mota bakoitzak beharrezkoa dituen gutxieneko eta aldeko ingurune baldintza batzuekin.
- d) «Ingurune baldintzen gutxieneko mailarik» dagoenentz aztertzeke, ingurunea ikuspuntu ezberdinetatik azter daiteke, bere arlo nagu-

siak ondoko hiruretan sarritan banatu ohi direlarik: ezaguera, erabilerak eta jarrerak. Baina arestian esandakoaren ildotik, beste bi osagarri hartu behar dira kontuan gure ustez: Strubellengandik jasotako «menpeko hizkuntzarekiko arau sozialaren» ideia, batetik, eta «hizkuntza harreman sareak» edo hizkuntza horren gauzatze soziala³⁷, bestetik. Menpeko hizkuntza komunitatearen egoeraren diagnosia osatzeko eta hizkuntza horren ikas/erabiltzearen aldeko motibazioak sortzeko ingurunean behar bezalako egoerarik ematen ote den azter daiteke aurreko (3.2.1.) atalean aipaturiko bost gune soziolinguistikoetatik abiatuta eta, baita, egoera horretako hutsuneak eta beraien zergatiak ere.

- e) Txepetxek motibazioaren nahikotasun maila aipatzen badu, aintzazkotzat hartu beharreko beste hurbilpena motibazioen «nolakotasuna» ere bada. Ildo honetatik, Strubellek bigarren hizkuntzaren ikasteari buruz motibazio mota ezberdinak egon daitezkeela aipatzen du. Hori horrela izanda —eta Kanadako psikologia sozialeko eskolari jarraiki—, kasu bakoitzean zer motibazio mota izan daitekeen eraginkorrena hizkuntza ikasteko kontuan hartu behar delako dio autore horrek. Beraz, zenbaterainoko motibaziorik dagoen kezkatzeaz gain, jatorrizko hizkuntza, bigarren hizkuntza eta ikaslearen ingurune ezaugarri soziolinguistikoak ezagutzearen bidez motibazioen izakeraren berri izango dugu. Hori behin ezagutuz gero, ikasteko metodologia motibazioen zergatiari egokitu behar delako zaiolarik.
- f) Hizkuntza baten ezaguerak, erabilerak eta jarrerak dinamikoki elkarri eragiten diotela kontuan hartuta, aldarrikatzen ditugun zeregin hauetan, tokian tokiko egoera zehatz-mehatz ezagutzea gomendagarria dirudi; egoera orokorrak eta anitzak ikertzen dituzten ohiko azterketatik kanpo, egoera sozial mugatua ematen den gunetara joan behar da, hau da, lekuan lekuko hizkuntza komunitatearen egoera diagnosia eta horien zergatiak aztertzea, hain zuzen ere.
- g) Ingurunearen baloraketa zuzena egiteko, oso izan daiteke lagungarri ikuspegi historikoa hartzea, lehenagoko garaietan ingurunea nolakoa ote zen ikusteko. Aintzinean gertatutakoaren argira, oraingo egoeraren ebaluaketa zehatzagoa egin daiteke, eta historian antzemandako hutsune eta akatsetatik ere etorkizunerako ondorio balagarriak atera ditzakegu.

³⁷ Honetarako «gizarte sareen» metodologia proposatzen da, sare horietan gizabanakoen ekintzak (hizkuntza harremanak, gure kasuan) gizarte mailako gertaera izatera iristen diren unea delako. Edo, bestela esanda, hizkuntza «gizarte ekintza» bezala aztertzeko hurbilpen guztiz egokia delako. Proposamen honek Txepetxek aipatzen duen «hizkuntza komunitatearen trinkotasun» maila era egokienean aztertzea du helburu.

4.2. Adibide bat: Gazte euskaldunen erabileraren haustura ardatza

Gaztetxo eta gazte euskaldunekin (D eredukoak) egindako ikerketa batean (Jausoro, 1991) ondo ikusten da inguruneak ezartzen dituen legitimitateak (hots, ingurunearen oinarritzko garrantzia ikasketa/erabileraren motibazioen indartze/ahultze prozesuan) hizkuntza bat ala bestea erabiltzerakoan: Arrasateko gaztetxoekin osatutako taldeek (13-14 urtetakoak) kontraesan batean ikusten dute beraien burua. Euskararen erabilerari buruz egoera gatazkatsuan bizi dira bi presio ezberdin somatzen dutelako: alde batetik, familia eta irakasleena, euskaraz hitz egiteko; bestetik, kalearena, non gaztelania den nagusi. Etxeko eta eskolako «presioek» ez dute oihartzunik (edo, gutxi dute) kalean (lagunarteko inguruan). Azken finean, kaleak definitzen dituen kodigoak bereziak direlako; gainera, helduek hori berbera egiten dutela konturatzen dira: etxean euskaraz eta kalean gaztelanian. Orduan, euskarak etxeko eta ume izatearen ikurrak hartzen ditu eta gaztelaniak, ordea, gazteenak eta kalekoak.

Beste aldetik, kalean, egunerokoan, gaztelanian aritzen diren heinean, euskara indargabetu bezala agertzen zaie emozioen mundua adierazteko (lagunarteko hitz molde bereziak, kaleko hizkerak...); euskararen funtzio espresiboaren mugak erabilera bera oztopatzen du, euskararen gaurkotasan eta funtzionaltasunaren irudia murrizten dituelarik. Lourdes Oñederrak adierazten duen bezala: «Modernotasuna gaztelaniatik sartzea ez da berez txarra, kezkarri dena da gaztelaniatik bakarrik sartzea eta bat euskaraz egiten moderno (ez behintzat kursi) sentitu ahal izan dadin euskararen bertan ez sortzea» (BAT, 7/8 zk., 1992: 157. or.). Adibide honekin ikus liteke inguruneak ezartzen dituen mugak erabilerarako motibazio beroenak ahul ditzakeela: gaztetxoarentzat, bere aisialdiko kideekin euskara erabiltzeak, «ume» posizioan kokatzea esangura du, eta horrez gain, beste beste gaztetxoek («gazte» posizioan kokatzen direnak) bera baztertzea.

Arrasateko egoeraren beste muturrean Ondarroako gaztetxoak daude. Herri honetan, non ingurunea euskalduna den, gaztetxoek euskaraz bizi dute beraien egunerokoa (aisialdia barne); euskarak, kasu honetan, bere egunerokotasunagatik, kalearen eta gazteen ikurrak hartzen ditu, horrek bere erabilera indartzen du (eguneroko euskararen motibazioa, nolabait, automatikoa —*normala*, agian— bihurtzen du³⁸).

Beraz, ikerketako taldeen arabera, hiru dinamika ezberdinak definitu ziren, hizkuntzaren haustura ardatza, hau da, euskararen eta gaztelaniaren erabilera haustura, kontuan izanik: Ondarroa, alde batetik, eta Arrasate-Durango bestetik, bi muturrak osatzen dituzte, Tolosa-Zarautz erdibidean

³⁸ Ondarroatik kanpo eta egunerokoa ez denarekin (beste herrietako gaztetxoekin, herri erdaldunagoetan, hirietan,...) apurtzen dena: euskara «normala ez dena» da.

daudelarik. Ondarroan, Arrasaten eta Durangon, hizkuntzaren haustura ardatza ETXEko gunean kokatzen da, baina zentzu ezberdinetan (bi muturrak osatuz): Ondarroan, ETXEA da gaztelaniaren gunea (beti ere gurasoren bat edo biak erdaldunak direnean) beste gune biak euskararenak dira; alderantziz, Arrasaten eta Durangon ETXEA, aldiz, da euskararen gune bakarra (gurasoak euskaldunak baldin badira), beste gune biak gaztelaniarenak dira.

Tolosa eta Zarautzeko taldeetan hizkuntzaren haustura ardatza KALEAn agertzen da: gaztelaniaren mundua KALEA da; ETXEA (gurasoak euskaldunak izanda) eta ESKOLA euskararenak dira, nahiz eta ESKOLAn ere gaztelania zerbait sartzen den.

Hiru guneen (eskola, kalea, etxea) inguruan agertzen diren hizkuntz jarreraren arabera bost herriak hiru multzotan bana ditzakegu, euskarak bakoitzean duen gizarte tokia kontuan izanik: Arrasatek eta Durangok, alde batetik, euskarak gizartean duen toki murriztuaren multzoa osatzen dute; Ondarroak, bestetik, euskarak gizartean duen toki zabalagoaren multzoa osatzen du; bi mutur horien tartean, Tolosa eta Zarautz erdibidean kokatzen dira. Adierazitakoa ondoko irudian (6. Ir.) ikus dezakegu.

DURANGO-ARRASATE	TOLOSA-ZARAUTZ	ONDARROA
ESKOLA	ETXEA (gurasoen arabera)	ESKOLA
gaztelania	euskara	euskara
KALEA	ESKOLA	KALEA
HAUSTURA ARDATZA (hizkuntzaren erabilera haustura)		
ETXEA	KALEA	ETXEA
Euskara: gurasoak euskaldunak.	Gaztelania	Gaztelania: gurasoak erdaldunak
- + euskararen gizarte posizioa		

6. Irudia

Deskribapen hau zentzu dinamikoan ulertu behar da; guneean egituratzen diren hizkuntz jarrerren aldaketek eta ingurune beraren aldaketek, aldaketak suposatuko ditu multzo bakoitzean, eta gainera, multzoen beste konfigurazio ezberdina ere bai.

D ereduko ikastoletako ikasleek ez dute motibazio faltarik, printzipioz behintzat, euskara erabiltzeko, baina, eguneroko harremanetan gaztelania oso sartua dagoenean, ingurunearen pisua nabaritzen dute. Gertatzen dena da, beraien kaleko sare hurbilak (lagunartekoak, adin bereko ezagunak,...) gaztelaniaz ari diren heinean, euskarak dituen ikurrak (euskararen irudia bera) bere erabileraren oztopo bihurtzen direla, eta hori gainditzeko, motibazioaz gain ingurunearen eraketa aztertu behar da, azken hau eraginkorra delako.

Adibide honetako egoera guztietan gaztetxoek motibazio maila handiena bazuten ere, erabilerari begira ingurune baldintzak inposatzen zitzaizkien eta hauen arabera erabilera guneeak hedatu edo murriztuagoak ziren: etxeoak bakarrik, etxeoak eta ikastolakoak, edo, azkenik, etxeoak, ikastolakoak nahiz kalekoak.

5. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK

Hizkuntzek, gizarte harremanen osagai dinamiko edo bizkortzat —ez, geldotzat— ulertuta, gizartearen beraren tirabirak eta egoera edo harreman istilutsuak bizi dituzte. Gizartean duten kokapenaren eta betetzen dituzten funtzioen arabera osatuko dira beraien «indar harreman sinbolikoak» botere edo menpeko une eta egoeretara bultzatuz. Hizkuntzek osasuntsu irauteko gizartean behar dituzten legimititatea eta «gune sinbolikoa» egoera edo kokapen horrek ken, nahiz eman diezaieke.

Aurrekoaren ondorioz hizkuntza bakoitzari bere «ikur» zehatza ezartzen zaio eta bere erabilera ikur horren araberrako «gizarte araupean» gelditzen da, era honetan erabilera non, norekin, zein egoeratan eta abar, finkatzen delarik.

Hizkuntza bati bere «gizarte ospea» (ala osperik eza) eta bete beharreko funtzioak aurreko baldintza sozialetatik datozkio eta, beste horrenbeste gertatzen da azkenengoei estuki lorturik dauden motibazioekin ere.

Euskararen gaurko egoeran —E.A.E.ren kasuan bereziki—, hiru motibazio iturburu bereizten ditugu: motibazio sinbolikoak, arrakasta motibazioak eta motibazio pragmatikoak.


Motibazio sinbolikoak sorburu ezberdina izan arren, gaur egungo Euskal Herrian dauden artean hizkuntzekiko definizioa argia eta eraikitako balioak dituen unibertso sinboliko bakarra euskal nortasun amankomunarena da. Beraz, euskararekiko motibazio sinbolikoak Euskal Herriko edota Euskadiko —Euskal Nazioko—, partaide izateari lotuak agertzen zaizkigu

gehienbat; kontzientzia horiek gaur egun nahikoa hedatuak agertzen direnez, euskararen aldeko motibazio sinbolikoak sortu eta suspertzeko duten ahalmena aintzakotzat hartu behar da.

Arrakasta motibazioa, balioen esparrutik eta inguruneko baldintzetatik nahasian (edo bi arlo horien elkarrekiko eraginpean) sortua dena —motibazio mota hau sinbolikotzat edota pragmatikotzat hartu daiteke—, gizartean erdiespentsuak diren elite sozioekonomiko eta politikoen «hizkuntza ereduari» jarraitzean datza.

Motibazio pragmatikoak saio honen asmoetatik kanpo gelditu arren, 7. irudian idazti honetan zehar aztertu diren aipatutako hiru motibazio motetatik bakoitzak —pragmatikoak barne—, hizkuntza eremuan duen eragina era grafiko eta modu laburtuan adierazten da.

Irudi horretan, gure saio honi begira gizartearen baitan ematen diren osagarri nagusiak azaltzen dira: Unibertso Sinbolikoak, Balio Sistemak, Ingurune Baldintzak, Arrakasta Ereduak eta Hizkuntza Ereduak. Osagai guzti horien artean, norabide eta trinkotasun anitz eta ezberdineko hartumanean egon badaudela uste badugu ere, 7. irudian Arrakasta Ereduen sorreran Balio Sistema batzuek eta Inguruneko Baldintzek duten eragina azpimarratzen da bakar-bakarrik.



7. Irudia
Motibazioen eragina hizkuntza eremuan

Unibertso Sinbolikoa —Euskal Herri edota Nazio kontzientzia—, abiapuntu duten motibazio sinbolikoek (Motibazio Sinbolikoak-I) Ingurune Baldintzez moldatuak (leunduak ala areagotuak) izan eta gero Hizkuntza Eremuan dute eragina (Motibazio Sinbolikoak-II), baina ez tarteko ingurune horretatik pasa gabe. Ingurune Baldintza horiek bi motakoak izan daitezke, nagusiki: soziodemografikoak eta gizarte arauak. Aldagai soziodemografikoak populazioan ematen diren biztanle kopuru, euskaldunen proportzio, beraien banaketa geografiko eta abarrei dagozkie. Gizarte arauak bidezko hizkuntza portaerak finkatzen dituzte: lekuan lekuko hizkuntza hautaketa ezartzen du. Batzuek eta besteek Motibazio Sinbolikoak lagundu, oztopatu edo aldatu egiten dituzte. Motibazio hauek unibertso sinbolikoen munduan sortuak izanik, euskararen ikas/erabiltze puntuetara iristeko inguruneak ezartzen dituen euskararen aldeko ala aurkako baldintzen menpe (aldagai demolinguistiko eta gizarte arauen menpe) ezinbestez egongo dira. Hau da, euskal nazionalismoaren sorrera baino lehenago era nabarmenean ematen ez ziren eta nazionalismo horrekin indarra hartu zuten motibazio sinbolikoak, berez ahul samar omen dira oztopo handiko egoerak gainditzeko eta, beraz, bere baitako asmoa gauzatu ahal izateko, beren ingurunean aldeko baldintzak behar dituzte.

Ingurune Baldintzek, euren aldetik, Motibazio Pragmatikoak sorrarazten dituzte eta hauek Hizkuntza Eremuan «azken hitza» esaten dute. Menpeko hizkuntzaren ikas/erabilera prozesuak aurrera eramateko maila goreneko motibazioak beharrezkoak izanik, Ingurune Baldintzek Motibazio Sinbolikoen kontrako joera ezarriko balute hauek ahuldu egingo lirateke oso, aipaturiko prozesuei arrakastaz aurre egiteko behar diren motibazio sendoak indarge utziz.

Arrakasta Motibazioei buruz, aurreko mendeetako eliteek euskararekiko izan duten portaera axolagabea aztertu ondoren, eta oraingo euskal nazionalismoaren euskararen aldeko asmo eta adierazpenak baina horrekiko praxi askotan kontrajarria ikusita, ikuspuntu honetatik atera dezakegun konklusioa hau da: Euskal Herriko elite gehienek hizkuntza eredu erdara izan da, eta oraindik ere horixe da. Beraz, arrakasta ereduaren aldetik, orain arte, ez da motibazio aipagarriarik sortu. Motibazio hori ezean ikas/erabiltzeko saioek eta jarduerak bere laguntzaz aparte egin beharko dute aurrera. Are gehiago, sozialki indarrean dagoen arrakasta ereduaren hizkuntza aukeraren (gatzelania nahiz ingelesarena) zama jasan beharko du euskarak. Motibaziek nahikotasun maila lortzeko ez dute mota honetako motibazioetan laguntzarik aurkituko, kontrakorik baizik.

Deskribapen orokor honetara iritsita zehaztasun handiagoaren beharra azpimarratu behar da. Idazti honen zati ezberdinetan argi gelditu denez, egoera soziolinguistiko anitza dugu gure gizartean: euskara ia hizkuntz arrotzatzat jotzen duten gizarte eremu hedatuak egon badaude eta, aldiz,

pisu demografiko eta sozial txikiko beste muturreko egoerak ere, non euskarak hizkuntza nazionalaren funtzioa betetzen baitu (balorapen maila batez ere, erabilera aldetik gaztelaniaren menpeko egoera diglosikoa agerian gelditzen delarik). Bion bitartean, demografikoki eta gizarte sareen mailan hedatuenak dauden egoerak aurkitzen ditugu: euskararen aldeko balio eta motibazio sinbolikoa duten erdal harremanetako guneak. Bihotzean euskara eta mihian erdara, adierazpen ofizialetan elebitasuna eta egunerokotasuneko erdal elebakartasuna, umeak euskalduntzeko ahaleginak eta helduen erdal jardutea... Tarteko ingurune honetan ematen da euskararen aldeko motibazio sinbolikoen eta erdal ingurune baldintzen arteko borroka, eta kontra-jartze latz eta isil (agerikoa, baina onartu gabekoa) honen ondorioz —motibazio sinbolikoak direla kausa—, ikaste/erabiltze prozesuan abiatutako hainbat jendek porrot egin du bere ahaleginetan, eta saio horietara eskainitako hainbat baliabide animiko eta material, publiko eta pribatu, antzu suertatu dira.

Motibazio sinbolikoen aldetik euskararen egoeraren diagnosis baikorra izan behar bada ere, motibazio pragmatikoen aldetik —«arrakasta ereduarenak» barne—, egoera nahikoa da beltza. Eta motibazio sinboliko eta ingurune baldintzen arteko gatazka hau gainditu ahal izateko, arazoa errekonozitua izan behar da lehendabizi, eta, ondoren, bere gorabehera guztiak ondo aztertuak. Arazoaren ezaguera egokiaren bidez, bakar-bakarrik, etor daitezke hartu beharreko neurri zuzenak.

Inguruneak euskararen ikas/erabilerarako ezartzen dituen mugak demolinguistikokoak eta balio eta «gizarte arauen» mailakoak dira. Batzuk eta besteak ondorengo lerroetan aipatuko ditugu nahasian, korapilo arazotsuaren gainean argi izpi bat jarri nahirik.

- Euskara zertarako edo zergatik ikasteari buruzko galderak gaur egun ez du erantzun zuzenik: ez dago argi euskara transmisioko hizkuntza izan behar den; gizarte legitimitatea, gaur egun behintzat, alderantzizkoa da. Betetzen dituen funtzioak, jatorrizkoa (euskaldunentzat bakarrik) eta mitikoa dira nagusiki. Funtzio hauen arabera, euskararekiko motibazio motak eta mailak murriztuak izango dira: hau dela eta, euskararen atxekimendu komunitateak motibazio sinbolikoei lotzen die euskararen ikasketa/erabilera, ez duelako gizarte mailan bestelako motibazioen eragilerik ikusten. Inguruneak (orokorrean), motibazio pragmatiko-integratzaile bultzatzen laguntzen ez duenez, euskararen suspertze prozesua motibazio sinbolikoei bakarrik doa loturik; eta euskarri bakar hori berreskuratu nahi den hizkuntzarentzat eskasa da.
- Beste alde batetik, transmisioko hizkuntza hizkuntz komunitate ezberdinen arteko harremanak gauzatzeko da; euskararen kasuan, hizkuntza ofiziala izanik pentsatu da transmisioko hizkuntza izatea zuzenean zetorrela baina hori ez da horrela gertatu, Vignerek adie-

razten duen bezala, lotura hori ez da zuzena beste eragile batzuek ez badute parte hartzen hizkuntza ofiziala transmisioko bihurtzeko: gaur egun, gizarte mailan, transmisioko hizkuntza nagusia eta, agian, bakarra gaztelania da, hizkuntz komunitate bien harremana bere bitartez delako; gaztelaniaz egiten dute erdaldunek euren artean, erdaldunek euskaldunekin eta askotan ere euskaldunek euren artean. Euskara (batua) transmisioko hizkuntza da (edo izatea nahi da) euskaldunen artean soilik. Euskararen eta gaztelaniaren atxekimendu komunitateen arteko harremanak gatazkatsuak dira: gaztelaniak transmisioko legitimitatea bereganatuta du: «denok gaztelaniaz dakigunez...»; euskararen transmisioko funtzioa gaur egun oraindik eztabaidatu gabe dago, horrek dakarren ondorioarekin: nahiz eta pausu haundiak eman diren, euskarak ez duela gizarte legitimitate osoa lortu.

- Euskararen gizarte legitimitatea lortzeko gizarte geruza guztien garrantzia ez da berdina: ikastea eta erabilera bermatzeko, gizarte gailurrean dauden elite arrakastatsuen (ekonomikoak, politikoak, «bizimolde erdiespentsukoak» hitz bitan esanda), betetzen duten «gizarte eredu» funtzioa dela eta, hizkuntza aukera euskararen aldekoa balitz, euren «ereduaren» isla gizartearen gaineraontzeko geruzetara hedatuko litzateke, hizkuntza horren aldeko motibazioak sortuz.
- Euskaldun guztiak elebidunak dira (erdara dakite), baina gaztelaniaren hizkuntza komunitatearen defentsan daudenen artean elebidun gutxi da; gizarte mailan ez da ikusten maila instituzionalak edo ofizialak adierazten duen elebitasuna, azken finean, gizartean hori lortzeko beste eragile batzuk behar direlako. Teoriaz, maila instituzionalaren esanetan, bi transmisioko hizkuntza dira «posibleak», biak ofizialak direlako; baina, hori «adieraztea» soilik ez da nahiko: hizkuntz komunitate bakoitzak bere hizkuntzaz gain bestea ezagutzeak eta tokian toki erabiltzeak neurri bereziak behar ditu goi mailatik hasita, hezkuntza erduetan jarraituz gizarte maila guztietaraino. Gaur egun, euskararen gizarte legitimitatea transmisioko hizkuntza izan dadin ez dago ziurtatuta, eta hori nahi bada, esatearekin ez da nahikoa, euskaldunen espektatibak frustraziora daramalako, alde batetik, eta bestetik, erdaldunei ez zaielako «koherentzia-dun» egoerarik eskaintzen (euskara eta gaztelaniaren, bien, gizarte legitimitatearen definizioarena).
- Zenbatak dakien euskaraz garrantzitsua bada ere, denek euskara jakitea ez da nahikoa. euskal komunitatearen trinkotze maila edo euskaldunen arteko (euskarazko) harremanen intentsitatea da «zinezko adierazlea». Gaur egungo gazteek urrats handiak eman dituzte elebitasunaren bidetik, baina haien arteko «harreman sareak» eraikitze lanak askoz motelagoak izan dira. Euskaldunen kopuru handienak

erdal kutsukoari dagozkion hirietan ematen dira, giro euskaldunak herri txikietan ematen diren bitartean; bistan dago hizkuntz komunitatea ez dela kopuruetan oinarritzen harreman hizkuntzan baizik. Komunitate euskaldunaren trinkotasuna handia izanez gero, bere eguneroko praxia euskararen erabilgarritasunaren adibiderik hobereña izango litzateke erdaldunen aurrean, hizkuntza horren beharra hauengan sorraraziz.

- Idea hauen ildotik, badirudi egokia izan daitekeela motibazioen sorreran, susperketan eta mugaketan, horren pisu handia duen ingurune horren baitan arreta pixka bat jartzea. Galdera hauxe da: hizkuntzaren aldeko motibazioak egonda, zein dira ingurune egoera egokiak motibazio horiek «nahikotasun maila» lor dezaten euskara ikasi eta erabiltzeko? Ala, dena ez datza motibazioen «nahikotasun mailan»; hau da, ba ote dira ingurune kontrako baldintzak motibaziorik handienak ere gaindi ezin ditzakeenak?. Motibazioen «nahikotasun maila» onartuta ere, horrekin batera ez al da finkatu behar «baldintzen gutxieneko maila» kontzeptua?
- Zeregin honetan, tokian tokiko egoera zehatz-mehatz ezagutzea gomendagarria dirudi; ohiko azterketatik kanpo (nor bere buruari buruz emandako informazioan oinarritzen diren horietatik kanpo) egoera sozial bat ematen den gunetara joan beharko da, hau da, harreman hizkuntzak eta horien zergatiak aztertzea, hain zuzen ere. Honetarako, «gizarte sareen» metodologia proposatzen da, sare horietan gizabanakoen ekintzak (hizkuntza harremanak, gure kasuan) gizarte mailako gertaera izatera iristen den unea delako. Edo, bestela esanda, hizkuntza «gizarte ekintza» bezala aztertzeko hurbilpen guztiz egokia delako.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba (1993ko Urtarrila/Otsaila): «A. Oihenart eta bere garaia», *Jakin*, 74. zb.
- ATXAGA, Bernardo (1994). «Nation», André Gabastou-ren *Nations Basques: Peuple mythique, aventure universelle*. Paris, Autrement.
- AZURMENDI, Joxe (1992). *Espainolak eta euskaldunak*. Donostia, Elkar.
- BASTERRETXE, Iziar (1992ko Ekaina), «Hizkuntza erabileraz». *Inguruak*, 6. zb. (105-124 orr.).
- BEN-RAFAEL, Eliezer (1994). *Language, Identity, and Social Division. The case of Israel*. Oxford, Clarendon Press.
- BERGER, Peter eta Thomas LUCKMANN (1979). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires, Amorrortu.
- BOURDIEU, Pierre (1982): *Ce que parler veut dire*, Paris, Fayard.
- , (1977): «Linguistique et sociolinguistique», *Langue française*, 34, Paris.

- CARMEL CAMILLERI (et altres) (1990): *Stratégies identitaires*, Paris, PUF.
- CONNOR, Walker (1989). «Democracia, etnocracia y el estado multinacional moderno: paradojas y tensiones», Alfonso Pérez-Agoteren *Sociología del Nacionalismo* bilduman, II Euskal Mundu Biltzarra. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- FISHMAN, Joshua A. (1991). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*, Clevedon, Multilingual Masters 76.
- FLAHAULT, François (1978): *La parole intermédiaire*, Paris, Seuil.
- GARZIA ISASTI, Pruden (1993). «Euskara: nazionalismoaren ahulezia historikoa?», *Larrun*, 16.zb..
- GOBARD, Henry (1976): *L'aliénation linguistique*, Paris, Flammarion.
- GOIHENETXE, Manex (1993ko Urtarrila-Otsaila). «A.Oihenart eta bere ingurugiroa», *Jakin*, 74. zb.
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (1989). *Soziolinguistikazko Mapa*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- INTXAUSTI, Joseba (1994). *Euskara Araban. El euskera en Alava*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia.
- JAUSORO, Nekane (1991): *Gazte euskaldunen eguneroko bizimodua eta beren euskararekiko harremanak*. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza. (Argitaratu gabe).
- , (1992) *Euskalduntzearen motibazioen aztermapa*. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza. (Argitaratu gabe).
- MAINGUENEAU, Dominique (1991): *L'analyse du discours*, Paris, Hachette.
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki (1992). «Universos simbólicos e identificación cultural y política como catalizadores de la estancamiento entre los entornos vascófonos y castellanófonos» (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eskatutako azterketa; argitaratu gabea).
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki (1993). *La Participación Política en el País Vasco*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- MITCHELL, Arnold (1983). *The nine Americans Lifestyles: Who we are & where we are going*. New York, Mcmillan.
- OYHARÇABAL, Beñat (1993ko Urtarrila/Otsaila). «Oihenart eta euskal letrak», *Jakin*, 74. zb.
- PARRET, Herman (koord.) (1991): *La communauté en paroles*, Lieja, Mardaga.
- PÉREZ-AGOTE, Alfonso (1990). «Los lugares sociales de la religión: La secularización de la vida en el País Vasco», Luis Rodríguez Zúñiga-ren *Estudios y Encuestas* sortan, 20. zb., Madrid, C.I.S.
- ROCHER, Guy (1976). *Introducción a la sociología general*, Barcelona, Herder.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María (1981). *El espacio bilingüe*. Donostia, Eusko Ikasketza.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia-San Sebastián, Sánchez Carrión «Txepetx» (Argitaratzailea).
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María (1991). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia-San Sebastián, Sánchez Carrión «Txepetx» (Argitaratzailea).
- STRUBELL, Miquel (1988). «Cuestiones clave del proceso de normalización lingüística», *Euskara Biltzarra (II Alea)*. II Euskal Mundu Biltzarra. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- TEJERINA, Benjamín (1992). *Nacionalismo y lengua. Los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*. Madrid, C.I.S.

- TEJERINA, Benjamin (1993). «Nacionalismo y lengua. Cambios en la definición de la identidad colectiva en el País Vasco». *Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroak*. Donostia, (argitaratu gabea).
- URRUTIA, Andrés (1994, Maiatza-Ekaina). «Euskararen eta katalanaren legeak», *Jakin*, 82. zb.
- VIGNER, Gérard in COSTE, D. eta HÉBRARD, J. koof. (1993): *Vers le plurilinguisme?* Hachette, Paris.
- WOOLARD, Katryn (1984): *Double talk. Bilingualisme and the Politics of Ethnicity in Catalonia*, California, Stanford University.

MOTIBAZIO INSTRUMENTALA: AZALPEN TEORIKOA

Andoni SAGARNA

1. AURKEZPENAREN MUGAK

Egoki iruditu zaigu motibazio instrumentalaz hitz egiteko erantzukizuna leporatu dugunoi gure ekarpenak abiotik bertatik dituen mugak aurkeztetik hastea. Azalpenari modu honetan ekiteko arrazoia ez da ondoren aurkeztuko ditugun argudio eta iritziek izan litzaketen ahuleziak alde zurretik zuritu nahia. Behar bada hobe genuke asmo horrekin egingo bagenu, baina beste bat da gaurkoan xedea.

Gu ez gatoz hona mundu akademikotik, euskararen normalizazioan eragin jakina lortzeko egiten den interbentzio praktikotik baizik. Aurkezpen hau egitera gonbidatu gaituenak badaki hori garbi, baina komeni zen entzuleok ere jakitea, inork ez dezan espero guk eman ez dezakegunik.

Gure azalpenak ez du notarioaren fede ematea izan nahi. Aitzitik, euskararen normalizazio-prozesua bide jakinetatik eramateko konpromezua hartua dugu eta ikuspegi hori nabarmentzea nahi genuke eta ez ezkutatzea.

Daukagun helburu nagusia **euskara Euskal Herri osoan edozein arlo eta egoeratan bertako biztanle guztiek erabil dezaten lortzea** da. Hori B egoera da. Unean uneko egoera, helburu horretatik hain urrun dagoena, A egoera da. Atik Bra joatea errazten duen orok balio positiboa du guretzat eta alderantziz Bra joatea oztopatzen duen edo Btik urruntzen duen guztiak balio negatiboa du. A egoera, gauzen egungo egoera edo statu quo -a da; B, berriz, utopia. A eta Bren artean tarteko helmugak jartzen ditugu. Hauek ostadarraren antzekoak dira: azpitik ezin izaten ditugu inoiz zeharkatu haietara hurbildu ahala atzera mugitzen zaizkigulako. Horrela, poliki bada ere, B-ranzko norabidean aurrera egiten ahalegintzen gara.

Atik Brantz mugitzea, fisikan eremu elektriko, magnetiko edo grabitatorio batean gorputz bat potentzial txikiagoko puntu batetik potentzial altuagoko batera gorputz bat higiaraztearen antzekoa da. Gauzak berez gertatzen utzita, gorputzak energia minimoko posizioa hartzen du, Btik ahalik eta urrunen.

Hizkuntz normalizazioan ere orobat berdin, gauzak berez gertatzen utziz gero hizkuntza ahula gero eta ahulago bihurtzen da eta, ostera, normalizazio-bidean aurrera eramateko, korrontearen kontra arraunean egin behar da.

Fisikan gorputza potentzial altuko puntura eramaten duen guztia energia da, dela mekanikoa, elektrikoa, kimikoa edo beste mota batekoa. Ikuspegi honetatik, hizkuntzaren normalizazioan, Atik Bra joateko egin behar den esfortzua norbanakoez, erakunde publiko nahiz pribatuek, egin dezaten eragiten duena da guretzat motibazioa. Horra hor hitz gutxitan motibazioaz oro har teorizatu nahi genukeen guztia.

Jakin badakigu badirela hizkuntza bat ikasi eta erabiltzeko eragingarriak. Interesatzen zaiguna eragingarri horiek arestian aipatu dugun helburu nagusi-rako erabiltzea da.

Hizkuntzaren erabilera fenomeno soziala den aldetik ez gaitu gizabanakoez izan dezaketen motibazioak bakarrik arduratzen. Bada teknikoki eta zentzu hertsian motibazio terminoak hartzen duen ala ez duen garbi esaten ez dakigun zerbait, baina guk motibazio kolektiboan deituko duguna. Zenbait kolektibotan indar bat sortzen da bertako hizkuntz portaerak era sistematiko eta planifikatuan aldatzera bultzatzen duena. Hau gabe, gainera, gizabanakoen esfortzuek ez dute benetako ondorio positiborik ekartzen eta bai, aldiz, etsipen-sentimendu bat.

2. AZTERGAIAREN MUGAK

Motibazio kontzeptuaren definizio intuitibo honetatik abiatzeko borondatea azaldu ondoren motibazio instrumentalaren esparrua mugatzeko ahalegin koxkor bat egin nahi genuke.

Gure lanean motibazioari buruzko literaturara hurbildu garenetan, normalean gai hau glotodidaktikaren ikuspegitik tratatzen duten testuak erabili izan ditugu eta bereziki bigarren hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuaz dihardutenak. Hauen artean Gardner eta Lambert (1972) eta (1985) iruditu zaizkigu azterketarik zabalenak. Hauek orientazio integratiboa eta instrumentala bereizten dituzte. HABEk argitara eman zuen Glotodidaktika Hiztegia-n (1987) honela ageri dira definituta bi motibazio-mota hauek:

«Motibazio instrumentala: Ikasleak hizkuntza bera ikasteko baino gehiago hizkuntza ikasiz gero beste zenbait helburu pertsonal garrantzitsuz erdiesteko esperantzaz hizkuntza ikasteko duen interesa.» eta

«Motibazio integratiboa: Hizkuntza bera ikasteko edota hizkuntza hori hitz egiten duen komunitatean integratzeko motibazioa.»

Honen arabera, azterketa bat gaunditzera bideratutako ikaskuntza, aukera profesionalak hobetzeko edo bigarren hizkuntzaren bidez beste gai batzuk ikasteko egiten dena, instrumentalki motibatutako ikaskuntzaren adibideak dira.

Guk hasieratik aitortu dugun helburua dugunez, jakina, benetan axola zai-guna hizkuntza ikasteko motibazioa baino areago hizkuntza erabiltzeko motibazioa da. Hala ere, «ikasi» aditza dagoen lekuan «ikasi eta erabili» aditzak jarritz gero definizio hauek nahikoa onargarriak izan daitezke guretzat.

Bi motibazio-mota hauek bereizteak ez du esan nahi noski bien artean kontraposiziorik dagoenik, ez bi mota horiek bakarrik daudenik. Aitzitik, norbaiten motibazioak orientazio instrumental gehiago ala gutxiago eta orientazio integratibo gehiago ala gutxiago duela esatea litzateke egokiena.

Bai batean eta bai bestean hizkuntzaren egoera sozialak duen eragina oso handia da. Hizkuntza minorizatuen kasuan, gizartean pisu handia duten jarduera batzuetatik kanpo geratzen den hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko motibazio instrumentala ahula da. Hauxe da, hain zuzen, gure buruhaustea: nola hautsi sorgin-gurpila? Erabiltzen ez den hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko motibaziorik ezak hizkuntza erabiltzea oztopatzen du.

Hizkuntza minorizatuarentzat ezinbestekoa da nola edo hala motibazio instrumentala sorraraztea. Informatikarien terminologia erabiliz, bootstrap moduko bat behar da. Termino honen esanahia hauxe da: bootstrap, errutina bat, hasierako agindu gutxi batzuk dituen eta beste agindu guztiak ordenadorea gobernatzen has daitezen ahalbidetzen duena. Hitz honen esanahi etimologikoa bota-lokarri da. Ordenadorea, hasterakoan, hegorik gabe hegaldatu beharrea bezala aurkitzen da. Horregatik lurretik altxatzeko bota-lokarrietatik gorantz tira egingo balu bezala egiten du. Normalizazio-prozesuari ekiteko, motibazio instrumentalaren faltan motibazio sinbolikoa izan daiteke ia helduleku bakarra.

Hizkuntza egoera minorizatuan egoteak neurri batean indartu ere egin lezake motibazio integratibo edo sinbolikoa. Toyntee-ren historiaren filoso-fiaren parafasia kasu honetara moldatuz, esan genezake motibazio integratiboa sentsibilitatea duen gutxiengo batengan pizten eta gero gizartean hedatzen lagundu dezakeela erronka moduko batek, zailtasun batek, mugimendua itotzeko adinakoa ez den bitartean.

Euskararen egoeraz dugun ezagutza enpiriko hutsaren arabera uste dugu gure artean motibazio sinboliko probetxugarri bat aurki dezakegula hainbat gizarte-sektoretan eta aldiz motibazio instrumentala hizkuntzaren egoera sozialak asko moteltzen duela. Ondoren azalduko ditugun inkesta bidezko datuek uste hau berresten duten, eztabaida dezakegun gauza da.

3. MOTIBAZIO INSTRUMENTAL INDIBIDUAL ETA KOLEKTIBOAREN ALDEKO FAKTOREAK

Motibazio instrumentala handitzeko alde dauden faktoreak identifikatzea eta erabiltzea eta kontra daudenak saihestea da gure helburua.

Motibazio instrumentalaren barnean agian bereiz genitzake bi azpisail: motibazio instrumental komunikatiboa eta motibazio instrumental utilita-

rista. Lehenak zenbait pertsonarekin, zenbait egoeratan, komunikazioa bideratzeko hizkuntza ikastera eta erabiltzera bultzatuko luke eta bigarrenak berriz status aldaketa izango luke helburu. Bigarren honen barnean sartuko genituzke lanpostu bat lortzeko hizkuntza ikastera bultzatzen duten eragingarriak.

Euskararen kasuan Herri-administrazioek hizkuntz eskakizunak zehazten dituzte zenbait lanpostu lortzeko. Eskakizun honen funtsa, zerbitzua hobetu nahiaz eta antzeko arrazoiez gain, hizkuntzaren normalizazioa helburu politiko bezala planteatzea izaten da. Asmoa txalogarria den bezala ez dago esaterik ondorioa beti positiboa denik. Sarritan azterketa gainditu bezain laster motibazioa itzali egiten da eta behin baino gehiagotan errebote-efektu moduko bat ere antzematen da, alegia azterketa gainditzeko oztopotzat hartu den hizkuntza lehenbailehen ahazteko gogoia sumatzen da.

Motibazio instrumental utilitariora, beraz, hizkuntz normalizaziorako tresna bezala baldarregia gerta daiteke. Honek ez du esan nahi hizkuntz eskakizunak ezartzea txarra denik eta gutxiagorik ere, zeren eta nahikoa ez izanik ere, beharrezkoa den baldintza bat bermatzen laguntzen baitute, baina bai ahaleginak egin behar direla motibazio instrumental komunikatiboa indartzeko.

Mota honetako motibazioa agertzeko eraginik handiena duen faktorea komunikazioa gauzatzeko, hizkuntza beharrezkoa izatea da. Aipatu ditugun ideia solte batzuk lotzen saiatuz, esango genuke arrazoizkoa dirudiela motibazio instrumentala handitzeko honako estrategia hau erabiltzea:

- 1) Sentsibilitatea duten gutxiengo batzuen motibazio sinbolikoa oinarritat hartzea eta beste batzuk pixkanaka «kutsatzea»
- 2) Komunikazio-egoera pixkanaka aldaraziz motibazio instrumental komunikatiboa handitzea.

Lehentxoago motibazio indibiduala eta kolektiboa bereizi ditugu. Sailkapen hau gehixeago sakonduz motibazio sozial zabala, gizarte bati eragiten diona, Euskal Herri osoari, adibidez, gizarte baten barneko kolektibo baten motibazioa, enpresa jakin batena, eman dezagun, eta gizabanakoon motibazioa bereiz genitzake.

3.1 Identitate kulturala herrialde baten abantaila konpetitiboa izatea, gizarte zabalaren motibazio instrumentalaren aldeko faktore da

Gauza jakina da enpresa batek bere identitate korporatiboa sortzeko ahaleginak egiten dituen. Horretarako logotipo, marka, etab. erabiltzen ditu. Izan ere, merkatuan parte hartzen duten lehiakide guztien artean nabarmendu beharra dauka. Bezerogaiek badela eta besteak bezalakoa ez dela jakin behar dute, bestela ez dira inoiz bezero izatera iritsiko. Enpresaren mailan onartua dagoen ideia hau herrialde-mailara hedatu beharra

dago. Zenbait adibidek argituko digute hau. Jo dezagun Québec-eko kasua. Québec-eko enpresak Kanada eta Estatu Batuetako enpresen artean murgilduta daude. Lehiakide asko eta indartsuak dituzte inguruan. Frankofono izateak, ordea, inguruko guztietatik bereizten ditu eta munduaren aurrean agertzeko irudi bat eskaintzen die. Duela gutxi Emilio Fontela ekonomilari eta irakasleak hitzaldi bat eman zuen Donostian Euskal Herriak Europan izan dezakeen etorkizunaz. Berak zioenez, Europak dituen arazoaren artean kohesioarena, h.d. Europako herrialdeen artean ager daitezkeen aberastasun-diferentziena dago. Arazo honi erantzuteko Europan zehar hainbat garapen-gune egon daitezzen bultzatu beharko litzateke eta ez erdi-gune sendo bat eta kanpoalde ahul bat egon daitezzen onartu. Irakasle honek 142 europar eskualderi buruzko ikerketa bat egin du. Gaur egun, definitu dituen indikadoreen arabera, Euskal Herria 35. lekuan dago eta Europa orain arteko ereduaren arabera eraikitzen bada 45. erantz lerratuko da. Aldiz, garapen-gune desberdinen arabera ere 25. lekurantz eramango luke. Gauzak horrela planteatuz gero, identitate kulturala abantaila kompetitiboa da, garapen-gunearen identifikatzaile bilakatzen delako. Euskal Herriaren kasuan, bistan dago identitate-seinalerik nabarmenena euskara dugula, beraz, elementu probetxugarritzat hartzen den neurrian motibazio instrumentala ager daiteke.

3.2. Euskal gizartean euskarak maila sinbolikoan duen estimua enpresa-mailan kontuan hartzeak motibazio instrumentala eragin dezake

Enpresaren jentzioaren eredu razionala, zenbakietan eta analisisietan bazarrik oinarritua gaudituta dago. Gaur egun, argi dago enpresa bat bestearen artean nabarmentzeko gakoak pertsonengan dagoela eta pertsonok oso proportzio txikian gara razionalak. Giza izaeraren kontraesanak go-goan izatea funtsezkoa da enpresaren martxa egokia izan dadin.

Ildo honetatik doaz ekarpen interesgarriren bat egiten duen pertsonari bere meritua aitortzea garrantzizkotzat hartzea, pertsonaren alderdi intuitibo eta sormenezkoak baloratzea, gizabanakoaren barne-motibazioak kontuan hartzea. Pertsona bat enpresa batean gustora jardun dadin eta beraz ekarpen egokiak egin ditzan, pertsona horrek berak egiten duenari zentzua ikustea baino gauza hobetik ez da. Eginkizun batekin konprometitzeko, beharrezkoa dugu eginkizun horrek berez merezi duela uste izatea eta sinestea. Gizaki guztiok dugu gure bizitzari zentzua emateko premia eta eguneroko gauza arruntez haraindiko zerbaiten bila ibili beharra. Erakunde edo kolektibo baten guretzat zentzua duen zerbaitetan parte hartzeko aukera ematen digunean prest egoten gara kostatzen zaizkigun gauzak egiteko, helburu horregatik.

Jentzioaren teoria modernoan ikuspegitik enpresa ez da jada razionalki gobernatzen den sistema itxi bat, sistema irekia eta aktore soziala baizik.

Enpresa batean elkartasuna izan dadin balio batzuk konpartitzea garrantzitsua da.

Ongien funtzionatzen duten enpresa modernoek beren helburu nagusia, enpresaren misioa deritzona, idatzia izaten dute eta askotan balio horiek transmititzeko eta indartzeko berariazko programak dituzte. Honela deklaratu den misio batek bezeroarekiko arretarekin zerikusia duten gauzez gain enplegatuen asmoak ere kontuan izaten ditu.

Esate baterako gaur egun gizarteak gero eta sentikortasun handiagoa du naturarekiko errespetuarekin zerikusia duten gaiekin. Uste izatekoa da sentikortasun hau enpresa baten ingurune sozialean handitu ahala, enpresan lan egiten dutenen artean ere handituz joango dela eta beraz produktu birziklagarriak lortzea, produkzioan sortzen diren hondakinak gutxitzea, publizitatearen bidez sentikortasun hori bezeroenganatzea, etab. enpresan lan egiten dutenek onartuko dituzten helburuak izango direla.

Euskal Herriari eta euskararen egoerari begiraturaz gero, argi dago diru publikoa euskararen alde gatatzea, D eta B ereduetan haurrak hezitzea, euskararen aldeko ospakizun jendetsuak egitea (Kilometroak, Nafarroa Oinez, etab.) onarpen zabala duten asmoak direla. Arrazoizkoa dirudi, beraz, enpresaren asmoei euskararen erabilera sustatzea eransteak ere onarpen zabala izan dezakeela. Hala izanez gero, enpresaren funtzionamendurako euskararen erabilera sustatzeak dakartzan abantailek enpresa-mailako motibazio instrumentala indartuko lukete eta sustapen horren ondoriozko euskararen erabileraren normalizazioak gizabanakoen motibazio instrumentala indartuko luke.

Duela urtebete Québec-eko «Conseil de la Langue Française»-ko lehen-dakariak, Pierre-Etienne Laporte jaunak, «BAT» aldizkariari eginiko azalpenetan zioenez herrialde hartan enpresa bateko langile gehienak frankofonoak direnean frantsesaren erabilera normaltzen denetik aurrera langile horiek zoriontsuago dira eta produkzioa handitu egiten da. Bestalde zioen, frantsesaren erabilera normaltzeko gastuak inbertsiotzat hartu behar direla eta gero produkzioan eta enplegatuekiko harreman onean berreskuratzen direla.

Hemen egoera desberdina izanik ere zenbait enpresatarako bederen egokia izan daiteke horrelako planteamendu bat.

3.3. Enpresentzat euskara erabiltzea balio erantsia da. Horrek motibazio instrumentalaren alde jokatzeko du

Euskal Herrian funtzionatzen duen edozein merkatal enpresak kontuan hartu beharreko faktorea du hemen badela gaztelaniaz edo frantsesaz gain, bertako hizkuntza, euskara, hainbat biztanlerentzat esanahi sakona duena. Enpresaren xedea behar bezala betetzeko ezinbestekoa da bezeriarekin komunikatzea, dela harreman pertsonalen bidez, dela publizitatearen, etiketen, argibide-eskubiduruen, etab.en bidez. Komunikazio egokia lortzeak

informazio zuzena eta ulergarria erabiltzeaz gain bezeroarekiko sintonia afektibo egokia lortzea ere esan nahi du.

Euskara erabiltzeko ohitura dugunok eskertu egiten dugu enpresa batek euskara bidez komunikatzeko aukera ematen digunean eta euskaraz egiten ez duten gehienek ez dute gaizki ikusten nahi duenarentzat aukera hori izan dadin.

Enpresa asko ari dira gaur egun publizitatea ETBn eta irratietan euskaraz egiten. Kostuaren eta onuraren arteko erlazio egokirik ez balute ez lukete egingo noski. Hau ere enpresen motibazio instrumentalaren aldeko faktorea da.

4. MOTIBAZIO INSTRUMENTALA, PERTZEPZIOA ETA ARRAKASTAREN METAKORTASUNA

Esaten badugu helburu batera hurbiltzen gaituen energia dela motibazioa eta motibazio instrumentala konkretuki helburura hurbiltzeak dakarren onurak eragiten duela, prozesu metakor baten eragile dela esan dezakegu. Hauxe esan nahi dugu, alegia, euskara ikasteak eta erabiltzeak onura dakarkigula uste izateak motibatzen bagaitu eta benetan onura hori badakarkigula konturatzen bagara, are gehiago motibatuko garela.

Hau arrakastaren metakortasun-printzipio orokorra besterik ez da. Eskola-mailan, esate baterako, fenomeno ezaguna da porrotak desmotibatu egiten duela eta arrakastak, aldiz, motibatu.

Zehaztasun gehiago behar bada, esan dezagun ez dela errealitate objektiboa bera motibatzen ala desmotibatzen duena, errealitateari buruzko pertzepzioa baino. Batzuetan errealitateari buruzko pertzepzioa errealitatearekin berarekin bat dator eta hau positiboa ala negatiboa denaren arabera pertzepzioak motibazioa ala desmotibazioa eragiten du hurrenez hurren, alabaina beste batzuetan pertzepzioa ez dator errealitatearekin bat eta orduan motibazioa ala desmotibazioa pertzepzioaren arabera sortzen da. Adibidez, euskarazko publizitatea produktuarentzat edo enpresarentzat mesedegarri baldin bada, inportantea da enpresek, euskarazko publizitatea egiten dutenek nahiz egiten ez dutenek, horrela dela ikus dezaten.

Gauzak ez baitira gertatzen beti errealitatea modu jakin batekoa delako edo horregatik bakarrik, errealitate hori gauzatzen dutenek errealitatearen pertzepzio jakin bat dutelako baizik.

5. LABURPENA

—Azalpen hau ikuspegi pragmatiko batetik egina da, beraz motibazio instrumentala euskararen normalizazio-prozesuan indartu beharreko faktore positibotzat hartzen da.

- Motibazio-moten sailkapena bigarren hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuaz diharduten autoreen lanetatik hartu dugu, bereziki Gardner eta Lambert-engandik(1972) eta (1985). Hauek orientazio integratiboa eta instrumentala bereizten dituzte.
- Motibazio instrumentala eta integratiboa bereizten ditugu, baina ez elkar ukatzen duten motibazio-mota bezala. Biak batera eduki daitezke, bakoitza edozein intentsitaterekin.
- Hizkuntzaren egoera sozialaren eragina oso handia da. Hizkuntza minorizatuen kasuan, gizartean pisu handia duten jarduera batzuetatik kanpo geratzen den hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko motibazio instrumentala ahula da.
- Hizkuntza minorizatuarentzat ezinbestekoa da nola edo hala motibazio instrumentala sorraraztea.
- Normalizazio-prozesuari ekiteko, motibazio instrumentalaren faltan motibazio sinbolikoa izan daiteke ia helduleku bakarra.
- Motibazio instrumentalaren barnean agian bereiz genitzake bi azpisail: motibazio instrumental komunikatiboa (komunikazioa bideratzeko beharrak eragina) eta motibazio instrumental utilitarista (status-aldaketa soilak eragina). Bigarren hau arriskutsua ere izan daiteke.
- Motibazio indibiduala eta kolektiboa bereizi ditugu.
- Identitate kulturala herrialde baten abantaila kompetitiboa izatea, gizarte zabalaren motibazio instrumentalaren aldeko faktore da.
- Euskal gizartean euskarak maila sinbolikoan duen estimua enpresa-mailan kontuan hartzea enpresentzat mesedegarri izan daiteke, enplegatuen asmoak enpresaren misioan txertatzea onuragarri delako. Hau enpresa-mailako motibazio instrumentalaren aldeko faktore da.
- Enpresentzat euskara erabiltzea balio erantsia da. Euskara erabiltzeak ez du kalterik eta alde onak aldiz bai. Hau ere aldeko faktore da.
- Aldeko faktore hauek benetan funtziona dezaten hauteman egin behar ditu gizarteak, errealtateak adinako garrantzia duelako errealtatearen pertzepzioak.

1991KO SOZIOLOGIKAZKO INKESTAREN EMAITZAK. ENPRESETAN EGINDAKO PROIEKTUAK

Mariaje JAUREGI
Tere BARRENETXEA

Saio hauek bi atal nagusitan banatuko ditugu. Lehenengoan, HPINaren eskutik burututako «Euskararen egoera» inkesta soziolinguistikokoan gure gaurko gaia kokatu eta lantzeko baliozkoak diren datuak arakatu eta komentatzen saiatuko gara. Bigarrean, berriz, zenbait enpresatan garatu diren proiektuak gaitzat hartuz, motibazioa suspertzeko egin dugun esperientzia baten berri emango dizuegu.

I. ATALA

1991KO SOZIOLOGIKAZKO INKESTAREN EMAITZAK

I.0. Sarrera

Saio honetan 1991n HPINak* egindako soziolinguistikako inkestatik ateratako datuetan oinarrituko gara. Ez da gure asmoa datu horiek sakon aztertzea. Esku artean dugun gaiarekin, motibazio instrumentalarekin alegia, eta zehatzago euskara ikasi eta lan-ingurune erabilerari buruzko egoerekin zerikusirik izan dezaketen aldagaien joera aztertzea baizik.

Saioan zehar lan-ingurunea askotan aipatuko dugunez, ezer baino lehen lan-munduekin erlazionaturiko datu soziodemografiko batzuk emango ditugu. Hiru sektore nagusiak bakarrik hartuko ditugu kontuan: Industria, Zerbitzuak eta Administrazioa alegia.

Eta sektore horietako ezaugarri nagusiak ondorengoak dira:

* «Euskararen egoera» 1991ko Soziolinguistikazko Inkestaren arabera HPINak argitaratutako lana (5.300 elkarrizketa Euskal Herri osoan: 2.800 EAEan, 1.200 Iparraldean eta 1.300 Nafarroan).

Datu soziodemografikoak

	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
<i>Guztira</i>	100	100	100	100
<i>Sexua</i>				
Gizonezkoa	49	84	49	49
Emakumezkoa	51	16	51	51
<i>Adina</i>				
16tik 24ra	19	12	18	6
25etik 34ra	19	23	38	36
35etik 49ra	24	38	32	40
50etik 64ra	23	27	12	18
64tik gora	15	—	1	—

—Zerbitzuetan eta Administrazioan emakumeen presentzia askoz handiagoa da Industrian baino. Bietan %51 dira; guztira hartuta dagoen portzentaia bera mantentzen delarik. Emakume gutxien Industrian dago (%16 baino ez).

—Adinari dagokionez, zerbitzu-sektorea da gazteena: 35 urtez beherakoak %56 dira. Zaharrenak Industriakoak dira eta erdian daude Administrazioak.

—Taula honetan agertzen ez diren arren, zerbitzuen sektorean dago bertakoen portzentaiarik handiena (%59). Industrian %47 dira bertakoak eta Administrazioan %52.

—Oinarrizko ikasketak dituztenak dira gehiengoa. Industrian oinarrizkoak edo apalagoak dituztenak %59 dira. Eta Administrazioaren artean dago erdi edo goi-mailako ikasketak dituztenen portzentaia-rik altuena (%46).

Sektore ekonomikoen ezaugarri orokor horiek emanda, eskuartean dugun gaiarekin hasiko gara. Lehenengo, hizkuntza-gaitasunari dagokionean egoera orokorra nolakoa den ikusiko dugu.

Hizkuntza-gaitasuna

Biztanleak honela banatu dira euskara hitz egiteko duten gaitasunaren arabera:

Euskaldun elebakar eta erdaldun elebakarrez gain, honako elebidunak bereizi dira: elebidun hartzaileak batetik, hau da, euskaraz zertxobait hitz egiten dakitenak edo egin ez arren euskara ulertu eta irakurtzeko gai direnak; elebidun funtzionalak, bestetik, hirutan banatu dira: euskal elebidun funtzionalak, euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dutenak, elebi-

dun funtzional orekatuak, euskaraz nahiz gaztelaniaz berdintsu egiten dutenak eta erdal elebidun funtzionalak gaztelaniaz euskaraz baino errazago hitz egiten dutenak.

Hizkuntz gaitasunari dagokionean, Euskal Herriko biztanleak oro har hartuta, honakoak dira emaitzak:

— Erdaldun elebakarrak	%70
— Elebidun hartzaileak	%8
— Elebidun funtzionalak	%21
• Euskal elebidun funtzionalak	%35
• Elebidun funtzional orekatuak	%28
• Erdal elebidun funtzionalak	%38
— Euskaldun elebakarrak	%1

Biztanleak lan-arloen arabera bereiziz gero, datuak hauek dira, biztanle guztiak kontuan hartuta:

	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
<i>Elebitasun-mota</i>				
Euskaldun elebak.	1	0	0	0
Euskal eleb. funtz.	7	7	5	2
Eleb. funtz. orek.	6	5	7	6
Erdal eleb funtz.	8	8	11	11
Eleb. hartzailea	8	6	8	9
Erdaldun elebak.	70	73	70	72

Azpimarratzeko datuak:

- Ez dago euskaldun elebakarrik.
- Erdaldun elebakar gehienak industrian (%73) eta ondoren administrazioan (%72) daude.
- Elebidun funtzional gehienak zerbitzuetan (%23) daude.
- Euskal elebidun gutxi Administrazioan dago: %2.
- Elebidun hartzaileen portzentaia %9koa da Administrazioan, beste sektoreetako baino handixeagoa.

Datu hauek ikusita hasiera-hasieratik baieztatu daiteke egoera ez dela motibazio instrumentala motibazio indartsu izateko modukoa, ez oro har ezta lan-sektoreka hartuta ere. Erdaldun elebakarrak %70 diren bitartean euskaldun elebakarrik ez dagoela esan daiteke. Egoera honetan, euskaldun

guztiak elebidun direla kontuan hartuz, eta horri bi hizkuntzen arteko distantzia gehituz gero, nahikoa da euskaldunen artean erdaldun bat egotea (eta %70 izanik aukera asko daude horretarako), komunikazioa gaztelaniaz izateko. Erdaldun elebatarrek zona soziolinguistiko guztietan, edozein egoera formal zein informaletan eta edozein erabilera-eremutan erdaraz hitz egin dezakete.

Bestalde, kontuan izan behar da euskara jakin eta erabiltzeari dagokionean dagoen aldea. Jendeak dakiena baino gutxiago erabiltzen du (dela solaskideen artean erdaldunen bat edo erdaraz errazago hitz egiten duen norbait dagoelako, dela norberak erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duelako eta beraz, egoera formalagoetan edota etxeko girotik urrundu ahal gaztelaniaz hitz egiteko joera duelako, etabar).

Euskara, behar-behar ez da behar, beraz, euskara ikasi eta erabiltzeko motibazioak instrumentala baino, beste mota batekoa beharko du izan. Izan ere, lehen esan bezala, motibazio-mota honetan eraginik handiena duen faktorea, komunikazioa gauzatzeko hizkuntza beharrezkoa izatea baita. Eta argi dago hori ez dela gure egoera.

Dena den, egoera orokorra hori izanik ere, ikus dezagun jendeak ikasteko dituen arrazoiak, noiz eta nola erabiltzen duen, etabar. Litekeena baita batzuentzat motibazio hori euskara ikasteko eta erabiltzeko baliagarri izatea, edota zenbait ingurunetan motibazio-mota hori indartu ahal izatea.

Adibidez, enpresa batean euskararen erabilera areagotzeko plan baten inguruan, eta beraz, euskara erabiltzeko baldintza egokiak jarriz gero, euskaldunek gehiago erabiliko dute; erdaldunek erabiltzen dela ikusiz gero, ikasteko beharra somatuko dute; eta zer esanik ez, enpresara sartuko diren langile berriek, antolamendu osoan euskararen presentzia ikusita, ikasteko edota erabiltzeko beharra izango dutela.

Euskara ikasi eta erabiltzeko motibazio instrumentala beraz, eragin ere egin daiteke.

Esan bezala, ikus dezagun zenbatak ikasi duen euskara.

I.1. Euskara ikasi

Jendeak ikasteko izan dituen arrazoiekin hasi aurretik, biztanleen %69ak ez duela inoiz euskara ikasi ez hobetu esan behar da. Euskaldunen artean ikasi dutenak %50 dira eta erdaldunak %26.

Euskaldunen %14ak eta erdaldunen %8ak euskara eskolan ikasi du.

Askok dira eskolatik kanpo euskara ikasi eta hobetzeko ahalegina egin dutenak (%22). Portzentaia hori oraindik altuagoa da 25-34 adin-tartean (%35). Euskaldunen artean gutxien ikasi dutenak (%31) euskaldun elebidunak dira. Elebidun orekatuen portzentaia batezbesteko zenbatekoarekin bat dator (erdia). Gehien ikasi dutenak erdal elebidunak (%69) eta elebidun hartzaileak (%88) dira.

Ikasi dutenek eta elebitasun-motaren arabera sailkatuta, honela ikasi dute:

— Euskaldun elebakarra		%10
Nire kontura	%9	
Eskolan	%1	
— Euskaldun elebiduna		%31
Nire kontura	%16	
Eskolan	%10	
Ikastaroetan	%5	
— Elebidun orekatua		%49
Nire kontura	%24	
Eskolan	%14	
Ikastaroetan	%11	
— Erdal elebiduna		%69
Nire kontura	%19	
Eskolan	%17	
Ikastaroetan	%33	
— Elebidun hartzailea		%88
Nire kontura	%20	
Eskolan	%24	
Ikastaroetan	%44	
— Erdaldun elebakarra		%19
Nire kontura	%5	
Eskolan	%6	
Ikastaroetan	%8	

Datu hauek adierazten dutenez, euskaraz komunikatzeko gaitasun handiena dutenak dira euskara ikasteko ahalegin txikiena egin dutenak. Alde batetik egoera logikoa da baina alfabetatzearen hutsuneak ere agerian geratzen dira. Horren ondorio izan daiteke gai pertsonaletatik laneko gaietara edota egoera informaletatik egoera formaletara pasatzean hizkuntzaz aldatzeko joera.

Bestalde, erdal elebidun eta elebidun hartzaileen artean ikasi dutenek portzentaia handia hartzen dute; gainera talde antolatuetan (ikastaroetan) aritu dira nagusiki.

Ingurunea kontuan hartuz gero, honako joerak ikusten dira: Ingurune euskaldunenetan euskaldunak %80tik gora diren eskualdeetan) %31k ikasi du. Euskaldunak %45-79 diren eskualdeetan: %44. Euskaldunak %44-20 direnetan: %43. Eta euskaldunak %20 baino gutxiago direnetan %25. Beraz, ingurunea oso erdalduna denean eta oso euskalduna denean

jendeak gutxien ikasi ohi du. Tarteko inguruneetan %44 dira euskara ikasi dutenak.

Badirudi honen azpian euskara ikasteko beharra txikiagoa izatea dagoela, lehenengoen kasuan dakitenarekin nahikoa dela uste izateagatik eta bes-teen kasuan erabiltzen ez delako.

Adina kontuan hartuz gero, ikasi ez dutenen portzentaia adinarekin gora doa:

- 16-24: %61ak ikasi du (%37k eskolan).
- 25-34: %43ak ikasi du (%24k ikastaroetan).
- 35-49: %25ak ikasi du (%13k ikastaroetan).
- 50-64: %15ak ikasi du (%10k bere kontura).
- > 64: %11k ikasi du (%9k bere kontura).

Ikus daitekeenez, zenbat eta gazteago gehiago dira euskara ikasi dutenak. Ikasteko moduan ere badago alderik: 24 urtez beherakoek eskolan, 25-49 urteen artean ikastaroetan (bereziki 25-34 adin-taldeak) eta 50 urtez gorakoek artean gehiengo bere kontura ikasi dutenak dira.

Datu honek ere lantokietan euskararen erabilera areagotzeko planek justifikazioa badutela adierazten du. Eskoletan ikasi dutenek lantokietan erabiltzen ez dela somatuz gero, beren esfortzua alferrikakoa izan dela ikusiko dute eta ondoren datozenentzat eskolan ikasteko faktore desmotaibatzaile ere izatera irits daiteke.

Lan-esparrua kontuan hartuz

	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
Ez ikasi, ez hobetu	69	76	58	49
Gehienbat nire kontu	9	9	10	16
Eskolan	9	2	11	4
Ikastaroetan	13	13	21	31

Eskolatik kanpo ikasi dutenak %22 dira Industrian, %31 Zerbitzuetan eta %47 Administrazioan.

Administrazioan eta zerbitzuetan dagoen jendearen artean daude ikasi dutenen portzentaiarik handienak. Bietan ikastaroetan ikasi dutenak dira gehien: %31 administrazioan eta %21 zerbitzuetan; nahiz eta azken honetan, sektorean dagoen jende gaztearen adierazle duarik gabe, eskolan ikasi dutela %11k erantzuten du.

Beraz, gehiengo nabarmenak ez du inoiz euskara ez ikasi ezta dakitena hobetu ere. Baina ikus dezagun ondoren, ikasi dutenek zein izan duten hori egiteko arrazoa eta zergatik ez duten ikasi besteez.

I.2. Euskara ikasteko arrazoiak

Galdeketa zortzi *item* agertzen ziren eta euskara ikasteko horietatik zein izan zen arrazoi nagusia galdetzen zitzairen lehenengo. Ondoren bi arrazoi nagusiak adierazteko eskatzen zitzairen.

- GURE HIZKUNTZA DELAKO
- EUSKAL KULTURA INDARTZEKO
- EUSKARA DAKITENEKIN HARREMANAK IZATEKO
- LANERAKO BEHAR DUDALAKO
- SEME-ALABEKIN HITZ EGITEKO
- ETXEAN IKASARAZI DIDATELAKO
- GOGOAN NUELAKO/ *HOBBY*-A NUELAKO
- BESTE ARRAZOIREN BATENGATIK

Arrazoi horien artean motibazio instrumentala oinarrian duena lanerako behar izatea da. Hala ere, gure ustez, euskara dakitenekin harremanak izatearenak ere badu kutsu hori. Arrazoi honek badu alderdi integratiboa baina baita instrumentala ere. Bi arrazoi horiek elkarrekin agertzen dira beti. Bestalde, lan-munduaren ikuspegitik, eta bereziki zerbitzuen arloa eta administrazioarena kontuan hartuz gero, euskara dakitenekin harremanak izate horrek kutsu erabat instrumentala du; lan-eginkizunak ondo burutzearekin erabat erlazionaturik baitago edo egon beharko luke behintzat.

Euskara ikasteko arrazoi nagusia

	1. arrazoa	2. arrazoa
—Gure hizkuntza delako	%40	%56
—Euskal kultura indartzeko	%5	%28
—Euskara dakitenekin harremanak izateko	%10	%22
—Lanerako behar dudalako	%12	%20
—Seme-alabekin hitz egiteko	%6	%11
—Etxean ikasarazi didatelako	%4	%5
—Gogoa nuelako/ <i>hobby</i> -a nuelako	%14	%29
—Beste arrazoiaren batengatik	%7	%19
—Ed/ee	%2	%2

Ikasteko ahaleginik egin dutenek, euskara ikasteko arrazoi nagusiak honela mailakatu dituzte:

1. Gure hizkuntza delako
2. Gogoa nuelako/*hobby*-a nuelako
3. Lanerako behar dudalako
4. Euskara dakitenekin harremanak izateko

Euskara ikasteko bi arrazoi nagusiak honela mailakatu dituzte:

1. Gure hizkuntza delako
2. Gogoa nuelako/*hobby*-a nuelako
3. Euskal kultura indartzeko
4. Euskara dakitenekin harremanak izateko
5. Lanerako behar dudalako

Ikus daitekeenez **Lanerako behar dudalako** %12k erantzun du. Motibazio instrumentalarekin zerikusirik izan dezakeen beste arrazoia, **euskara dakitenekin harremanak izateko** alegia, %10ak erantzun du. Beste arrazoiekin alderatuz gero, portzentaia txikiak diren arren, abiapuntu bat badagoela esan daiteke.

Euskaldunen eta erdaldunen arteko arrazoiak bereiziz gero, logikoa denez, erdaldunen kasuan motibazio instrumentalarekin zerikusia duten bi arrazoiek euskaldunengan baino pisu handiagoa dute.

Elebitasun-mota aztertuz gero ere joera bera ikusten da, alegia, zenbat eta erdaldunago, bi horiei emandako pisua handiagoa dela.

Dena den, euskaldunentzat ere hirugarren tokia hartzen du lanerako behar izate horrek, baina beste arrazoiek baino pisu txikiagoa du.

Lan-esparruaren arabera

	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
— Gure hizkuntza delako	40	52	47	32
— Euskal kultura indartzeko	5	1	2	10
— Euskara dakitenekin harremanak izateko	10	11	8	7
— Lanerako behar dudalako	12	13	13	20
— Seme-alabekin hitz egiteko	6	2	8	5
— Etxean ikasarazi didatelako	4	2	2	5
— Gogoa nuelako/ <i>hobby</i> -a nuelako	14	12	14	18
— Beste arrazoiren batengatik	7	6	3	1
— Ed/ee	2	2	2	1

Arrazoi bakarra emateko esaten zaienean, esparru guztietan lehen arrazoia «Gure hizkuntza delako» da. Arrazoi honek pisurik txikiena Administrazioan du.

Bigarren tokian geratzen dena, berriz, aldatu egiten da, baina lanerako beharrak pisu handiagoa hartzen du. Industrian eta Zerbitzuetan %13 eta Administrazioan %20.

Azken datu hau azpimarragarria iruditzen zaigu; alegia Administrazioan lanerako behar izatea euskara ikasteko bigarren arrazoia da. Lehen ere ai-

patu dugun arren, gure ustez kontu handiz ibili beharko litzateke eta ikasitakoa erabiltzeko baldintzak ezarri beharko lirateke. Bestela, ahalegina ezerezean gera baitaiteke.

Bigarren arrazoia sartzean, gure hizkuntza izatea, gogoia eta euskal kultura indartzeko arrazoiak dira nagusi. Lanerako beharrak Administrazioan, eta Euskara dakitenekin harremanak izateko Zerbitzuetan pisu handiagoa hartzen dute. Industrian, berriz, motibazio instrumentalarekin erlazonaturiko bi arrazoiak atzerago gelditzen dira.

Ingurunea

«Lanerako behar dudalako» euskaldunak %45-80 artean direnean erantzun dute gehien (%18).

Sexua

Euskara ikasteko arrazoiaren artean ere badaude aldeak. Bietan «Gure hizkuntza delako» da arrazoi nagusia (emakumezkoetan portzentaia txikiagoan). Baina emakumezkoen artean bigarren arrazoia «Lanerako behar dudalako» den bitartean gizonezkoen artean arrazoi horrek 5. toki hartzen du (Horren aurretik daude gogoia, «Euskaraz dakitenekin harremanak izateko» eta «Beste arrazoiaren bat»).

Diferentzia hori, behar bada, bi kolektiboetan lan-mota desberdinek duten pisuan egon daiteke.

Adina

«Lanerako behar dudalako». Arrazoi hau indartsuen 25-34 adin tartean agertzen da. Eta bigarren arrazoia sartzean, 35 urtez beherakoetan indartu egiten da arrazoi hori.

Ondorengo atalean jendeak euskararik ez ikasteko eman dituen arrazoiak ikusiko ditugu.

I.3. Euskara ez ikasteko arrazoiak

Ez ikasteko arrazoiaren zerrenda hau eman zitzaien:

- INOIZ ERE PENTSATU EZ DUDALAKO
- EZ ZAIT INTERESATZEN
- EZ DUT BEHAR
- EZ DUT ASTIRIK
- AHALEGIN HANDIEGIA DA NIRETZAT

- HIZKUNTZAK IKASTEA ZAILA ZAIT
- BESTERIK UTZI BEHARKO NUKE
- ARRAZOI POLITIKOENGATIK
- OSO ZAILA DELAKO
- ZAHARREGIA NAIZ
- BESTE ARRAZOIENGATIK
- ED/EE

Emandako aukeren artean, arrazoi nagusiak

1. Inoiz ere pentsatu ez dudalako (%26)
2. Ez dut astirik (%22)
3. Zaharregia naizelako (%10)
4. Ez zait interesatzen, Ez dut behar, Oso zaila delako (%8)

Gainerakoak horien oso atzetik geratzen dira. Ez dira beraz, oso esanguratsuak.

Azpiparratzekoa ikastea inoiz ere pentsatu ez dutenek hartzen duten portzentaia, horrek adierazten duen guztiarekin; pentsatu ere ez izateak nolako beharra eta kezka dagoen adierazten baitu.

Euskaldunen artean «Inoiz ere pentsatu ez dudalako» (%30), «Ez dut astirik» (%23) eta «Ez dut behar» (%17) dira erantzun nagusiak. Erdaldunen artean, berriz, bi lehenengoen toki berdina hartzen dute («Inoiz ere pentsatu ez» (%26) eta «Ez dut astirik» (%22)); hirugarren tokian «Zaharregia naizelako» erantzun dute (%10).

«Ez dut behar», euskaldunen %17ak erantzun du (3. arrazoaia) eta eraldunen %7ak.

Lan-esparruka hartuta

- Industrian: 1. «Inoiz ere ez dut pentsatu» (%30), 2. «Ez dut astirik» (%25), 3. «Ez zait interesatzen» (%10).
- Zerbitzuetan: 1. «Ez dut astirik» (%34), 2. «Inoiz ere ez dut pentsatu» (%22), 3. «Ez dut behar» (%15).
- Administrazioan: 1. «Ez dut astirik» (%27), 2. «Inoiz ere ez dut pentsatu» (%18), 3. «Ez zait interesatzen» (%14).

Beraz, datuetatik ondorioztatzen denez, euskara lanerako behar dutela erantzun dutenak oso gutxi dira. Baina esan behar da motibazio instrumentala aldatu ere egin daitekeela edo eragin egin daitekeela: garai batean ikasi zutenek zergatik egin zuten eta orain zergatik ikasten den aztertuz gero, seguraski behar hori handixeagoa behintzat izango da orain. Hor dugu Administrazioaren datua: sektore horretan jende gehiagok adierazten du behar hori beste sektoreetan baino.

I.4. Enpresetako datu batzuk

Beste testuinguru batzuetan datuak bestelakoak izan daitezke. Galdeketa hau biztanleak oro hartuta egin da. Guk euskararen erabilera sustatzeko plan bat martxan jarri nahi zen enpresa bateko langileei antzeko galderak egin genizkien eta datuak baikorrakoak izan ziren.

Enpresa horretan, euskara lantzeko interesik bazuten ala ez jakin nahi izan genuen eta galdera hau egin zitzaion:

Ba al duzu zure euskara hobetzeko edo gehiago ikasteko interesik?

BAI	%67
EZ	%11
Segun eta zein baldintzatan	%21

Norbaitek pentsa dezake asmo onak egon egoten direla, baina aurrerago ikusiko dugunez, asmo horiek gauzatu ere egin direla ikusiko dugu.

Ezekoa erantzun zutenen batezbesteko adina 50 urtekoa zela azpimarratu nahi genuke.

Ondoren, baiezkoa ala baiezko baldintzatua eman zutenei horretarako zuten arrazoa zer nolakoa zen galdetu genien.

Zergatik edo zertarako ikasi nahi duzu euskara? (Inportanteena eta bigarrena aukeratu)

	1. arrazoa	2. arrazoa
— Gure hizkuntza delako	%60	%9
— Euskaldunekin harremanak eduki ahal izateko	%14	%9
— Nire seme-alabekin hitz egin ahal izateko	%2	%7
— Gizarteak baloratzen duelako	%0	%5
— Euskara arlo guztietan eta beraz, baita lanean ere, erabiltzea beharrezko ikusten dudalako	%16	%42
— Enpresak bultzatzen duelako	%0	%5
— Beste arrazoiaren batengatik	%2	%2
— Ez du erantzun	%5	%21

Oraingo datuak, orokorrekin alderatuz gero, (kontuan izan lagina eta inkesta desberdinak direla eta, beraz, alderaketak ezin duela zorrotza izan) lanerako beharrak oso gora egin duela ikusten da. Berriro ere erreplikatu dugu, beraz, behar horri sortzen edo azalartzen behintzat lagundu diezaiokeela.

1.5. Euskararen erabilerari buruzko datuak

Euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak aztertuko ditugu atal honetan, baina, orain arte egin bezala, lan-arlora mugatuko gara. Hauek dira aztertuko ditugun hiru faktoreak:

1. Harreman-sarea
2. Hitz egiteko erraztasuna
3. Erabilera

Norberaren harreman-sarrera

Familia, lagunartea eta lan-ingurunea alderatuz gero, honako joera ikusten da: Euskaldunentzat lan-mundua familia eta lagunartea baino erdaldunagoa dela eta erdaldunentzat lan-mundua familia eta lagunartea baino euskaldunxeagoa, edota zehatzago esanda, gutxiagok esaten dutela familian eta lagunartean ez bezala, lankideen artean inork edo ia inork ez dakiela euskara.

Ikuspuntu honetatik ere justifikatzen da lan-munduan euskararen erabilera areagotzeko plangintzak egitea. Euskaldunei lan-munduak euskara funtzio guztietarako erabiltzea eragozten die eta erdaldun batzuentzat hori da euskaldunekin duten harreman bakarretakoa.

Ikus dezagun **lan-ingurunea** nolakoa den:

A) *Biztanle guztiak kontuan harturik*

	Guztira	Eusk. > %80	Eusk. %45-79	Eusk. %20-44	Eusk. >%20
<i>Zenbatek daki lankideen artean</i>					
Denek edo ia denek	11	62	29	12	3
Erdiek baino gehiagok	7	13	21	10	3
Erdiek	13	14	21	30	8
Erdiek baino gutxiagok	20	7	16	24	21
Inork ez, ia inork ez	48	5	13	24	65

	Guztira	< 25	25-34	35-49	> 50
<i>Zenbatek daki lankideen artean</i>					
Denek edo ia denek	11	15	12	10	9
Erdiek baino gehiagok	7	3	5	10	7
Erdiek	13	13	16	12	12
Erdiek baino gutxiagok	20	16	18	22	22
Inork ez, ia inork ez	48	54	48	45	50

- Biztanle guztiak kontuan hartuta %11 dira lankide denek edo ia denek euskara dakitela diotenak. %31ak lankideen erdiek gutxienez badakitela diote. Gehiengoak, dituen lankideen artean inork edo ia inork ez daki.
- Sekzioen tipologia; Inguruko hiztun-dentsitatea eta lan-inguruneakoa bat datoz; zenbat eta erdaldunagoa, lan-ingurunea ere halakoa da.
- Adina: Gazteenek dute ingurune euskaldunena baina baita erdaldunena ere. Ondoren, erdaldunena, 50 urtetik gorakoena da.
- Elebitasun-mota kontuan hartuz gero, zenbat eta erdaldunago orduan eta lan-ingurune erdaldunagoa.
- Lurraldeka hartuta, Nafarroa Beherean dute lan-ingurune euskaldunena. Ondoren Gipuzkoan. Hemen langileen %64ak dio, erdiek gutxienez badakitela.
- Lan-esparruaren arabera hartuta, antzeko datuak ateratzen dira arlo guztietan: %31-32k gutxienez erdiek badakitela dio. Industrian erdiek baino gutxiagok dakitela diotenak gutxiago dira, baina ez dago alde nabarmenik. Aipatzekoa zerbitzuetan inork edo ia inork ez dakiela diotenak %51 direla.

	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
<i>Zenbatek daki lankideen artean</i>				
Denek edo ia denek	11	10	11	10
Erdiek baino gehiagok	7	9	6	8
Erdiek	13	13	14	14
Erdiek baino gutxiagok	20	21	18	29
Inork ez, ia inork ez	48	46	51	40

B) *Euskaldunak bakarrik kontuan hartuz gero*

	Guztira	Eusk. > %80	Eusk. %45-79	Eusk. %20-44	Eusk. > %20
<i>Zenbatek daki lankideen artean</i>					
Denek edo ia denek	36	61	33	29	19
Erdiek baino gehiagok	15	13	19	13	13
Erdiek	21	14	24	29	13
Erdiek baino gutxiagok	15	7	15	17	20
Inork ez, ia inork ez	14	5	9	12	3

	Guztira	< 25	25-34	35-49	> 50
<i>Zenbatak daki</i>					
<i>lankideen artean</i>					
Denek edo ia denek	36	44	37	33	35
Erdiek baino gehiagok	15	12	16	17	12
Erdiek	21	13	17	23	25
Erdiek baino gutxiagok	15	12	15	16	15
Inork ez, ia inork ez	14	19	15	11	12

- Euskaldunak bakarrik kontuan hartuta, %36 dira lankide denek edo ia denek euskara dakitela diotenak. %72ak dio, lankideen erdiek gutxienez badakitela.
- Ingurune euskaldunenetan (>%80) denek edo ia denek euskaraz dakitela diotenak %61 dira.
- Ingurune erdaldunenetan (>%20) oso gutxiak, %3ak, dio inork edo ia inork ez dakiela, baina %20ak dio erdiek baino gutxiagok dakitela.
- Adinari dagokionez, 25 urtez beherakoek dute ingurunerik euskaldunena, baina baita erdaldunena ere.
- Denek edo ia denek jakitearen portzentaia beherantz doa adina igo ahala; baina baita «Inork ez, ia inork ez» atalari dagokiona ere.

Euskaraz hitz egiteko erraztasuna

Hitz egin errazago	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
Erdaraz errazago	38	39	48	57
Bietan berdin	28	26	31	31
Euskaraz errazago	35	35	21	12

Erdaraz errazago egiten dutenak gehiengo dira hiru sektoreetan, baina bereziki Administrazioan eta Zerbitzuetan. Euskaraz errazago egiten dutenen portzentaiarik handiena Industrian dago, ia-ia erdaraz errazago egiten dutenekin parekatzen direlarik. Bestalde, euskaraz errazago egiten dutenak gehiago dira Zerbitzuetan Administrazioan baino.

Nolabait esateko, zerbitzuetan euskaldun gehiago dago, baina euskaldunek erabiltzeko erraztasun handiagoa dute industrian.

Erabilera lankideekin (Euskaldunak)

	Guztira	Eusk. > %80	Eusk. %45-79	Eusk. %20-44	Eusk. > %20
<i>Nola hitz egiten duzu</i>					
Beti euskaraz	26	51	22	16	15
Euskar. erd. baino gehiago	11	13	11	15	4
Erd. eusk. hainbat	24	18	27	30	19
Erd. eusk. baino gehiago	15	7	19	13	18
Beti erdaraz	24	11	20	25	45

	Guztira	< 25	25-34	35-49	> 50
<i>Nola hitz egiten duzu</i>					
Beti euskaraz	26	30	26	25	26
Euskar. erd. baino gehiago	11	18	10	8	15
Erd. eusk. hainbat	24	19	20	28	25
Erd. eusk. baino gehiago	15	8	16	17	13
Beti erdaraz	24	25	28	22	22

—Oro har hartuta, erabilera ezagutzaren azpitik dago eta normala denez, euskararen erabilera altuena ingurunerik euskaldunenetan ematen da.

—Adinaren araberako aldaketak ez dira oso esanguratsuak.

Erabilera lankideekin (Euskaldunak)

LANKIDEEN ARTEAN (DAKITE)

	Guztira	Denek ia denek	Erdiek baino gehi	Erdiek	Erdiek baino gut.	Inork ez ia nork ez
<i>Nola hitz egiten duzu</i>						
Beti euskaraz	26	69	6			
Euskar. erd. baino gehiago	11	13	35	5		
Erd. eusk. hainbat	24	9	37	70	6	
Erd. eusk. baino gehiago	15	5	15	14	50	4
Beti erdaraz	24	4	7	12	43	96

Erabilera lankideekin (Euskaldunak)

(DENEK EDO IA DENEK DAKITE)

	Guztira	< 25	25-34	35-49	> 50
<i>Nola hitz egiten duzu</i>					
Beti euskaraz	69	62	67	73	72
Euskar. erd. baino gehiago	13	25	12	8	17
Erd. eusk. hainbat	9	13	9	8	7
Erd. eusk. baino gehiago	5	0	8	4	3
Beti erdaraz	4	—	5	6	2

Erabilera lankideekin (Euskaldunak)

(DENEK EDO IA DENEK EZ DAKITE)

	Guztira	< 25	25-34	35-49	> 50
<i>Nola hitz egiten duzu</i>					
Beti euskaraz	1	4	1	1	1
Euskar. erd. baino gehiago	10	12	9	8	13
Erd. eusk. hainbat	33	25	27	37	35
Erd. eusk. baino gehiago	21	14	21	24	18
Beti erdaraz	36	45	41	30	33

Erabilera lankideekin (Euskaldunak)

(DENEK EDO IA DENEK DAKITE)

	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
<i>Nola hitz egiten duzu</i>				
Beti euskaraz	69	78	58	70
Euskar. erd. baino gehiago	13	11	23	5
Erd. eusk. hainbat	9	4	16	3
Erd. eusk. baino gehiago	5	4	1	17
Beti erdaraz	4	3	3	6

Erabilera lankideekin (Euskaldunak)

(DENEK EDO IA DENEK EZ DAKITE)

	Guztira	Industria	Zerbitzuak	Administrazioa
<i>Nola hitz egiten duzu</i>				
Beti euskaraz	1	1	3	3
Euskar. erd. baino gehiago	10	13	6	10
Erd. eusk. hainbat	33	32	37	30
Erd. eusk. baino gehiago	21	20	20	28
Beti erdaraz	36	34	34	29

Erabilera beti ezagutzaren azpitik dago: jakitea ez da nahikoa erabilera bermatzeko.

Lankideen artean denek edo ia denek euskara jakiteak ez du beti euskara erabiliko denik bermatzen (denek edo ia denek dakitenean %69 erabiltzen da lankideekin; %82 euskaraz gaztelaniaz baino gehiago).

Buruekin edo behekoekin erabilera jaitsi egiten da. (Egoera informalen pisua adieraziko luke honek).

Inkestatuek beren gaitetik daudenen artean, beren azpitik daudenen artean baino gehiagok dakitela diote. Nabarmena da desberdintasun hori EAEan. Euskaldunak bakarrik hartuz gero, ordea, antzekoak dira goikoek eta behekoek dakitena.

- Elebitasun-motak erlazio zuzena du erabilerarekin: lankideen artean denek edo ia denek dakitenean euskal elebidunek %90ean beti euskaraz egiten dutela erantzuten dute eta %7k euskaraz erdaraz baino gehiago.
- Inguruneak ere eragiten du. Zenbat eta erdaldunagoa, nahiz eta lankide denek edo ia denek jakin, erabilera beherantz doa. Arau horretatik kanpo geratzen dira Euskaldunak %20 baino gutxiago eta lankide denek edo ia denek dakitenean; kasu honetan erabilerak berriro ere gorantz egiten du.
- Lurraldeka hartuta, denek edo ia denek dakitenean erabilera-altuagoa da Nafarroan.
- Adina: Denek edo ia denek dakitenean lankideekin beti euskara erabiltzen dutenen portzentaia adinarekin jaitsi egiten da. Dena dela, beti erdaraz edo erdaraz euskaraz baino gehiago egiten dutenak ere gutxiago dira.

Erabilera giro formaletan (Euskaldunak)

	Guztira	E.A.E.	Nafarroa	Iparraldea
<i>Nola hitz egiten duzu</i>				
Udaletxean				
Beti euskaraz	41	46	32	15
Euskar. erd. baino gehiago	7	8	5	5
Erd. eusk. hainbat	11	11	9	11
Erd. eusk. baino gehiago	9	10	7	8
Beti erdaraz	32	26	47	60
Bankuan				
Beti euskaraz	37	43	31	6
Euskar. erd. baino gehiago	7	8	6	3
Erd. eusk. hainbat	12	12	6	16
Erd. eusk. baino gehiago	6	5	5	6
Beti erdaraz	38	32	52	69
Osasun-zerbitz.ko bul.				
Beti euskaraz	18	20	24	5
Euskar. erd. baino gehiago	4	4	2	1
Erd. eusk. hainbat	9	11	3	6
Erd. eusk. baino gehiago	9	10	7	8
Beti erdaraz	59	56	65	80

Zerbitzu-mota desberdinetan euskaldunok ditugun hizkuntz portae-rak alderatzerakoan zenbait datu nabarmen ikusten da. Esate baterako, osasun-zerbitzuetako bulegoetan euskara erabiltzeko ohitura edo aukera udaletxe eta bankuetan baino askoz ere beherago dagoela ikus daiteke. Tarte hori bereziki esanguratsua da Euskal Komunitate Autonomoan.

Euskaldunen artean beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago hitz egiten dutela aitortzen dutenen portzentaiekin alderatuz, langunekoa, udaletxe eta bankuetakoa baino baxuagoa eta osasun-zerbitzuetakoa baino altuagoa dela ikusi ahal izan dugu (gogoratu aurreko datuak).

Eta bukatzeko **euskararen egoerari buruzko pertzepzioaz** bi hitz.

Gehiengoak duela hamar urte baino gehiago hitz egiten dela dio.

Hemendik hamar urtera gaur baino euskara gehiago hitz egingo den galdetzean, (zertxobait edo askoz) gehiago egingo dela uste dutenak itxuragabe gehiago dira antzera edo gutxiago egingo dela esaten dutenak baino, edozein herrialdetan, edozein tipotako sektoretan. Hori berez ona da itxaropena eta fedea adierazten duen heinean, indar motibatzaile ere izan

daitekeelako. Berrogeita hamar urte barru denok euskara jakin beharko genukeelakoan konforme edo nahikoa konforme daudenak ere askoz gehiago dira kontra daudenak baino. Hori ere ona da. Haur guztiek euskara ikastea ezinbestekoa dela esatean ere adostasun handi samarra dago etabar.

Baina jarrerak garrantzitsuak izan arren, ez dute berehalako eragirik hizkuntz jokabideetan. Gehienak erabilera sustatzearen alde daude. Horrek bakarrik ordea ez dakar norbere hizkuntz jokabidearen aldaketarik.

Aldaketa horiek gertatzeko ikasi eta erabilera sustatzeko neurri efektiboak egon beharko dute.

I.6. Ondorioak

Laburpen gisa ondorengo puntuak aipatuko genituzke:

Egia da gaur egungo egoera ez dela motibazio instrumentala indartsua izateko modukoa, baina egia da ere, zenbait baldintzatan funtziona deza-keela euskara ikasi eta erabiltzeko, besterik ezean gainerako motibazioen indargarri gisa.

Ahalik eta jende gehien euskaldundu eta alfabetatzea da helburua. Euskaldundu eta alfabetatzeko jende asko dago oraindik. Jende guzti hori ez da modu masiboan euskalduntze-alfabetatzeko oraingo saioetara ekarriko. Aukera-dibertsifikazioak lagunduko du horretan. Enpresetako plan baten inguruan egindako saioa izan daiteke horietako bat. (Oraindik saioak mugatuak diren arren, dudarik gabe lagundu dute zenbait jenderen artean erabili eta ikasteko).

Bestalde, jakiteak ez du erabiliko denik esan nahi. Are gehiago datuek bi horien arteko aldea adierazten dute. Euskararen erabilera sustatzeko ahaleginak egin behar dira. Eta saio horien artean lan-inguruneak ere kontuan hartu beharko dira. Euskaldunei falta zaien eremua euskalduntzeko ahalegina izan daiteke eta erdaldun askorentzat, eguneroko bizitzan euskaldunekin duen harremanak bakarra. Langunea euskara erabiltzen den ingurune bihurtuz, euskara ikasteko pizgarri izan daiteke euskal hiztun ez diren horientzat.

Ondoren, lan-munduaren arloan euskara lantzeko egin ditugun saioen berri emango dizuegu, laneko euskara ikastaroetatik hasi eta erabilera helburu duten planekin jarraituz.

II. ATALA

ENPRESETAN EGINDAKO PROIEKTUAK

II.1 Euskararen normalizaziorantz lan-munduan egindako ibilbidea

Hasieran azaldu dugunez, gure lan eta proiektuen azken helburua euskararen normalizazioa da. Euskara ikasi eta erabiltzeko motibazioari buruzko hausnarketa hauek, normalizaziora hurbiltzeko egin beharreko bidean, ezinbesteko faktore delako egin ditugunak dira. Motibazioaren azterketa eta sustapena ez da izan, beraz, gure lanean ardatz, baina bai halabeharrez kontuan hartu beharreko alderdia.

Gure ibilbidea beti lan-munduari lotuta egon da, hau da, hiztunaren arlo profesionaleko beharrei lotuta. Laneko ingurunean murgilduta dabilen pertsonak euskara erabil dezan behar diren baldintzak gune jakin batean gauzatzea izan da gure proiektuen ikusmira.

Gure lehen esperientzia lan-munduko hizkuntz beharrekin, behar hori erreala eta oso zehatza zen arlo batetik etorri zitzaigun: euskarazko irakas-kuntzan ari ziren irakasleengandik, hain zuzen. Alfabetatze zientifikoa deitu genuen ikastaro-mota honek 1979an eman zituen lehen urratsak.

Ikastaro haiei honako helburua ezartzen zitzaien: beren ikasgaiak euskaraz adierazi behar zituzten zientzi eta teknika-gaietako irakasle euskaldunei laguntza eskaintzea, beren formazioa gaztelaniaz egina zutenaz, euskararen aldetik aurki zitzaketan oztopo nagusiak nola gainditu erakusten ahaleginduz. Beraz, euskara lanerako lanabes bilakatzea zen helburua.

Ezagutzara zuzendutako saiok dira hauek eta dudarik gabe, ikastaro haietako ikasleak instrumentalki ere motibatuak zeuden.

Gerora, irakaskuntzaz kanpoko beste arlo profesional batzuetara hedatzeko ahaleginak egiteko beharra ikusi zen, edozein jarduera-arlotan aurki baitzitezkeen perfil bereko langileak, hau da, euskal hiztunak izanik beren trebakuntza eta jarduera profesional osoa gaztelaniaz garatua zutenak. Ildo honetatik jarraituz, Aurrezki-Kutxetako, Administrazio Publiko-ko eta osasun-zerbitzuetako euskal langilegoaren trebakuntzara zuzendutako beste ikastaro berezitu batzuk antolatu ziren.

Esan dezagun, irakasleen kasuan ez bezala, arlo hauetan ez zegoela euskara erabiltzeko irakasleek zutenaren pareko beharrik eta motibazioaren alderdi instrumentala ia artifizialki sortua edo induzitua zela. Honek, hala ere, ez zuen ikastaroan zehar euskararen eskurapenean arrakasta oztopatzen, baina gerora sekulako eragina zuen, ez erabiltzearen ondorioz, eskuratutako trebetasunak epe laburrean galtzea oso erraz gertatzen baitzen.

Ikastaro hauen diseinua ikasleen premien analisitik abiatzen da, baina gero hizkuntz forma konkretu batzuen erabileran eta trebetasun batzuen lanketan gauzatzen da. Beharrak ezagutzeko elkarriketa egiten zaie ikasle guztiei.

Elkarrizketaren helbururik nagusia ikaslearen premiei eta neurri batean asmoei edo ikastaroarekiko dituen espektatibei antzematea da.

Guretzat garrantzi handia du ikastaroaren abiapuntua elkarrizketa hauetan jartzeak; ikasketariak hasiera beretik ikusten du bere burua prozesu horretan inplikatu eta gure iritziz hauxe da ikasketari izango direnak motibatzeke gure aldetik dugun tresnarik baliagarriena. Egia da, normalean, badagoela aurretik euskara ikastearen aldeko jarrera generiko bat. Lanerako helburuak argi ez izan arren, «euskara ikastea beti ondo dago» erako adierazpen batetik abiatzen da normalean ikastaro hauetarako izena ematen duen langileak. Generikotasun horretatik ikastaro jakin horretako helburuekin inplikatuzera pasatzeko tresna baliagarria da elkarrizketa hori.

Alderdi profesionalak kontuan hartzea bera izan daiteke motibazioaren bultzagarri. Gure esperientzian oinarrituz, hauxe esan dezakegu: bizitza sozialeko beste arloak kontuan hartuz alfabetatzeko motibaziorik sentitu ez duen zenbait pertsonak, bere jarduera profesionalak beretzat duen garrantzia dela eta, askoz ere motibazio sendoagoa du bere lanaren inguruan alfabetatzeko. Pertsona horiek, seguruen, ez lirateke bestela alfabetatze-prozesuan murgilduko, ez baitute horretarako motibaziorik.

Euskararen egoeran, langileen trebakuntza bakarrik planteatzeak zituene mugak ere ikusi genituen. Ikastaroetatik pasatzen diren langile askok beren laneko ohizko egoeratan euskara erabiltzeko behar duten maila eskuratzen dute. Alabaina, frogatuta dago, ikastaro hauetatik iragandako langileen portzentaia gutxienekoa ez den lantegietan ere, euskararen erabilera efektiboa nabarmenki gehitzeko, beste era askotako eragozpenak daudela.

Organizazioa da beraz kontuan hartu behar duguna; organizazioan parte hartzen duten agente guztiak aldi berean eragin behar dira hizkuntza-erabilera aldaketa efektibora heltzeko.

Euskararen erabilera enpresan, enpresako beste gaiak lantzen diren bide beretik eramatea esan nahi du honek, marketing-a, produkzioa, etabar hartzen diren bezalaxe. Enpresaren funtzio bakoitza planifikatzen, burutzen eta kontrolatzen den era berean egin nahi izango dugu euskararen erabilera planaren gestioarekin ere. Planteamendu honek enpresa-mundura gerturatu eta bertako kulturatik hurbil dauden tresna eta jardunbideak erabiltzera behartzen gaitu.

II.2. Euskararen erabilera areagotzeko enpresetako mikroplangintzak

Gure ibilbidea horixe izan da gaur egun esku artean ditugun lan-munduko erabilera plangintzetara heldu arte. Gure esperientziatik atera ditugun ondorioak bezain baliagarri izan zaizkigu arlo honetan beste lurralde

batzuetan enpresa-munduan egiten ari ziren esperientziak ere ezagutzea. Québec-eko «Office de la Langue Française, Direction des Programmes de Francisation» erakundetik eskuratutako dokumentazioa esate baterako, abiatzeko urratsetan oso baliagarri gertatu zitzaigun. Bestalde, proiektu hauen garapenean Elhuyar Kultur Elkarteak egindako lana, HPINarekin egindako hitzarmen baten babesari esker burutu ahal izan dugula azaldu behar dugu.

Enpresetako mikroplangintza hauen helburua enpresan euskararen erabilera sustatzea da; bai enpresa barneko harremanetan, baita kanpokoetan ere. Enpresa aztertu eta abiapuntua zein den ezagutu ondoren, eta beti ere erabilera-terminotan definiturik, helburuak mailakatu eta epe labur, ertain eta luzean lortzeko modukoak izan daitezkeen helmugak jartzen dira. Alegia, helburu orokor hori lortu arte emaitzak izateko itxaron gabe, epe laburragoan atzemangarriago diren helburu zehatzagoak definitzen dira. Helburuak ez dira euskara ikastea, itzulpenak egitea, informatika ekipamendua egokitzea, etabar izango. Horiek, helburua (euskara gehiago erabiltzea, alegia) lortzeko bitarteko baino ez dira eta hori lortzeko beharrezko diren neurrian erabiliko dira.

Plan hauen metodologia azaltzen hasi aurretik, oinarrian dituzten irizpideak aipatuko ditugu:

- Jartzen diren **helburuak erabilerari buruzkoak** dira; ez ezagutzari buruzkoak.
- Planaren **oinarrian euskaldunak daude** eta horiek ahal den neurrian beren euskara erabil dezaten bidea erraztu nahi da. Euskaraz ez dakiteneke, alde guztietan gehixeago erabiltzen dela igarritz gero, ikastearen aldeko arrazoi gehiago edukiko dute.
- Enpresa osoa hartzen da kontuan**; hau da, ez da lanpostu, eginkizun edo atalik aztertu gabe uzten; guztiak hartzen dira kontuan. Lehenago ere aipatu dugun bezala, enpresak antolamendu bakar bat osatzen du eta hori osotasunean hartu behar da.
- Enpresaren azterketaren ondorioz identifikatu diren eginkizun, barne- eta kanpo-dokumentu, harreman-mota eta -guneak **orokorretik partikularrera, errazenetik zailenera eta maiztasunaren arabera** sailkatzen dira eta horren arabera egiten da azpigelburuen mugaketa.
- Enpresako kide guztien arteko adostasuna** ezinbestekoa da. Hizkuntza bat ala bestea erabiltzeari buruzko erabakiak eta honelako plana martxan jartzeak enpresako partaide bakoitzaren onarpena eta guztien adostasuna eskatzen du. Ezin du langileen edo zuzendari-tzaren alde bateko erabakia izan. Ezin du, langileei goitik ezarritako proiektua izan; ezta langileek beren borondate hutsez egingo duten zerbait ere. Enpresako partaide guztien ahaleginak helburu hori lortzera bideratu behar dira. Planaren arrakasta bermatu nahi bada,

- guztiek hartu behar dute bere gain proiektuaren garapena eta guztien onarpena eta inplikazioa eskatzen du.
- **Informazioaren garrantzia** prozesu osoan zehar. Enpresako agente desberdinen eta norbanako bakoitzaren borondatea eta adostasuna irabazteko planari buruzko informazioa etengabe landu behar da. Langileek informazioa eskuratu eta iritziak emateko biderik badute sentsibilizatu, motibatu eta konpromezu iraunkorra hartzeko gai izango dira.
 - Planek kasu guztietan **enpresari egokituak** izan behar dute. Jardunbide eta irizpideak aurrez ezarritakoak izango dira, baina enpresa bakoitzaren kasuan egoeraren azterketa eta diagnostiko osoa egingo da planaren alderdi guztiak enpresaren baldintzei, alde batetik, eta ohitura eta kulturari, bestetik, ahalik eta estuen lotzeko.

Mikroplangintzaren ibilbide orokorra

Ondorengo urratsak burutzen ditugu plan bakoitza gauzatzeko:

1. Plangintzaren aurkezpena

Lehen urratsa enpresako zuzendaritzari eta plana martxan jartzeko eragile izan den enpresako alderdiari plana aurkeztea izaten da. Hauengandik plangintzarekiko oniritzia jasoz gero, zuzendaritzak bideragarritasuna aztertzeke datu-bilketarako adostasuna agertu beharko du.

2. Bideragarritasuna

Plana bera egiten hasi aurretik enpresa osoaren aurreazterketa egiten da. Honen helburua, enpresaren gaur eguneko egoera ikusita horrelako plan bat egitea bideragarri den aztertzea izaten da. Batzuetan, ordea, beste helburu bat ere izaten du. Enpresaren tamaina oso handia denean, planean enpresa osoa ala gune jakin batetik hasi eta gerora horko esperientzia beste gune batzuetara hedatzea komeni den ondorioztatzeko ere balio izaten du.

Bideragarritasuna baloratzeko honako irizpide hauek hartzen dira kontuan nagusiki:

1. Enpresaren tamaina. Jarduera-arloa eta egoera orokorra. Eta oro har, enpresaren ezaugarri orokorrak.
2. Langileen batezbesteko adina. 40-45 urtetik beheragoko langileen portzentaia. Uste izatekoa baita plantila zenbat eta gazteagoa izan ohiturak aldatzeko malgutasun handiagoa izango duela. Baita errazago ikasiko duela ere.

3. Euskaldunen portzentaia plantilan, jabetzan, zuzendaritzan eta enpresako beste agenteen artean. Eta euskaldunen portzentaia enpresaren atal edo sekzioetan banatuta.
4. Enpresa kokatua dagoen udalerriko edo eskualdeko euskaldun-portzentaia.
5. Hornitzaile eta bezeroen jatorria. Euskal Herrikoak direnen proportzioa.
6. Euskara eta planarekiko jarrera plantilan, zuzendaritzan, jabetzan eta enpresako beste agenteen artean.

Horren arabera, esan bezala, plangintza martxan jar daitekeen ala ez, edota zein muga izan ditzakeen aurrizkusten da.

3. Plangintzaren aurkezpen zabala

Plangintzari bideragarri iritzi bazaio, plangintzaren aurkezpena, enpresako agente guztiei egiten zaie, hau da, enpresa bakoitzaren ohituren eta antolamenduaren arabera, zuzendaritza, langileria, enpresa-batzorde, euskara-batzorde, etabarri. Plangintzaren aurkezpenak helburuak, jardunbidea eta ekintza posibleak jasotzen ditu. Enpresaren berezitasunen arabera, helburu, jardunbide zein ekintzek egokitzapenak izan ditzaketela jakinarazi egiten zaie.

Aurkezpena egin zaien agenteek beren adostasuna agertu beharko dute ondorengo urratsari ekiteko. Guztiek ados egon behar baitute plana bideratzeko.

4. Planaren diseinua

Plana diseinatu aurretik enpresa aztertzen da. Esan bezala planak enpresa bakoitzerako egokitua izan behar baitu. Nagusiki bi eratako datuak biltzen dira: batetik, enpresa eta bere antolamenduari buruzkoak eta bestetik langileen banakako datuak banakako inkesta bidez jasotzen direnak. Labur esanda honako datuak bilduko dira bi iturri horietatik:

Enpresaren azterketa

Bideragarritasuna aztertzeko egindako datu-bilketa orokorraz gain, enpresaren arlo, departamentu edo sekzio bakoitzeko datuak bilduko dira, lan-prozedurak, dokumentu-zirkuituak, lan-eginkizunak, lexiko berezitua, etabar jasotzeko. Plana garatzeko beharrezkoa den informazioa bildu nahi da urrats honetan.

- Organigrama funtzionala
- Lanpostuen deskribapenak

- Lan-prozedurak (zirkuituak, arduradunak)
- Dokumentuak (zirkuituak, iturriak)
- Hornitzaile eta bezeriaren jatorria eta ezaugarriak
- Erakunde publiko eta finantz erakundeekiko harremanak
- Harremanak dituzten kanpoko gainerako erakundeei buruzko datuak
- Langileen trebakuntza profesionalerako erabiltzen diren bideak
- Ordurarte, hizkuntz normalizazioaren alorrean burututako plan eta jarduerak
- etab...

Banakako inkesta

Inkesta hau enpresako langile guztiak erantzun beharrekoa izaten da. Inkestaren helburua euskararen ezagutza, erabilera eta planarekiko jarrerari buruzko datu pertsonalizatuak biltzea da. Bideragarritasun-txostenerako bilketan ez bezala, orain langile bakoitzak bere egoera eta iritzia agertzeko aukera izaten du.

Datu guzti horietan oinarrituz eta beharrezko azterketak egin ondoren, plana diseinatu eta hori jasotzen duen txostena egiten da. Orokorrean definitutako helburu eta ekintzak enpresaren beharretara egokitzen dira.

Planak helburuak, horiek lortzeko bitartekoak eta epeak zehazten ditu:

A) Helburu zehatzak

Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planaren azken helburuak honakoak dira:

- I. Barne-harremanak euskalduntzea: • Euskara lan-hizkuntza izatea, alegia.
- II. Kanpo-harremanak euskalduntzea: • Euskararen erabilera sistematikoki garatzea.

Alabaina, helburu nagusi horiek lortu bitartean denbora luzea pasatuko dela uste izatekoa denez, helburu horiek azpichelburutan xehekatzen dira; lortutakoa ondorengo urratsak emateko bultzagarri izango delarik. Azpichelburu hauek eginkizun zehatzetan euskararen erabilera zer-nolakoa izango den deskribatuz definitzen dira. Eginkizun horiek orokorretik partikularrera, errazenetik zailenera eta maiztasunaren arabera mailakatzen dira oinarritzko mailako plan hauetan orokor, erraz eta maiztasun handienekoak hartzen direlarik.

Esan beharra dago bestalde, hemen definitzen ditugun helburu hauek orientabideak baino ez direla izaten; azpichelburu horiek langileek eurek zehazten baitituzte ondoren ikusiko dugun bezala. Lan honetan langileek

berek esku hartzea oso garrantzintsua da langileen motibazio eta atxekimendurako tresna gertatzen delako.

B) Helburuak lortzeko baliabideak

Helburu horiek lortzeko alde batetik langileek beren lana euskaraz egin ahal izateko trebatu egin beharko dute eta bestetik, baliabide materialak eskuerara jarri beharko zaizkie.

a) Pertsonalari dagozkion baliabideak:

a) Kontratazio berrietarako eta barne-promoziorako irizpideak

Oro har, enpresa, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza izan dadin ahalegintzen ari dela kontuan izanik, etorkizunean langile berriak kontratatzerakoan eta barne-promozioetan, baldintza berdinetan, euskaldunei lehentasuna emateko irizpidea jasotzen da txostenean.

b) Langilegoaren euskarazko trebakuntza

Langileek trebatu egin beharko dute bere lanpostuan behar duten gaitasuna eskuratzeko. Trebatzeko ondorengo bideak proposatzen dira:

— Eskolak

— Komunikazio-zirkuluak

Eskolak

Eskolen bidea, euskaraz ez dakitenentzat eta baita lanpostuko eginkizunak direla eta, alfabetatu beharra duten langileentzat ere erabiltzen da.

Ikastaroak antolatzerakoan, ikasleak enpresa jakin batzuetako langileak direla oso kontuan hartuko da. Euskalduntzearen lehen urratsetan programek ez dute zertan desberdin izan behar. Halako urratsetik aurrera bai ordea; ikastaroen errentabilitatea optimizatzeko langilearen hizkuntz beharretara egokitu beharko dute programetako edukiek. Gainera, ahal dela, eskolak lantokian eta enpresako langilez osaturik antolatuko dira, eskoletako lan-jardunek enpresetako giroa simulatuko dute, ariketak enpresetako egoeretan erabili ahal izateko modukoak izango dira, etabar.

Komunikazio-zirkuluak

Kalitate-zirkuluen paralelismoagatik eman zaie izen hori saio hauei. Enpresaren antolakuntzan txertatzen diren kalitate-zirkulu hauen filosofiaren arabera, egiten den lana kantitatez eta kalitatez hobetzeko eta lan-prozedurazko arazoak konpontzeko langi-

leek berek eman dezakete hainbat irtenbide, azken finean be-
raiek baitira beren lana ondoen ezagutzen dutenak. Hori lor-
tzeko, antzeko zereginetan diharduten langileak talde txikitan
bildu, dituzten eginkizunei buruzko arazoak identifikatu, aztertu
eta horiek konpontzeko bideak proposatzen dituzte. Zuzendari-
tzak proposamen horiek aztertu eta bideragarri direla ikusiz
gero, martxan jartzen dira enpresan.

Komunikazio-zirkuluak euskararen erabilera areagotzeko
plangintzetan erabiltzeko tresnak dira; kalitate-zirkulu bir-
moldatuak edo haietan nolabait oinarrituak direla esan gene-
zake.

Esan, bestalde, komunikazio-zirkuluak direla plangintza ho-
nen euskarririk funtsezkoenak, bereziki motibazioa lantzeari da-
gokionean; horiek ondo antolatu eta bideratzea ezinbestekoa da
plangintza behar bezala burutuko dela bermatzeko.

Komunikazio-zirkuluen bidea, euskaldunentzat aurrikusita
dago; bertan trebatzen dira bere lan-eginkizunak euskaraz bu-
rutzeko. Erdaldunak euskaraz komunikatzeko gutxienezko mai-
la lortutakoan sartzen dira talde hauetara, taldeek euskara hutsez
funtzionatzen baitute.

Gero azalduko zaizkizue komunikazio-zirkuluen helburuak,
funtzionamendua, etabar, baina bi hitzetan horrelako saioak zer-
gatik planteatu genituen adieraziko dugu. Lehenengo enpresa
osoak planean parte hartzea bilatzen zen. Bestetik, kontuan har-
tu behar da, orain arte industrian ibili garela eta enpresa hauetan
langile-multzo handi bat eskulangileak direnez, lan-eginkizunek
eskatzen dizkieten hizkuntz beharrak oso mugatuak dira; ezin
zen eta gainera ez zen beharrezkoa alfabetzatze-prozesu luzetan
jende hau abiaraztea. Beren lan-eginkizunak euskaraz egiteko
trebatzea, eta ez beste, da helburua. Arrazoi horietan oinarritu
ginen saio hauek antolatzeke.

b) **Baliabide materialei dagozkien neurriak**

Ezarritako helburuak lortzeko oztopoak kendu eta euskaraz bu-
rutu behar diren eginkizunetarako langileak baliabide materialak
prest izan ditzan honako arlo hauek aztertuko dira.

a) Terminologi azterketa eta zerrendak

Enpresak garatzen dituen jardueretan erabiltzen den termi-
nologia hustu, euskaraz eman eta ondoren langilegoari ezaguta-
raziko zaio.

Terminologiari dagokionean, bi multzo egin daitezke enpre-
sa guztietan. Alde batetik, jarduera generikoen terminologia
dago (administrazio, pertsonal, etabarrekkoa) eta bestetik jardue-

ra espezifikoa. Azken hauei dagokiena izaten da nagusiki lan-
du beharrekoa.

Trebakuntza saioetan ezagutarazten zaie terminologia hori
langileei.

b) Agirien prestakuntza (diseinatu eta euskaratu)

Langileek ahalik eta erosoan erabil ditzaten diseinatu behar
dira agiriak. Horretarako biderik egokiena, diseinua euskaraz
egin eta ondoren gaztelaniara itzultzea da.

c) Itzulpengintza

Plangintza martxan jarri eta langileak euskaraz egiteko tre-
batzen ari diren bitartean, ezinbestekoa izan daiteke batzuetan
itzulpenaren bidea. Gerora ere, lanpostu batzuetan euskaraz ez
dakiten langileak dauden tamainan eta hauen produkzio idatziak
zabalkundea badu, itzulpenak egin beharko dira. Hala ere ez da
bultzatzen dena euskaraz egotea, gaitasuna duenak euskaraz
egitea baizik eta gaitasun hori handiagotzen joatea langile ba-
koitzarengan eta hartutako guneko osoarentzat.

Beraz, itzulpengintza behin-behineko irtenbide soil gisa
planteatzen da.

d) Errotulazioa

Errotulazioa berritzen joan ahala, euskara hutsez jartzea izat-
en da irizpidea, ahal denean eta beharrezkoa izanez gero, irudi
eta grafikoak erabiliz.

e) Informatika-ekipamendua

Programak euskaraz erabiltzeko moduan jarri behar dira.
Irizpidea, dena den, horretarako gaitasuna duten edo trebatzen
ari diren langileek lanerako behar dituzten tresnak euskaraz izat-
tea izango da. Ez da, beraz, alferrikako bikoizketarik egingo,
baina langileen beharrak aurrikusiz, programak euskaraz era-
biltzeko moduan jarriko dira.

f) Formazio-ikastaroak

Formazio-ikastaroak antolatzean hizkuntzaren alderdia oso
kontuan hartuko da. Irizpidea, langile euskaldunei trebakuntza
profesionala euskaraz hartzeko aukera eskaintzea izango da.

5. Planaren aurkezpena. Plan adostua. Konpromezuak

Planerako egindako diseinuaren aurkezpena enpresako alderdi guztiei
egiten zaie. Planaren puntuz puntuko azalpena egiten da helburuak, bitar-
tekoak eta epeak zehaztuz.

Alderdi guztiek planaren edozein punturi buruzko kritikak eta bestela-
ko ekarpenak azaltzeko aukera izaten dute. Iritzi guztiak bilduz, planaren
egokitzapen posibleak aztertzen dira eta jasotako oharrik kontuan hartuz,
plana birdefinitzen da.

Plan adostuak zuzendaritzari eta langile bakoitzari eskatzen dizkion erantzukizunetarako konpromezua esplizituki hartu beharko da.

6. Inplementazioa

Inplementazioa adostutako planaren araberakoa izaten da, implementazioaren ardura planean bertan definitzen delarik.

7. Ebaluazioa

Bukaerako ebaluazioaz gain, lan-taldeak seihilero ebaluazio-txostena egiten du planaren garapena aztertuz. Txosten honetan, plan adostuaren arabera seihilero burutu behar diren urratsen ebaluazioa egiten da, desbideraketarik egonez gero, egokitzapenak proposatuz.

II.3. Enpresetan egindako inkestetako datuak

Planaren diseinua azaldu dugun atalean aipatu dugu plana garatu behar duen enpresako langile guztiei inkesta pertsonal bat ere egiten zaiela. Inkesta honek ezagutza eta erabilerari buruzko datuak jasotzeaz gain euskarari buruzko iritziak ere jasotzen ditu.

Datu hauen bidez hauxe bildu nahi da: bertako langileek planari buruz orokorrean, eta ondoren, planak kontuan har ditzakeen hainbat alderdi zehatzetan euskara sartzearen aurrean zer nolako jarrera hartzen duten. Ezinbestekotzat jotzen dugu aldeko aurriritziak dituen giza taldea izatea planak arrakasta izan dezan.

Bi galdera ditu atal honek; lehenengo galderan planarekiko iritzi orokorra eskatzen zaie, lau esapideren artean aukeratuz.

Zer iritzi duzu zure enpresan euskararen erabilera bultzatzeko asmoari buruz?

Denbora eta dirua alferrik galtzea da
Ez dit axola; ez da nire arazoa
Ondo, baina pixkanaka eta oso kontuz
Gutziz beharrezkoa dela iruditzen zait

Bigarrenean, esku artean ditugun planetan ikutzekoak liratekeen alderdi guztiak jaso nahi dituen hainbat puntu aipatzen dira langileak oso positibotik negatiboraino balora ditzan. Era honetan, planak landu ditzakeen alderdi desberdinen aurrean langileek dituzten aurriritziak ezagutu ahal izango ditugu.

Enpresan euskara gehiago erabiltzeko plangintzan zein izango litzateke zure ustez hurrengo puntuek izango luketen balorazioa?

1. Laneko hitzak euskaraz nola diren ikastea
2. Euskaraz ulertzen ez duten langileak ikasten hastea
3. Enpresako euskaldunek euskaraz irakurri eta idazten ikastea
4. Euskaldunez osatutako sekzio edo zirkuituak osatzea
5. Talde sindikalek euskara erabiltzea agiri eta bileretan
6. Enpresako dokumentu, ohar eta paperak euskaraz ere egotea
7. Lanerako behar ditugun ordenadore programak, eskuliburuak etabar, euskaraz ere edukitzea
8. Laneko bileretan euskara erabiltzea edo erabiltzen hastea
9. Euskaldunen artean beti euskara erabiltzea, bai ahoz eta bai idatziz
10. Zuzendaritzak eta goi-mailetakoek euskara gehiago erabiltzea
11. Enpresako trebakuntza profesionala eta erreziklaje-ikastaroak euskaraz ere izatea
12. Kontratazio berrietan euskara baloratzea
13. Enpresa barruko promozioetan euskara kontuan hartzea

Erantzun posibleak, «oso konforme», «nahikoa konforme», «ez alde eta ez kontra», «nahikoa kontra», «guztiz kontra» eta «ez daki/ez du erantzun» dira. Puntu horietakoren batean kontrako sentsibilitate berezia agertzen bada, alderdi hori planean ez sartzea edo helburuak apaltzea da atera behar den ondorioa.

Ikus ditzagun orain planaren diseinua egin den hiru enpresa desberdinetan lortu diren emaitzak.

A enpresa, Gipuzkoan, euskaldunak %60-80 bitartean dauden eskualde batean kokatuta dago. 97 langile ditu eta euskaldunen proportzioa plantilan %65ekoa da eta batezbesteko adina 35 urtekoa. Euskal Herriko bezeria negozio-bolumenaren %12ra besterik ez da heltzen eta hornitzaileen artean %80 dira Euskal Herrikoak.

Honela erantzun zieten galdera hauei enpresa honetako langileek.

Zer iritzi duzu zure enpresan euskararen erabilera bultzatzeko asmoari buruz?

Denbora eta dirua alferrik galtzea da	0	%0
Ez dit axola; ez da nire arazoa	0	%0
Ondo, baina pixkanaka eta oso kontuz	52	%54
Guztiz beharrezkoa dela iruditzen zait	45	%46

Ondorengo galderako erantzunak argiago ikusteko alde batetik «oso konforme» eta «nahikoa konforme» eta bestetik «nahikoa kontra» eta «guztiz kontra» elkartu egin ditugu portzentaia bakar batean.

	Konforme	Ez alde ez kontra	Kontra	Ed./Ee.
1. Laneko hitzak euskaraz nola diren ikastea	%86	%8	%3	%3
2. Euskararik ulertzen ez duten langileek ikasten hastea	%77	%15	%1	%6
3. Enpresako euskaldunek euskaraz irakurri eta idazten ikastea	%88	%7	%0	%5
4. Euskaldunez osatutako sekzio edo zirkuituak osatzea	%21	%19	%53	%8
5. Talde sindikalek euskara erabiltzea agiri eta bileretan	%68	%23	%4	%5
6. Enpresako dokumentu, ohar eta paperak euskaraz ere egotea	%87	%7	%0	%6
7. Lanerako behar ditugun ordenadore programak, eskuliburuak etabar euskaraz ere edukitzea	%77	%13	%2	%7
8. Laneko bileretan euskaraerabiltzea edo erabiltzen hastea	%85	%7	%3	%5
9. Euskaldunen artean beti euskaraerabiltzea, bai ahoz eta bai idatziz	%86	%8	%0	%6
10. Zuzendaritzak eta goi-mailetakoek euskara gehiago erabiltzea	%67	%20	%2	%11
11. Trebakuntza profesionala eta birziklaia-ikastaroak euskaraz ere izatea	%66	%21	%6	%7
12. Kontratazio berrietan euskara baloratzea	%58	%27	%9	%6
13. Enpresa barruko promozioetan euskara kontuan hartzea	%59	%24	%9	%8

Kontrako iritzi garbia jaso duen puntu bakarra euskaldunez osatutako sekzio edo zirkuituak osatzeari buruzkoa da. Nabarmena da adierazpen honen inguruan sentsibilitate berezia agertu dutena langileek.

Kontratazio eta promozioetan euskara baloratzearen puntua ere aipatzeak merezi du. Aldekotasuna azaldu bada hemen ere, beste adierazpenek baino neurri txikiagoan lortu du, ez alde eta ez kontra daudenen proportzioa kontuan hartzekoa izanik.

B enpresa ere Gipuzkoan kokatua dago, euskaldunek %50a justu gainditzen duten eskualde batean. 259 langileren inkestak bildu genituen. Hauen artean %55 dira euskaldunak eta batezbesteko adina 36 urtekoa da. Bezero eta hornitzaileen artean Euskal Herrikoek ez dute pisurik, nahiz eta inguruko tailer askorekin harremanak izan.

Hauek izan dira enpresa honetan jasotako erantzunak.

Zer iritzi duzu zure enpresan euskararen erabilera bultzatzeko asmoari buruz?

Denbora eta dirua alferrik galtzea da	0	%0
Ez dit axola; ez da nire arazoa	3	%1,16
Ondo, baina pixkanaka eta oso kontuz	126	%48,65
Guztiz beharrezkoa dela iruditzen zait	124	%47,87
Ez du erantzun	6	%2,32

	Konforme	Ez alde ez kontra	Kontra	Ed./Ee.
1. Laneko hitzak euskaraz nola diren ikastea	%82	%10	%0	%7
2. Euskaraz ulertzen ez duten langileak ikasten hastea	%74	%17	%1	%8
3. Enpresako euskaldunek euskarazirakurri eta idazten ikastea	%74	%16	%0	%10
4. Euskaraz lan egingo duten zirkuituak pixkanaka osatzen joatea	%65	%18	%5	%12
5. Talde sindikalek euskara erabiltzea agiri eta bileretan	%64	%24	%3	%9
6. Enpresako dokumentu, ohar eta paperak euskaraz ere egotea	%77	%12	%2	%9
7. Lanerako behar ditugun ordenadore programak, eskuliburuak etabar euskaraz ere edukitzea	%64	%23	%1	%12
8. Laneko bileretan euskara erabiltzea edo erabiltzen hastea	%72	%16	%3	%9
9. Euskaldunen artean beti euskara erabiltzea, bai ahoz eta bai idatziz	%78	%11	%2	%8
10. Zuzendaritzak eta goi-mailetakoek euskara gehiago erabiltzea	%64	%25	%0	%10
11. Trebakuntza profesionala eta birziklaia-ikastaroak euskaraz ere izatea	%70	%18	%3	%8
12. Kontratazio berrietan euskara baloratzea	%42	%25	%20	%13
13. Enpresa barruko promozioetan euskara kontuan hartzea	%47	%24	%20	%10

Kontuan hartzeko moduko kontrako iritzia izan duten bi atal agertu dira: 12. *Kontratazio berrietan euskara baloratzea* eta 13. *Enpresa barruko promozioetan euskara kontuan hartzea*. Bietan datuak oso antzekoak dira eta aldeko iritzirik agertzen ez dutenak erdiak baino gehiago dira bi kasuetan.

Gainerako atal edo baieztapenek onarpen zabala izan dute.

C enpresa ere Gipuzkoan kokatua dago euskaldunak %78 diren udalerrri batean. Enpresa kooperatiboa da (A eta B enpresak aldiz, sozietate anoni-
moak dira). Bere merkatuan, berriro ere, Euskal Herriak ez du pisu handirik
(ikusten dugunez ezaugarri hau amankomuna da hiru enpresetan). Horni-
tzaileen artean, aldiz, %75 Euskal Herrikoak dira. Langileak 118 dira, eus-
kaldunak %87 eta batezbesteko adina 41 urte.

Hauek izan dira kooperatiba honetan jasotako erantzunak.

*Zer iritzi duzu zure enpresan euskararen erabilera bultzatzeko
asmoari buruz?*

Denbora eta dirua alferrik galtzea da	1	%1
Ez dit axola; ez da nire arazoa	1	%1
Ondo, baina pixkanaka eta oso kontuz	78	%66
Gutziz beharrezkoa dela iruditzen zait	31	%26
Ez du erantzun	7	%6

	Konforme	Ez alde ez kontra	Kontra	Ed./Ee.
1. Laneko hitzak euskaraz nola diren ikastea	%75	%11	%1	%13
2. Euskararik ulertzen ez duten langileek ikasten hastea	%66	%20	%3	%11
3. Enpresako euskaldunek euskaraz irakurri eta idazten ikastea	%67	%20	%2	%11
4. Euskaraz lan egingo duten zirkuituak pixkanaka osatzen joatea	%61	%25	%0	%14
5. Kontseilu sozialeko gaietan euskara erabiltzea agiri eta bileretan	%54	%28	%5	%13
6. Enpresako dokumentu, ohar eta paperak euskaraz ere egotea	%63	%23	%4	%10
7. Lanerako behar ditugun ordenadore programak, eskuliburuak etabar euskaraz ere edukitzea	%40	%37	%7	%16
8. Laneko bileretan euskara erabiltzea edo erabiltzen hastea	%65	%19	%4	%11
9. Euskaldunen artean beti euskara erabiltzea, bai ahoz eta bai idatziz	%62	%21	%5	%12
10. Zuzendaritzak eta goi-mailetakoek euskara gehiago erabiltzea	%63	%25	%2	%11
11. Trebakuntza profesionala eta birziklaia-ikastaroak euskaraz ere izatea	%47	%31	%3	%18
12. Kontratazio berrietan euskara baloratzea	%58	%19	%8	%15
13. Enpresa barruko promozioetan euskara kontuan hartzea	%44	%30	%7	%19

Azpimarratzekoa ez alde ez kontra eta erantzun ez dutenen portzentaien baturek adierazten duten kopuru handia; langileen herena-erdia birtartean dagoelarik. Plana martxan jartzean kontuan hartu beharko da egoera hau eta ebaluazioaren garaian indar handiagoz abiatu diren enpresetako emaitzekin alderatu, faktore honen eragina zenbatekoa izan den ezagutzeko.

Datu hauek argi azaltzen dute enpresa hauetako langileen jarrera oso aldekoa edo aldekoa dela eta jarrera hau guztiz beharrezkotzat jotzen dugu plana arrakastatsua izan dadin.

Ukituko dugun azken gaia komunikazio-zirkuluena izango da. Mikroplangintza hauetan duten garrantziagatik eta motibazioa lantzeko tresna moduan planteatu ditugulako aztertuko ditugu, orain, xeheago .

II.4. Komunikazio-zirkuluak

Diseinuaren lanketan aritzean sortutako kezketako bat diseinuak markatutako helburuak langileei nola transmititu izan zen. Langileei helburu horiek ezagutarazteaz gain, planak iraungo zuen hiru urteetan zehar helburuen jarraipena egin, sortutako oztopoak gainditzeko bideak bilatu eta planak eskatzen duen esfortzuari eusteko motibazioa lantzeko bidearen bila ibili ginen. Bestalde, jakin bagenekien ezagutzen genituen tresnak (adibidez, euskarako klaseak eman eta bertatik egin planaren jarraipena eta behar zen motibazio-lana, edota bileretan edo asanbladetan langileak biltzea) ez zirela oso egokiak. Gainera, posible bazen, enpresaren kulturatik ahalik eta gertuen zegoen tresnaren bat erabili nahi genuen.

Kalitate-zirkuluak ezagutzeko aukera izan genuen orduan. Labur bada ere, kalitate-zirkuluen nondik-norako batzuk azaltzen saiatuko gara.

Enpresan gestio-modu berriak erabiltzeko haizeekin batera datorren tresna bat da. Partizipazioa aipatzen da, ez da hierarkia bertikal hutsa ikusten etorkizuneko enpresa arrakastatsuetan. Orain produkzioan ez du garrantzia kopuruak bakarrik, kalitatea ere oso kontuan hartzekoa da; eta are gehiago ez produktu burutuaren kalitatea bakarrik, baizik eta enpresaren jardueran «kalitate totala» bilatuko da. Horretarako, enpresako partaide guztiak inplikatu behar dira, guztiak motibatu kalitatearen lorpenaren atzetik.

Giro horren barruan sortu ziren kalitate-zirkuluak.

Honela deskribatuko ditugu kalitate-zirkuluak: langile-talde finko eta txikiak dira, antzeko eginkizunak dituzten langilez osatutakoak, elkarrekin bilduta eta teknika jakin batzuk erabiliz, bere lanpostuetako arazoak identifikatu, aztertu eta irtenbidea bilatzen saiatuko diren taldeak, hain zuzen.

Definizio honetatik ondoriozta daiteke dagoeneko euskararen erabilera arduratzen den plan baten gestiorako modu horretako talde batzuk antolatzeak izan ditzakeen abantailak.

Horrez gain, kalitate-zirkuluek ere badute gure komunikazio-zirkuluen kasurako oso interesgarria iruditzen zaigun beste alderdi bat. Kalitate-zirkuluak enpresako zuzendaritzaren oniritzi osoarekin antolatzen dira eta zuzendaritzak oso konpromezu zehatzak ditu zirkulu horietako lanen aurrean. Laburtuz, esan dezagun kalitate-zirkuluak gai bat landu eta horren inguruko arazoak ebazteko irtenbide arrazoitu bat aurkezten diola zuzendaritzari txosten batean. Zuzendaritzak epe labur bat du bertan planteatutakoari erantzuna emateko, baiezkoa ala ezezkoa, eta ezezkoa bada arrazoitua eta zirkuluko kideen aurrean defendatu behar duena.

Era horretako mekanismoren bat martxan jarriz gero, gure planaren garapenean gerta zitekeen beste arrisku bat saihesteko bidea ikusi genuen. Arriskua hauxe da: zuzendaritzak plana onartu, oniritzia eman, baina gero, horren aplikazioan langileek esfortzua egin arren, zuzendaritzak erantzukizunik hartu ez eta berriro ere trebakuntza besterik egiten ez zen garaian bezala langileak bere burua bakarrik ikustea. Kalitate-zirkuluetan bezala, langileek euskara erabiltzeko zailtasunak non dauden identifikatu, egoera hori aldatzeko irtenbidea bilatu eta horretarako trebatzeaz gain, puntu hori proiektu moduan aurkezten badio zuzendaritzari eta honek epe jakin batean erantzun arrazoitu bat emateko erantzukizuna hartzen badu, enpresaren alderdi guztiak ondo uztartzen dituen tresna bat izan dezakegu esku artean.

Honela sortu zen gure artean komunikazio-zirkuluetarako ideia, ondoren pixka bat xeheago azaltzen saiatuko garena.

Komunikazio-zirkuluak, beraz, enpresan euskararen erabilera areagotzeko plangintzaren talde eragileak izango dira, planaren garapenean enpresa osoaren partaidetza bermatzeko xedearekin sortuak. Plangintzaren helburuak gauzatzeko ekintzak identifikatu, aztertu, garatu eta kontrolatuko dituzte eta horrez gain, helburu horiek gauzatzeko trebakuntzagune ere izango dira.

Ikus dezagun zeintzuk diren **komunikazio-zirkuluei esleitu dizkiegun helburuak**

- Euskararen erabileraren eragile enpresa osoa izatea. Langileek plangintzan aktiboki parte hartzea.
- Proiektuaren garapenean zuzeneko partaidetza izanik, proiektuarekin identifikatu eta motibatzea.
- Gune ohitura-sortzaile izatea, harremanen hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko gune alegia.
- Trebakuntza. Hizkuntz eredia sortzea. Hizkuntzari dagokionean, lan behar izango dituzten tresnak eskaintzea.
- Harremanetako hizkuntza-ohiturak aldatzeak sor ditzakeen arazoak ebazteko proposamenak egitea eta arazorik egon ez dadin saiatzea.

Laburbilduz, proiektuan **parte hartzea, motibazioa eta trebakuntza** dira saio hauen helburuak.

Komunikazio-zirkulua langile euskaldunez osatuko da, partaideak finkoak izango dira eta ahal dela lan- edo jarduera-esparru bereko lagileak izango dira. Gainera, borondatezkoa izango da bertan parte hartzea, baina behin baiezkoa emanaz gero, jarraipena eskatuko da. Komeni da ahalik eta lan-eginkizunik antzekoenak dituzten langilez osatuta egotea, bertan egin behar duten lana asko errazten baitu horrela izateak.

Landuko diren gaiak beti plangintzarekin eta euskarazko trebakuntzarekin zerikusia dutenak izango dira. Ez da laneko arazorik edo euskarari buruzko beste gogoetarik egingo zirkuluetan. Laneko komunikazio-egoelek markatuko dute saio hauen ardatza, beraz horiek identifikatu, aztertu eta horiek burutzeko trebatu behar dira zirkuluetako kideak.

Zirkuluak martxan jartzeko komunikazio-zirkuluak zer diren, zein helburu dituzten, nola funtzionatuko duten, etabar argi azaltzea izango da lehen urratsa. Garrantzi handia du fase hau ondo burutzeak, jendeak ez baitu jakingo komunikazio-zirkuluan parte hartzeak zer suposatuko duen eta hori argi izatea ezinbestekoa da jendeari inplikatzeko eskatu aurretik.

Bilerak gela egokitan egin behar dira: mahai, aulki, arbel eta, oro har, langileek behar dituzten tresna guztiez hornituta.

Komunikazio-zirkuluen lehen saioetan, laneko komunikazio-egoera posible guztien zerrenda egingo da. Horretarako ideia-jasa (*brainstorming*) erako teknika erabiliko da.

Garrantzi handia du hasierako lan hau zirkulukideek egiteak eta ez monitoreak. Azkartasunak eta itxurazko eraginkortasunak baino garrantzi handiagoa du langileek plangintzan parte hartzeak eta baita helburuak ezartzerakoan inplikaturik egoteak ere.

«Ideia-jasa» teknika erabiliz lan-eginkizunen zerrenda egingo da. Bururatutako lan-eginkizun guztiak zerrendatuko dira. Ez da garrantzitsuenak aurkitzen ibiliko, botatuko guztiak apuntatuko dira.

Ondorengo saio batean ekintza horiek aukeratu egingo dira, desegokiak direnak baztertuz. Geratzen direnak ordenatu egingo dira, lehen ere aipatu ditugun irizpide hauek erabiliz:

- Errazenetik zailenera
- Eraginkortasuna
- Orokorretik partikularrera

Beti ere helburu lorgarriak izan behar dute.

Behar den denbora guztia hartuko da urrats hau burutzeko. Izan ere, ekintza-bateria hori izango baita komunikazio-zirkuluen ardatza. Zerrenda horrek kide guztien adostasuna izango du.

Zerrenda hori Zuzendaritzari aurkeztuko zaio onartu edota derizkion iradokizunak egin ditzan. Epe bat jarri beharko da erantzuteko zirkuluetan etenik gerta ez dadin.

Guzti hori zehaztu ondoren, lehenengo ekintza hautatuko da. Jo dezagun langileek egunero betetzen duten lan-orria dela. Ekintza horren inguruko egoera deskribatuko da honako hauek kontuan izanik:

- Ekintza hori martxan jartzeak izango duen eragina detektatu (beste sailik ukitzen duen, zirkuituak identifikatu, etabar).
- Aurrez prestatu beharreko euskarririk badagoen (inprimakiren bat, euskarri informatikoa, etabar).
- Ekintza horren inguruko terminologiaren bilketa egin eta euskarazko baliokideak bilatu.
- Eta, oro har, ekintza hori garatzeko beharko diren baliabideak eta aurrikus daitezkeen arazoak aztertu.

Horrez gain, etapak, datak eta kontrolak ezarriko dira ekintza hori burutzeko.

Guzti horrekin proiektu bat aurkeztuko zaio Zuzendaritzari. Honek oniritzia eman ondoren lan-eginkizun horretan trebatuko dira zirkuluko kideak.

Trebatzeko, ariketa egokiak prestatuko dira, adibidez, terminologia lantzekoak edo egoerak simulatuz etabar.

Langileak eginkizun horretan trebatu ondoren, ekintza martxan jarriko da. Denbora tarte bat utziko da horiek egiten ikasteko eta ondoren balorazio bat egingo da. Helburua oraindik ez dela lortu ikusiz gero, epea luzatu egingo da, beharrezko laguntzak emanez. Ekintza bati dagokionean jarritako helburuak lortu bitartean horretara mugatuko da. Lortutzat jotzen bada, hurrengo lan-eginkizuna hartuko da.

Egiteko gehiago ikusten ez denean bukatu egingo da komunikazio-zirkuluen lana.

Eta saioa bukatzeko mikroplangintza hauen balorazio antzeko bat egingo dugu zer suposa dezaketen argiago ikusteko. Balorazioa egiteko, tamalez, enpresa bakar baten ebaluazioaz hitz egin dezakegu. A izendatu dugun enpresa da orain arteko lanetan plangintza egikaritzeko urratsera heldu den bakarra. Beste bi enpresetan plana martxan dago, baina oraindik goiz da balorazioak egiteko.

A enpresako planaren datuak besterik ez ditugu azalduko beraz. Aurretik ohartxo bat. A enpresa aurkeztu eta bertako langileen jarreraren datuak eman ditugunean 97 langile direla aipatu dugu. Orain kopuru hori askoz ere handiagoa da beste bi enpresa txikiago ere elkartu direlako plangintza horretan eta enpresa hau ere hazi delako. Orain 180 langile daude enpresa horien plantiletan. Planean inplikatu ez diren langileak 28 dira, plantilaren %15a. Klaseak hartzen 54, hau da %30a ari da (alfabetatzen 24 eta euskalduntzen 30). Komunikazio-zirkuluetan 94 langile, %52, aritu dira, nahiz eta plan osoan zehar guztiak ez aritu.

Komunikazio-zirkuluetan burutu diren proiektuak guztira 42 dira.

Ohizko dokumentu erraz eta errepikakorrek enpresako barne- eta kanpo-harremanetan euskaraz erabiltzea izango zela helburua esan dugu. Al-

derdi honetatik esan dezagun era honetako dokumentu guztiak, eguneroko lan-orriak, oharak, mantenimenduko orriak, etiketak, nominak, irteera-orriak adibidez —gauza konkretu batzuk aipatzeagatik—, dagoeneko euskaraz erabiltzen direla komunikazio-zirkulu eta euskalduntze-prozesuan inplikatu diren langile guztien aldetik. Plana hasi aurretik bakarren batek besterik ez zuen euskara erabiltzen inprimaki hauetan.

Ahozkoari dagokionez, aurreko erabilera sendotzeaz gain, euskara ikasten ari diren eta euskaldun berri direnekin ere erabiltzea da orain duten erronka berria. Ez gara agian gu izango plan hori txalotzeko pertsonarik egokienak parte interesatu ere bagaren neurrian, baina esan, behintzat esan nahi dizuegu bertako monitore, koordinatzaile eta irakasleak eta dudarik gabe enpresa horretako langileak egiten ari diren lan, esfortzu eta emaitzek txunditu egin gaituztela. Plana diseinatzen aritu ginenon espektatibak gainditu ere gainditu egin dituzte.

Gaia laburbiltzeko bi puntu azpimarratuko ditugu.

1. Lan-munduko mikroplangintza hauek euskararen arloan oso ahula den motibazio instrumentala sortzeko baliagarriak dira gure ustez.
2. Enpresa-mailako mikroplangintzen baitan motibazioa lantzeko ondorengo alderdiak aipatuko genituzke.
 - Enpresa eta langile jakin batzuetara egokitzea esku artean dugun plana.
 - Informazioa. Planari eta lorpenei buruzko informazioa urrats guztietan transmititzea.
 - Arrakasta. Helburuak mailakatu eskuragarriak izan daitezen eta lorpen horrek sortzen duen motibazioa aprobetxatu ondorengo urratsa planteatzeko.
 - Komunikazio-zirkuluak motibazioa lantzeko tresnatzat har daitezke.

EUSKARA INSTITUTA

Pedagogia

«Euskararen aldeko motibazioak» gaia Euskal Herriko Unibertsitateak antolaturiko XIII. Ikastaroetako aztergaia izan zen, 1994an, «Europako VI. Ikastaroak» zeritzuzen barnean.

Unibertsitateko hainbat irakaslek eta euskararen normalkuntza sustatzen ibili izan den beste hainbat adituk egindako azkerlanak izan ziren jardunaldi haietako solasgaia.

Gizabanakoaren psikologiatik, eta batez ere taldeetatik eta, oro har, gizartetik ikertu nahi izan dira motibazio euskaltzaleak, hemen: Zergatik ari da euskaltzalegoa euskara defendatu eta sustatzen?

Galdera horri erantzuteko bildu dira liburuko testu hauek.